EUSKALTZAINDIAREN GOMENDIOAK ETA ERABAKIAK

EUSKALTZAINBURUAREN OHARRA

Berriro ere hemen duzu, irakurle, Euskaltzaindiak azken bolada honetan onartu dituen gomendioen bilduma. Ez ditugu hemen jarriko lehenbiziko liburuxkan (*Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak-1*) esaten genituen berba berak. Esan dezagun, hala ere, gomendio hauek erabaki bihurtzeko bilkura berezi eta ireki bat eginen dela. Bitartean, hor daude, eztabaida luzeen fruitu.

Bada hemen, dena dela, aipamena merezi duen txosten bat: *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera.* Txosten hori guztiz laburturik ageri da ondoko orrialdeetan, Euskaltzaindiaren gomendioa bilduz bere laburrean. Baina beste lan zabal baten fruitu da. Lan hori ere argitaratzear da Euskaltzaindia eta ahalik eta lasterren plazan egonen da, nahi duenak ikus dezan.

Egiteko oharrik baldin baduzu, hemen esaten denarekin bat ez bazatoz, zure ustez gai bakoitzari legokiokeen erabakiak beste bideren bat hartu beharko balu, baduzu astia 1992ko azaroraino ohar horiek idatziz Euskaltzaindira igortzeko. Prozedura, esan bezala, ez baita hemen bukatzen: *gomendio* hauek *behin-behinekoak* dira. Beste hitzetan esateko: Euskaltzaindiari gomendio hauek kontuan hartzea gustatuko litzaioke, bidezkoenak ikusten dituelako. Baina puntu hauek *erabaki* bihurtuko dira (Euskaltzaindiak orain proposatzen duen bidetik nahiz egokiago gerta daitekeen beste batetik) 1994ean egingo duen *batzar ireki* batean. Baina bitartean gai hauetan interesaturik egon litezkeen guztien iritziak jaso nahi lituzke Euskaltzaindiak.

Jean Haritschelhar
(1992ko ekainaren 27a)

I

Baitu / bait-du / bait du

Bait partikula (*beit* zuberoeraz, testu zaharrenetan izan ezik) aditz laguntzailearen edo trinkoaren aurre aurrean kokatzen da. Iparraldeko tradizioan eta Hegoaldeko Nafarroako testuetan, zenbait salbuespen baztergarri alde batera utzirik, aditzari atxikirik agertzen da beti, lehenengo testuetatik gaurdaino.

Sartaldean, *bait* gutxiago erabiltzen da, baina asko ohizkoa da XVIII. mendeaz gero literatur gipuzkeran eta mende honetako zenbait idazle bizkaitarrengan; *bai* aldaera batez ere mende honen lehen erdian erabili zen, mendebalean noski.

Mendebaleko testu zaharretan *bait* atxikirik agertzen da Mendiburu eta Ubillosengan, baina marratxoz loturik Iturriagarengan eta berezirik Iztuetarengan. Dena dela *bait* atxikirirk agertzen duten agerraldiak nagusi dira, alde handiz XIX. mendearen bigarren erdialdean. Mende honetan ere 1900-1970 epean *bait* atxikia da sartaldean gehien erabiltzen dena: ***Orotariko Euskal Hiztegia***-ko datuetan, 1900-1950 epean, *bait* atxikiaren 653 agerraldi daude, 10 *bait* bereziarenak eta 34 *bait* marratxodunarenak, eta 1950az geroko testuetan, 1161 *bait* atxikiarenak, 390 *bait* marratxodunarenak eta 93 *bait* bereziarenak. Ikusten denez, *bait* berex idaztea guztiz berria da (azken 25 urteotako kontua batez ere) eta Hegoaldeari soilik dagokiona. Gainera, idazkera berri horrek ez du usadio zaharra baztertu Hegoaldean, *bait* atxikia ere ikusten baita, batez ere ereduzko idazleen artean.

Bestalde, *bait*-en erabil moldea ezin da parekatu ezezko esaldietako *ez* partikularenarekin: *ez* berex XVIII. mendearen erdialdeaz gero aurkitzen da Iparraldeko nahiz Hegoaldeko testuetan, eta erabat ohizkoa da XIX. mendearen bukaerarako.

Bait atxikirik idazteari hainbatek ikusten dion eragozpenik larriena, aditzari lotzean gertatzen diren letra ezabatzeak edo aldaketak dira. Baina lotura legeok aski errazak dira: *baitu, baikara, bainaiz, baihaiz, bailuke, baitzuen, baitabiltza, baitator, baitoaz, baikentozke, baikintuen, bainator,*

bainenbilen, baihaiz, baihintzen, bailetorke, bailitzateke, e.a. Literatur tradizioko usadioa ez da ezin aldatuzko legea, baina tradizioko batasuna hausteko arrazoiek pisuzkoak izan behar dute, kalteak onurak baino handiagoak izan baitaitezke bestela. Hortaz, Euskaltzaindiak hau gomendatzen du: *bait* partikula, kasu guztietan, aditzari atxikia idatz dadila.

Bibliografia: ***Orotariko Euskal Hiztegia*** s.v. *bait.*

(Euskaltzaindiak 1992ko maiatzaren 29an onartua)

II

Aurrealde / aurrekalde, Atzealde / atzekalde ...

Era honetako lehen hitzak Axularrengan agertzen dira, *aitzin alde, gibel alde, gainalde* eta *barrenalde* hain zuzen. Harrezkero *aitzinalde* eta *gibelalde* aski ohizkoak dira literatur tradizioan eta ildo beretik *aurrealde* (Lardizabal, Sorora, D. Agirre ...), *atzealde* (Iztueta, Lardizabal, Uriarte...), *azpialde* (Duvoisin, Txirrita ...), *barnealde* (Iraizoz ...), *barrenalde* (Pouvreau, Arrue ...), *barrualde* (D. Agirre, Azkue ...), *behealde* (Agirre Asteasukoa, Iztueta, Apaolaza ...), *gainalde* (Mendiburu, Duvoisin ...), *goialde* (Cardaberaz, Iztueta, Arrese Beitia ...), *kanpoalde* (Duvoisin, Uriarte, J. Etxepare, Etxeita ...), e.a.

Mende honen erdialdera edo, **k**-dun formak (*barrukalde, atzekalde...*) hasi ziren Hegoaldeko euskara idatzian agertzen, *barruko alde, atzeko alde* esapideen b atze baten ondorioz. Joera hau asko hedatu da azken urteotan, nahiz eta tradizioko formak ez diren desagertu, batez ere idazle ereduzkoen artetik.

Hortaz, Euskaltzaindiak gogorarazten du, euskara idatzian, *aurrekalde, atzekalde, barrukalde, gainekalde, azpikalde, goikalde, behekalde, kanpokalde* bezalako forma berri eta batasun hausleak ez direla egokiak euskara batuan, eta hau gomendatzen du: erabil daitezela, oraintsu arte bezala, esapide osoak –*aurreko alde, atzeko alde, atzeko alde, barruko alde, gaineko alde, azpiko alde, goiko alde, beheko alde, kanpoko alde* e.a.– edota forma atzikidun jatorrak –*aurrealde, atzealde, barrualde, gainalde, azpialde, goialde, behealde, kanpoalde* e.a.

Honek ez du esan nahi horretarako tradizio mintzatua dagoenean *aurreko alde, atzeko alde* formak *aurrekalde* eta *atzekalde* ebakitzea gaitzesten denik.

Bibliografia: ***Orotariko Euskal Hiztegia*** s.v. *aitzinalde, atzealde, aurralde, azpialde, barnealde, barrenalde, barrualde, behealde.*

(Euskaltzaindiak 1992ko maiatzaren 29an onartua)

III

Arazi / erazi

Aditz "erazleak" edo "arazleak" eratzeko, euskaraz *arazi / erazi / erazo / arazo* aldaeretan agertzen den hitzaz baliatzen gara. Hitz hau dagokion aditzaren ondo ondoan doa perpausan, eta delako aditzaren erroa da berez agertzen dena. Horretaz bestalde *eragin* ere badugu, euskalki guztietan *egin*-en bidez eratzen diren aditzen "erazle" gertatzen dena, eta, bizkaieraz batez ere, gainerako aditzekin ere erabiltzen dena.

Arazi / erazi / erazo / arazo aldaerak horrela banatzen dira euskalkien arabera: zuberoeraz (eta Detxepare eta Leizarragagan) beti, salbuespenik gabe, *erazi* agertzen da; lapurtarrek (Materre, Etxeberri Ziburukoa eta Axularrenganik hasita gaurdaino) eta behenafartarrek, beti, salbuespenik gabe hauek ere, *arazi* erabiltzen dute. Amikutze aldeko idazle bakanak dira zalantzak agertzen dituzten bakarrak. Antza denez, Baztango eta goi nafarrerazko testuetan ere *arazi* da erabiltzen dena.

Mendebaleko idazleengan, berriz, nahasiagoak agertzen dira gauzak. Gipuzkeraz, hainbat autore klasikok *erazi* erabiltzen dute, bakanen batek *arazi,* zenbaitek *azi* eta gehienek *erazo,* Lardizabal eta Agirre Asteasukoa horien artean. Bestalde Mendiburu eta Ubillos-ek bederen *ar erazi* baina *asmarazi* idazten dute. Mende honetako autoreengan (1970 arte) horiek guztiok ikusten dira, eta aldaketa nabariena *arazi* aldaeraren agerraldien gehitzea bide da. Bizkaieraz *erazo* da alde handiz, forma nagusia. Aldaera horien aldean *arazo, azi* e.a. askozaz gutxiago erabili izan dira, antza denez.

Batasun prozesuak ekarri duen aldakuntza nagusia, *erazo, arazo* eta *azi* aldaeren desagertzea izan bide da: hurbilketa gisa, ***Maiztasun Hiztegia***-n ez dago *erazo*-ren agerraldirik eta erakusgarri berean *arazo*-renak bi dira, *arazi*-renak 164 (59 Iparraldekoak) *eta erazi*-renak 134, denak, bat izan ezik Hegoaldekoak. Ikusten denez batasunaren prozesuak ez du *arazi* eta *erazi*-ren arteko hautaketa bideratu: Iparraldeak *arazi* soilik erabiltzeari eusten dio, eta Hegoaldean bi aldaeren arteko zalantzak (askotan autore bat beraren baitan) bere hartan diraute. Bestalde azken urteotan, zuberotarrak, *Herria* aldizkarian bederen, *arazi* erabiltzen hasi dira *erazi*-ren ordez.

Euskaltzaindiak gomendio bat eman zuen *arazi / erazi*-ri buruz, 1971ko abuztuaren 4eko batzarrean onartua eta urte bereko ***Euskera***-n 158 orrian argitaratua izan zena. Horrela dio gomendioak:

4. *"Arazi" / "Erazi".* Hitz honekin gertatzen diren kasu bereziak kontuan hartuz, honako bide hauek proposatzen dira:

a) *Arazi* nahiz *Erazi*-ren aurreko aditza osorik dagoenean, orduan hobe da biak aparte jartzea. Adibidez: *iraun arazi (erazi), eman arazi (erazi), hil arazi (erazi).*

b) *Arazi* nahiz *erazi*-ren aurreko aditza mozturik badago, eta, R letrarekin bukatuz, T bat hartzen ez badu, orduan hobe da biak aparte idaztea. Adibidez: *eror arazi (erazi), har arazi (erazi), isur arazi (erazi), sar arazi (erazi), sor arazi (erazi).* Baina *sortarazi, sorterazi.*

d) *Arazi*-ren aurreko aditza mozturik badago eta A bokalarekin bukatzen baldin bada, loturik idatziko da, A biekin bat eginik. Adibidez: *aldarazi, benedikarazi, jokarazi, koordinarazi, obligarazi, sozializarazi, trabailarazi, ukarazi.*

Berdin egingo da, aurreko aditza, A bokalarekin bukatu ez arren, laburra baldin bada edo T bat hartzen badu. Adibidez: *Adiarazi, ezagutarazi, galarazi, geldiarazi, helarazi.* Baina: *nabarmen arazi, ihardets arazi, iharros arazi.*

e) *Erazi*-ren aurreko aditza mozturik badago eta laburra bada edo T bat hartzen badu, orduan biak loturik idatziko dira. Adibidez: *adierazi, aldaerazi, bukaerazi, ezaguterazi, galerazi, geldierazi, helerazi, jokaerazi, ukaerazi.* Baina: *aldara erazi, benedika erazi, koordina erazi, obliga erazi, publika erazi, sozializa erazi, trabaila erazi.*

Antza denez, ez dira asko arau hau betetzen dutenak, besteak beste aski korapilatsua delako eta hautakizun asko, gehiegi agian, eskaintzen dituelako: esaterako *sor arazi, sor erazi, sortarazi, sorterazi* idatz daiteke arau horren arabera. Aniztasun honetan bi arazo nahasten dira: aditz--erroaren formarena eta *arazi / erazi*-rena. Lehen arazoa oso zabala da –azken batean, hitz-elkarketan lehen osagaiak, aditza denean, zer forma izan behar duen– eta azterketa sakonak eskatzen dituenez gero, badirudi oraingoz bi hautakizunak -t-dunak eta -t-gabeak– zilegi utzi behar direla. Hortaz, arauaren bakuntza *arazi/erazi*-ren aldetik egin behar da, egitekotan.

Gorago azaldu den egoeraren arabera, badirudi filologi argudioek ez dutela aski pisu *arazi* eta *erazi*-ren artean bata bestearen gainetik hobesteko: biek dute, nork bere eremuan, behar adina antzinatasun eta literatur lekukotasun. Hortaz, beste era bateko arrazoiak erabili behar dira, puntu horretan batasuna bideratuko bada.

Arrazoi horien ildotik, argi bide dago errazago gerta daitekeela hainbeste zalantza agertu eta agertzen dituen Hegoaldea *arazi* erabiltzera bultzatzea, laurehun urtez inongo zalantzarik gabe *arazi* besterik erabili ez duen Iparraldeak bere usadioa alda dezan lortzea baino. Uste honetan, Euskaltzaindiak *arazi* aldaera gomendatzen du euskara baturako. Nolanahi ere, salbuespen gisa *adierazi* gomendatzen da, Hegoalde osoan lortu duen erabiltze zabalagatik.

Bestalde, arauean, tradizioan agertzen den idazkera nahaste eta aniztasuna kontuan harturik, badirudi ez dela arrazoirik lehen proposatu zen gomendio korapilatsu eta ikasten zailari eusteko. Egokiagoa da Euskaltzaindiaren ustez *arazi* beti loturik idaztea gomendatzea.

Beraz hau da arauaren forma berria:

1. Aditz "arazleak" eratzeko, *artazi* aldaera gomendatzen du Euskaltzaindiak, salbuespen bakarra *adierazi* delarik.

2. Aurreko aditzari lotua idatziko da beti *arazi: harrarazi, erorarazi, iraunarazi, hilarazi, betearazi, galarazi, geldiarazi, ezagutarazi, nabarmenarazi, ihardetsarazi, inarrosarazi.*

3. Zenbait aditzen aldaera **t**-dunak, hots, *sortarazi, agertarazi* eta kidekoak, *sorrarazi, agerrarazi* eta kidekoak bezain zilegizkotzat hartzen dira.

4. *Arazi*-ren aurreko aditza **a** bokalaz amaitzen baldin bada, **a** biekin bat egingo da: *aldarazi, benedikarazi, jokarazi, koordinarazi, obligarazi, sozializarazi.*

(Euskaltzaindiak 1992ko ekainaren 26an onartua)

IV. HITZ ELKARTUEN OSAERA ETA IDAZKERA

LEF batzordeak proposatu eta, Euskara Batuko batzordearen bidetik, Euskaltzaindiak onarturikoa:

SARRERA

Maiz gertatzen da kontzeptu, gogamen, tresna edo jarduera berriak adierazi behar izatea. Bide egokia du horretarako euskarak, beste hainbat mintzairak bezala, hitz-elkarketa. Horrela eratuak dira, adibidez, *lege-gordailu, aditz-erro, barne-araudi, Foru Aldundi, irrati-entzule, bozeramale, idazmakina, ziurtagiri, zelulabakar* eta beste mila. Ondoko hizkuntzetan sintagma zabalagoen bidez adierazten dena azaltzeko ere baliabide erosoa dugu hitz-elkarketa: *osaba-ilobak (zinera joan dira), (autobusa) bete-betea (dator), etxez etxe(ko postaritza),* ... Arrazoi sendoak ditugu, beraz, hitz elkartuen osaera-idazkerak ongi ikasi eta zuzen erabiltzen jakiteko.

Arreta bereziaz aztertu izan du Euskaltzaindiak hitz-elkarketaren esparru hau. 1971n emanak ditu, azkenekoz, hitz elkartuen idaztarauak. Geroztik ikusi ahal izan denez, gomendio-arau haiek ez dute behar adina argibide eskaintzen eta aski neurri mugatuan betetzen dira. Hori dela eta, hitz-elkarketaren azterlan zabal bat egin du Euskaltzaindiak, LEF batzordearen bidez, 1986tik honakoan. Langintza horren azken emaitza gisa, eta hainbat euskalduni iritzia eskatu ondoren, *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera* izeneko txostena aurkeztu berri du LEF batzordeak.

Txostena berariaz aztertu du Euskaltzaindiak, Euskara Batuko batzordean eta osoko bilkuretan. Kontuan izan dira, horrekin batera, zenbait euskaltzainen ohar idatziak. Eta azkenik, guzti horren ondorioz, honako erabaki hauek hartu dira: *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera* argitara ematea eta idazki horren laburpenezko gomendio-erabakia, orain eratzen diren hitz elkartuen oinarri-oinarrizko idaztarauak biltzen dituena, luze-zabal ezagutaraztea.

Hori guztia kontuan izanik, eta lehendik emandako pausoen ildotik, hitz elkartuei buruzko argibide eta gomendio-arau hauek eskaini nahi ditu Euskaltzaindiak.

I. IRIZPIDE NAGUSIAK

I.1. Hitz elkartuen erabilpen-eremua

Baliabide indartsua da hitz-elkarketa, erdarazko hainbat hitzarte euskaraz eroso eta labur azaltzeko. Erdal izen-konplementazio askoren ordai-

na, esate baterako, horrela ematen du euskarak: *guraso-elkarte, telefono--zenbaki, garapen-maila, zerga-biltzaile.* Aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal "izen + adjektibo erreferentzial" egiturak ordezkatzeko: *esku-lan (trabajo manual/travail manuel), aho-literatura (literatura oral/littérature orale), ekonomi teoria (teoría económica/théorie économique),* etab. Bide honi eutsi behar litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz--moldaera arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu.

Era berean, bikoteak izendatzeko dvandva-elkarteak ditugu egokienak: erdarazko *los hijos/les enfants, los reyes/les rois* edo *los padres/les parents* esamoldeen (hau da, bikotea izendatzen duten hitzen) ordain jatorrak *seme-alabak, errege-erreginak* eta *aita-amak* (edo *gurasoak*) dira euskaraz; inoiz horien lekuan agertzen diren *erregeak, aitak* bezalakoak ez dira onargarriak.

Askotan eta egoki balia daitekeen hitz-elkarketak ere baditu, ordea, bere mugak. Osagaien arteko erlazio ilunak direla medio, mezu--hartzailearentzat ulergaitz gerta daiteke hainbat kasutan hitz elkartua. Hobe da kasu hauetan eraikuntza sintaktiko libreetara jo, argitasunaren mesedetan: *unibertsitateko irakasleak, merkatuaren bilakaera, udaletxeen antolamendua* edo *elizbarrutiko museoa* esan eta idatz dezagun halakoetan, *unibertsitate-irakasleak, merkatu-bilakaera, udaletxe-antolamendua* edo *elizbarruti-museo* modukoetara lerratu gabe.

I.2. **Hitz-junturako hots-aldaketak: hots-legeak**

Hitz elkartuen junturako hots-aldaketak corpus zabal batean ikertu ondoren argi ikusten da lehen osagaiaren azken bokala erori eta ondorioz gertatzen diren kontsonante-aldaketak edo azken bokalaren aldaketak zenbait izenetara mugaturik egon direla. *Begi, ardi, argi, beso, etxe, arto, idi...* > *bet-, art-, art-, besa-, etxa-, arta-, it-...* forman aurkitzen dira euskal lexikoan aspaldidanik txertatuak ditugun izenetan: *betile, artizar, iteuli, artaburu, besamotz, etxalde...* Baina hauen ondoan hor ditugu era berean *begi-keinu, begi-kolpe, begi-azal, argi-txinta, argi-izpi, ardi-txabola, ardi-gazta, ardi-sail, arto-erregutada, arto-jale, arto-alor, beso-lan, beso--giharre, etxe-erretze, etxe-gain, etxe-bizitza...* Emaitza desberdin hauen aurrean, ondoko puntuok zehaztu beharra ikusten da:

a) Orain eratzekoak diren elkarteetan ez da komeni behinolako hots--aldatze legeak, aspaldisko galdurik daudenak, berpizten jardutea: *txistulari--elkartea, botikari-lana, safari-bidaia, kultur(a), astea* esan eta idatz dezagun beraz, eta ez *txistulal elkartea, botikal lana, safal bidaia, kultul astea* eta abar.

b) Aipamen berezia zor zaie azken urteetako *unibertsital, monetal, medikal, nekazal* eta antzekoei. Guztiak dira erdal adjektibo erreferentzia-

la ordezkatzeko erabili direnak: *ámbito universitario = unibertsital esparrua, política monetaria = monetal politika, examen médico = medikal azterketa, ayuda financiera = finantzal lagunta...* ikusi eta irakurtzen ditugu gero eta maizago. Bide zuzena, hitz-elkarketaz baliatzekotan, *unibertsitate-esparrua, moneta-politika,* etab. erabiltzea da.

c) Era berean, aparteko aipamena merezi du >a<itsatsiaren galerak: ikus I.3.

I.3. **Lehen osagaiaren amaierako >a<: galdu ala ez**

Bada adibide zaharrik, bokal-kontrakzioa gertatu delako edo beste zerbaitengatik lehen osagaiaren amaierako >a< hori ageri ez duenik: *Elizondo, Elizmendi, Elejoste, eskolemaile,* etab. Halakoetan ere ez da falta izaten, ordea, bokalari bere horretan eutsi izanaren lekukotasunik: *Elizagarai, Elizabeherea, Elejabeitia, eskola-emaile,* etab.

Puntu horietan desadostasun bat baino gehiago agertzen den arren, ez da hori gaur eguneko auzi-iturri nagusia. Esparru jakin-mugatu horretatik gainezka eginez, izan ere, bestelako hedadura eta agerpen-maiztasuna eskuratu du bokal-galera honek XX. mendean: 1950etik honakoan ugarituz joan diren *kultur hizkuntza, literatur tradizio, hizkuntz egoera, ortografi arau, teknologi maila* modukoetan bereziki. Gaur egun nahaste-borraste handia dago, puntu honi dagokionez, euskal idazleen (eta are, zenbaitetan, hiztunen) artean.

Hori guztia kontuan izanik, Euskaltzaindiak honako bide hau hobesten du:

1. Bukaeran >ia< duten hitzak lehen osagai edo mugatzaile gisa dihardutenean, >a< hori kenduta nahiz kendu gabe erabili: *biologi azterketa, geologi irakaslea, pedagogi berrikuntza, ortografi arauak, erreferentzi puntua, diplomazi falta, bidai agentzia, Filosofi Fakultatea, Euskal Autonomi Elkartea,* edota *biologia(-)azterketa, geologia(-)irakaslea, pedagogia(-)berrikuntza, ortografia(-)arauak,* e.a. Hala ere, >a< kenduta erabiltzeari ematen zaio lehentasuna.

2. Lehen osagaia *eliza, burdina, hizkuntza, kultura, natura* edo *literatura* hitza (eta sei hitz hauek bakarrik) duten elkarteetan *eliz, burdin, hizkuntz, kultur, natur, literatur* forma >a<-gabeak zein *eliza-, burdina-, hizkuntza-, kultura-, natura-, literatura-* >a<-dunak berdin onargarri dira. Ongi emanak daude, beraz, bai *eliz agintaria, burdin fabrika, hizkuntz gaitasuna, kultur emankizuna, natur zientziak, literatur tradizioa* modukoak eta bai *eliza(-)zerga, burdina(-)saltzailea, hizkuntza(-)eskola, Kultura Saila, naturazalea, literatura(-)joera* gisakoak. Lehen osagaiari berezko >a< hori kentzen zaionean, marrarik ez erabili (edota loturik) eman, bigarren osagaia erdi-atzizki duten *burdingintza* modukoetan).

3. Gainerako elkarte berri guztietan debeku da lehen osagaiaren amaierako >a< kentzea. Beraz *eskola(-)liburua, iraultza(-)giroa, jaiotza(-)kontrola, plangintza(-)arduraduna, fonetika(-)legea, gramatika(-)araua, kutsadura(-)arriskua, ohitura(-)aldaketa, Medikuntza Fakultatea, hezkuntza(-)alorra, finantza(-)egitura,* ... idatz bedi, eta ez *eskol liburua, iraultz giroa, jaiotz kontrola,plangintz arduraduna, kutsadur arriskua, ohitur aldaketa, Medikuntz Fakultatea, hezkuntz alorra, finantz egitura,* ...

I.4. Berrelkarketa

Atal biko sintagma izan ohi da, normalean, hitz-elkartea: *zuzen--zuzenean, seme-alabak, muturzikin, meza-emaile, diru eske, ikasgela, zikin--fama, baratxuri-zopa, ardi-gazta* edo *bibliografi ohar* elkarteek, horrela, bina hitz dituzte.

Duda-mudak sortzen dira hitz bi baino gehiagoko elkarteetan. Ez da garbi ikusten, halakoetan, hitz-elkarketaz baliatzea egoki den ala izen--sintagma zabalagoetara jotzea komeni den. Irizpide nagusi gisa honako puntuok dira gaur-gaurkoz seguruentzat eman daitezkeenak:

1. Beharrik ez dagoenean ez gaitezen *euskal aldizkari-zuzendari-bilera, Mendibilgo udal-kirol-patronatua* edo *soinu-uhin-hedapen-bidea* modukoak sortzen ibili. Hobe da, horrelakoetan, sintagma-erabide desberdinak konbinatuz *euskal aldizkari(etako) zuzendarien bilera, Mendibilgo udalaren kirol-patronatua, soinu-uhinen hedapen-bidea* gisakoak osatzea.

2. Tartean adjektiboren bat sartzen denean hitz-elkarketarik ez egin: *hautagai-zerrenda* baina *hautagai berrien zerrenda* (ez *hautagai berri zerrenda*); *lan-eguna* baina *lan gogorreko eguna* (ez *lan gogor eguna*).

3. Guztiarekin ere, berrelkarketa askoz onargarriago gertatzen da ondoko kasu hauetan:

3.1. Mugatzailea *euskal, erdal, frantses,* ... dutenak: *euskal musika--taldea, euskal kultur mintegia, euskal liburu-sorta, erdal jaskera-moldea, frantses lege-araudia.*

3.2. Aposizioak. Inon baino sarriago ageri dira hemen, agian, berrelkarteak: *Elai Alai dantza-taldea, Ama Lur filmea, Joanak Joan eleberria, Urola-Kosta eskualdea, Bilb(a)o-Behobia autobidea,* ***Goiz-Argi*** *aldizkaria.*

3.3. Mugatzailearen koordinazio-hedapenak: *emakume- eta haur-taldeak, ebazpen- eta jarraipen-batzordea, edari- eta izozki-saltzailea, galdera- eta harridura-markak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.*

3.4. *Eguzki-lore* gisakoen alorreko *irizpen-, multzo-, zati-* eta *mota--*elkarteak. Beste gehienek baino askatasun handixeagoa dute hauek honelako hedapenetarako: *butano-saltzaile itxura, kafe erre usaina, zakar-biltzaile taldea, orein-haragi zatia, perpaus subordinatu motak.*

3.5. *Jarleku* moduko hitz elkartuak ere sarritxo agertzen dira mugatzaile gisa: *deklinabide-atzizkia, geltoki-garbitzailea, aztergai-zerrenda, ikasliburu-saltzailea, logela-aldaketa.*

II. BANAN-BANAKO IDAZTARAUAK

Orain eratzen diren hitz elkartuak bereiz, marrarekin ala loturik idatzi behar diren argitzen da atal honetan. Elkarte-mota batzuetan gauzak aski argi daudela ikusi du Euskaltzaindiak: adostasun handia dago elkarte-modu horien idazmoldeaz. Gomendio-arau zehatza ematen da, ondorioz, elkarte horietarako. Beste zenbait elkarte-modutan, aldiz, ez da maila bereko adostasunik ageri: idazkera bi utzi dira, horietarako, aukeran.

Arau nagusiak ematen ditu Euskaltzaindiak oraingoan. Zehaztasunak, salbuespenak eta bestelako argibideak nahi dituenak jo beza *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera* liburura: bertako bigarren zatian, *Atalez ataleko azalpenean* (aurrerantzean AAA) aurkituko ditu xehetasun horiek.

II.1. Bereiz idaztekoak diren hitz elkartuak

a) Aposizioak: *Bidasoa ibaia, Aralar mendia, Larramendi kalea, Arriaga antzokia, Axular liburutegia, Euskalzale albistaria, Auspoa liburutegia, Gerediaga elkartea, Xalbador ikastegia, Uztapide bertsolaria; izeba Maria, aitona Domingo, arreba Klara, maisu Juan; B eredua, D dokumentua.* Zehaztasun gehiagotarako, ikus AAAren 14. atala.

b) **Egin, eragin, eman** eta **hartu**-rekin osatzen diren aditz-elkarteak: *lo egin, negar egin, barre egin, oihu egin, berba egin; negar eragin, barre eragin, leher eragin; beldur eman, hitz eman, kontu eman, su eman; min hartu, kargu hartu, parte hartu, kontu hartu.* Loturik idazten diren salbuespenetarako, ikus AAAren 6. atala.

c) **Etxez etxe** moduko bikoiztapenak (lehen osagaia deklinaturik, bigarrena biluzik): *aurrez aurre, gainez gain, gizaldiz gizaldi, herriz herri, parez pare, pausoz pauso, ...; adarrik adar, bazterrik bazter, eskurik esku, kalerik kale, sasirik sasi, ...; menderen mende, bururen buru, ...* Ikus AAAren 1.1. atala.

d) **Egin berri** modukoak: *amaitu berri, esan berri, hasi berri, sartu berri.* Loturik idazten diren *ezkonberri* modukoak salbuespen dira: ikus AAAren 9. atala.

e) **Mahai gainean, etxe aurretik** gisako posposizioak: *esku artean, gerra aurretik, aste barruan, hiri barnera, ikastetxe mailan, geltoki ondora, kable bidez; Urola aldeko (herriak), eskualde mailako (zerbitzua), denda osteko (almazena).* Loturik ematen diren *nazioarteko, jendaurreko, pren-*

tsaurreko, ... formetarako ikus AAAren 11.5. atalean eta ondoren, idazkerari buruzkoetan, esaten dena.

f) Bigarren osagaia **bila, eske** edo **falta** duten elkarteak: *ur bila, bake bila, ardo bila, ogi bila; diru eske, barkamen eske, argibide eske, aholku eske; egur falta, harreman falta, lo falta, batasun falta.*

g) Lehen osagaia ***erdal, euskal, giza, itsas*** duten elkarte berriak: *erdal gramatika, erdal itzulpena, euskal olerkiak, euskal idazleak; giza zientziak, giza adimena; itsas garraioa, itsas ekologia* (forma zahar--ihartuetarako, ikus hiztegia).

h) Lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean. Ikus, horri buruz, gomendiozko idaztarau hauen I.3. atala.

II.2. Marrarekin idaztekoak diren hitz elkartuak

a) ***Gorri-gorri*(a)** moduko bikoiztapen indargarriak (lehen osagaia deklinabide-atzizkirik gabe dutenak): *labur-labur (azaldu), adi-adi (egon), erne-erne (gidatu), ozta-ozta (entzun); (hitzaldi) luze-luzea, (egun) argi--argia, (euskaldun) garbi-garbia, (bazkari hau) arin-arina (da); alfer-alferrik (saiatu), gazte-gazterik (hil), zabal-zabalik (utzi), doi-doia (jasan), gaur--gaurkoz, zuzen-zuzenean, azken-azkenean, bete-betean, bihotz-bihotzetik, hasiera-hasieratik, zin-zinez, gain-gainera; gehien-gehiena(k); asper-asper egin, dagoen-dagoen(ean).* Ikus AAAren 1. atala.

b) ***Apurka-apurka*** moduko bikoiztapenak (bi osagaiek atzizki berbera): *tarteka-tarteka, banaka-banaka; launaka-launaka; aldian-aldian, ezarian--ezarian; egunero-egunero; astero-astero; emeki-emeki, polito-polito, astiro--astiro.* Ikus AAAren 1. atala.

c) ***seme-alabak, zuri-gorri*** moduko elkarteak: *senar-emazteak, zeru--lurrak, galde-erantzunak, maisu-maistrak, izen-deiturak; txuri-urdin, gazi--geza, luze-zabal, argi-ilun; han-hemen, ezker-eskuin, harat-honat, laztan--musuka, negar-zotinka; sartu-irten, joan-etorri; hamar-hamaika (lagun), gutxi-asko.* Ikus AAAren 2. atala.

d) ***Barra-barra, plisti-plasta*** eta ***zehatz-mehatz*** modukoak: *bor-bor, kili-kili, mara-mara, pil-pil, txin-txin, txio-txio(ka); binbi-banba, dinbili--danbala, hinki-hanka, kili-kolo, tirriki-tarraka, zirti-zarta; auzi-mauzi, duda--muda, erran-merran, handi-mandi, nahas-mahas, tarteka-marteka.* Ikus, salbuespenetarako bereziki, AAAren 16. atala.

e) ***Ezkio-Itsaso*** moduko leku-izen elkartuak: *Abanto-Zierbena, Gernika--Lumo, Lasarte-Oria, Biurrun-Olkotz, Etxarri-Aranatz, Arratzu-Ubarrundia, Iruraitz-Gauna, Ainhize-Monjolose, Ürrüxtoi-Larrabile.* Ikus AAAren 12.2. atala.

Besterik dira itzulpenezko *Lizarra/Estella, Arrasate/Mondragón, Vitoria/Gasteiz,...* elkarteak. Ikus AAAko 13. atala.

II.3. **Loturik idaztekoak diren hitz elkartuak**

a) ***Jarleku*** »moduko elkarteak (aditz-erro + izen): *egongela, aldagela, abiaburu, helmuga, idazmakina, mintzapraktika, salneurri, irakasmaila; agerbide, eskabide, jokabide, komunikabide; agerraldi, egonaldi, emanaldi; galdegai, irakurgai, osagai; pausaleku, sorleku; biltoki, geltoki, erakustoki; jokamolde, pentsamolde; aztergune, lehiakide, sortalde, idazlan, ikerlan; ikasgela, ikastetxe.* Salbuespenetarako, ikus AAAren 10. atala.

b) ***Aldagaitz*** moduko izaera-elkarteak (aditz-erro + izenondo): *konformagaitz, pairagaitz, uxagaitz, herdoilgaitz; asmaezin, nekaezin, bateraezin, pentsaezin; ulerterraz, moldaerraz; isurbera, minbera.*

c) ***odolustu*** moduko aditz-elkarte arruntak: *indargaldu, uranditu, gaitzetsi, antzaldatu, biziberritu, indargabetu; azpimarratu, aurr(e)ikusi.*

d) Bigarren osagaia ***-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe*** edota ***-gintza, -za(i)ntza*** duten elkarteak: *hargin, zurgin, uztargin; bertsogile, eltzegile, langile; mugazain, diruzain, bidezain, atezain; bertsozale, haragizale, aurrerazale, neskazale; dirudun, arduradun, bizardun; lotsagabe, mugagabe, zentzugabe; gaztagintza, barkugintza, burdingintza; egurgite, etxegite, talogite; gaixozaintza, ertzaintza, liburuzaintza.* Ikus AAAren 5., 7. eta 8. atalak.

e) Bigarren osagaia ***-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, (k)ide, -(k)ume, -orde*** duten izen-elkarteak: *agintealdi, belaunaldi; batzordeburu, sailburu; legegizon, elizgizon; argiune, zerbitzugune; baliokide, solaskide; kalekume, bulegokume; izenorde, sailburuorde.* Loturik idazten dira orobat bigarren osagaia ***-gai*** edo ***-alde*** duten hainbat elkarte: *abadegai, erregegai, aztigai* modukoak edota *industrialde, eskualde, lurralde, hegoalde, iparralde, ekialde* gisakoak. Salbuespenetarako ikus AAAren 11. atala.

f) Lehen osagaia ***aurre-, azpi-*** eta ***gain-*** duten izen-elkarteak: *aurrekontu, aurrelan, aurreproiektu; azpiegitura, azpimarra, azpimultzo; gainazal, gainbalio, gainkarga.* Ikus AAAren 11. atala.

g) ***Lauburu*** moduko elkarteak (zenbatzaile + izen): *hiruadar, bostortz, hamalauzango, ehunzango; adarbakar, asmobakar, begibakar, zelulabakar.*

II.4. **Marrarekin edo bereiz idatz daitezkeen hitz elkartuak**

a) ***Eguzki-lore*** moduko izen-elkarte arruntak. Hemen sartzen dira, bereziki, hiztunak edo idazleak unean-unean eratzen dituen izen-elkarte berri, bizi, ugariak: *akordeoi-soinu* edo *akordeoi soinu, lan-hitzarmen* edo

lan hitzarmen, batzorde-atal edo *batzorde atal, arau-proposamen* edo *arau proposamen, merkatari-mundu* edo *merkatari mundu, gizarte-bizitza* edo *gizarte bizitza, arazo-iturri* edo *arazo iturri, sakontze-ikastaro* edo *sakontze ikastaro, osasun-egoera* edo *osasun egoera, elebitasun-formula* edo *elebitasun formula, garapen-maila* edo *garapen maila, ikastetxe-mota* edo *ikastetxe mota, eskabide-orri* edo *eskabide orri.* Zehaztasun gehiagotarako, ikus AAAren 11. atala.

b) ***Kale-garbitzaile, adar-jotze*** edo ***ate-joka*** moduko elkarte sintetiko arruntak (bigarren osagaia aditz-izenkia dute, eta lehena bigarrenaren osagarri zuzen). Hauek ere oso ugariak dira:

• Egile-elkarteak: *kale-garbitzaile* edo *kale garbitzaile, bide-urratzaile* edo *bide urratzaile, harri-jasotzaile* edo *harri jasotzaile; odol-emaile* edo *odol emaile, soinu-jole* edo *soinu jole, eguraldi-iragarle* edo *eguraldi iragarle; aho-gozagarri* edo *aho gozagarri, bihotz-hunkigarri* edo *bihotz hunkigarri, begi-mingarri* edo *begi mingarri; euri-neurgailu* edo *euri neurgailu, orri-zulagailu* edo *orri zulagailu; behor-gidari* edo *behor gidari, erbi-ehiztari* edo *erbi ehiztari.*

• Ekintza-elkarteak: *adar-jotze* edo *adar jotze, zikiro-jate* edo *zikiro jate, odol-isurtze* edo *odol isurtze, denbora-galtze* edo *denbora galtze; diru--bilketa* edo *diru bilketa, adimen-azterketa* edo *adimen azterketa; txosten--prestaera* edo *txosten prestaera, hitz-osaera* edo *hitz osaera; fede-ukapen* edo *fede ukapen, lan-eskaintza* edo *lan eskaintza.*

• Jardun-elkarteak: *ate-joka* edo *ate joka, aho-zabalka* edo *aho zabalka, errosario-esaka* edo *errosario esaka; kantu-kantari* edo *kantu kantari, kontu-kontari* edo *kontu kontari.*

Ikus, zehaztasun gehiagotarako, AAAren 7. atala.

Oharra: Osagai biak letra larriz hasten direnean hobe da hitz elkartua marrarik gabe idaztea. Errotuluetan, zenbait titulutan eta izendapenetan agertzen da hori batez ere: *Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Kultura eta Turismo Saila, Garraio Zuzendaritza, Medikuntza Fakultatea, Bertsolari Txapelketa, Zinema Jaialdia, Ur Kirolak* eta abar.

II.5. **Marrarekin edo loturik idatz daitezkeen hitz elkartuak**

Sudur-luze moduko elkarte arruntak: *(neska) sudur-luze* edo *sudurluze, (zezen) adar-motz* edo *adarmotz, (agure) buru-soil* edo *burusoil, (mutiko) musu-gorri* edo *musugorri, (marinel) odol-bero* edo *odolbero, (adiskide) esku-zabal* edo *eskuzabal, (esparru) angelu-zuzen* edo *angeluzuzen, (teilatu) punta-zorrotz* edo *puntazorrotz.*

(Euskaltzaindiak 1992ko ekainaren 26an onartua)

DOKUMENTU-BILDUMA

HITZ ELKARTUEN OSAERA ETA IDAZKERAZ:

4.1. **Sarrera** ..... *Mikel Zalbide*

4.2. **LEF batzordearen emaitza**

4.3. **Hitz elkartuen idazkera-proposamena**

4.4. **Galdeketa igorri zaien/zitzaien idazleak**

4.5. **Erantzun libreak**

4.1. SARRERA

Mikel Zalbide

Ondoren agertzen diren idazki, txosten eta dokumentuak azken sei-zazpi urteotako lan-jardunaren erakuskari eta emaitza dira. Hitz-elkarketaren alorrean Euskaltzaindiak egin duen lanaren fruitu eta lekuko, besteak beste. Hitz-elkarketaz argitara eman dituen liburukiez (eta argitaratzeko daukanaz gainera), *EUSKERA*ren liburuki bakar batean eman nahi izan dira, batera bildurik, saio-emaitza horien hainbat jakingarri. Dokumentu solte, beregainak dira beraz, hein batean, hemen bildurik agertzen diren idazkiak: bakoitza bere aldian sortua da, xede jakinez prestatua; aparteko zenbakera du, horrexegatik, txosten bakarrak. Oso garrantzitsua da puntu hau gogoan hartzea, hainbat atal eta azpiatalen zirrikitu artean galdu nahi ez bada. Denei zenbakera berria eman zekiekeen noski, idazlan desberdinei barne-lotura trinkoagoa eransteko. Itxurazko lotura litzateke hori, ordea: dokumentu bakoitza beregaina da, esan bezala, eta zenbaki-hurrenkera uniformatuak ez luke beregaintasun hori lausotu baizik egingo.

Hona, bestalde, atal beregain bakoitzaren azalpen laburra: Lehenengo dokumentua, 4.2. atalekoa, **LEF batzordearen emaitza** izenpean dator. Oraindik hain aspaldi ez dela Euskaltzaindiak hitz elkartuez argitara eman duen liburuskaren lehen zatia da idazki hau. Galdeketaren berri ematen da bertan: hitz elkartuen idazkera dela eta nork erantzun zuen, eta erantzun horien joera nagusia zein izan den, azaltzen da bertan.

Bigarren dokumentua, 4.3.atalekoa, hitz elkartuen idazkera-proposamenaz ari da. Hori ere goian esandako liburuskan argitara emana du, orain dela zenbait hilabete, Euskaltzaindiak.

Hirugarren dokumentua, 4.4.atalekoa, eta azkena, 4.5.ekoa, galdeketa igorri zitzaien idazleen berri zehatzagoak ematera datoz. Zatiok ez ziren, orain arte, bere osotasunean inon argitara eman.

Sei-zazpi urteotako langintzaren berri izan nahi duenak, zati desberdinen nondik norakoak jabetzeko buruhausterik izan badezake ere, baluke idazkiotan jakiniturririk aski. Horretan interesdunik izango delakoan, eta emandako pausoen adierazgarri gerta daitezen, ematen dira oraingoan batera bildurik argitara.

4.2. LEF batzordearen emaitza-azalpena

AITZINSOLASA

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

Euskaltzaindiak berariazko lantaldeak eratu ditu azken urteotan, iker-saileko eginbeharrak bideratzeko. Hiztegigintzaren alorrean badu, besteak beste, LEF batzordea. Lexikologiazko irizpideak finkatzen saiatzea: hori du lantalde horrek bere xede eta eginkizuna. Hitz-elkarketaren eremua landu du lehenik; eratorpen-bideak aztertzen ari da orain. Euskaltzain osoak, urgazleak eta gai horietan jakitun diren bestelako euskalariak biltzen dira batzorde horretan.

Orain aurkezten dizudan liburua ez da bereziki berria. Zenbait idazki argitara emanak ditu Euskaltzaindiak, izan ere, aztergai honetaz. Haien segida da, neurri batean, gaurko hau. Haiena eta, bide batez, iragan ekainaren 26an hitz elkartuez eman ditugun gomendio-arauen oihartzuna. Guztiarekin ere ez da, ordea, hitz-elkarketaz eskaintzen den "beste argitalpen bat gehiago". Badu oraingoak, izan ere, berezko nortasunik. Berariazko ezaugarri horiek azpimarratu nahi nizkizuke, labur-labur, aitzinsolas honetan.

Eskuartean duzun liburu honek, hasteko, galdeketa baten berri ematen du. Euskalgintzan diharduen hainbat idazlek, batzordearen galde-idazkiari erantzunez, bere iritziak eman ditu hitz elkartuei buruz: marra bai/marra ez, >a< kendu/ez kendu... Guzti horren labur-bilketa eskaintzen du liburuaren lehen zatiak. Ohitura zaharra du Euskaltzaindiak, inork besterik uste badeza ere, gai bati buruzko erabakia hartu aurretik hartan interesa edo zeresana luketen herritarrei iritzia eskatzekoa. Halaxe egin zuen jaioberritan, Campion-Broussainen txostenaren inguruan batasunari buruzko gogoeta-lan zabala bideratu zuenean. Eta halatsu egin izan du gerora ere, behin baino gehiagotan.

Liburuaren bigarren ezaugarria, hitz elkartuen azalpen sistematikoa eskaintzea da. Aurrekoetan ez bezala, oraingo honetan elkarte-mota guztien berri ematen da. Baterabilduzko azalpen hau mesedegarri izan daiteke azterlan zabalagoak burutik burura irakurtzeko astia edo aukera nekez izaten duten hainbat irakasle, kazetari, literaturgile eta abarrentzat.

Iragan ekainean onarturiko gomendio-arauekin, lauzpabost urteko ikerlan horri amaiera eman zaio nolabait. 1971ko arautze-lana osatu, zehaztu eta eguneratu egin da horrela, neurri on batean. Eta poz hartzen dut, jakina, horren eskean zeuden herritarrei emaitza hori aurkezterakoan. Arautze-lana ez da, ordea, behin eta betiko egiten den horietarikoa. Oraingo hau ere hurbilketa-saiotzat hartzea komeniko da, beraz: ibiliak erakutsi beharko digu, ezerk baino areago, zertan asmatu den eta zerk bide-berritzerik eskatzen duen. Egindako lana hor dago, nolanahi ere.

Probetxu on egin diezazula, irakurle, argitalpen honek. Anartean har ditzatela lan horretan murgildu diren guztiek nere eskerrik beroenak.

SARRERA

1986an ekin zion Lexikologi Erizpideak Finkatzeko batzordeak bere langintzari: Beloken egindako jardunaldian, horrela, hitz-eraketazko baliabide desberdinen azalpen-saioa egin zen; eta geroztik, Plentzian hasi eta beste hainbat herritan barrena jardunaz (Leitza, Bidarrai, Gernika, Uitzi, Zarautz,...), hitz-elkarketaren berariazko atalak aztertu eta ahal zen heinean argitu dira. Langintza horren lekuko dira, besteak beste, hainbat batzordekidek prestatu eta aurkezturiko txostenak. Guzti horren emaitza dira, orobat, jadanik argitara emandako bi liburukiak eta argitaratzeko den hirugarrena.

Beti izan da Euskaltzaindiarentzat, hitz-elkarketaren esparru hau, azter-eremu atsegin eta gogozkoa. Hizkuntz Akademia sortu zenetik beretik, aski ezaguna denez, arreta handia eskaini izan zaio hitz-erabide honi. Hizperriak sortzeko orduan edota erdal sintagma-eraikuntza bihurriak euskaraz adierazi beharra dagoenean, izan ere, lagungarri sendoa gertatu ohi da konposizio-bide hau sarri baino sarriago. Eskoletan nahiz komunikabideetan, kultur elkarte zein administrazio-atal desberdinetan lanean ari den euskaldun-jendeak gogoz jotzen du iturri horretara, gauzak egoki eta argi esan nahirik. Hasi ere hasi gara oraintxe gehienok, ibiliaren poderioz, baliabide horri berez eman dezakeena nola atera ikasten: euskal idazlanen azken urteotako nondik norakoari erreparatu besterik ez dago, alor horretan zenbat aurreratu den ikusteko.

Pauso horiek eman ahala behar berriak ere ari dira, ordea, sortzen. Behar berri horietako bat, hain zuzen, hitz elkartuen osaerarena da: hitz-elkarketaz ahaliritzira baliatzen den hainbat hiztunek argiago eta barrenagotik ezagutu nahi luke hitz elkartuen barne-osaera, erabilera eta baliagarritasuna: "posible al da *bero-neurgailu* modukoetatik *elektretxegailu* gisakorik sortzea?" galdetuko dizu Urliak. Sendiak, berriz, zera jakin nahi luke: "erdarazko *labiodental* esateko nora jo behar dugu?; zilegi al da behinolako *gatz-ozpindu, gatz-piperdun* elkarteen ildotik *hortz-ezpainkari* esatea?" Galdera zehatzak egingo dizkizu halakok, eta argibide praktikoa eskatuko dizu.

Idazleak badu, gainera, bigarren kezkabide bat: orain sortzen ditugun hitz elkartuok nola idatzi. Zenbat ordu ez ote dira pasatzen, bazterretan,

etengabe eratu eta erabili ohi ditugun hitz-elkarteak bereiz, marraz loturik ala bat eginik idatzi behar diren pentsatzen, alboko adiskideari galdetzen edo lankide-talde zabalagoetan eztabaidatzen. Zenbat ordu, orobat, lehen osagaiaren amaierako >a< organikoari zer egin (bere hartan eutsi ala kendu) erabakitzen. Erabakiak hartu ere hartzen ditugu, sarri asko: norbanaka batzuetan, taldean inoiz. Beti ere halako inpresio batekin, ordea: "a zer mesede inork, puntu hauei buruz, gauzak argituko balitu eta guztiontzat edo gehien-gehienontzat baliozkoa izango den bide bat markatuko baligu. Buruhauste gutxiago izango genuke, seguru asko, idazterakoan. Eta erraztasun ohargarria, bide batez, besterenak irakurtzerakoan".

Kezkabide hauek aintzakotzat hartuz ekin zion Euskaltzaindiak 1986an, esan bezala, hitz-elkarketaren aztertze- eta argitze-lanari. Bere LEF batzordeak aztertze-lan hori amaitu duenetik ere urtebete inguru pasa da. Bitartean, berriz, euskaldungoarentzat baliagarri izango diren gomendio- eta arau-proposamenak prestatzen eman da denbora: hitz elkartuak noiz eta nola erabili behar liratekeen azalduko duten aholkuak moldatzen, lehenik; eta, ondoren, aholku moduko horiek noraino ulergarri, gogozko eta baliagarri diren jakin nahian. Arriskutsua baita aholku-erabakiak hartzen ibiltzea arau horiek erabili beharko dituztenek benetan ulertzen dituzten, gustatzen zaizkien eta, ikasi ahala, erabiltzeko prest dauden jakin gabe.

Bigarren pauso hori ere eman da: euskal idazlangintzaren munduan gaur egun nor den askori, banaka edo taldeka, proposamena aurkeztu eta iritzia eskatu nahi izan zaio. Batekin baino gehiagorekin huts egingo zen noski; ez baita erraza izaten zerrenda egiten hasi eta guzti-guztiak gogoan hartzea. Hutsegite larriegirik ez da uste, ordea, asko egin denik. Berrehun eta berrogeita hamar galdeketa-orritik gora bidali dira, gero azalduko denez, zazpi probintzietara. Batzuetan, esan bezala, euskalari edo euskaltzale jakinei eskatu zaie erantzuna; bestetan, aldiz, euskalgintzan diharduten erakunde, elkarte edo lantaldeei eskatu zaie multzo-erantzuna.

Askok erantzun du: erdiak baino gehiagok. Horrelako galdeketa--lanak egiten direnean gutxitan lortzen omen da hain erantzun betea. Pozgarri da hori, jakina, LEF batzordearentzat: Euskaltzaindiari erabaki--proposamena aurkezterakoan beste segurtasun eta konfidantza batez egin ahal izango dio, horri eskerrak, bere proposamena. Ez da batzordekideen ustea soilik, alegia, idazki horretan aurkezten dena; horrezaz gainera, izan ere, euskalgintzan ari den jendeak horri buruz zer iritzi duen jakinik egin da proposamena.

Lau urteko azterlanaren ondorioz, eta galdeketari emandako erantzunak kontuan hartuz, "Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera" txostena aurkeztu dio LEF batzordeak Euskaltzaindiari 1992ko otsailean. Txosten hori, eta haren ondoren Hizkuntz Akademiak jakinarazi dituen gomendio--arauak, eskaintzen dira hain zuzen argitalpen honetan.

Honako hiru zatiotan banatu da, horretarako, esku artean duzun liburuki hau:

Lehen zatia: galdeketaren erantzuna eta gomendioak. Hitz elkartuen osaera-idazkerei buruz bidalitako galdeketari nork erantzun dion azaltzen da bertan, lehenik; ondoren, erantzule horiek hitz elkartuak nola idatzi nahiago lituzketen aztertzen da; eta, azkenik, guzti horren argitan LEF batzordearen ustea zein den esaten.

Bigarren zatia: argibideak eta azalpenak. Hau da, irakurleak erraz antzemango dionez, liburuki honen zati nagusia. Hitz elkartuei buruzko irizpide nagusiak agertzen dira bertan, lehenik. Atalez ataleko azalpena eskaintzen da ondoren (arlo hau da, hain zuzen, Euskaltzaindiaren gomendio-arauetan AAA bidez aipatzen dena). Azkenik aurreko ataleko adibide guztiak, alfabeto-ordenan emanik, eskaintzen dira.

Hirugarren zatia: Euskaltzaindiaren gomendio-arauak. Hizkuntz Akademiak, aurreko informazio hori guztia eskuan zuelarik eta Euskara Batuko batzordearen bitartez, bere hileroko bilkuretan aztertu du gaia. Azkenik, ekainean berariazko gomendio-arauak onartu ditu. Horietxek dira, hain zuzen, hirugarren atal honetan eskaintzen direnak.

Eskerrak eman nahi dizkie LEF batzordeak, sarrera moduko hau amaitu aurretik, aldez edo moldez langintza honetan partaide izan diren guztiei. Bereziki eskertu nahi ditu inkesta-jasotzaile (eta, neurri handi batean, erantzun-emaile) izan direnak.

Eskerronezko aitormen horren lekuko xehea izango bada ere, beraien izen-abizenak eskaintzen dira liburukiaren amaieran, bakoitzaren jardungunearen berri ere emanaz gehienetan.

Irakurle-idazleek dute orain, noski, hitza. Haien jokaerak erabakiko du, nagusiki, azken urteotako argitze- eta bateratze-lan hau noraino izan den egoki eta noraino zuzen. Honetan edo hartan hemen eskaintzen zaizun azalpena laburregia irudituko balitzaizu, ez ahaztu bertako puntu gehienak aurreko liburuetan luzeago eta, sarri asko, zehatzago emanak daudela.

4.3. **Hitz elkartuen idazkera-proposamena**

GALDEKETAREN ERANTZUNA ETA ONDORIOAK

I. Galdeketaren erantzuleak

II. Erantzuleek zer dioten

III. LEF batzordearen proposamena

I. GALDEKETAREN ERANTZULEAK

I.1. **Begiz jotako erantzuleak, zenbat eta zer-nolako**

Guztira 263 pertsona edo elkarteren eskuetara iritsi zen, Euskaltzaindiaren LEF batzordeak bidalirik, hitz elkartuei buruzko galdeketa. Normalean, gehien-gehienetan, zuzenean beraiei bidalia zen galdeketa hori. Inoiz edo behin gertatu da, halere, galdeketa pertsona jakin bati bidali eta honek, hobe beharrez, bere lantaldeko kide bati edo biri berorren kopia eskuratu izana, azkenean galdeketa batetik erantzun bi edo hiru jaso direlarik. Horrelako kasu bakan horietan ontzat eman dira erantzun guztiak.

263 erantzule posible genituen, beraz. Zer-nolako erantzuleak genituen hauek? Zertan lan egiten dute? Non bizi dira? Bidezkoa litzateke, jakina, 263 erantzule posible horien era askotako kategorizazioa egitea: adinaren arabera, sexu-arauz, espezializazio-alorraz... Bistan da, izan ere, guztien erantzunei ezin zaiela beti pisu berbera eman: ez, behintzat, jakineko auzigai batez iritzi zehatzak ematerakoan.

Hori kontuan izan beharraz ongi jabetua dago hasieratik LEF batzordea; eta txosten honetan bertan, proposamen konkretuetara iritsi aurretik, berriro helduko zaio hain zuzen puntu horri.

Errazenetik hasiko gara, ordea, orain. Eta errazena, eskueran ditugun datuen arabera, honako bi puntuoi erantzutea da:

— zertan dihardute, lanbidez edo albo-jardueraz, begiz jotako erantzule hauek?

— nongoak ditugu, lurraldez lurralde, erantzule posible hauek?

Bistan da bi puntuok badutela garrantzi berezia: gerta baitaiteke, adibidez, lanbide-esparru horien edo lekugunearen arabera euskalgintzan diharduten norbanako eta lantaldeek puntu jakin baten gainean aski iritzi desberdin eta are kontrajarria izatea. Idazlan honen amaieran, eraskin gisa, 263 erantzule posible horien banan-banako zerrenda ematen da, beren jardun-esparru nagusia ere bertan adieraziz.

I.1.1. *Erantzule posibleak, jardun-esparruen arabera*

Erantzule gehienen lanbidezko sailkapena egin nahirik, bost zati edo ataleko banaketa hau prestatu da:

• *Erakunde-elkarteak:* Euskaltzaindiko, euskalgintzan diharduten kultur elkarteetako edota euskal argitaletxe handietako hizkuntz arduradunak sartu dira hemen.

• *Administrazioa:* herri-administrazioetan lan egiten dutenak.

• *Irakaskuntza:* hezkuntza-alorrean, batez ere unibertsitatean, ari direnak.

• *Komunikabideak:* euskarazko egunkari-aldizkarietan eta irrati--telebistetan dihardutenak.

• *Berariazko pertsonak:* aurreko ataletan sartzen ez diren pertsonak: literaturgile-multzo hautetsi bat, bereziki, atal honetan sailkaturik dago.

Zati-banaketa hau eztabaidagarria da, jakina: euskaltzain bat adibidez eskubide osoz izan baitaiteke noski, aldi berean, irakasle, aldizkari-arduradun eta literaturgile ospetsu. Halakoetan, hoberik ezean, zentzuzkoena zirudien sailkapenera jo da. Bere akats-arrisku guztiekin ere sailkapen horrek damaigun irudia ez dirudi hain desitxuratua denik.

Ondoko hauek dira, irizpide guzti horien arabera, 263 erantzule posibleen jardun-esparru nagusiak:

Jardun-esparrua	Erantzule posibleak	%
Erakunde-elkarteak	91	34,6
Administrazioa	61	23,2
Irakaskuntza	46	17,5
Komunikabideak	28	10,6
Berariazko pertsonak	37	14,1
GUZTIRA	263	100

Normala denez, erakunde-elkarteek izan dute galdeketa honetan pisurik handiena. Galdezka hasterakoan etxe barrutik (jakitez edota lanbidez gai hauen inguruan dabiltzanetatik alegia) hasi behar, jakina, azken-azken muturrera iritsi aurretik. Pentsatzekoa da, gainera, lexikologiazko kontu hauetan jantziago leudekeela bertako kide asko. Beti ere duda-punta bat gelditzen da, ordea, halakoetan airean: ez ote dugu atal hau (bertako zenbait kultur elkarte, adibidez) gehiegitxo puztu?

Aipagarria da, bestalde, administrazio-esparruak daukan izaria: irakaskuntza-alorrari eta komunikabideei baino neurri handiagoa eman diogu. Azken hamarkadan gertaturiko gizarte-aldaketen oihartzun izan daiteke, seguruenik, hori.

Komunikabideen alorra neurriz txikiena izatea, azkenik, ohargarria da: gizarte-bizitzan duen eragin zabala kontuan izanik badirudi erantzule posible gehiago aurkitu behar genuela hor. Honek, ordea, beste gai bat aztertzera eramango gintuzke: gure gaur eguneko komunikabideetan ba al daude, egon, behar adinbat hizkuntz arduradun?

I.1.2. *Erantzule posibleak, jatorri edo lekugunearen arabera*

Jardun-esparruaz egin den azterketa hori berdin egin daiteke erantzule posibleon jatorri edo lekuguneaz ere: nongoak dira gure 263 erantzule posible horiek? Galdera, halere, dirudien baino korapilatuagoa da: gauza bat da izan ere jaiotzaz zein euskalkitakoak (edota, gutxienez, zein probintziatakoak) diren esatea; eta beste bat, aldiz, gaur egun non bizi diren eta zein hizkuntz ereduz baliatzen diren jakitea.

Hemen ere, guzti horregatik, halako erdibide batera jo behar izan da sailkapena egiterakoan. Gehienetan non jaioa den kontuan hartu ahal izan bada ere, beti ezin egin izan da hori. Horrela, adibidez, Bizkaiko udaletxe batean urte askotan ari den itzultzaile giputz bat Bizkaiko atalean sartu da, bere egunoroko lanean aurkitzen dituen arazoak bizkaierarekin eta Bizkaiko egungo giroarekin lotuagorik dituelakoan. Ez da beti erraza izan erabakia hartzea: kasuren batean Araba eman da erantzulearen lekugune gisa, erantzule hori bertan jaioa eta euskaldunberria delako. Euskaldunzaharren kasuan, aldiz, beren jatorria errespetatu da gehienetan.

Hona ondoren, esandako irizpide horien arabera, 263 erantzule posible horiek nola sailkatzen diren:

Jatorri edo lekugunea	Erantzule posibleak	%
Araba	1	0,4
Bizkaia	77	29,3
Gipuzkoa	155	58,9
Iparraldea	15	5,7
Nafarroa	12	4,6
Zehaztu gabe	3	1,1
GUZTIRA	263	100

Aurreko taulan baino alde nabarmenagoak ageri dira, dudarik gabe, oraingo honetan: Gipuzkoak erantzule posible guztien ia %60 hartzen du, eta Bizkaiak ia %30. Besteak oso urrun gelditzen dira. Bat al dator banakera hau gaur eguneko euskalgintzaren benetako indar-proportzioarekin? Hainbaterainokoa al da Gipuzkoaren nagusitasuna eta Gipuzkoa-Bizkaien "bakardadea"?

Ez da noski txosten honen egitekoa galdera zail horiei erantzutea, eta ez gara auzi-garbitze bihurri horretan sartuko. Esana gera bedi, ordea, zerrendak sortarazi digun kezka: ez ote gara, hizkuntzaren inguruko iritzi-bilketa egiterakoan, Gipuzkoan zentratuegi ari? Ez ote ditugu ezker-eskuineko herrialdeak, Bizkaia eta, oso bereziki, Nafarroa-Iparraldeak, errazegi baztertu?

Hau izan da, dena den, inkestagile posibleen osaera; eta, onean zein gaitzean, hortik jasotako erantzunak hartuko ditu txosten honek aintzakotzat.

I.1.3. *Erantzule posibleak, beren jardun-esparruaren eta lekugunearen arabera*

Ondoko taulak ematen du, azkenik, aldagai biok elkarrekin gurutzatuz ateratzen den sailkapena:

	Erakundeak + elkarteak	Administrazioa	Irakaskuntza	Komunikabideak	Berariazkoak
Araba	1	0	0	0	0
Bizkaia	18	18	28	2	11
Gipuzkoa	57	34	16	24	24
Nafarroa	4	6	2	0	0
Iparraldea	11	0	0	2	2
Zehaztu gabe	0	3	0	0	0

Taula honetatik ere ondorio bat baino gehiago atera daiteke. Horrela:

a) Harrigarria da, alde batetik, lauki batzuk zein gizen hornituak dauden. Ondoko bi hauek, bereziki:

– Gipuzkoako "erakunde-elkarteen" atala: batez ere bertako kultur elkarteen (UZEI, Elhuyar) eta argitaletxeen eraginez, seguruenik (Donostialdean daude, ezaguna denez, euskal argitaletxe nagusi gehienak).

– Bizkaiko "irakaskuntza" atala: Leioako campusa da, agian, ustezko gainbalio honen eragile nagusi.

b) Harrigarria da, era berean, beste lauki batzuk zein hutsik dauden. Bereziki:

– Iparraldeko eta Arabako irakaskuntzaren alorra albora utzi da erabat.

– Nafarroako komunikabideen alorra, berez aski txikia izanik ere, ez da kontuan hartu.

Hurrengo inkestaldi batean lauki-atal horiek oreka handiagoz tratatzea merezi luke, inondik ere.

Bere muga, hutsarte eta desoreka posibleekin ere lagin adierazgarria da, LEF batzordearen ustez, 263 kideko zerrenda hori: baliteke euskal hizkuntz lanketaren munduan nor diren guztiak barruan ez egotea, baina zerrendan dauden gehienak badira nor. Eta, ondorioz, berorien erantzuna aski kontuan hartzekoa dela deritza batzorde honek.

I.2. **Benetako erantzuleak, zenbat eta zer-nolako**

Goian aipatutako 263 erantzule posible horietatik 149k erantzun du. Beste 114 (guztien %43,3 beraz) erantzun gabe gelditu dira.

Zein jendek erantzun du? eta zeinek ez? Erantzule posibleen kasuan bezala, eta agian arrazoi sendoagoz, merezi du galdera hauei erantzuten saiatzea. Bertatik jakin ahal izango dugu izan ere, beste inondik baino hurbilago, iritzi-bilketa honek zer-nolako fidagarritasuna duen. Goazen beraz, oraingoan ere, puntu horiek pausoz pauso aztertzera.

I.2.1. *Benetako erantzuleak, jardun-esparruen arabera*

Gorago (ikus I.1.1. puntua) adierazi den lanbide-sailkapenari eutsiz, benetako 149 erantzun horien osaera honako hau da:

Jardun-esparrua	Benetako erantzuleak	%
Erakunde-elkarteak	53	58,24
Administrazioa	37	60,66
Irakaskuntza	34	73,91
Komunikabideak	10	35,71
Berariazko pertsonak	15	40,54
GUZTIRA	149	56,67

(Oharra: taula honetako portzentaiak, kasuan kasuko erantzule posibleen arabera eginak dira).

Datu interesgarriak eskaintzen ditu, hasteko, goiko taula honek. Horrela,

a) irakaskuntza-alorretik etorri da, askogatik, erantzunik beteena: erantzule posible guztien %73,91k erantzun du hor. Galdeketa jaso dutenen ia hiru laurdenek, alegia. Beste hainbat aldetatik ere aski ezaguna den fenomenoa azaltzen digu, itxuraz, horrek: irakasleen artean beste inongo lanbidetan baino interes biziagoz jarraitzen direla euskararen batasun-ahalegin hauek (ez ahaztu, dena den, batez ere unibertsitate-alorreko irakasle euskaldunez ari garela hemen).

b) Herri-administrazioan eta erakunde-elkarteetan sailkatu ditugun euskalari eta hizkuntz teknikariek ere aski neurri ohargarrian erantzun dute: %60 inguruan.

c) Berariazko pertsonen alorretik ez da itxuraz hainbateko interesik piztu: %40 pasatxok baizik ez du erantzun. Zergatik ote hori? Atal horretako askotxo literaturgileak (punta-puntakoak barne) direla kontuan izanik, badirudi ondoko hipotesi hau ez litzatekeela guztiz burugabea: "letra ederrekin" sorkuntza-lanean ari direnek ez dute hitz elkartuen idazkera-kontu honekin hain interes bizirik; ez behintzat irakasleek, administrazio-alorreko teknikariek, euskaltzainek eta argitaletxeetako hizkuntz arduradunek adinbatekorik. Edota, agian, erantzuna ez daukate hain argi. Kontua da, nolanahi ere, honegatik edo hargatik ez dutela bestek adina erantzun. Kontuz, halaz ere: %40ko erantzun-proportzioa proportzio ohargarria da nolanahi.

d) Komunikabideetatik, azkenik, inondik baino gutxiago erantzun dute: %35 inguruk bakarrik itzuli du galdeketa-orria. Zer esan liteke kasu honetan, ia hirutatik bik zergatik erantzun ez ote duen argitzeko? Hipotesi posible bat honako hau izan daiteke: irrati-telebistetako kazetariek ahoz dihardute euskaraz, batez ere. Ahozko euskararekin kezkatuagorik daudeke, ondorioz, eta idazkera-kontuokin ez dira hainbat arduratzen. Bigarren arrazoibide bat ere tartean legoke, dena den, gorago adierazi denez: aldizkari asko ez da hizkuntz arduradunez hornituegi, aurrekontu-mugek hartaraturik edo; eta, ondorioz, aldizkari horiek ez daukate idazkera kontuan iritzi garbirik. Aldizkari horretan parte hartzen duen artikulu-idazle bakoitzaren aburuak pisu handiagoa du, halakoetan, argitaletxeak berak baino.

I.2.2. *Benetako erantzuleak, jatorri edo lekugunearen arabera*

Hona, bestalde, 149 erantzun horiek lurraldez lurralde nola sailka daitezkeen

Jatorri edo lekugunea	Benetako erantzuleak	%
Araba	0	
Bizkaia	52	67,53
Gipuzkoa	86	55,48
Nafarroa	5	41,67
Iparraldea	6	40,00
Zehaztu gabe	0	
GUZTIRA	149	56,67

Gogoan izan hemen ere portzentaiak kasuan kasuko erantzule posibleen arabera eginak direla.

Taula honek ez ditu, ageri denez, jardun-esparruen araberakoak bezain alde nabarmenak azaltzen. Ohargarriak dira ordea, hemen ere, batetik besterako tarte horiek. Horrela,

a) Bizkaiak eman du erantzun beteena: %67,53. Galdeketa jaso duten hiru bizkaitarretik bik erantzun egin du. Jasotako erantzun guztien %34,9 bertakoa da.

b) Gipuzkoako erantzun-proportzioa, batezbestekoaren paretsukoa izan da: bertara bidalitako galdeketen %55,48. Proportzioan bizkaitarren erantzunak baino zerbait gutxiago izanik ere, kopuru hutsari dagokionez Gipuzkoatik etorri dira gehienak: jasotako erantzun guztien %57,7.

c) Nafarroatik eta Iparraldetik, azkenik, erantzun gutxiago jaso da: bai kopuruz (%3,4 eta %4, hurrenez hurren) eta bai erantzun-proportzioz: bidalitako galdeketen %41,67 eta %40, hurrenez hurren.

d) Arabakoen eta zehaztugabekoen laukietatik, azkenik, hain kopuru txikiak izanik ezin ondorio handirik atera daiteke.

Hipotesi argirik ez da lortzen erraza, leku batetik besterako bariazio-neurri zabal horiek esplikatzeko: ez dago garbi, alegia, zergatik bizkaitarren %67,53k erantzun duen eta, aitzitik, iparraldekoen %40,00k.

I.2.3. *Benetako erantzuleak, beren jardun-esparruaren eta lekugunearen arabera*

Erantzule posibleekin egin zen bezala posible da, xehetasun gehiago jaso nahirik, 149 erantzule horiek parametro biren arabera sailkatzea. Aski emaitza argigarriak jasotzen dira, jaso, sailkapen bikoitz horrekin. Hona horren berri ematen duen taula:

	Erakundeak + elkarteak		Herri--administrazioa		Irakaskuntza		Komunikab.		Berariazko pertsonak	
	Erantz.	%	Erantz.	%	Erantz.	%	Erantz.	%	Erantz.	%
Araba	0		0		0		0		0	
Bizkaia	13	72,27	12	66,67	23	82,14	1	50,00	3	27,27
Gipuzkoa	36	63,16	22	70,97	10	62,50	8	33,33	10	41,67
Nafarroa	1	25,00	3	50,00	1	50,00	0		0	
Iparraldea	3	27,27	0		0		1	50,00	2	100
Zeh. gabeak	0		0		0		0		0	
GUZTIRA	53	58,24	37	60,66	34	73,91	10	35,71	15	40,54

Multzo txikiak alde batera uzten badira, ondoko datuok dira goiko taula honetan, itxura osoz, argigarrienak:

a) Bizkaiko irakaskuntzaren alorretik jaso da, askogatik, erantzunik beteena: %82,14k erantzun du bertatik. Leioako campuseko irakasle euskaldunen parte-hartze zabalari zor zaio, neurri handi batean, oroz gainetiko proportzio hori. Gipuzkoan %62,5 dira, bestalde, irakaskuntza-alorretik erantzuna eman dutenak.

b) Administrazio-lanean ari diren giputz-bizkaitarrek berebat, Bizkaiko irakasleen parera inola iritsi gabe ere, erantzun ona eman dute: hirutik bik erantzun du. Erakunde eta elkarteetan ere, bi lurralde horietatik antzeko erantzun-maila jaso da: Bizkaian hobea, halere, Gipuzkoan baino.

c) Gainerakoetan, erantzun-proportzioak ez du %50eko muga gainditzen.

Honekin esana dago, beraz, benetako erantzuleak batez ere nongoak eta zein lanbide edo jardun-esparrutakoak diren. Kontuan hartzea merezi ko du horrek, proposamen konkretuak prestatzeko orduan: norentzat eta norekin ari garen jakitea garrantzitsua da, hizkuntz plangintzaren alor konkretuotan jarduterakoan ere. Arau-gomendiorik jakingarriena emateak ezer gutxi balio baitu, arau horiek ikasiko eta erabiliko dituztenekin konektatzen asmatzen ez bada. Ondorio bi ekarri behar lituzke irizpide honek, gure kasuan. Batetik, benetako erantzule horiek hor daudela, interesik biziena beraiek ageri dutela eta beraien gogo-nahiak alboratzea ez litzatekeela gomendagarri. Bestetik, aldiz, laginaren oreka-mailaren fidagarritasun-kontua mahai gaineratzen da berriro: talde mugatu, disziplinatu eta aski homogeneo batzuen ikuspegi gogotsua noraino da, izan ere, euskalgintzan diharduten milaka irakasle, kazetari, liburugile, administrazio-langile, elizgizon, merkatari eta abar horietara estrapolagarri? Aurrerago helduko diogu, berriro, puntu honi.

II. ERANTZULEEK ZER DIOTEN

1991ko udaberrian bidalitako galdeketak bi eratako erantzunak emateko aukera eskaintzen zuen: alde batetik erantzun lotuak, koadrotxo batean ala bestean x-a markatuz eman beharrekoak; eta, bestetik, erantzun libreak (nork bere gogorako esplikazioak, luze edo labur) emateko lekua uzten zuen.

Erantzun lotuak kuantifika daitezke, halako neurri on batean. Erantzun libreak, aldiz, ez. Bigarren hauek erantzun kualitatibo aberatsa eskaintzen digute, baina beste era batean kontuan hartzekoak dira: datu kuantitatiboak osatzeko, matizatzeko eta zehazteko balio handia dute. Azken idazkuntza prestatzerakoan, ondorioz, aski kontuan hartu behar izan dira behin baino gehiago. Gero azalduko da hori: txosten honen II.2. atalean eskaintzen dira izan ere, sailkatu eta labur bildurik, erantzun kualitatibo libre horiek.

Orain, ordea, lehen-lehenik erantzun lotuen emaitza kuantitatiboak eskaini nahi dira.

II.1. **Erantzun lotuak**

Koadrotxo batean ala bestean x-a markatuz, edo ezer markatu gabe, emandako erantzunetatik informazio aberatsa jaso da. Informazio horri esker posible da, orain, inpresio mailako iritzi hutsaletatik zertxobait aldendu eta izen-deitura ezaguneko hainbat euskalari-euskaltzaleren testigantza zuzenean oinarritzea. Ohizko "niri iruditzen zait..." horretatik aldenduz posible da, alegia, batezbesteko joerak eta bide-aukerak nondik nora doazen jakitea. Behin-behineko ezaguera dela hau, begien bistan dago: hobetu egin daiteke noski, bai gehiagori galdetuz eta bai galdera matizatuagoak eginaz. Inkestak anonimoa izatea mesedetako lukeela ere esan du norbaitek. Baliteke guzti hori hala izatea. Nolanahi ere, bere aje guztiekin ere jakiniturri emankorra da oraingo hau eta, hoberik izan artean, ondo kontuan hartzea merezi du. Ikus ditzagun datuok, banan-banan.

II.1.1. *1971ko arauen ezaguera*

Hitz elkartuak loturik, marrarekin ala bereiz idatzi behar diren argitzeko 1971n eman zituen Euskaltzaindiak, azkenekoz, bere arauak. Noraino ezagutzen dira gaur egun idaztarau horiek? Erantzuna adierazgarria da oso: erantzuna eman duten erdiek bakarrik ezagutzen dituzte ongi 1971ko idaztarauak. Beste erdiak handika ezagutzen ditu, edo ez ditu ezagutzen. Ondoko irudiak ematen du erantzun horren azalpen grafikoa.



1. irudia: 1971ko arauen ezaguera

Galdeketa hori euskal idazlangintzaren munduan zeharo murgildurik dauden norbanako eta elkarteei egin zaiela kontuan izanik, 1971ko idaztarau horien ezaguera-maila apala dela esan daiteke. Zergatik ote ezaguera--maila apal hori? Erantzunaren zati bat hurrengo puntuan egon daiteke.

II.1.2. *1971ko arauen argitasuna*

Idaztarau bat ikasi nahi izatea ez da berez aski, arau hori benetan ikasi eta ongi menperatzeko: arau iluna, ikasten gogoz saiaturik ere, zail da ongi ezagutzea. Argiak al dira 1971ko arauak, hitz elkartuak justu-justu noiz bereiz, noiz marraz eta noiz loturik idatzi behar diren esaten dutenak?

Erantzuleek diotenez, 1971ko arauak ez dira oso argiak. Hirutatik bati bakarrik iruditzen zaizkio, hor nonbait, 1971ko arauak guztiz argiak: beste guztien ustez ez dira oso argiak, edo guztiz ilunak dira.

Ondoko irudiak ematen du erantzun horren azalpen grafikoa.



2. irudia: 1971ko arauen argitasuna

Erantzuna are aipagarriagoa da, 1971ko arauak argiak direla eta ongi ezagutzen dituela esan duen bat baino gehiago gero, hurrengo galderei erantzuterakoan, arau horietatik aldendu egiten dela ikusirik. Ondoko puntuak ematen du, hain zuzen, erabilera-kontu honen berri.

II.1.3. *1971ko arauak zenbateraino betetzen dira*

Aurreko puntua baino adierazgarriago da, ordea, honako hau: 1971ko idaztarauak zenbateraino betetzen ditugu. Erantzuna oso argia izan da: idaztarau hori beti, behar den bezala betetzen dutenak lautatik bat bakarrik dira. Lautatik hiruk ez ditu beti betetzen, edo ez ditu aintzakotzat hartzen.

Kontuan izan galdeketa hau ez zaiela nola-halako euskaldunei, erdi-alfabetatu traketsei pasa, euskal kontuan goi-puntakoak direnei baizik (euskaltzainei, unibertsitateetako euskal irakasleei, komunikabideetako eta euskal argitaletxeetako hizkuntz arduradunei, ...).

Hauen artean bertan hitz elkartuei buruzko arau-betetzea neurri ahul horretakoa bada, pentsatzekoa da gainerako euskaldunen artean zenbatekoa izango den. Ondoko irudiak ematen du erantzun horien adierazpen grafikoa.



3. irudia: 1971ko arauak zenbateraino betetzen diren

Hori horrela izanik, bistan da 1971ko idaztarau haiek berrikusi eta egokitzeko arrazoi sendoak daudela. Arau argiak eta zehatzak eskatzen ditu jendeak. Ikus, bestela, hurrengo puntua.

II.1.4. *Arau berri baten beharra*

"Euskaltzaindiak hitz elkartuen idazkeraz arau berri bat kaleratzea zer izango litzateke zure ustez?" galdetu zaie inkesta-jasotzaileei. Erantzuna argia izan da:

%57,43rentzat, oso beharrezkoa da.

%40,54entzat, komenigarria.

%2,03rentzat, azkenik, alferrikakoa.

Kaltegarria izan ote zitekeen ere ematen zen erantzuteko, aukeran: kalte-iritzi horren aldeko erantzun bakar bat ere ez da agertu.

II.1.5. *Hitz elkartuak idazteko norbere irizpideak*

Euskaltzaindiaren 1971ko arau haiek osorik ez betetzeak eta arau berri baten eskean egoteak ez du esan nahi, halere, euskal idazleek beren egunoroko langintzan gai honi buruz inolako irizpiderik ez dutenik. Gerta liteke aitzitik, eta itxuraz gertatzen da, oinarrizko irizpideren bat bederen aski errotua izatea norberak. Nolakoa da, ordea, Euskaltzaindiaren 1971ko idaztarauak beti betetzen ez dituen idazle-gehiengo horren oinarrizko irizpide hori? Eta, batez ere, zertan oinarritzen da horretarako?

Hiru bat irtenbide ikusten ditu nagusiki, euskal idazleak, aukeran: gramatika-bidea batetik, situazio-egokiera bestetik eta, azken baina ez hutsen, estetika-bidea. Hitz-andana ihartuen multzo berezia alde batera uzten bada, badaude aldian aldiko hitz elkartua nola idatzi erabakitzeko orduan

a) Batez ere hitz-elkarte horren erabidean, bere osagaien kategoria gramatikaletan, osagai bien arteko erlazioan eta hitz-junturako hots-ezkontzan fijatzen direnak. Ikuspegi gramatikala deituko diogu hauen irizpideari.

b) Badaude, bestalde, batez ere ulergarritasunaren bila dabiltzanak eta horretarako, hitz elkartuaren barrenak miatzen ibili ordez, hitz-elkartearen aldian aldiko testuinguruaz gehiago kezkatzen direnak. Hitz-ingurune hori argitu beharra sentitzen dutenean, edota gutxienez horren komenentzia sentitzen duten situazioetan, marrarekin idazten dute. Bestela, ahal den guztian bereiz. Ikuspegi situazionala esango diogu idazle hauen irizpideari.

c) Badira, azkenik, batez ere irizpide estetikoa gogoan izanik horren arabera idazten saiatzen direnak. Ikuspegi estetikoa dela esango dugu, nagusiki, azken hauen irizpidea.

Zein ikuspegiz baliatzen dira, batez ere, erantzuna bidali duten 149 euskal idazleok?

Erantzuna burubikoa da oraingoan. Izan ere, erantzun dutenen artean

ikuspegi gramatikalaren alde %47,56 dago;

ikuspegi situazionalaren alde, %45,73;

ikuspegi estetikoaren alde, %5,49;

irizpiderik gabe, azkenik, %1,22.

Hitz elkartu bat nola idatzi erabakitzeko orduan bi irizpide dira, praktikan, gure artean korritzen dutenak: gramatika-begiz diharduenarena, edota testuinguruaren komenentzi arauaz jardun ohi duenarena. Leku txikia dago itxuraz, hitz-elkarketaren esparru honetan, kontsiderazio estetiko hutsentzat.

Honek ez du esan nahi, halere, estetika-kontuak batere indarrik ez duenik. Bigarren bidea aukeratu duen askok, esate baterako, marra--gehiegikeriak sortzen dion arbuio-sentieragatik idazten omen du ahal den gehienean bereiz.

Sentierak ez dira objektiboak ordea. Eta beste askori, horrela, marrak ez dio begietan inolako minik egiten. Are gehiago: galdeketari erantzun diotenen artean bada marradun idazkera berariaz ederresten duenik: "euskal zentzua eta sena dario (marrarekin idatzitako idazlanari)", dio halakok.

Garbi dago, beraz, estetika-kontu hutsarekin auzi hau ezin erabaki daitekeela: guztiok onartu, ikasi eta erabiliko ditugun arauak, ahalik eta arau argi-zehatzenak, dira behar ditugunak. Arauak izango baditugu, berriz, goiko bi irizpide horietariko bat aukeratu beharko dugu, edota bien arteko ezkontza-modu bat egin.

II.1.6. *Irakurtzeko, zer nahiago*

Hitz elkartuak nola idatzi erabakitzeko zein irizpidez jokatu behar den ez dago argi: jarrera-bitasun nabarmena dago hor, esan berri dugunez. Beste horrenbeste gertatzen ote da irakurtzeko orduan? Irakurtze aldetik ere bi multzo nagusitan banaturik ote gaude?

Inondik ere ez. Erantzun duten guztien %70,71k, izan ere, honako hau dio: osagaien arteko batasuna agerian jartzen duen idazkera (marratxoarekin edo erabat loturik) atseginago edo ulergarriago dela. Bereiz idatzirik dauden hitz elkartuak irakurri nahiago dituztenak %30era iristen dira doi-doi, alegia.

Idazlegoaren aldetik zalantza ageri den bezala irakurleen aldetik ez dago dudarik: gehiengo handi batek (ia hiru laurdenak) nahiago ditu nolabait (marraz edo lotura zuzenaz) markaturiko hitz-elkarteak.

Ondoko irudiak eskaintzen du, labur bildurik, esan berri dugun emaitza horren azalpen grafikoa.



4. irudia: irakurlearen irizpidea

II.1.7. *LEF batzordearen proposamenaz, oro har, erantzuleek zer iritzi*

Bi gauza galdetu die batzordeak, bestalde, 263 inkesta-jasotzaile horiei: batetik, ea teoria aldetik proposamena orohar egokia iruditzen zaien; eta, bestetik, proposamen hori erabilera edo praktika aldetik ere egokia iruditzen al zaien oro har. Hauek izan dira erantzunak

a) Teoria aldetik, proposamena:
%85,71rentzat serioski egina da,
%12,24entzat landu beharrekoa,
%2,04entzat ez da egokia

b) Erabilera edo praktikotasun aldetik, berdin. Proposamena:
%85,71ren ustez ikasi eta bete daiteke,
%12,24en ustez konplikatua edota ilunegia da; eta, azkenik,
%2,04en ustez zehaztasun gutxikoa da.

Argi dagoenez, parez pare joan dira a) eta b) ataletako galde-erantzunak.

1971ko arauak baino argiagoak dira, erantzuleen ustez, oraingo arau--proposamenok. Bost erantzuletik lauk baino gehiagok hau dio: ikasi eta bete daitezkeen modukoak direla.

Gehiengo zabal bati proposamena egoki egina eta erabilgarria iruditzen bazaio ere, bada arazorik ikusten duenik. LEF batzordearen ustez aintzakotzat hartu beharra dago horien (batez ere horien) ustea, eta azken idazkuntza egiterakoan hobetu daitekeena hobetzen saiatu beharra dago noski. Bi arrazoirengatik, besteak beste:

• euskal idazle arruntak eta 149 erantzule horiek ez dira seguru asko, arauak ikasteko erraztasun-mailari dagokionez, zeharo maila berekoak izango. Gerta litekeena da, alde horretatik, 149 erantzule horien %85ari ikasteko modukoa iruditzen zaion araua idazle arruntei ez hain erraza gertatzea.

• Oraingo arau-azalpenok 1971koak baino zehatzagoak iruditu arren, konplikatuegiak ere badira hainbatentzat. Eta "hainbat" horiek, gainera, berariaz aipatu dute beren erantzunetan konplikatu horren zer-nolakoa. Erantzun libreetatik, gehien aipatu izan den puntua da hau. Hori ezin da, beraz, %12 baten gutxiengo-aitzakian alboratu. Aurrerago helduko zaio, berriro, puntu honi.

II.1.8. *Erantzuleen idaztohiturak eta hobespenak*

Bazen, guztiarekin ere, batzordeari inkestatuengandik jakitea bereziki interesatzen zitzaion puntu-pare bat. Honetaz eta hartaz erantzule bakoitzak izan dezakeen iritziaz gainera,

– gaur egun nola idazten ditu erantzule horrek, benetan, hitz elkartu konkretuak?; eta, era bateko edo besteko idaztohitura horiek alde batera utzita,

– LEF batzordeak prestaturiko arau-proposamen konkretuetan zer onartuko luke erantzule horrek dagoen-dagoenean, eta zer aldatuko luke? Aldatzekotan, gainera, nola aldatuko luke?

Berariaz aztertuko dira, ondoren, bi puntu horiek.

II.1.9. *Erantzuleen idaztohitura*

Hitz elkartu jakin-konkretu batzuk eskaini zitzaizkien erantzule posibleei. Hitz elkartu bakoitza hiru eratara idatzita aurkezten zitzaien: bereiz, marrarekin eta loturik (bat eginik). Eta hauxe eskatzen zitzaien: esan zezatela zein idazkeraz baliatzen ziren beraiek kasuan kasuko hitz elkartu hori idazteko.

Erantzunak aski argigarriak izan dira. Alboko orrialdean doa, aurre-iruzkin luzeagorik gabe, erantzun horien azalpide grafikoa.

Ondorio batzuk azkar samar atera daitezke erantzun horietatik. Horrela,

a) Zenbait kasutan adostasun handia (%80tik gorakoa) dago hitz-elkarte jakin batzuk idaztekoari buruz: gehiengo handi-handia da, adibidez, *idazmakina* eta bere modukoak loturik idazten dituena. Erabateko gehiengoa da, orobat, bai *baldar-baldarra* eta bere segidakoak eta bai *seme-alabak* modukoak marraz idazten dituena. Horietan badirudi Euskaltzaindiak ez leukakeela buruhauste handirik, 1971n urratutako bideari eutsiz (hainbat kasutan ordukoa berretsiz) erabaki argi bat hartzeko: dagoeneko aski ohitura sendo eta bateratua dago, izan ere, egungo idazleen artean, hitz-elkarte horiei buruzko idazkera-kontuan.


baldarbaldarra
baldar-baldarra
baldar baldarra
semealabak
seme-alabak
seme alabak
[gizon] sudurrokerra
[gizon] sudur-okerra
[gizon] sudur okerra
suitzalgailu
su-itzalgailu
su itzalgailu
eguraldialdaketa
eguraldi-aldaketa
eguraldi aldaketa
idazmakina
idaz-makina
idaz makina
irakurtzaletasun
irakur-zaletasun
irakur zaletasun
paperfabrika
paper-fabrika
paper fabrika
arkumeizter
arkume-izter
arkume izter
programazioikastaro
programazio-ikastaro
programazio ikastaro
ogipuska
ogi-puska
ogi puska
0
20
40
60
80
100
120
140

b) Beste zenbait kasutan ezin esan liteke, ordea, adostasun-giro handirik nabari denik egungo idazleon artean. LEF batzordeak jasotako erantzunen arabera, ondoko hiru elkarte-mota hauek dira funtsean arazo-ituri nagusiak:

• Menpekotasunezko izen-elkarteak (*eguzki-lore, paper-fabrika, arkume-izter, programazio-ikastaro, ogi-puska* idatzi, marraz; ala *eguzki lore, paper fabrika, arkume izter, programazio ikastaro, ogi puska* idatzi, bereiz).

• Hitz-elkarte sintetikoak (*su-itzalgailu, zerga-biltzaile, eguraldi-aldaketa* marraz, ala *su itzalgailu, zerga biltzaile, eguraldi aldaketa* bereiz) (egia da, gainera, kasu honetan *suitzalgailu* moduko idazkera lotuak ere badituela bere aldekoak).

• Bahubrihiak (*sudurroker, sudur-oker* ala *sudur oker* exozentrikoak).

Hiru multzo hauetan ez dago, gaur egun, a) atalean aipaturiko haietan bezalako adostasunik. Eta horra: hiru multzo hauek oso garrantzitsuak dira alde askotatik. Kopuru aldetik, adibidez: gaur erabiltzen eta, batez ere, sortzen diren hitz-elkarte gehienak multzo horietarikoak dira. Hiru hitz-elkarte horietan adostasunik ez egoteak ez du esan nahi, halaz ere, idazkera-molde guztiak (loturik, marrarekin, bereiz) berdin erabiliak direnik. Menpekotasunezkoetan eta ekintza-elkarte sintetikoetan, kasu, hitz elkartuok alemanek bezala, zeharo loturik alegia, idazteko forma inork gutxik hobesten du (orain ez gara, jakina, hitz-andana ihartuez edo bigarren osagaia *-aldi, -bide* modukoa dutenez ari). Beste bi idazkerak ere (bereiz, marrarekin) ez dira berdin hobetsiak: jasotako erantzunen artean marraren alde agertu direnak gehiago izan dira, kasu guztietan. Kopuru-diferentziak txikiagoak dira, ordea, bi joera horien aldekoen artean. Aurrerago helduko diogu, berriro, puntu garrantzitsu honi.

II.1.10. *Arau-proposamenen onarpen-maila: erantzuleen aldaketa-proposamenak*

LEF batzordeak hitz elkartuen idazkerari buruz bidalitako galdeketak bazuen, azken aldean, puntu interesgarri bat: batzordeak hobetsitako idazkera konkretua eskaintzen zitzaion inkesta-jasotzaileari kasu bakoitzean; eta honek, inkesta-jasotzaileak alegia, kasuan kasuko idazkera horrekin ados zegoen ala ez esan behar zuen. Ados ez bazegoen, gainera, bere ustez forma egokia zein litzatekeen esatea eskatzen zitzaion.

Galdeketa osotik puntu hau gertatu da, espero zitekeenez, eskuartean dugun zereginerako argigarrien. Hor agertu da, izan ere, erantzuleen gogoa eta nahia inon baino argiago isladatua. Hor ikusten da lauzpabost urteko azterlanaren ondorioz aurkeztu diren arau-proposamenak noraino diratekeen egungo idazle euskaldunen gogozko (edota onartzeko modu-

koak), eta zer-nolako desadostasuna sor dezaketen. Euskaltzaindiak garbi jakin behar du horren berri, pisuzko erabakirik hartu aurretik.

Ondoko taulak ematen du, behar den xehetasunez, 149 erantzule horiek batzordearen idaztarau-proposamenak (hitz elkartuen idazkerari buruzko arau-proposamenak alegia) noraino ontzat eman dituzten. Hona emaitzak:

Elkarte-mota	Marraz	Bereiz	Lotuta	Adostasun-maila	
				Zenbat	%
1.1.1 paper-fabrika, adierazpen-askatasun	b.p.*	39	7	103	69,13
1.1.2 giza eskubideak	10	b.p.	1	138	92,62
1.1.3 hizkuntz politika	13	b.p.	1	134	90,54
1.1.4 idazmakina	13	2	b.p.	134	89,93
1.1.5 aspertu-itxura	32	b.p.	0	117	78,52
1.2.1 zin egin	4	b.p.	5	140	93,96
1.2.2 itxuraldatu	1	4	b.p.	144	96,64
1.3.1 haragizale, asegaitz	2	1	b.p.	146	97,99
1.3.2 erre berri	11	b.p.	7	130	87,83
1.4 oneritzi-emaile	b.p.	24	5	120	80,54
2 zango-luze	b.p.	16	27	106	71,14
3 izeba-osabak, zuri-beltzak	b.p.	6	7	136	91,28
4 Oria ibaia	2	b.p.	0	147	98,66
5 Jainko Aita, etxe orratz	1	b.p.	2	146	97,99
6 poliki-poliki	b.p.	10	3	136	91,28

Oharra: delako b.p. horren esanahia hau da: "batzordeak proposatua".

Ohar hauek egin nahi dira taula honi buruz

a) Delako 1.1.5. proposamena gaizki agertu zen galdeketan, eta aldaketa-proposamen asko erru hori konpontzeko eginak ziren. Bertan agertzen diren 32 aldaketa-proposamen horiek, ondorioz, hutsegite horren argitan ulertu behar dira.

b) Anomalia hori alde batera uzten bada, 149 erantzuletatik 63k (hau da, %42,3k) bere hartan onartzen ditu LEF batzordearen arau--proposamen guzti-guztiak. Gainerako 86k (%57,7 erantzulek, beraz) gutxi edo asko aldatu egingo lituzke idaztarau-proposamen horiek: batzuek honako puntu hau aldatuko lukete, beste batzuek horko hori eta, zenbaitek, proposameneko puntu hau, hori eta hura.

c) Puntu askotan, desadostasun-maila oso txikia da: %10ekoa edo txikiagoa. Horrek honakoa esan nahi du, batzordearen ustez: bere zertze-

lada nagusietan behintzat idaztarau jakin horiek aski onartuak izango liratekeela Euskaltzaindiak bere horretan hartuko balitu. Pozgarri da, noski, hori ikustea: hitz elkartuen mendez mendeko idaztohiturak xeheki aztertzeaz gainera gaur eguneko joera nagusiekin aski ongi konektatzen jakin da, itxuraz, puntu horietan. Horri eskerrak adostasun handiko puntuak zein diren, eta zein joeratakoak, aski argitzea lortu dela uste da.

d) Badira ordea, gorago esan denez, halako adostasunik ageri ez duten puntuak. Honako hauek dira, labur bildurik, auzi-iturri direlako puntuok:

- *liburu-azoka* moduko hitz elkartuak;
- *telebista-konpontzaile* modukoak, eta
- *(lapitz) punta-zorrotz* modukoak.

Batez ere puntu horiekin loturik dauden hots-aldaketak eta berrelkarketa-kontuak gordin samar daudela ikusi da orobat.

Banan-banan ikusiko da, ondoren, puntuotan zer-nolako desadostasuna ageri den 149 erantzuleen artean.

a) *liburu-azoka* modukoak marrarekin idazteaz

Esan dezagun, hasteko, erantzule guztien % 69,1 konforme ageri dela elkarte-modu hori marraz idaztearekin. Gehiengo zabala da, beraz, marraren aldekoa. Hori da lehen-lehenik aipatu behar den puntua, ondoren egingo diren oharrek oinarrizko datu garrantzitsu hori erdi-ezabatu ez dezaten. Ondotxoz gutxiago izanik ere asko dira, bestalde, marra-idazkera nahi ez dutenak: %30,9.

Normalean marra erabili nahi ez luketen guztiok, dena den, ez dira aburu bereko: batzuek zeharo loturik idatzi nahi lituzkete hitz-elkarte horiek, eta besteek bereiz. Lehenengoak, erabat loturik idaztearen aldekoak, gutxi dira zinez: erantzule guztien %4,7. Gehiago dira, aldiz, liburu azoka modukoak bereiz idaztearen aldekoak: erantzule guztien %26,2. Norbaitek esan dezake noski %26,2 ez dela kopuru kualifikatua, eta gehiengo zabalaren aukera besterik gabe onartu beharko lukeela gutxiengo horrek. LEF batzordeak ez du horrelakorik uste izan. Aurrerago emango dira iritzi honen aldeko arrazoiak.

b) *telebista-konpontzaile* modukoak marrarekin idazteaz

Hemen ere, aurreko puntuan bezala, baieztapen batekin hasi behar dugu: erantzuleen %80,5 konforme agertu da batzordearen proposamenarekin. Hots, hitz elkartu sintetikoak marraz idazteari ez lioke erreparorik jarriko. Aurrekoan baino are adostasun zabalagoa dago beraz hemen. Kontrako iritzia agertu dutenak ez dira gainera guztiak, oraingoan ere,

asmo berekoak: gutxi batzuk (erantzun duten guztien %3,4) hitz elkartuok loturik idaztearen alde agertu dira; gainerakoak (%16,1 beraz), aldiz, bereiz idaztearen aldeko dira. Dudagarriagoa da, kasu honetan, bereiz idaztearen aldeko joerari zer pisu eman behar zaion: kontuan hartzekoa da, alde horretatik, *liburu azoka* modukoak bereiz idaztearen alde agertu den batek baino gehiagok ongi ikusten duela *zerga-biltzaile* modukoak marraz idaztea. Ez dirudi, beraz, batean eta bestean hedadura bereko iritzi-desberdintasuna dagoenik.

c) *(lapitz) punta-zorrotz* modukoak marraz idazteaz

Hemen ere marraz idaztearen proposamenarekin ados agertu dira erantzule gehienak: %71,1 konkretuki. Besterik nahi dutenetan, berriz, gutxienak dira bereiz idaztearen aldekoak (%10,7); gehienak (%18,1) loturik idaztearen alde daude. Pentsakizun bat baino gehiago ematen du, noski, alde bietako dispertsio horrek. Idaztohituren tradizio-falta izan liteke arrazoietako bat. Bestea, berriz, alor honetako adibide askoren ihartze-kutsua. Aurrerago helduko zaio xehekiago puntu bihurri honi.

II.1.11. *Labur bilduz*

Batzuek eta besteek batzordearen galdeketari emandako erantzun lotuek puntu bat baino gehiago argitzen lagundu dute. Honako puntuok, bederen, kontuan hartzekoak dira:

a) Erantzuleak Euskaltzaindiaren erabaki ofizial baten esperoan daude. 1971n gai horretaz emandako arauekin gehienek ez dute aski: beren ustez ez dira behar bezain argiak; eta, ondorioz, beren eguneroko idazjardunean ere ez dituzte beti betetzen edo aintzakotat hartzen.

b) Erantzuleen gehiengo zabal bat (%90 ingurukoa eta are hortik gorakoa) ados dago funtsean batzordeak, puntuz puntu egindako aztersaioaren buruan, hitz elkartuen idazkeraz prestatu dituen aurre-proposamen gehienekin.

c) Hiru hitz-elkarteren kasuan, horietan ere erantzule gehienak (batean %69 inguru, bestean %80 eta azkenean %71) konforme agertu arren, arau-proposamenarekiko desadostasun-maila ohargarria da. Eta, ondorioz, hiru puntuok kontuzago aztertzea merezi luke. Esan beharra dago, gainera, egungo hitz-elkarte ugarienak hiru multzo horietan sartzen direla.

II.2. **Erantzun libreak**

Lehenago esan denez, kasuan kasuko koadrotxoetan x-ak markatzeaz gainera besterik ere egin dute 149 erantzuleek. Puntu honi edo

horri buruz zituzketen uste-aburuak eman ahal izan dituzte, inolako muga edo loturarik gabe. Horiek osatzen dute, hain zuen, atal honetan azalduko diren erantzun libreen saila.

Askok eman du erantzun librerik. Batek baino gehiagok, inkesta-orrian kabitzen ez eta, aparteko txostenean eman du bere erantzun libre hori. Eskerronezko aipamena egin nahi die guzti horiei, gerora gabe, batzordeak. Aberatsa izan da, benetan, erantzun libreen sail hori. Iritziotan ez dira idazkera-kontuak bakarrik astindu: lehen osagaiaren amaierako >a< galdu / ez galdu, berrelkarketaren noiz-norainokoak, posposizioen berezitasun-maila,... eta hitz elkartuen osaerari dagozkion beste hainbat puntu zehatz-mehatz aipatu (eta, inoiz, landu) dira bertan. Koadro lotuetan xeheki azaldu ezin zen hainbat ûabardura eta oinarrizko irizpide hor agertu da, gordin eta biluz, estatistika hotzen osagarri eta are zuzentzaile.

Ez da erraza, ordea, erantzun libreok labur biltzea. Arrazoi birengatik, besteak beste:

a) Dispertsio handiagatik, alde batetik: gusto guztietako erantzunak, eta erantzun asko, jaso dira galdera gehienetan. Ugariaren ugariaz, ordea, zaila da sintesi-lan ganorazkorik eskaintzea: zuhaitzen gehiegiak oihana bere osoan ikustea oztopatu egiten du hemen ere.

b) Hainbat erantzunek ez du erraztasunik ematen, bestalde, betibateko ondoriorik ateratzeko. Adibidez, askok esan du arau xinpleak, hainbat konplikaziorik gabeak nahiago lituzkeela aukeran. Hori esan duen batek baino ondotxoz gehiagok azpimultzoen azpi-azpimultzoak egin nahi lituzke ordea, han-hemen, holako edo halako kasuri trataera berezia emateko. Zabal eta hertsi, biak batera ezin ordea.

Eragozpen horiek kontuan izanik, eta ohar nagusi-ustekoei lehentasuna eman nahirik, honako laburpen-sorta prestatu da erantzun libre horiekin.

II.2.1. *Arau ilunak*

"Ilunegiak, konplikatuak, azpimultzo sobera dutenak dira LEF batzordearen arau-proposamenak". Askok eman du, ûabardura bat edo beste erantsiz, erantzun kritiko hori. Hau izan da alegia, gorago ere aipatu denez, ohar kritiko errepikatuena. Gehien-gehienek (%85 pasatxok) arau-proposamena ikasi eta bete daitekeen modukoa dela esan duten arren, ez dira horien artean ere falta konplikazio gehiegiaren beldur agertzen direnak.

Zein da arazo honen irtenbidea? Teorian argi dago: erantzuleen beraien hitzetan esateko,

— "jende guztiarentzako arauak eratu behar dira: zehatzak, argiak eta sinpleak";

— "gramatika jakin gabe erraz bete daitezkeen arauak" behar dira;

— "idazlea beti arauei begira egongo ez den" moduko soluziobidea hartu behar da;

Oso zuhurrak dira irizpide nagusiok. Itxutasun handiz jokatuko luke, nolanahi ere, kriterio horiek baztertuz eta gutxietsiz lebilkeenak. Praktikan kontuak ez daude, ordea, hain garbi: gauza bat da, izan ere, arau *zehatzen* bila ibiltzea; eta bestea, aski bestea, arau *sinpleak* eskatzea. Sinpleak dira, ezin sinpleagoak, 1971ko arauak. Sinpletasun horrek eguneroko idazlangintzan ekarri dituen zehaztasun-maila ahula eta bateratasun falta begien bistan daude ordea.

Hitz elkartuen mundua bera da aski konplikatua, guk nahi ala ez. Berez da korapilatua, ez inork hartaratu duelako. Beste zenbait hizkuntzak sintagma-erabide desberdinez (adjektibo erreferentzialez, kasu) edota lexiko-sorbide bereziz (adizki-aurrizkiez, batez ere) eman dezaketena hitz-elkarteen bidez eman nahi izaten dugu euskaldunok. Besteren preposizio-sorta ere hitz-elkarteen anaia bikia edo dugun posposizio-bideaz ematen ahalegintzen gara, orobat. Eta arrazoi handiz; euskararen beraren jiteak eta jatortasunak ahal delarik honela jokatzea eskatzen duela denok aitortua dugu, aldez edo moldez.

Horrek berez dakar, ordea, halako konplexutasun-maila bat. Aski gauza desberdinak ditugu, alegia, hitz elkartuen zaku honetan: eta elementu denei kolore eta itxura berbera ematea ez da ez erraza eta ez zentzuzkoa. Beti edo ia beti idazkera-arau berberaz baliatzen direla dioten gehienak ere ahaliritzira ibiltzen dira sarri asko, orain honela eta gero hala ari direla: berauen dozena-erdi bat testu hartu eta alderatzea aski luke, horren zalantzatan legokeenak.

Erreparo hau jartzeak ez du ordea, goian aitortu den bezala, ahal den guztian zehaztasuna, argitasuna eta sinpletasuna elkarrekin ezkondu nahi hori gaitzesten. Aitzitik, eginkizun zaila izanik ere begien bistatik inoiz galtzea komeni ez den oinarri-araua izan behar luke guztiontzat. Entenditzen zailak diren arauak nekez ikasiko ditu batezbesteko euskal idazleak, eta nekezago erabiliko. Erraza, argia eta zehatza batera bilduko dituen orekagunea aurkitzea, hori izan behar dugu beraz denok xede.

II.2.2. *Marraren on-gaitzak*

Marra bai, marra ez: hori gertatu da bestalde, erantzun libreetan, eztabaidagai nagusi. Beste puntu eta punttu asko jorratu dituzte erantzun-

-emaileek beren iritzi-azalpenetan, aurrerago adieraziko denez. Hau bezain auzigai bizirik ez da, ordea, agertu.

Espero izatekoa zen hori. Bagenekien alegia, erantzun lotuetatik bertatik, beste hainbat alorretan adinako adostasunik ez dagoela puntu horri dagokionean: menpeko *eguzki-lore* edo *liburu-azoka* izen-elkarteetan, *telebista-konpontzaile* edo *datu-bilketa* sintetikoetan eta *(hegazkin) punta--zorrotz* modukoetan ageri da, batez ere, adostasunik eza. Lehenengo bi multzoetan bereziki, hirugarrenean besterik baita hainbatean. Ez pentsa, ordea, eztabaida osoa bizpahiru puntu horietara bakarrik mugatua dagoenik: erraztasunaren izenean, hizkuntzak berak hala eskatzen omen duelako edota beste arrazoibideren bat dela medio, salbuespenak salbu beti bereiz edo beti marrarekin idatzi nahi luketenak ere ez dira tartean falta. Gutxienak dira, ordea, mutur banatako aldezle horiek. Gehiago ditugu, aldiz, batezbestean bereiz idazteari hobe deritzotenak edota normalean, sintagma-eraikuntza jakin-mugatuetan, marrarekin idaztearen aldekoak. Bi multzo nagusiok xeheago mugatzen dituzte beren irizpideak. Eta, asko zein gutxi, batzuek eta besteek beren lekua eskaintzen diete idazkera lotuari, bereiziari eta marra bidezkoari.

Ahal delarik bereiz, marra gabe idatzi nahi dutenek hiru eragozpide ikusten dizkiote, nagusiki, *eguzki-lore, telebista-konpontzaile* edota *maiztasun--azterketa* moduko marra-idazkerari:

— Itsusitasuna: "prusianismoa", "suban-estrujen-bajen-deutschen"-kutsua hartzen zaio marra-bideari, zenbait erantzuleren hitzez esateko. Antiestetikoa da, horien ustez, marra bidezko idazkera. Gehienak ez dira iritzi horretako; baina multzo kunplitua osatzen dute marra bidezko idazkera begi-mingarri gertatzen zaiela diotenek. Aintzakotzat hartu beharreko erreparoa da hau: gustatzen ez den idazmoldeak nekez egingo baitu, Hizkuntz Akademiaren hobespen-aitormena berekin izanik ere, bide luzerik.

Non ote du "estetikarik ez" horrek bere iturria? Erdal estetikan, beste erantzuleren baten hitzetan esateko. Litekeena da azken hau. Bizi garen inguramenduan bizi gara noski, eta aurrerantzean ere biziko. Auzo--hizkuntza nagusiak, gaztelania eta frantsesa, ez ditugu marra bidez elkarturiko hitz-andana libreen zale. Ingelesa bera, hain albo-albokoa izan ez arren gero eta ezagunago duguna, marragabea da bere hitz-elkarte gehienetan. Guzti horrek ere eraginik badu: auzo-hizkuntza nagusi horien bereiz idazteko joera horrek markatzen digu, hein batean, zer den euskararentzat eder eta zer trakets.

— Marraren beharrik eza: prosa literario arruntaren ikuspegitik, batez ere, ez bide dago zeinu horren beharrik. Marrak ez du testu barruko anbiguotasunak argitzen laguntza handirik ematen, testu barruko anbiguotasunak zinez bakanak direlako. Eta, okerrenean ere, bere-berezkoa

omen du edozein testuk, euskaraz zein erdaraz, halako anbiguotasun--apur bat.

— Marra zuzen erabiliko bada, ikasi egin behar lehenik noiz erabili eta noiz ez. Eta ikastea, honetan ere, lan nekeza da. Zenbat eta arau eta azpiarau gehiago eman, hainbat eta zailago gainera. Marra-idazkerak, labur esanik, karga bat gehiago eransten dio bestela ere zamatu samarrik dagoen euskal idazleari.

Alde horretatik badago zer hausnartu eta zer argitu, euskal idazlegoari emendiozko nekebiderik gaineratu aurretik. Marrarik ahal den gutxien erabiltzeko gomendioa, hainbat kasutan auzi-iturri gertatuko bada ere (zer da, izan ere, "ahal den gutxien" hori?), ikasten errazagoa da. Eta erraztasunak balio du, horrelakoetan, gramatikaren edo beste zerbaiten logikak adina edo gehiago.

Marraren aldekoek besterik diote, noski. Hauen jokabidea ere hiru oinarri nagusitara biltzekotan honako hauek dira, itxuraz, maizenik azaltzen diren argumentu-euskarriak:

— Baliteke testu guztiek halako anbiguotasun-punta bat berea izatea, eta hori kaltegarri ez gertatzea; baina anbiguotasuna ez da, berez eta nolanahi, inongo mesede. Zalantza dugun guztian anbiguotasun hori murrizten eta bakantzen, ez onartzen eta ugaritzen, saiatu beharko genuke beraz. Auzia ez da, gainera, txuri ala beltz artekoa, maila-kontua baizik: marra gabeko hainbat eta hainbat testu anbiguoago da, objektiboki froga daitekeenez, arrazoizko irizpide baten arabera marrarekin idatzitako ordaina baino. Diskutigarria da, horrelakoetan, marra bidezko idazkerak gutxi ala asko laguntzen duen: testuinguruak, irakurlearen euskal senak, irakurtzeko ohiturak eta abarrek zeresan nabarmena dute horretan. Honakoak dudarik ez du, ordea: marrak lagundu egiten duela anbiguotasun hori arintzen.

— Ondorioz, irakurlearen lana erraztu egiten du marrak. Marra bidez testu batek errazago iragartzen dizkio irakurleari hitz-elkarteen sintagma--mugak, hasi eta buka, non daudekeen. Hitz elkartuen mikrosintaxi-alor trinko horren barne-loturak eta kanpo-mugarriak garaiz adierazten ditu marrak. Euskararen joskera-molde jatorrak ongi ezagutzen dituen irakurleari lagundu egiten dio, beraz, begien aurrean duen testu-masari bere baitako esanahi-zukua osorik eta bizkor ateratzen. Marra gabeko idazkera idazlearentzat errazago gerta daitekeen bezala, marradun idazkerak laguntza sendoa eskain diezaioke irakurleari.

— Euskal doinuera jatorrari eusten lagundu egiten omen du, gainera, marra bidezko idazkerak. Ez doinuera-kontu osoari, bistan da; bai, ordea, izen-sintagmaren barruko azentu-unitate ohizkoenari. Hitzarte horretako azentu-batasunak semantika-unitate zabalago horrekin badu harremanik.

Gauza bat da "*haizeak lurrera bota zuen txori izugarrri hura*" esatea, eta bestea "*haizeak lurrera bota zuen txori-izugarri hura*" adieraztea. Doinuera desberdina eskatzen dute, ezinbestean: "*pájaro enorme*" eta "*espantapájaros*" direlakoek. Auzo-hizkuntzak hitz-erabide desberdinez ematen dituen elementuok, doinuera edo azentuazio hutsez bereizten ditu euskarak. Eta on da, dudarik gabe, mintza-mailako bereizketa erabakigarri hori idatziz ere argi agertzea. Azentuazio-molde jatorrari eusteko laguntza baliotsua da, irizpide honen arabera, joskera-molde librean bereiz idatzi ohi diren hitz-andanak marrarekin (edo, forma ihartu askotan, loturik) idaztea.

Gero eta sarriago erabiltzen da euskara mikrofono aurrean, irrati--telebistetan bereziki, boz gora irakurriz. Zenbait kasutan jasotzen diren emaitzak hain badaezpadakoak izanik, doinuera egoki horri lagunduko dion marra-idazkera hobestea komeni omen da.

Bietarako daude beraz, "marra bai/marra ez" auzigai honetan, arrazoiak eta argumentu-oinarriak. Alde bien azalpen ernagarria eskaini dute, itxura osoz, erantzule batzuek eta besteek LEF batzordearen galdekizunari emandako erantzun libreetan.

Bada, dena den, gai hau dela eta ahaztu ezin den datu bat: batzordearen arau-proposamenarekin ados agertu ez diren erantzuleen artean, gehiengoa osatzen dute proposamena marradunegia dela diotenek. Batzordearen proposamenean baino marra gehiago nahi lukeenik ere agertu da tartean, baina gutxiago dira horiek.

II.2.3. *Posposizioa: zer da hori?*

Posposizioekiko mesfidantza handia ageri da, bestalde, hainbat oharretan. Bati "disparatea" iruditzen zaio, esate baterako, *mendi-gaina* izen--elkartetzat hartzea eta *mendi gainean* hitzartean, aldiz, *gainean* hori posposizioa dela esatea. "Irentsiezina" omen da, beste erantzule batek dioenez, bereizketa hori. "Hizkuntza kontuan profesionalak ez direnentzat nahasgarria" omen da alor-banaketa hori, hirugarren baten ustean. *Liburu--azoka* edo *mendi-gaina* bezalaxe idatzi behar omen dira "posposizio" direlako horiek: *mendi-gain* moduko elkarteak marraz idaztekotan, hori dela eta, *mendi-gainean* ere marrarekin idaztea proposatzen dute ohargileok.

Posposizioak noraino diren kategoria logiko eta berezkoak argitzea ez dagokio LEF batzordeari. Ondoko bi puntuok argi daude halere, eta horiek hartu nahi dira hemen kontuan:

a) "posposizio" kontzeptua ez da azken orduko asmakari badaezpadakoa. Euskarari buruzko bibliografia teknikoan ez da han eta hemen, aspaldi samarretik, funtzio-adierazlearen lana egiten duten elementu haue-

taz berariazko azalpenik falta: ikus, adibidez, R.M. Azkueren *Morfología Vasca*, 473-77 orr., P. Lafitteren *Grammaire Basque*, 163-172 orr. eta L. Villasanteren *Estudios de sintaxis vasca*, 47-109 orr.

b) Gramatikalariek diotenaz gainera besterik ere bada, bestalde, kontuan hartu beharrekoa: marratxoa erabiltzen duen idazle-jendeak, hainbat idazlek bederen, bereizi egiten ditu, zinez, izen elkartuak eta posposizio--andanak idazterakoan. *Trenbidea, zine-barrua* edo *teilatu-gaina* idazten duen hainbatek, alegia, *tren bidez (bidali), zine barruan (elkartu)* edo *teilatu gainetik (erori)* idazten du. Posposizio kontua ez da, idazleontzat behintzat, gramatikazko abstrakzio-arau hutsa.

Egia da, alde horretatik, hitz elkartuak bereiz idazten dituztenek buruhauste bat gutxiago dutela: batean zein bestean marra gabeko idazkera bera erabiltzen dutenez, huts egiteko arriskurik ere ez dute.

II.2.4. *Hitz-andana ihartuak: hiztegi-kontuak hiztegira; erdararen mirabe?*

Hitz-andana ihartuak direla eta, proposamen-txostenean aurkezturiko zerrenda ez da askoren gogo-betegarri gertatu. Era bateko edo besteko arrazoiak direla medio, hainbat erantzulek kritika-ohar sendoak egin dizkio zerrenda horri. Bi arrazoibide agertu dira, nagusiki, ohar kritiko horietan:

a) hitz-andana ihartuen zerrenda hori ez omen da osatua: forma ihartu asko eta asko falta dira bertan. Zer dela eta, beraz, elementu bati kabida eman eta berak adina eskubide duten beste hiruzpalau kanpoan utzi? Hitz-andana ihartuen erdia baino ondotxoz gehiago kanpoan uzten duen zerrenda batek zer aurrerabide dakarkigu? Kritika hori egin dutenek beraiek bi soluzio-molde eskaini dituzte, bide batez: hitz-zerrenda osatu, edota hitz-andanen zerrenda hori ezabatu.

b) espainolaren menpekoegi ibili omen da LEF batzordea, hainbat elementu lexikal hitz-andana ihartuen zerrenda honetan sartzerakoan. Hitz-andana ihartutzat hartu omen ditu ez benetan iharturik daudelako, zenbaitek loturik idazten dituelako baizik. Eta zenbait horiek auzo-hizkuntza nagusiaren imitazioz, ez euskal ohiturak hartaraturik, ematen omen dituzte hitz-andana horiek loturik. *Zapata-kaja* hitz bitan (bereiz edo marrarekin) eta *zapatadenda* loturik idaztearen arrazoia, funtsaren funtsean, exonormatiboa omen da alegia: *caja de zapatos*-ek bi hitz (gehi preposizioa) dituela eta *zapatería*-k, aldiz, bakar bat.

Ez da erraza, benetan, arrazoibide honen balio-indar zehatza neurtzea. Semantikara hurbildu orduko hutsaldu, edota gutxienez lausotu, egiten dira sarri batzuon eta besteon kontzeptu-kategoriak. Gezurra, gezur osoa, denik apenas, dena den, esan daitekeen: asko edo gutxi, horrelako

zerbait tartean dagokeela onartzekoa dirudi. Orduan ere zilegi litzateke, noski, erantzunbide hau: hitz-morrontza hori neurri on batean egia balitz ere, zer? Nork esan digu exonormatibismo hori, beti eta nonnahi, euskararen kaltegarri denik?

Galdera egiten errazagoa da horrelakoetan, nolanahi ere, asebetezko erantzuna ematen baino. Hobe izango da beraz, gure jakitearen mugak eta flakeziak aurrez aurre aitortuz, kritika horiek eta aurreko atalekoak (zerrendaren osotasunik ezarenak) aintzakotzat hartzea.

Hala egiten du batzordeak. Eta, ondorioz, azken proposamenean hitz-andana ihartuen zerrendarik ez du eskainiko. Horren trukean gisako izango da, laburrik bederen, gomendio-arauen sarreran ihartze-kontu honetaz azalpen-saio bat eskaintzea.

II.2.5. *Luze-laburraz eta gardentasunaz ahaztu egin omen*

"Hitz-elkarteko osagaien luze-laburrak ez dira kontuan hartu; osagaien gardentasuna ere ez". Horra beste zenbaitek egindako oharra. Ohargile batzuen ustean, hitz elkartuak loturik, marrarekin edo bereiz idatzi erabakitzeko orduan gramatikazko irizpidea bezain erabakior izan behar lukete beste bi faktoreok ere; eta proposamen-txostenak ez ditu faktoreok, horien ustez, behar bezain kontuan izan.

Badu kritika honek ere bere arrazoi-punta. Egia da, horrela, badagoela euskaraz, bere batezbestekoan, halako joera bat

a) hitz-elkarte luzeak, silaba ugarikoak, loturik ez idazteko: askoz errazago joko dugu *lantalde* loturik idaztera, *informaziobulego* moduko elkartea bat eginik idaztera baino; lau silaba edo gehiago dituen hitza, batez ere, bihurria gertatu ohi da mugatzaile gisa loturik emateko;

b) hitz-junturan hots-topaketa bihurriak gertatzen direnean, bestela loturik idatziko liratekeen hitz horiek, luze zein labur, marrarekin (inoiz, ez hain sarri, bereiz) idazten dira: *amildegi, amiltoki*, baina *amil-leku, amil-lerro.*

Egia da, neurri on batean, LEF batzordearen proposamen-txostenean leku estua, estuegia nonbait, eskaini zaiola irizpide horri. Aintzakotzat hartzen da beraz, neurri batean, kritika. Eta, azken proposamenean, luze-laburren eta gardentasunaren aipamen argiagoa egiten da.

Neurri batean har daiteke ordea, ez osotoro, faktore hori kontuan. Kasuistika hutsean bukatuko genuke izan ere, bide horretan barrena abiatuz, uste baino lehenago: "lehen osagaia luze, hitz-juntura bihurri, bigarren osagaia normal", "lehen osagaia luze, hitz-juntura garden, bigarren osagaia luze", "lehen osagaia normal,..." Lehendik konplikatu sama-

rra dugun alorra, aukeran sinplifikazio-egarri omen dagoena, are gehiago ilunduko genuke. Arau eta azpiarau gehiegik badakigu noski zer arrisku duen: arau praktikorik gabe gelditzekoa.

II.2.6. *Hots-aldaketaz ez da ahaztu behar*

"Hitz-junturetako hots-topak, eta haietarik sor daitezkeen hots-aldaketak, ez dira gomendio-arauetan behar bezain gogoan izan" esan digu batek baino gehiagok. Honako hau erantsi du, gainera, zenbaitek: "lehen osagaiak amaieran /a/ duenean, bereziki, arinegi aipatu da azken /a/ hori galdu ala gorde auzia". Beste kezkarik ere agertu zaigu, azkenik, puntu honen gainean: "arau-proposamenean egiten denaren justu alderantziz, azken /a/ hori galtzen denean edota hitz-junturan bestelako hots-aldaketaren bat gertatzen denean erabili behar litzateke marra, inon erabiltzekotan". Loturik dago puntu hau, bistan denez, lehen osagai edo mugatzailea *giza, itsas, erret* edota *euskal, erdal* duten hitz elkartuen idazkerarekin.

Auzi bihurria da hau, eta hobe izango dugu pausoz pauso joatea. Gogoan har ditzagun, horretarako, honako kontuok:

a) Egia da batzordearen puntuz puntuko arau-proposamenetan hitz-junturetako hots-topak bakan aipatzen direla. Ez horiek bakarrik ordea: irakurleari lana arindu nahirik, ahal den azalpen formalizatu gutxien eta, horren truk, ahal den adibide praktiko gehien sartu zen arau-proposamen haietan. Hitz-junturetako hots-topaz ere, ondorioz, zail da puntuz puntuko gomendio-arauetan esplikazio luzerik aurkitzea. Gai hori berariaz lantzen ez denik ezin esan daiteke ordea: idazkera-proposamenetako I.2.1. eta I.2.2. puntuek horretaz ziharduten, izan ere, justu-justu. Gomendio-arauen sarrera-oharretan, 2. puntu osoan, aski luze eta berariaz aztertzen zen gainera gai hau: ez gai osoa, bukaerako /a/-ren galeraz ezer gutxi esaten baita; baina bai azken urteotan istilu-iturri bihurtu diren beste zenbait hots-aldaketa.

b) Besterik da, noski, LEF batzordeak puntu hauei buruzkoetan egin zuen hobespen-aukera egokiena den ala ez. Badirudi, jasotako kritika-ohar horien arabera, hobespen horietako bat baino gehiago ez dela hain gogo-betegarri gertatu. Puntu bi izan dira, itxura guztien arabera, kezka-iturri bizienak:

— Lehen osagaia *giza, itsas, erret* edota *euskal, erdal* denean hurrengo hitza, elkartearen bigarren osagaia, bereiz idaztearena. Batek baino gehiagok ez du uste hitzok bereiz idazteko kontu horretan luze-zabaleko araurik eman daitekeenik. Beste zenbait urrunago doa: horrelako hitz-elkarteak, justu-justu horrelakoak, idatzi behar lirateke loturik edo marrarekin. "Hitz-andana ihartuak loturik (*iteuli, betile, galeper,...*) edota gutxie-

nez marrarekin (*ongi-etorri, hitz-jario*) idazten baditugu, zergatik ihartze--bide zaharren hots-arrastoa hain begien bistan daramaten hitz elkartuok bereiz idatzi?"

— Gehiegikeria iruditu zaio ohargile askotxori, lehen osagaiaren amaierako /a/ hotsa hainbat kontestutan kentzeko araua. Izan da, horien oharretan, azken bokal hori beti eta nonahi gorde beharko litzatekeela esan duenik. Gehienak ez doaz horretaraino, ordea: zenbait kasutan kenduko lukete azken /a/ hori; ez ordea LEF batzordeak kentzea proposatu zuen kasu guztietan.

Aintzakotzat hartu dira kritika-puntu bi hauek. Arau-proposamenetan, hori dela eta, berrikustapen osoa eman zaio gai horri eta, ahal den neurrian, irizpide gehienen gogozkoago izan daitekeen formulazioa eskaini da.

II.2.7. *Berrelkarketa ez da landu*

Ohar hau ere askok egin du: "Hitz bi noiz eta nola elkartzen diren garbi samar azaldu da. Ez, ordea, hiru (edo gehiago) hitz elkar daitezkeen eta, elkartzekotan, zein patroi-ereduz. Berrelkarketaz, alegia, ez da behar bezalako argitasunik ematen".

Egia da: hitz-elkarketa aztergai izanik, hitz biren konbinazio-arauak, muga-debekuak eta idazmoldeak landu dira bertan. Handik aurreranzko hedapen-moduez ez da, aldiz, baliozko argibiderik eskaini.

Badu horrek bere esplikazioa: hitz-elkarteak, hamarretatik bederatzi, osagai bikoak izan ohi dira. LEF batzordeak, hori kontuan izanik, lehen hurbilketa-saio horretan ez dio berrelkarketari lekurik eskaini.

Arrazoi osoa du ordea hainbat iritzi-emailek, berrelkarketaren alorra ere landu beharra dagoela esatean. Zientzi-tekniken edo administrazio--prozeduren alorreko idazkiak euskaraz sortu behar dituenari, are gehiago testu-molde horiek erdaratik itzuli behar izaten dituenari, buruhauste franko eman ohi dio gai horrek: "ongi al dago *enpresa-batzorde bilera?*", galdetuko dizu batek; "esan al daiteke *solido-gas oreka-diagrama?*", jakin nahi izango dizu besteak. Hirugarren bat ere ez da hain urrun ibiliko, bere kezka-moduarekin. "Nola esango dut euskaraz *oficina de recaudaciùn de impuestos* delakoa: *zerga-bilketa bulegoa,* ala beste nolabait?"

Berrelkarketaren kontu hau aski irristakorra dela jakinik ere, bidezkoa dirudi beraz argibideren bat ematen saiatzea. Irizpide nagusien atalean, ondorioz, lehen hurbilketa baizik izango ez bada ere erantzun-saio bat eskaini beharra ikusi da.

III. LEF BATZORDEAREN PROPOSAMENA

Guzti horren ondorioz, bere proposamena prestatu du batzordeak. Ondoko irizpideok hartu dira, horretarako, gidari:

III.1. Proposamen berriaren egitura

III.1.1. Atal (inoiz azpiatal) bakoitzari egitura hirukoitza eman zaio: sailkapena eta adibideak eskaintzen dira lehenik, ezaugarri nagusiak ondoren eta idazkera-proposamenak azkenik. Ezaugarri nagusien sailean, gainera, honako puntuok landu dira gehienetan: esangura, morfologi osaera, emankortasuna, hots-aldaketa eta berrelkarketa. Gain-gaineko aipamenak egiten dira puntu bakoitzean; irakurleari oinarrizko informazioa eskuratu nahi zaio horrekin, elkarte-modu bakoitza noiz eta nola erabiltzen den edo erabil daitekeen jakin dezan. Aparte eskaintzen dira beti, atal bakoitzaren amaieran eta erraz aurkitzeko moduan, elkarte-modu bakoitzaren idaztarau-proposamenak.

III.1.2. Orain hogei urteko idaztarauei aurkitu uste izan zaien eragozpenetako bat hauxe da: lazoegiak, jeneralegiak direla euskal hitz elkartuen itsaso zabal horri bere ertzak eta neurriak aurkitzeko. Euskaltzaindiak gai horrezaz idaztarau berririk ematekotan, arau zehatzagoak beharko dute oraingoan izan. Bestela, beldur izatekoa da egungo nahas-egoera hori ezer gutxi onbideratuko dela. Asmo hori gogoan harturik, idazkera--proposamen xehe-konkretuak prestatu ditu batzordeak.

III.1.3. Xehetasunak nekea eta zailtasuna izan ohi du ordea, sarritan, bidelagun: denbora eta atentzioa eskatzen du hainbat xehetasun eta zoko-moko irakurri, aztertu, ikasi eta buruan gordetzeak. Eragozpen hau ahal den neurrian arintzearren, teoria eta abstrakzio-kutsuko azalpenak alde batera utzi dira ahal zen guztian. Eta, horien ordez, adibideak eman. "Adibide gehiegi ere bai", esango du norbaitek. Ez da hori batzorde honen ustea: adibideetatik asko ikasi ohi dute lanbidez euskalari ez izan arren euskalgintzan diharduten herritarrek. Eta horiek hartu behar genituzke noski, lehenik eta behin, gogoan: eskoletako maisu-maistrak, euskaltegietako irakasleak, kazetari eta liburugileak, elizgizon eta literaturgileak, administrazioko euskal arduradun eta langileak, itzulpen-zerbitzuetako beharginak, etab. Horiek ditugu argitasun-behar gorrienean daudenak. Euskaltzaindiak batasun-bidean eman ohi dituen idaztarauen gizarteratzaile nagusi ere horiexek izaten baitira, gainera, inor izatekotan. Euskaldungoaren zati dinamiko horrek luze-zabalean ikasi, buruan gorde eta erabilitzen ez dituen idaztarauen bizi-indarra ahula da.

III.1.4. Adibide eta sailkapen ugari horien oinarrian zein arrazoibide dagoen jakin nahi izango du ordea, gisakoa denez, hainbat irakurlek.

Hizkuntzalari edo euskalari-jendeak, bereziki, galdera bat baino gehiago izango du; eta, seguruenik, proposamen-zerrendak ez dio gose hori berdinduko. Dagoeneko kalean dauden *Hitz-elkarketa/1* eta *Hitz-elkarketa/3* liburukietara (eta, kalera dadinean, *Hitz-elkarketa/2*-ra) zuzendu beharko du, ezinbestean, halakok. Ondo ala gaizki, hango txosten eta adibidetegian dago, oso-osorik ez bada ere, oraingo arau-proposamen hauen iturburua eta erreferentzi gunea. Ez ahaztu, halere, bigarren jakiniturri batez ere baliatu dela batzordea proposamena prestatzerakoan: 149 erantzule horietariko askok honetaz edo hartaz agertu duen hainbat uste edo kezka-hobespen oso aintzakotzat hartu dira txostenaren azken idazkuntzan.

III.1.5. Ondoren aurkeztuko diren idazkera-proposamenak ihartu gabeko hitz-elkarteentzat dira, batez ere. Bidenabar aipatzen da, han-hemengo salbuespenak ematerakoan eta, hitz-andana ihartu batzuen idazkera egokiena zein den. Ez da hori ordea, inondik ere, arau-gomendio hauen helburu nagusia. Hitz-andana ihartuen leku naturala hiztegia da. *Orotariko Euskal Hiztegia* ari da, dagoeneko, forma ihartu horien idazmoldeaz hainbat argibide ematen. *Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa* ere lagungarri sendoa da. Bihar edo etzi euskara batuaren hiztegi ofizialik izan dezagunean, eta hiztegi arau-emaile bat kalera dadinean, han ikasiko dugu guztiok milaka hitz-andana ihartu horien idazkera zuzenaren berri.

III.2. **Proposamen lasaia, ez zorrotza**

Ustez zorituak dauden elkarte-moduetarako idazkera-proposamen zehatza egiten da. Idazkera-arau zabaletarako adostasun-giro ahulagoa ageri den hiru elkarte-moduetan, berriz, ez da proposamen zorrotzik egiten: *sudur-luze* loturik nahiz marraz onartzen da, eta *kale-garbitzaile* edo *paper-fabrika* gisakoetan libre uzten da bereiz edo marrarekin idaztea. Egia da galdekizunaren erantzule gehienak marraren alde agertu direla horietan. Batzordearen ustez hori ez da, ordea, behar adina arrazoi. Hona zergatik:

1. Galdeketaren erantzunetan gehiengo zabal bat marraren aldeko ageri bada ere, kopuru ohargarria osatzen dute besterik nahi dutenek: gainerako kasuetan baino sendoagoak dira, alegia, hemengo gutxiengoak.

2. Iritzia eskatu zaienek zer erantzun duten gauza bat da, gainera, eta eguneroko praktikan zer gertatzen den bestea: ez dago batere garbi, esate baterako, euskaraz idazten duten euskaldunen artean hiru elkarte-molde horien marra bidezko idazkera hain zabala eta nagusia denik. Idazle trebeaz edo euskalari adituaz gainera, milaka euskal idazle xumeago horiek ere oso kontuan hartu behar ditu noski arau-emaileak.

3. Maiztasun handikoak eta emankortasun bizikoak dira, gainera, hiru elkarte-moduok: horietarako har daitezen arauak oihartzun zabale-

koak izango dira, ondorioz; eta adostasun handia eskuratu behar dutenak, benetan beteko badira. Hiru arau horietan porrot egin dezan araudia araudi ustela, fidagarritasunik gabea izango da hasieratik.

4. Gainerakoetan baino era nabariagoan, kontuan hartu beharreko eten-moduko bat ageri da gainera hiru elkarte-modu hauetariko biren kasuan: *eguzki-lore* eta *zerga-biltzaile* modukoetan. Jatorriaren araberakoa da, itxuraz, eten hau: mendebaldeko idazleen artean (Bizkai-Gipuzkoetan alegia) marra erabiltzea nagusi da; marrarik gabe, bereiz idazteko joera nabarmena ageri dute aldiz iparraldeko eta nafar idazle inkestatuek.

5. Lanbide edo espezializazio-alorrak ere badu, itxuraz, ezin ukatuzko eraginik: literatura- eta sorkuntza-munduko idazleen artean LEFen proposamenekiko atxikimendua ahulagoa da eskola- eta administrazio-munduko ordezkarien artean baino. Ezin hasiko gara ordea, hori dela eta, batzuentzat arau bat eta besteentzat bestea aukeratzen.

6. Proposamena ahulegi aurkeztua zegokeen, gainera, bahuvrîhien kasuan: oraingo bahuvrîhi berri-biziak eta lehendikako forma ihartuak ez da behar bezain zorrotz bereizten asmatu, itxuraz. Hortik datorke, hain zuzen, elkarte-modu horri buruzkoetan ageri den idazpide hirukoitza. Puntu hori hobeto argitu ezean arriskugarria gerta daiteke arau zorrotzagorik ematea.

7. Hitz-junturako hots-aldaketak hiru elkarte-moduotan dira, gainera, nagusi; hor ere ez dirudi gaur-gaurkoz erabateko arau zorrotzik eman daitekeenik.

Hiru elkarte-modu horietarako hobe da beraz, batzordearen ustez, erabaki zorrotzik gabeko epe-luzapen bat ematea: bost bat urtekoa, esate baterako. Bitarte horretan oraingoz auzigai diren puntuok xeheago aztertzea komeniko da, alde batetik, eta bestetik euskal idazleen joerak nondik nora doazen ikertzea. Epealdi hori burututakoan egoera hobean egongo gara guztiok, agian, adostasun zabalagoko araubideetara biltzeko.

III.3. **Erabaki-eskea**

LEF batzordeak, guzti horren ondorioz, honako hau eskatzen dio Euskaltzaindiari:

1. Ondoren eskaintzen zaion proposamen-txostena berariaz azter dezala. Batzordea prest dago, Hizkuntz Akademiak hala agindu diezaionean, txosten horren aurkezpen-azalpena egiteko.

2. Gaia behar bezain landua izan dezanean, hitz elkartuen osaera eta idazkerari buruzko erabakia har dezala: desadostasun-arrisku berezirik

ageri ez duten elkarte-moduetarako erabaki zehatzak har ditzan eskatzen zaio Hizkuntz Akademiari, eta gainerakoetarako joera nagusiak bederen argiturik utz ditzan. Erabakitze-lan horretarako egokia izan daitekeen egitura eman nahi izan dio batzordeak, hain zuzen, puntuz puntuko bere proposamenari.

3. Hartutako erabaki horren berri zehatza eman diezaiola euskaldun-jendeari. Ondoko bide hauek izan daitezke, itxuraz, zabalkunde-lan horretarako egokienak: a) ondoren azaltzen den txostena, beharrezkoak lituzkeen emendio-aldaketekin, argitara ematea *Euskera*-n eta berariazko liburuki moduan; b) laburpenezko gomendio-erabakia, oinarri-oinarrizko puntuak bilduko lituzkeena, luze-zabal ezagutaraztea.

Bigarren zatia

HITZ ELKARTUEN OSAERA ETA IDAZKERARI BURUZKO ARGIBIDEAK ETA AZALPENAK

I. Irizpide nagusiak

II. Atalez ataleko azalpena

III. Adibidetegia

SARRERA

Egunero sortzen dira gertaera, kontzeptu, tresna eta langai berriak. Guzti horien berri eman behar izaten da, hitzez zein izkribuz. Bide bat baino gehiago izan ohi du, edozein hizkuntzatan, berritasun horiek bere solaskideei azaldu beharrean dagoen hiztunak edo idazleak: bide horietako bat da hitz-elkarketa, erdaraz *composición, composition, Wortzusammensetzung*, etab. deitu ohi dena.

Bi hitz elkartuz adierazle berri bat sortzeko bidea dela esan ohi da hitz-elkarketa: buruan zituen *arratoi* eta *txakur* hitzak egoki konbinatuz sortu zuen norbaitek, horrela, txakur-mota jakin bat adierazten duen *arratoi-txakur* hitz-elkartea. Era beretsuan sortzen ditugu orain ere, beharraren eta trebeziaren arabera, beste hainbat hitz elkartu: *ekintza-plan, lege-gordailu, aditz-erro, barne-araudi, Foru Aldundi, iragarki-taula, mezu-igorle, bozeramale, diruzain, ur-kutsadura, idazmakina, ziurtagiri, zelulabakar, angelu-zuzen* eta beste mila. Neologismo edo hizperriak sortzeko euskarak duen erabide emankorrenetakoa da dudarik gabe hitz-elkarketa.

Ez hori bakarrik. Ondoko hizkuntzetan sintagma zabalagoen bidez adierazten dena azaltzeko ere hitz-elkarketaz baliatzen gara euskaldunok: *osaba-ilobak (zinera joan dira), igande-goizean (etortzekoa da), abeslari-taldea (bikain aritu da), zuri-zuri (geratu zen), (autobusa) bete-betea (dago), etxez etxe (postari dabil)...* Horrelakoetan, hitz-elkarketa sintaxitik hain urrun ez dabilela antzematen da: bestela nekez adierazi ahal izango genituzkeen esamoldeak eta itzulikak labur eta zehatz agertzeko baliabide indartsua dugu berau. Indar handiko arrazoiak ditugu, beraz, hitz elkartuen osaera-idazkerak ongi ikasi eta zuzen erabiltzen jakiteko.

Hori guztia kontuan izanik, eta lehendik emandako pausoen ildotik, hitz elkartuei buruzko argibide hauek eskaini nahi dira oraingoan.

I. IRIZPIDE nagusiak

I.1. Hitz elkartuen erabilpen-eremua

Baliabide indartsua da hitz-elkarketa, erdarazko hainbat hitzarte euskaraz eroso eta labur azaltzeko. Erdal A de B moduko izen-konplementazio

askoren ordaina, esate baterako, horrela ematen du euskarak: *guraso--elkarte, telefono-zenbaki, garapen-maila, zerga-biltzaile.* Aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal "izen + adjektibo erreferentzial" egiturak ordezkatzeko: *esku-lan (trabajo manual/travail manuel), aho-literatura (literatura oral/littérature orale), ekonomi teoria (teoría económica/théorie économique),* etab. Bide honi eutsi behar litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldaera arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu: bestelako grazia eta jatortasuna dario *esne-fabrika* hitzari, euskal sena itxuratxarki galdurik ez duenaren ezpainetan, sarriegi baliatzen dugun *enpresa lakteo* erabidearen ondoan.

Era berean, bikoteak izendatzeko dvandva-elkarteak ditugu egokienak: erdarazko *los hijos/les enfants, los reyes/les rois* edo *los padres/les parents* esamoldeen (hau da, bikotea izendatzen duten sintagmen) ordain jatorrak *seme-alabak, errege-erreginak* eta *aita-amak* (edo *gurasoak*) dira euskaraz; inoiz horien lekuan agertzen diren *erregeak, aitak* bezalakoak ez dira onargarriak. *Nombre y apellidos* esateko *izen-deiturak* edo *izen--abizenak* dugu, orobat, azalpide arteza: han-hemen ugaritzen hasi zaizkigun *izena eta abizenak* gisako koordinazio-sintagmak alferrikakoak dira, sarri, horrelakoetan.

Askotan eta egoki balia daitekeen hitz-elkarketak ere baditu, ordea, berezko mugak. Osagaien arteko erlazio ilunak direla medio, mezu--hartzailearentzat ulergaitz gerta daiteke hainbat kasutan hitz elkartua; ezer gutxi aurreratuko dugu irakurlea hitz-andana horiek erdarara itzultzera behartzen badugu, edo testuinguru zabal bihurriagoen zain uzten. Forma elkartuen sortzaile-idazleak hobeko du kasu hauetan eraikuntza sintaktiko libreetara jo, argitasunaren mesedetan: hobe dugu halakoetan *unibertsitateko soldatak, merkatuaren bilakaera, udaletxeen antolamendua, larrialdiko irteera* edo *elizbarrutiko museoa* esan eta idatzi, *unibertsitate-soldatak, merkatu-bilakaera, udaletxe-antolamendua, larrialdi-irteera* edo *elizbarruti-museo* modukoetara lerratu gabe.

Badira esapideak, azkenik, hitz-elkarketaren bidez ez argi eta ez ilun eman daitezkeenak: gaztelaniazko *música rockera* esateko aukera erosoa eskaintzen digu euskal elkarte-bideak, *rock-musika* eginaz. Erosoa bezain mugatua da, ordea, baliabide hori: *una música muy (bastante, demasiado,...) rockera"* esateko, izan ere, alferrik saiatuko gara *rock-musika* elkartearekin.

I.2. **Hitz-junturako hots-aldaketak: hots-legeak**

Hitz elkartuen inguruan maiz sortu ohi den auzi bat, bi osagaien artean gerta daitezkeen hots-aldaketena da. Arazo honi dagokionez, aldaketok hitz elkartuak idazterakoan zein puntutaraino agertzen diren azter

dezakegu; forma idatziak baitira, hain zuzen, Euskaltzaindiak arautu nahi dituenak. Corpus zabala ikertu ondoren argi ikusten da lehen osagaiaren azken bokala erori eta ondorioz gertatzen diren kontsonante-aldaketak, edo azken bokalaren aldaketak, zenbait izenetara mugaturik egon direla. Ohizko *begi, ardi, argi, beso, etxe, arto, idi...* hitzak *bet-, art-, art-, besa-, etxa-, arta-, it-...* forman aurkitzen dira euskal lexikoan aspaldidanik txertatuak ditugun izenetan: *betile, artizar, iteuli, artaburu, besamotz, etxalde...* Baina hauen ondoan hor ditugu era berean *begi-keinu, begi-kolpe, begi--azal, argi-txinta, argi-izpi, ardi-txabola, ardi-gazta, ardi-sail, arto-erregutada, arto-jale, arto-alor, beso-lan, beso-giharrę, etxe-erretze, etxe-gain, etxe-bizitza...* Emaitza desberdin hauen aurrean, ondoko puntuok zehaztu beharra ikusten da:

a) Osagaien arteko erlazio-moduak baldintzatzen ditu hots-aldaketak: menpekotasunezko lotura dutenetan gertatu izan dira bokal- eta kontsonante--aldaketok; ez, ordea, dvandva (*seme-alabak*), koordinaziozko (*errege-profeta*), atribuziozko (*osaba bertsolari*) eta aposiziozko (*Txirrita bertsolaria*) elkarteetan. Halaber, sintaxitik oso gertu dauden elkarteetan, hala nola 'izen + *egin/eman/hartu*' edo 'izen/aditzoin + *behar/nahi*' egituretan, ez da bi osagaien artean aldaketarik aurkitzen.

b) Menpekotasunezko elkarteetan, lehen osagaiaren amaierako segmentuaren morfologi izaerak ere badu zerikusia; lehen osagai hori eratorria bada, atzizkiak nekez izango du aldaketarik: *-ari, -te,* etab.ek bere horretan iraungo dute, azken bokala galdu gabe. *Bertsolari* ez dugu **bertsolal-* bihurtzen, ez eta *txistulari, botikari* nahiz *bulegari, *txistulal-, *botikal-* edo **bulegal-*. Alde honetatik , aipamen berezia zor zaie azken urteetako *unibertsital, monetal, nekazal* eta antzekoei; ia guztiak dira *-ari(o)* atzizkiaz sortutako erdal adjektiboa ordezkatzeko erabili direnak: *profesores universitarios = unibertsital irakasleak, política monetaria = monetal politika, ayuda financiera = finantzal laguntza...* ikusi eta irakurtzen ditugu gero eta maizago. Bide zuzena, gorago esan denez, azken orduko berrikuntza horiek albora utzita *unibertsitate(ko) irakasleak, moneta--politika,* etab. erabiltzea da.

c) Aldaketa guztiek ez dute hedadura bera izan: *-i* askoz maizago erori izan da *-u* baino, esaterako. Badira Mitxelenak «zaharkitu itxurako, zaharkitutzat har daitezkeen» hitzetan baino gertatzen ez direla dioen modukoak ere.

d) Hedadura handiagoa izan duten aldaketak ere zenbait hitzetan gertatu dira, ez guztietan eta automatikoki: *euri,* eman dezagun, ez da normalean **eul-* bihurtzen, *mendi* ere ez **ment-*. Erraz uler daiteke hori, nekez asmatuko baikenuke *eul-* forma *euri*-tik datorrela; gehienez ere, *euli* hartuko genuke horren atzean dagoen izen osotzat. Hots-aldaketek, gainera, hitz elkartua ilundu egiten dute; eta, horregatik, ez da harrigarria

bikoteak aurkitzea osagai berak dituzten elkarteetan: *galburu* eta *gari--buru; galsoro* eta *gari-soro...*

e) Era berean, aparteko aipamena merezi du *-a* itsatsiaren galerak: ikus hurrengo atala.

f) Badira halere zenbait ezaugarri fonetiko-grafiko hitz-elkarketarekin lotzen ditugunak, hala nola osagaien artean *n, t* eta *k* kontsonanteak agertzea: *ardangela, gaztanbera, eritetxe, ulerterraz, agortezin, ibilkera, esakera...*

I.3. **Lehen osagaiaren amaierako >a<: galdu ala ez**

Bada adibide zaharrik, bokal-kontrakzioa gertatu delako edo beste zerbaitengatik lehen osagaiaren amaierako >a< hori ageri ez duenik: *Elizondo, Elizmendi, Elejoste, eskolemaile,* etab. Halakoetan ere ez da falta izaten, ordea, bokalari bere horretan eutsi izanaren lekukotasunik: *Elizagarai, Elizabeherea, Elejabeitia, eskola-emaile,* etab.

Puntu horietan desadostasun bat baino gehiago agertzen den arren, ez da hori gaur eguneko auzi-iturri nagusia. Esparru jakin-mugatu horretatik gainezka eginez, bestelako hedadura eta agerpen-maiztasuna eskuratu du izan ere, bokal-galeraren fenomeno honek, XX. mendean: 1950etik honakoan ugarituz joan diren *kultur hizkuntza, literatur tradizio, hizkuntz egoera, ortografi arau, teknologi maila* modukoetan bereziki. Gaur egun nahaste-borraste handia dago, puntu honi dagokionez, euskal idazleen (eta are, zenbaitetan, hiztunen) artean.

Azken >*a*< hori auzigai duten hitzen sailkapen bat egitekotan, honako atal hauek hartu behar dira besteak beste kontuan:

– Bukaeran >*ia*< duten maileguzko (hobe, nazioarteko) kultur hitzak: *biologia* baina *biologi(a) azterketa, filologia* baina *Filologi(a) Fakultatea, toponimia* baina *toponimi(a) batzordea, geodesia* baina *geodesi(a) erpina, geografia* baina *geografi(a) atlasa, biografia* baina *biografi(a) oharrak, hidrofobia* baina *hidrofobi(a) seinaleak.*

– Bukaeran >*ia*< izan arren lehen multzoan sartzen ez diren hitzak: *dotorezia* baina *dotorezi(a) falta, distantzia* baina *distantzi(a) neurketa, ahuleria* baina *ahuleri(a) markak.*

– Bukaeran >*tura*< (ez, ordea, euskal *-dura* atzizkia) duten maileguzko hitzak: *kultura* baina *kultur(a) astekaria, literatura* baina *literatur(a) tradizioa, arkitektura* baina *arkitektur(a) hiztegia, diplomatura* baina *diplomatur(a) agiria.*

– Bukaeran >*kuntza*< daramaten hitzak: *hizkuntza* baina *hizkuntz(a) ariketak, hizkuntz(a) eskola, hizkuntz(a) politika, hizkuntz(a) ukipe-*

na; hezkuntza baina *Hezkuntz(a) Saila, hezkuntz(a) administrazioa, hezkuntz(a) plangintza; medikuntza* baina *Medikuntz(a) Fakultatea, medikuntz(a) hiztegia.*

— Bestelakoak: *horma* baina *horm(a)irudiak, eskola* baina *eskol(a)orduak, gramatika* baina *gramatik(a) arauak, fonetika* baina *fonetik(a) legea.*

Multzo zabala osatzen dute beraz, ikusten denez, gaur egun eztabaidagai ditugun puntuok. Ez dirudi korapilo hau, gauden egoeran gaudelarik, erabat askatzeko moduan dagoenik. Hainbat puntu gerora gabe argitu eta garbitu daitezkeela uste da, ordea. Hona, labur bilduz, argibidezko puntu horiek:

a) Ez da ahaztea komeni >a< bukaera duten hitz-formak direla honelakoetan, berez, markatugabeak: hitz-elkarketazko testuinguru hauetan izan ezik horiek dira, alegia, beti eta nonahi lexema garbiak. Duda-mudazko kasuetan hobe izango da beraz betibateko forma horri eustea: *eskolaumea, horma-irudia, arkitektura-hiztegia, hezkuntza-mundua, optika-legea,* eta ez *eskolumea, hormirudia, hezkuntz mundua, arkitektur hiztegia, optik legea.*

b) Aurreko irizpide hori are kontuanago hartzekoa da ondoko gertaera hau ikusirik: idazle bat baino gehiago, >a< gabeko forma markatu horietan oinarrituz eta horietatik abiatuz, inoiz gutxitan eztabaidagai izandako testuinguru berrietara zabaltzen ari da grafia-aniztasuna (eta horrek berekin dakarren egonezina). Hori dela eta *energi alternatiboak, hizkuntz nagusia, kultur modernoa, hezkuntz elebiduna* moduko hutsarteak ugaritzen hasi dira bazterretan.

Direlako *energi, hizkuntz, hezkuntz, kultur* forma horiek inolako testuingurutan (ez eta menpekotasunezko izen-elkarteen lehen osagai gisa ere, hortaz) erabiliko ez bagenitu asko aurreratuko genuke, bistan da, egungo nahaspide hori baztertzeko.

c) Muturreko jokabide horrek (>a< hori inoiz ez kentzekoak alegia) baditu ordea eragozpenak. Eta ez nolanahikoak: gaur eguneko liburu, aldizkari-egunkari edo administrazio-idazki askotan, bai eta jendaurreko mintzajardun jasoan ere, bere lekua eginik du >a< gabeko idazmoldeak eta hitz-ebakerak. Idazle edo hiztun batetik bestera alde handiak ageri diren arren, eta inoiz idazle bakoitzak aldaera nabarmenak ageri baditu ere une batetik bestera, egia da *hizkuntz gaitasuna, kultur astea, ortografi arauak, gastronomi elkartea, pedagogi aldizkaria* edo *Euskal Autonomi Elkartea* moduko idazkera-ebakerak gogotik erabiltzen direla: >a< grafiadun *hizkuntza-gaitasun, kultura-aste, ortografia-arau* formak baino ugariago, itxuraz. 1970 urte-ingurutik honako hiztegiek ere sarbide zabala, ia erabatekoa, eman diote joera horri.

Azken berrogei urte honetan eratzen eta zabaltzen joan den ohitura honi orain, betibateko arau-eskakizunen izenean, ateak zeharo ixtea ere ez da beraz gisako. Punta-mutur batetik bestera joatea litzateke hori.

d) Emendiozko behaztoparik ere baluke, gainera, atzera-martxako jokabide horrek: euskal idazle- eta hiztun-jendearen baitan gutxi-asko erroturik dauden eredu-moldeak desitxuratzeaz gainera Euskaltzaindiak berak oraindik hain aspaldi ez dela legezkotzat emanak dituen *biologi ikerlanak, Filosofi Fakultatea* modukoak gaitzestea (ikus maileguzko hitzei buruzko erabakiak, II.4. puntua).

Hori guztia kontuan izanik, honako bide hau hobesten da:

1) Bukaeran >ia< duten hitzak lehen osagai edo mugatzaile gisa dihardutenean, >a< hori kenduta nahiz kendu gabe erabili : *biologi azterketa, geologi irakaslea, pedagogi berrikuntza, ortografi arauak, erreferentzi puntua, diplomazi falta, bidai agentzia, Filosofi Fakultatea, Euskal Autonomi Elkartea,* edota *biologia (-) azterketa, geologia (-) irakaslea, pedagogia (-) berrikuntza, ortografia (-) arauak,* e.a. Hala ere, >a< kenduta erabiltzeari ematen zaio lehentasuna.

2) Lehen osagaia *eliza, burdina, hizkuntza, kultura, natura* edo *literatura* duten elkarteetan *eliz, burdin, hizkuntz, kultur, natur, literatur* forma >a<-gabeak zein *eliza-, burdina-, hizkuntza-, kultura-, natura-, literatura-* >a<-dunak berdin onargarri dira. Ongi emanak daude, beraz, bai *eliz agintariak, burdin fabrika, hizkuntz gaitasuna, kultur emankizuna, natur zientziak, literatur tradizioa* modukoak eta bai *eliza-zerga, burdina-saltzailea, hizkuntza-eskola, Kultura Saila, naturazalea, literatura-joera* gisakoak. Lehen osagaiari berezko >a< hori kentzen zaionean, marrarik ez erabili.

3) Gainerako elkarte berri guztietan debeku da lehen osagaiaren amaierako >a< kentzea. Beraz *eskola-liburua, iraultza-giroa, jaiotza-kontrola, plangintza-arduraduna, finantza-taldea, fonetika-legea, gramatika-araua, kutsadura-arriskua, ohitura-aldaketa, Medikuntza Fakultatea, hezkuntza--alorra* idatz bedi, eta ez *eskol liburua, iraultz giroa, jaiotz kontrola, plangintz arduraduna, finantz taldea, kutsadur arriskua, ohitur aldaketa, Medikuntz Fakultatea, hezkuntz alorra.*

I.4. **Mugatzailea eta mugakizuna. Berrelkarketa eta garapena**

Atal biko sintagma izan ohi da, normalean, hitz-elkartea: *zuzen--zuzenean, seme-alabak, muturzikin, meza-emaile, diru eske, ikasgela, zikin--fama, baratxuri-zopa, ardi-gazta* edo *bibliografi ohar* elkarteek, horrela, bina hitz dituzte. Hitz biko eramolde hau da, elkartearen alorrean, eredugarria: hori da hitz elkartu bizien osaera ezagun eta erabiliena.

Hitz-elkartezko sintagma horiek parez pareko osagaiak izaten dituzte batzuetan: bi hitzetako bat ez da, horrelakoetan, bestearen menpeko. Hori gertatzen da, aski arrazoi desberdinengatik bada ere, *ardo-ogiak, afari-merienda* edota *Bidasoa ibaia* moduko adibideekin.

Hitz-elkarte gehienek ez dituzte ordea buru biko sintagmak osatzen, burubakarrak baizik: *esne-behia behia* da (hori da, hortaz, sintagma-buru), ez *esnea. Behi-esnea,* aitzitik, *esnea* da eta ez *behia.*

Bigarren osagaia izan ohi da euskaraz, gehienetan, sintagma-buru. "Mugakizun" esan ohi zaio horri, semantika aldetik lehen osagaiak mugatzen duelako: esne-mota posible guztietatik esne-mota jakin-mugatu batera pasatzen gara, horrela, *esne*-tik *behi-esne*-ra pasatzean. Lehen osagai horri "mugatzaile" esan ohi zaio.

Gorago esan denez, bai mugatzailea eta bai mugakizuna hitz bakanak izan ohi dira gehienetan: *oilo-lapur, ortografi arau* eta *buruarin* elkarteetan, horrela, hitz bakarrak dira bai *oilo, ortografia* edo *buru* mugatzaileak eta bai *lapur, arau* edo *arin* mugakizunak.

Ezinbestekoa al da, ordea, bai mugatzailea eta bai mugakizuna hitz bakarrak izatea? Debeku al dugu, alegia, *lan-bilera mahaia, bide-laguntza elkartea, dantza-talde mota, harri-jasotze txapelketa, landare-izen zerrenda, lansari-igoera, esku-langintza feria, mendi-portu izenak, pinu-adar muturrak, udal musika-eskola, gurdi-ardatz aldaketa, administrazio-hiztegi batzordea, ganadu lehiaketa-erakusketa, esne-hauts saltzailea, euskal aldizkari--zuzendari-bilera* edo *soinu-uhin-hedapen-abiadura* moduko berrelkarketak egitea?

Bi ikusmolde dabiltza hemen, gure artean, berrelkarketari buruz elkarren lehian. Behin eta berriro errepika daitekeen prozedura da elkarketa lehenengo ikusmoldearentzat: gramatikaltasunaren ikuspegitik ez dago horretarako inolako debekurik; hitz elkartuak bi osagai izanik ere, osagai bakoitzak bina osagai izan ditzake, eta abar. Irizpide hau azken muturrera eramanez, zilegi genituzke *pentze-larre-behi-esne-elkartea* moduko sintagmak.

Arras kontrakoa dio beste ikusmoldeak: hitz bi, eta bi bakarrik, dituela elkarketak (mugatzaile-hitza batetik, eta mugakizun-hitza bestetik). Hizketarako onargarritasuna da, gramatikaltasuna gora-behera, ikuspegi honek azpimarratzen duena; egin ere, kasu gehien-gehienetan, osagai biko elkarteak egiten direla gogorazi ohi du ikusmolde honek.

Eguneroko mintzajardun arruntean badirudi gauzak ez direla erabat ikusmolde batean edo bestean sartzen, erdibide batera hurbiltzen baizik: zenbait egoeratan erraz samar gertatzen dira hiru (eta are gehiago) hitzeko elkarteak, beste egoera batzuetan gogor egiten zaio belarriari halakorik jaso beharra eta, azken baina ez hutsen, bada hainbat kasu hitz bi baino gehiago elkartzea ezinezkoa gertatzen dena. Zein dira, ordea, hiru multzo

horien ezaugarriak? Erantzuna ez da erraza: atalez ataleko azalpenean, elkarte-mota bakoitza xeheki aztertzean, hainbat argibide emango dira. Bikoiztapen indargarriez ari garelarik, adibidez, *(gizon-puska) on-on-ona* moduko berrelkarketak zilegi direla adieraziko dugu. Lekuan lekuko argibideak dira ordea horiek: gehienek ez dute luze-zabaleko balio-indarrik.

Irizpide nagusi gisa, eta batez ere menpekotasunezko hitz-elkarteak gogoan izanik, badirudi honako puntuok direla gaur-gaurkoz seguruentzat eman daitezkeenak:

1. Atal biko sintagma da hitz-elkartea, lehenik eta behin. Hori du bere izaera jator-sustraizkoa, eta horri eustea komeni da ahaleginean. Beharrik ez dagoenean ez gaitezen, beraz, *euskal aldizkari-zuzendari--bilera, Mendibilgo udal-kirol-patronatua* edo *soinu-uhin-hedapen-bidea* modukoak sortzen ibili. Hobe da, horrelakoetan, sintagma-erabide desberdinak konbinatuz *euskal aldizkari(etako) zuzendarien bilera, Mendibilgo udalaren kirol-patronatua, soinu-uhinen hedapen-bidea* gisakoak osatzea.

2. Goiko arau hori are sendoagoa da mugatzaile-izenari muga jakineko adjektiboren bat eransten zaionean: *hautagai-zerrenda* baina *hautagai berrien zerrenda,* ez *hautagai berri zerrenda*; *lan-eguna* baina *lan gogorreko eguna,* ez *lan gogor eguna; artzain-borda* baina *Aralarko artzain(ar)en borda,* ez *Aralarko artzain-borda* (besterik dugu hori: izen-elkartearen ezker-hedapena, ez mugatzailearena); *izen-zerrenda* baina *landare-izenen zerrenda,* ez *landare-izen-zerrenda.* Berrietan berdin: *ur-erreaktorea* baina *ur astuneko erreaktorea,* ez *ur astun erreaktorea.*

3. Badira ordea, guztiarekin ere, berrelkarketa errazago onartzen duten eramoldeak. Ondoko hauek dira, itxuraz, ezagunenak

3.1. Mugatzailea *euskal, erdal, frantses,...* dutenak: *euskal musika--taldea, euskal kultur mintegia, euskal liburu-sorta, erdal joskera-moldea, frantses lege-araudia.*

3.2. Aposizioak. Inon baino sarriago ageri dira hemen, agian, berrelkarteak: *Elai Alai dantza-taldea, Ama Lur filmea, Joanak Joan eleberria, Urola-Kosta eskualdea, Bilb(a)o-Behobia autobidea, Goiz-Argi aldizkaria.*

3.3. Mugatzailearen koordinazio-hedapenak: *emakume- eta haur-taldeak, ebazpen- eta jarraipen-batzordea, edari- eta izozki-saltzailea, galdera- eta harridura-markak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.*

3.4. Aurrerago ikusiko diren *irizpen-, multzo-, zati-* eta *mota*-elkarteak. *Eguzki-lore* gisako beste gehienek baino askatasun handixeagoa dute hauek honelako hedapenetarako: *butano-saltzaile itxura, kafe erre usaina, zakar--biltzaile taldea, orein-haragi zatia, perpaus subordinatu motak.*

3.5. *Jarleku* moduko hitz elkartuak ere sarritxo agertzen dira mugatzaile gisa: *deklinabide-atzizkia, geltoki-garbitzailea, aztergai-zerrenda, ikasliburu-saltzailea, logela-aldaketa.*

4. Mugatzailea edo mugakizuna (edo biak) berez hitz-andana ihartu direnean, berrelkarketaz ezin hitz egin badaiteke ere, hiru hitz edo gehiago suertatzen dira elkarren ondoan. Multzo zabala, adibide ziur-ziurretatik lauso-ilunetarainokoa, osatzen du sail honek. Zenbat eta hitz-andanaren ihartze-maila handiagoa izan, hainbat eta erraz, naturalagoa izango da elkarte-modu hori. Horrela

a) Mugatzailea edo mugakizuna erabat iharturiko hitz-andana denean: *galeper-zakurra, akelarre-eguna, baserri-bidea, burruka-oilarra, zorion-agurra, udaberri-gaitza, txakurtxiki-bilketa, eguraldi-aldaketa.*

b) Osagai bietako bat ihartu samarriko hitz-andana denean: *urbe-deinkatu-ontzia, trenbide-konponketa.*

c) Ihartze-kontua hasi baizik egin ez zaien hitz-andanazkoak. Hauek dira, askogatik, onesten edo gaitzesten okerrenak.

Goian esandakoa gogoratu nahi da, halere. Forma normala, markatugabea, hitz biko elkartea da. Hirukote eta laukoteak testuinguru jakin-mugatuetan bakarrik dira onartzekoak. Beraz, ahal den guztian, bi hitzetik gorako elkarteak egin ordez hobe da sintagma-erabide askatuagoetara jotzea. Horrela, *lanbide-heziketa-ikastetxea* ordez hobe *lanbide-heziketako ikastetxea; meategi-ikerketa-zerbitzua* ordez hobe *meategi-ikerketen zerbitzua; muga-zerga-taula* ordez hobe *muga-zerg(ar)en taula.* Are sintagma askatuagoetara ere jo daiteke noski, hartarako modurik eta egokierarik ikusten denean: *meategia(k) ikertzeko zerbitzua.*

Gertatuko da behin baino gehiagotan, halere, hiru hitzeko elkarketa gogor samarrik egin beharra. Mezu-igorlea saia bedi, halakoetan, irakurleari informazio osatuena ematen: berrelkarketa horren muin-muineko bikotea zein den garbi adierazteko, bereziki, hobe izango da bikote hori marraz lotzea eta bestea bereiz ematea: *kale-garbiketa zerbitzua, gizarte-segurantza saila, foru informatika-elkartea, (Kaliforniako) adimen-heldutasun testa.*

II. ATALEZ ATALEKO AZALPENA

Irizpide nagusi horien eragina mugatua da noski. Batezbesteko argibide horiek nekez argituko dute hitz-elkarketaren hainbat zoko-moko. Hitz elkartu horien osaera-idazkerak zehatzago adierazi asmoz, atalez ataleko azalpena eskaintzen da ondoren.

Hitz-andana ihartuen trataera zertxobait alboratuz gaur eguneko hitz-elkarte bizi, emankorretan zentratzen da batez ere azalpen hau. Hamazazpi ataletan banatu dira, horretarako, hitz elkartuak.

1. **Bikoiztapenak:** *aurrez aurre, adarrik adar; apurka-apurka, aldian--aldian; gorri-gorri, labur-labur, alfer-alferrik, zuzen-zuzenean, bihotz-bihotzetik; poliki-poliki.*

2. **Dvandva-elkarteak:** *seme-alabak, zeru-lurrak; zuri-gorri; harat-honat; sartu-irten.*

3. **Bahuvrîhi-elkarteak:** *sudur-luze, ipurtarin, esku-hutsik; gogo-landu; begibakar.*

4. **Izaera-elkarteak:** *aldagaitz, egoskogor, asmaezin, ulerterraz, isurbera.*

5. ***lotsagabe, lo falta**: adargabe, errugabe, osagabe, egur falta, harreman falta.*

6. **Aditz-elkarteak:** *odolustu, salbuetsi, antzaldatu, indarberritu; dei egin, lur eman.*

7. **Sintetikoak:** *hargin, legegile, mugazain, fededun; oilo-lapur, kale--garbitzaile, mezu-hartzaile, meza-emaile; bertsogintza, diruzaintza; uso-pasa, adar-jotze, diru-bilketa, ardo-eske, kontu kontari, aho-zabalka, ate-joka.*

8. **Asmo-elkarteak:** *barregura, burruka-nahi, aginte-gose, diru-egarri, pinuzale.*

9. ***egin berri* modukoak:** *amaitu berri; jan-zahar; hil-hurren; erre-arin.*

10. ***jarleku* modukoak:** *egongela, aurkibide, agerraldi, geltoki, ikasgela, ikuspuntu.*

11. ***eguzki-lore* modukoak:** *behi-esne, ezpata-dantza, bilera-egun, telefono--zenbaki, gai-zerrenda, tabako-denda, aditz-erro, lore-sorta, ogi-puska, litro--erdi, garo-usain, zikin-fama, pinu-arbola, elizgizon, hitzaurre, aurreproiektu.*

12. **Atributu- eta koordinazio-elkarteak:** *harri zilindro, baserri-etxe, alkate jaun, makina-erreminta.*

13. **Tautologiazko elkarteak:** *sasoi-edade, busti-palatal, onetsi-maitatu, Lizarra/Estella.*

14. **Aposizioak:** *Ebro ibaia, Aralar mendia, Axular liburutegia, Uztapide bertsolaria, maisu Juan, B eredua, ETB1 kanala.*

15. **Izengoiti-elkarteak:** *Peru Abarka, Etxahun Iruri, Garazi Gerrieder, mari-zikin.*

16. **Sinbolismo fonetiko eta hots-uztardurak:** *barra-barra, plisti-plasta, zehatz-mehatz.*

17. **Exoelkarteak:** *metahizkuntza, infragorri, telemezu, ultragogor; euskara light.*

Atal-kopurua handiagoa egin zitekeen noski, eta ondotxoz laburrago eman ere bai. Euskaltzaindiak azken urteotan landutako, eta parte on batean argitara emandako, sailkapena hartu da hemen, gisakoa denez, oinarri. Hona, besterik gabe, atalez ataleko azalpena.

1. Bikoiztapenak

Hitz bera errepikatuz sortzen dira bikoiztapenak. Hiru eratako elkarte--moduak daude sail honetan: *etxez etxe* modukoak, *apurka-apurka,* modukoak eta *gorri-gorri(a)* modukoak. Adiera-ezaugarriz eta morfologi osaeraz hirurak desberdinak direnez, banan-banan adieraziko dira.

1.1. *etxez etxe* moduko amredita arruntak

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

Multzo honetan sartzen dira, bereziki,

aurrez aurre modukoak: *aurrez aurre, bidez bide, erdiz erdi, eskuz esku, etxez etxe, gainez gain, gizaldiz gizaldi, herriz herri, hitzez hitz, hurrenez hurren, kalez kale, larrez larre, mailaz maila, mendez mende, mendiz mendi, orpoz orpo, parez pare, pausoz pauso, puntuz puntu.*

adarrik adar modukoak: *adarrik adar, bazterrik bazter, belaunik belaun, erromeriarik erromeria, famarik fama, festarik festa, kalerik kale, sasirik sasi.* Hauen parekoak dira zenbait lekutako *dendariz denda, mendiriz mendi, tabernariz taberna* esapideak ere.

menderen mende modukoak: *alderen alde, bururen buru, menderen mende, punturen puntu.*

Besterik: *goizean goiz, bisean bis; doian doika; oraindik orain.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: behin eta berriroko gertaeren nondik norakoa adierazten dute sarri. Horrela, *etxez etxe* dabilena *etxetik etxera* dabil; ez behin bakarrik, behin eta berriro baizik. Errepikatze-lan hori banakakoa, 'aldian bat'ekoa izan ohi da. Leku-denborazko adierazgaietan mamitzen dira gainera, nagusiki, elkarteok.

Alde horretatik garbi ikusten da ondoko beste esapideok, gainerakoan antzik falta ez bazaie ere, ez direla amredita arruntak:

—*Entzunak entzun, esanak esan, galduak galdu, hilak hil, joanak joan; aldeak alde, besteak beste, iritziak iritzi, salbuespenak salbu.*

—*Ekinaren ekinaz, ibiliaren ibiliz, pozaren pozez (*edo *pozagaz), ustelduaren ustelduz.*

2. Morfologi osaera: hitz berbera errepikatuz lortzen dira amredita arruntak: lehenengo aldian deklinabide-atzizkiz jantzia joan ohi da hitza, eta bigarren aldian biluzik: *etxeZ etxe, sasiRIK sasi, mendeREN mende.*

Adizlagunak edo adberbio moduko eraikuntzak dira, oro har, amredita-elkarteok.

3. Emankortasuna: amredita arruntak, lehenengo bi ataletakoak bereziki, erraz sortzen ditu orain ere euskal hiztun garbiak: *bulegoz bulego, euskaltegiz euskaltegi, belodromorik belodromo.* Baliteke hirugarren ataleko sorbidea agorturik egotea.

4. Hots-aldaketa: amredita arrunt hauetan ez da ia inoiz hitz-junturan hots-aldaketarik gertatzen.

5. Berrelkarketa: oso gutxitan egiten da halakorik. Lehen osagaia hitz elkartua duen kasuetan agertzen da, gehienera ere, inoiz edo behin: *erreka-zuloz zulo.*

IDAZKERA

Amredita arruntak bereiz idaztekoak dira: *aurrez aurre, etxez etxe, mendez mende, kalerik kale, bazterrik bazter, bururen buru.*

Salbuespenak: hitz-junturan hots-aldaketa jakina izan duten *behinipehin, batipat* moduko forma ihartu bakanak.

1.2. ***apurka-apurka*** moduko sasi-amreditak

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

Multzo honetan sartzen dira, bereziki:

tarteka-tarteka modukoak: *apurka-apurka, arrastaka-arrastaka, banaka--banaka, bazterka-bazterka, tarteka-tarteka, txandaka-txandaka.*

aldian-aldian modukoak: *aldian-aldian, arian-arian, egunean-egunean, ekinean-ekinean, ezarian-ezarian, ikusian-ikusian, lekuan-lekuan, onean--onean, unean-unean.*

bestelakoak: *egunero-egunero, jaiero-jaiero; banan-banan, piskana-piskana; launaka-launaka.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: 'aldiko zenbat', 'aldiero nola' edota 'zenbana aldiero' adierazten dute honelako hitz elkartu gehienek. Denbora eta neurria dira, horrexegatik, elkarteon osagaietan maizenik ageri diren adierazkizunak.

2. Morfologi osaera: sasi-amreditak ere hitz berbera errepikatuz osatzen dira. Oraingoan bietan doa, ordea, hitza atzizkiz (atzizki berberaz) jantzia: *apurKA-apurKA, aldiAN-aldiAN, jaiERO-jaiERO.*

3. Emankortasuna: antzutu samarrik dago euskal sorbide hau. Hainbat kasutan ezinezkoa dirudi hitz-elkarte berririk sortzea: *launaka-launaka*-ren patroitik, adibidez, nekez *milanaka-milanaka* ulerterrazik atera daiteke. Badira, ordea, ongi bizirik dauden sorbide-moldeak ere: *zikloka-zikloka, fasean-fasean* modukoak edozein euskaldun garbik uler ditzake gaur egun.

4. Hots-aldaketa: hitz-junturan ez dute inolako hots-aldaketarik ageri.

IDAZKERA

Sasi-amreditak marrarekin idaztekoak dira: *apurka-apurka, tarteka-tarteka, aldian-aldian, arian-arian, egunero-egunero, banan-banan, launaka-launaka,...* (baina *tokian tokiko, lekuan lekuko, egunean eguneko,...)*

1.3. ***gorri-gorri(a)*** moduko indargarriak

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

Multzo honetan sartzen dira, bereziki,

labur-labur (azaldu). Aditz aurreko bikoiztapen biluziak: *adi-adi (egon), erne-erne (gidatu), erraz-erraz (asmatu), harro-harro (agertu), justu-justu (iritsi), labur-labur (azaldu), lasai-lasai (itxaron), oker-oker (egin), ozta-ozta (entzun), samur-samur (esan), ziur-ziur (jakin), zoro-zoro (egon).*

(hitzaldi) luze-luzea (da). Izen ondoko edo atributuzko bikoiztapen mugatzailedunak: *(egun) argi-argia, (bazkari hau) arin-arina (da).* Bi multzo horietarikoak dira ondoko adibideok: *berde-berdea, berdin-berdina, berezi-berezia, bero-beroa, berri-berria, doi-doia, eder-ederra, euskaldun-euskalduna, fin-fina, garbi-garbia, gordin-gordina, gorri-gorria, ilun-iluna, lodi-lodia, lehor-lehorra, luze-luzea, maite-maitea, on-ona, puru-purua, txiki-txikia, zabal-zabala, zuzen-zuzena.*

alfer-alferrik (saiatu). Aditzondo bikoiztu jantziak. Horrela: *alfer-alferrik, bakar-bakarrik, bizi-bizirik, gazte-gazterik, huts-hutsik, isil-isilik, lehen-lehenik, oso-osorik, poz-pozik, soil-soilik, zabal-zabalik; aurren-aurrena, azken-azkena, gehien-gehiena, ixil-ixila, zalu-zalua, doi-doia;* (bai eta ondoriobidezko izenlagunak ere: *aurren-aurreneko, azken-azkeneko); arin-arinka, laster-lasterka, pote-poteka, txalo-txaloka; zalu-zalukara; gaur-gaurkoz.*

zuzen-zuzenean. Adizlagun bikoiztu jantziak: mugatzaileaz gainera deklinabide-atzizkiz jantziak. Horrela: *ageri-agerian, albo-alboan, aurre-aurrean, azken-azkenean, azpi-azpian, barren-barrenean, bene-benetan, bete-betean, erdi-erdian, hotz-hotzean, ondo-ondoan, mendi-mendian, pare-parean, sakon-sakonean, zuzen-zuzenean,* (ondoriobidezko izen-

lagunak ere bai: *behin-behineko, sakon-sakoneko); antzina-antzinatik, bihotz-bihotzetik, hasiera-hasieratik, txiki-txikitatik (txiki-txikitandik); zin-zinez, amorru-amorruz,* (baita ondoriobidezko izenlagunak ere: *behar--beharrezko, oinarri-oinarrizko); alde-aldera, gain-gainera; azken--azkeneraino, ondo-ondoraino.*

poliki-poliki. Eratorpenezko adberbio bikoiztuak. Horrela: *ederki-ederki, emeki-emeki, poliki-poliki, tinki-tinki; ederto-ederto, polito-polito; astiro--astiro, emaro-emaro.*

asper-asper (egin) moduko adizkiak: *asper-asper egin, astin-astin egin, neka-neka egin, txiki-txiki egin, zapal-zapal egin, zuri-zuri egin; dabilen--dabilen, dagoen-dagoen(ean).*

gehien-gehien(a)(k) moduko zenbatzaile- eta graduatzaile-bikoiztapenak: *den-den(a)(k), guzti-guzti(a)(k), gehien-gehien(a)(k), bat-batean, bi-biak, hamabi-hamabi(etan); arras-arras, oso-oso.*

izenordainak: *bere-bere(a), geure-geure(a).*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. esangura: oinarri-hitzaren esanahia indartu, inoiz superlatibo--mailarainotu, egiten dute elkarte-moduok. Hori dela eta, *biziki ederra* edo *oso ederra* esan ordez *eder-ederra* esan daiteke; *oso asperturik, arrunt asperturik (nago)* esan ordez, orobat, *asper-asper (eginda nago)* esan daiteke.

Beti ez da intentsitate-kontua, ordea, indartze-lan horrek dakarrena. Zehaztasuna da hainbatetan, intentsitatea ordez, indarketa horri dariona. 'Justu-justu zer edo nola' adierazten dute, horrela, honako hitz elkartuok: *erdi-erdian (dago), zuzen-zuzenean (etorri da), gain-gainera (erori zait).*

2. Morfologi osaera: indargarriak ere hitz berbera errepikatuz osatzen dira. Oraingoan bigarren aldian deklinatzen da hitza, ordea, deklinatzekotan (gerta daiteke bietan biluzik joatea): *erne-erne (egon), asper-asper (egin), bero-beroA, mendi-mendiAN, txiki-txikiTATIK, azken-azkenERAINO.*

Ia kategoria gramatikal guztietako hitzetan ageri da indargarrizko bikoiztapena.

3. Emankortasuna: aski emankorrak dira multzo honetako zenbait elkarte-modu: aditz edo izen ondoko *moderno-moderno (jazten da), (dokumentu) ofizial-ofiziala (bestea da), (ariketa) praktiko-praktikoa* gisako bikoiztapen indargarriak edonork ulertzen ditu, eta hainbatek sortzen, egungo egunean.

Gehienetan ez da, ordea, horrela: bizi-indar ahulekoak dira honelako bikoiztapen batzuk (*?pausaldi-pausalditik, ?mila-milak,...*) eta antzuak besteak (*asko garatu* ordez ezin dugu **gara-gara egin* sortu; jendeak ez luke entendituko).

4. Hots-aldaketa: hitz-junturan ez dute inolako hots-aldaketarik ageri.

5. Berrelkarketa: indar emate hori are gehiago azpimarratu nahi denean, maiz egiten dira hiruko edo gehiagoko berrelkarketak: *maite--maite-maitea; den-den-dena (jan du); (gizon-puska) on-on-on-ona.* Adjektibo--bikoiztapenak dira, itxuraz, berrelkartzen errazenak.

IDAZKERA

Indargarriak marraz idaztekoak dira: *labur-labur (azaldu), alfer-alferrik (ibili), (gaztarora) doi-doia (heldu), bene-benetan (esan), hasiera-hasieratik (igarri), oso-oso (motel erantzun).*

Salbuespenak: aspaldidaniko forma ihartuak. Gutxi dira horrelakoak. Loturik idazten dira sarrienik: *berbera.*

2. Dvandva-elkarteak

Koordinazio-elkarteak sartzen dira, ezaguna denez, dvandva-elkarteen sailean. Hitz elkartu *kopulatiboak, aditiboak* edo *bikote-hitzak* ere deitu izan zaie hauei.

Bada, bestalde, bigarren elkarte-modu bat inoiz sail honetan eman izan dena: tautologi elkarteak edo geminatu semantikoak. Beste leku batean (ikus 13. atala) emango dira oraingoan tautologia horiek.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

Dvandva-elkarte osoaren kategoria gramatikalaren arabera, ondoko sei atal hauek sartzen dira hemen:

seme-alabak moduko izen-dvandvak. Ugarienak izen arruntekoak dira: *aita-amak, senar-emazteak, zeru-lurrak, seme-alabak, bihotz-ezpainak, buru-buztanak, euskara-erdarak, ezpain-lumak, esan-eginak, galde--erantzunak, goi-beheak, hotz-beroak, izen-abizenak, jaun-andreak, maisu--maistrak, neska-mutilak, ogi-ardoak, porru-patatak, uste-sinesmenak, uztail-abuztuak, ostegun-ostiralak, buru-buztanak, dama-galaiak, errege--erreginak, on-gaitzak.*

Hauen parekoak dira izen propioko dvandvak: *Bizkai-Gipuzkoak, Oria-Bidasoak, Bilbo-Iruñeak, Sakana-Burundak, Azpeiti-Azkoitiak; Axular--Etxepareak, Unamuno-Barojak.*

zuri-gorri moduko adjektibo-dvandvak: *zuri-gorri, txuri-urdin, gazi-geza, gor-mutu, luze-zabal, nagi-epel, gozo-mikatz, hori-beltz, zuri-beltz, argi-ilun.*

han-hemen moduko adizlagun- eta aditzondo-dvandvak: *han-hemen, han-hor, hala-hola; gaur-biharretan, bihar-etzi(etan), luze-laburrean,*

goien-barren, ezker-eskuin, gutxi gora-behera, harat-honat, atzera-aurrera; laztan-musuka, negar-zotinka. Hemendik eratorriak dira izenlagun--dvandvak: *luze-zabaleko (programazioa), leku-denborazko (deklinabide--atzizkia), ikus-entzunezko (ikasmateriala).*

sartu-irten. Adizkiz osaturiko izen-dvandvak: *sartu-irten, itxi-ireki, galdu-gorde(an ibili), izkuta-agiri(ka), joan-etorri, hartu-eman, egosi--irakin, eraman-ekarri, saldu-erosi, jantzi-erantzi.* Aditzoin + aditz moduko forma ihartu bakanak ere sail honetakoak dira: *salerosi, salerosketa, harreman.*

hamar-hamabi moduko zenbatzaile-dvandak: *sei-zazpi (etxe), zortzi--hamar (kilometro), hamar-hamaika (lagun), (orain) hogei-hogeitabost (urte), hirurehun-laurehun (ardi); gutxi-asko.* Baina *bizpahiru, hiruzpalau, lauzpabost, bospasei.*

non-zer moduko galdekari-dvandvak: *noiz-nongo, zer-nola(ko); non--zer; nor-nori, zer-nori-nork.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: koordinazio-esanahia darie, lehenago esan denez, dvandva--elkarteoi. Koordinazio-bide hori kopulatiboa izaten da gehienetan. Hots, 'eta' juntagailua antzematen da hitz-elkarte horren oinarriko perpaus--eskeman (bakanago ageri da 'edo', agian 'ala', modukorik).

Osagai biek bateragarriak izan behar dute, gainera, esanahiaren aldetik: normalean ez da posible *gizon-porruak, itxi-erosi, joan-ezkondu, gaur--han, hark-ni* edo *jantzi-etorri* moduko dvandvarik sortzea. Zertan datza, ordea, bateragarritasun horren funtsa?

— izenetan, esanahi-kidetasunean sarrienik;

— gainerakoetan, antonimiazko harremanean usuenik.

2. Morfologi osaera: buru biko sintagmak dira dvandva-elkarteok. Parez pareko buru bi, eta ez bat, izate horretan bereizten dira hitz elkartuok beste nonbait aipatzen diren atributu-elkarteetatik. Sintagma--burua lehenengo osagaia dutenetatik, bereziki: *gizon astoa* gizona da batez ere, eta *zakur galgoa* zakurra; *aita-amak* edo *txuri-gorri* elkarteetan ez dago, aldiz, bestea baino buruago den atalik. Zailagoa da, aldiz, besteekiko (batez ere koordinazio-elkarteekiko) bereizketa semantikoa. Bada ordea, ondoren azalduko denez, bestelako bereizbiderik.

Izen-dvandva hauek pluralean agertzen dira ia beti: *aita-amak, seme--alabak, zeru-lurrak.* Bestela ere ager daitezke ordea:

— Partitiboan: seme-alabarik (ez dute), porru-patatarik (nahi ote du?)

— Mugagabean, oro har: *(zenbait) neska-mutil, (hainbat) gogo-asmo*

Dvandva moduko elkarte berri batzuetan, halere, pluralezko osaera jator hori aldatzen ari da. Singularrean eman ohi dira, horrela, azken urteotan sorturiko hainbat erakunde eta elkarteren izenak: *AEK (Alfabetatze--Euskalduntze Koordinakundea), EITB (Euskal Irrati-Telebista), HABE (Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzeko Erakundea), IRALE (Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea), Bilbao-Bizkaia Kutxa.*

3. Emankortasuna: emankorra da berez euskal hitz-sorbide hau. Horrela,

– izen-dvandvetan *egunkari-aldizkariak, irrati-telebista(k), irail-urria(k), autobus-kamioiak* modukoak maiz samar sortzen dira, eta euskaldun garbi gehienek erraz ulertzen dituzte.

Ezin uka daiteke, ordea, era mugatu batean erabiltzen direla honelako izen-dvandva berriak; euskaldun gehienok errazago esaten eta idazten dugu *eskutitzak eta telegramak,* adibidez, *eskutitz-telegramak* baino.

– Erdaratiko adjektiboekin ere usu sortzen dira, gaur egun, bikote--elkarte berriak. Horrelakoak dira, adibidez: *(helburu) didaktiko-pedagogikoak, (filosofo) ateo-materialistak, (teoria) sortzaile-transformatzailea, (garapen) logiko-matematikoa, (kultura) greko-erromatarra, (teoria) atomiko-molekularra, (hizkuntza) fino-ugriarrak, (Inperio) austro-hungaroa.* Baita egile-izen berriak ere: *ikus-entzule* (cf. lehengo *salerosle*).

Hemen ere mugatua da, ordea, gure gaurko sormena: errazago ageri dira horrelako elkarteak maileguzko dvandva-bikoteetan geure hitz-altxorreko elementuez berariaz sortzen ditugunetan baino.

– Auzo-erdaren eraginez sortuak ditugu orobat, behinolako euskal eredu jatorrik falta ez zaien arren, azken orduko *hortz-ezpainkari* modukoak.

4. Hots-aldaketak: hitz-junturan ez dute dvandva-elkarteek ia inolako hots-aldaketarik izaten.

5. Hedabidea: dvandva-elkarteek gutxitan ageri dute berrelkarketa-edo garapen-kasurik. Ezinezkoak ez dira, ordea. Halakoetarako, ondoko aukerabideok kontuan izan: *(gure) zeru-lur-itsasoak (maite zituen); (zinta) zuri-gorri-berdea; 8-10-12 (urteko ikasleak); erdal-euskal hiztegia; jale-edale ospea; gatz-ozpindu, gatz-piperdun.*

IDAZKERA

Marrarekin idaztekoak dira dvandva-elkarteok: *anai-arrebak, izen--abizenak, zuri-beltz, han-hemen, luze-zabalean, joan-etorri, sei-zazpi, austro-hungaro.*

Salbuespena: aditz-dvandvetan lehen osagaia aditz-erroa denean, loturik ematen dira elkarte zaharrak: *harremanak, salerosketak.*

3. Bahuvrîhi-elkarteak

Hitz elkartu *posesiboak* ere esan izan zaie hauei. Hainbat hizkuntzalarik, gainera, hitz-elkarteok exozentrikoak direla aipatu izan du.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

sudur-luze moduko izen + izenondo elkarteak: *adar-motz, aho-zabal, aitzin-xuri, aurpegi-luze, begi-beltz, begi-gorri, begi-ilun, belarri-luze, bizar-gorri, buru-arin, buru-soil, buru-zuri, esku-zabal, gerri-eder, hanka--luze, hanka-motz, ile-harro, ile-kizkur, kirten-motz, lepo-zikin, magal--harro, mingain-luze, moko-fier, moko-fin, musu-gorri, mutur-beltz, mutur--zikin, odol-bero, papar-gorri, sudur-motz, titi-handi, tripa-zikin, txapel--gorri, zain-gorri, zango-makur; belarluze, besamotz, hankarin, ipurlodi, ipurtarin, kaskazuri, kopetilun, lepagorri, lepamehe, mutxurdin, prakerre, tripaundi, zapataundi.*

Azpimultzo berezia osatzen dute, hemen, *hankutsik* moduko izen + adizlagun elkarteek: *esku-hutsik, kaltzontzilo-hutsik, larru-hutsik; esku--huska; begi-huts (izan), musu-huts (geratu), mutur-huts (agertu), sudur--huts (ibili)*

gogo-landu moduko izen + partizipio elkarteak: *gogo-landu, bihotz--gogortu, gose-pasatu, buru-makurtu, ele-erasan, ipurtagiri, asko-jakin, bakan-ibili, zikin-estali*

lauburu moduko zenbatzaile + izen elkarteak: *bostortz, hamalauzanko, hiruadar, hiruhortz, lauburu; adarbakar, asmobakar, begibakar, hankabakar*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: *sudur-luze* modukoek beste norbait edo zerbait nolakoa den adierazten dute. Antz handia dute, alde horretatik, izaera-elkarteekin. Bahuvrîhiak izen bizidunei aplikatzen zaizkie oro har: gehienetan gizakiei, gutxiagotan animaliei. Hortik kanpora ere erabili izan dira, ordea: botanikan *(hosto-zabal, gibel-urdin, barren-gorri)*, adibidez. *Hankutsik* modukoek, bestalde, norbait hori nola dabilen esaten digute.

Gogo-landu modukoek norbaitek zer egi(te)n duen adierazten dute, nolakoa den bezainbat.

Lauburu modukoek, azkenik, zenbat duen adierazten digute.

2. Morfologi osaera: sailkapenean emana dago banan-banan. Izen + izenondo erabidea da, askogatik, ugariena.

Gogo-landu modukoak, sintetikoen oso antzekoak dira.

3. Emankortasuna: emankorrak dira gaur ere bahuvrîhi-molde guztiok. Ez denak neurri berean, ordea: *sudur-luze* modukoek dute bizi-indar

handiena (*angelu-zuzen* 'rectángulo' esateko, *albozuri* 'white sided' adierazteko) eta *lauburu* modukoek ahulena (*zelulabakar 'unicelular' esateko, balioanitz* 'polivalente' adierazteko). Izendapen-esparru guztietarako baliozkoak izan arren anatomian, zoologian eta botanikan sortzen dira orain ere bahuvrîhi berri gehienak.

4. Hots-aldaketak: ikus sintetikoak

5. Berrelkarketa edo garapena: gutxitan gertatzen da horrelakorik, bahuvrîhiekin.

IDAZKERA

1. *sudur-luze* modukoak:

1.1 Hots-aldaketarik izan duten honelako bahuvrîhiak bat eginik idaztekoak dira: *betizu, besamotz, kaskazuri, ipurterre, zapataundi; hankutsik, makutsik.*

1.2. Hitz-junturan hots-topa bihurria izan baina hots-aldaketarik agertzen ez dutenak marraz lotzekoak dira: *behatz-lodi, bihotz-txiki, isats-luze, kirten-motz.* Marraz idaztekoak dira, orobat, lehen osagaia kontsonantez amaitu eta bigarren osagaia >h<-z hasten duten forma ez-ihartuak: *gibel-handi, zain-hori, zain-hil*

1.3. Gainerakoetan (eta hauek dira, askogatik, gehienak) joera biko idazkera ageri da gaur egun: *gona-motz / gonamotz, gogo-arin / gogoarin.* Joera bi hauen indarraz jabeturik, ez dirudi erabateko lege zorrotzik eman daitekeenik. Beraz, ontzat ematen dira horietan bai *aurpegi-luze, musu-zikin, punta-zorrotz, txapel-oker, angelu-kamuts* eta bai *aurpegiluze, musuzikin, puntazorrotz, txapeloker, angelukamuts* idazkerak.

2. *Gogo-landu* modukoak: marrarekin idaztekoak dira era honetako bahuvrîhiak. Salbuespentzat hartu behar dira loturik ematen diren forma ihartuak (*zinegotzi*).

3. *Lauburu* modukoak loturik idazten dira: *hamalauzanko, hiruhortz, zelulabakar.*

4. Izaera-elkarteak

Atal desberdinak daude sail honetan, eta banaka agertuko dira.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

aldagaitz, egoskogor modukoak: *aldagaitz, ezagugaitz, gozakaitz, izukaitz, konformagaitz, kontentagaitz, moldakaitz, pairagaitz, sineskaitz, uxagaitz; landugaitz, saldugaitz; egoskogor, sineskogor*

asmaezin modukoak: *asmaezin, aseezin, egonezin, nekaezin, kontaezin, hilezin, pentsaezin, integraezin, bateraezin, konformaezin, pasaezin;*

ulerterraz, isurbera modukoak: *adierraz, etenerraz, mintzaerraz, moldaerraz, sinesterraz, ulerterraz, irakurterraz; isurbera, samurbera, lizunbera, minbera;*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: ezintasun-traba agertzen dute lehenengo bi ataletakoek; horren aurkakoa, aldiz (hots, erraztasun-joera), azkenak.

2. Morfologi osaera: hitz-elkarte honek, bere osoan, ezin ukatuzko antza du bahuvrîhi-elkartearekin. Exozentrikotasun-marka berbera du, batetik. Bestetik, berriz, adjektiboa du bigarren osagaia: ez ordea, bahuvrîhietan bezala, izenaren ondoko adjektiboa, aditzaren ondokoa baizik. Aditza (gehienetan aditzoina) da, izan ere, hitz elkartu hauen lehen osagaia.

3. Emankortasuna: aditzoin + *ezin* eredua dugu emankorrena: *transformaezin, deformaezin...*

Bigarren osagaia *gaitz* edota *erraz* dutenekin ere hainbat hizperri sortzen da: *herdoi(l)gaitz, proiektaerraz...* Ez nahi den guztian, ordea.

Azkenik, aditzoin + *gogor/bera* eredukoak aski bizi-indar ahulekoak dira gaur egun.

4. Hots-aldaketa: lehengo forma ihartuetan baino hots-aldaketa gutxiago ageri da oraingoetan. Zenbait ohar egin beharra dago, halere:

a) Bigarren osagaia *gaitz, gogor* eta *bera* dutenetan, bodega/petaka hots-aldaketa aski indarrean egona da: txistukarien ondoren, bereziki, betibateko araua izana dela dirudi (*sineskaitz, egoskogor,...*). Ez da hots-inguramendu jakin horretan bakarrik ageri, ordea (*izukaitz, moldakaitz,...*).

b) Bigarren osagaia *erraz* edo *ezin* duten elkarte bakan batzuetan, loturazko >t< ageri da (*irakurterraz, ikustezin,...*).

c) Arau nagusia, oraingo hitz berrietan ia erabatekoa, hots-aldaketarik ez egitekoa da ordea. Delako -a + e- = -e- hots-legea, adibidez, ez da orain betetzen: *pentsaezin, deformaezin.*

IDAZKERA

Loturik, bat eginik idaztekoak dira hitz elkartuok: *kontentagaitz, erregogor, konformaerraz, aseezin, isurbera.*

5. *Lotsagabe, lo falta* moduko elkarteak

Erabat sinonimoak ez izan arren, esanahi beretsukoak dira elkarte hauen bigarren osagaiak: 'gabezia, eza' adierazten dute. Horregatik, batez ere, ematen dira sail berean. Gainerakoan badute, ondoren ikusiko denez, hainbat desberdintasun.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

lotsagabe modukoak: *adargabe, amagabe, antsikabe, atsekabe, axolagabe, babesgabe, baliogabe, beldurgabe, bidegabe, burugabe, dirugabe, ditxagabe, dohakabe, erlijiogabe, errugabe, eskergabe, eskolagabe, fedegabe, hezigabe, kordegabe, kutsagabe, lurgabe, lotsagabe, nahigabe, ondragabe, osagabe, paregabe, preziogabe, sinesgabe, tolesgabe, ustekabe, zentzugabe, zorikabe, zuzengabe.*

Besterik dira, noski, *kotxe gabe (etorri), beldur gabe (esan), ezer gabe (gelditu), lanik gabe (egon), ikusi gabe (asmatu)* moduko posposizioak edota *akats gabeko (lana), jorratu gabeko (saila), pare gabeko (altxorra)* moduko izenlagunak. Bereiz idazten dira guztiok, eta ez dira hitz-elkarketaren alorrean sartzen.

lo falta modukoak: *batasun falta, borobiltasun falta, egur falta, estilo falta, harreman falta, lo falta, kontzientzi falta, praktika falta.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: gorago esan denez 'gabezia, eza' adierazten dute elkarte hauen bigarren osagaiek, eta esangura horixe darama elkarte osoak ere itsatsirik.

2. Morfologi osaerari dagokionez, ikus ditzagun banan-banan:

a) *Lotsagabe* modukoetan elkarte osoa izenaren ondoko adjektiboa izan ohi da gehienetan; batzuek izen gisa soilik jokatzen dute, ordea.

Lehen osagaia izena izan ohi da sarrienik. Zenbaitetan aditz(oin)a izaten da, halere.

b) *Lo falta* modukoetan elkarte osoa izena izan ohi da. Lehen osagaia ere izena izaten da ia beti, eta bigarrenaren osagarri zuzen gisa dihardu.

3. Emankortasuna: arras emankorrak dira elkarte-molde biok. Edozein euskaldun garbik sortzen ditu maiz, eta nornahik ulertzen, *hipotekagabe, proiektugabe* edo *garapen falta, dokumentazio falta* moduko elkarte berriak.

4. Hots-aldaketak. Banan-banan aztertzekoak dira. Horrela:

a) *Lo falta* modukoek ez dute beren hitz-junturan inolako hots--aldaketarik eragiten.

b) *Lotsagabe* modukoetan, batez ere lehen osagaia txistukariz amaitzen denean, duda-muda ageri da sarri *gabe* eta *kabe* artean. Bizpahiru ohar egin behar da, halere:

— Alternantzia hori bokal ondoren ere ageri da: *antsikabe, atsekabe, ustekabe, zorikabe, (axolakabe)...* Baita *oharkabe* modukoetan ere. Ez dirudi, beraz, hots-ingurune jakin baten baldintzapen estuaz hitz egin daitekeenik.

— Lehen osagaiaren amaierako txistukarietan zalantza ageri da, gainera, *gazgabe/gatzgabe, akasgabe/akatsgabe* moduko bikoteen artean.

— Orainagoko elkarteetan, ez dirudi bodega/petaka hots-araua gehienetan betetzen denik: *funskabe, horzkabe* edo *akaskabe* gortuen ordez *funsgabe, horzgabe* edota *akasgabe* ozenak dira askogatik nagusi.

IDAZKERA

1. *Lotsagabe* modukoak loturik, bat eginik idaztekoak dira: *burugabe, lotsagabe, mugagabe, zentzugabe.* Hitz bien arteko lotura ilun gera daitekeenean, salbuespenez, hobe marra erabiltzea: *(gutun) sinestamendu-gabea, robot-gabea.*

2. *Lo falta* modukoak bereiz idaztekoak dira: *aurrikuspen falta, diplomazi falta.*

6. Aditz-elkarteak

Elkarte hauen bi osagaietako bat aditza izan ohi da. Aditza bigarren osagaia da kasu hauetan, ez lehenengoa; eta hortik sortzen den elkarte osoak ere halako aditz-izakera garbia du.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

Ondoko bi multzo hauetan bana daitezke aditz-elkarteak, azalpena erraztu asmoz:

odolustu moduko aditz elkartu arruntak: *gatzoztu, gurutziltzatu, larririki, maitemindu, hegoaidatu, hotzildu, indargaldu, odolustu, uranditu.* Badira, elkarte-modu honetan, besteak baino sarriago agertzen diren zenbait aditz:

etsi eta eritzi: *berantetsi, ederretsi, erdietsi, ezetsi, gaitzetsi, goretsi, gutxietsi, hautetsi, lehenetsi, luzetsi, miretsi, salbuetsi, sinetsi;* eta hortik *salbuespen, mirespen, balioespen; oneritzi, gaitzeritzi, luzeiritzi(ta egon).*

aldatu: *antzaldatu, formaldatu, herrialdatu, itxuraldatu, lekualdatu, mintzaldatu.*

berritu: *eraberritu, indarberritu, biziberritu, zaharberritu, azalberritu, fedeberritu.*

gabetu: *baimengabetu, baliogabetu.*

Aipamen berezia zor zaie, azkenik, lehen osagaian leku-denborazko izenak dituzten aditz-elkarteei: *goraipatu, gain(t)xuritu, goraltxatu, gainbihurritu, azpimarratu, aurr(e)ikusi.*

lo egin modukoak. Banan-banan eskainiko dira azpimultzook:

egin: *lo egin, hitz egin?, negar egin, barre egin, oihu egin, huts egin?, alde egin, berba egin, bide egin, dei egin, gogait egin, ihes egin, salto egin, planto egin, zintz egin, on egin; hitzegin?, hutsegin?, hotsegin.*

eragin: *amets eragin, barre eragin, gogait eragin, ihes eragin, leher eragin, hil eragin, negar eragin, zin eragin.*

eman: *amor(e) eman, aurpegi eman, beldur eman, hats eman, gibel eman, hitz eman, kontu eman, lur eman, musu eman, su eman; antzeman, atzeman, hotseman, hauteman.*

hartu: *min hartu, kargu hartu, su hartu, parte hartu, gorroto hartu, kontu hartu, poz hartu; onartu, lo(a)kartu, hitzartu, jaunartu.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Morfologi osaera: *hats hartu, beldur eman* modukoen ondoan hor daude aditz-elkarterik gabeko *hatsa hartu, beldurra eman* sintagma libreagoak ere. Behinolako osagarri zuzen mugagabeen seinalea ageri da, nolabait, aditz-elkarte horietan. Galdua dute gaur, ordea, osagarri zuzenaren funtzionamolde hori: *Andonik tiroa hutsegin du* esaten dugunean, horrela, *tiroa* dugu oraingo osagarri zuzen, ez *huts.*

2. Emankortasuna: bizi-indarrik gabekoak dira, gehienetan, aditz--elkarteok. Badira, hala ere, emankortasun-seinalerik ageri duten multzo batzuk. Horrela, *letraldatu, bideberritu* edo *txartelgabetu* gisakoak edozein euskaldunek entenditzeko modukoak dira. Euskal erabide jatorra ez bada ere, gainera, saio ugariak egiten ari dira *aurrikusi* modukoen ildotik.

3. Hots-aldaketak: aditz-elkarte gehienetan ez da hitz-junturako hots--aldaketarik ageri.

IDAZKERA

1. Lehen ataleko aditz-elkarteak, adibideetan bertan argi dagoenez, loturik idaztekoak dira: *indargaldu, uranditu, gaitzetsi, antzaldatu, biziberritu, indargabetu, azpimarratu.*

2. Bigarren ataleko *lo egin, kargu hartu, su eman* modukoak, azkenik, bereiz idazten dira gehienetan (baina salbuespenezko idazkera loturik ere ageri dute forma ihartuenetan).

Bigarren ataleko aditz-elkarte horiek gehienetan bereiz idazten diren arren, horietarik eratorriak diruditen *partehartzaile, loeragile, hutsegite* modukoetan ez da idazkera loturik (edota gutxienez marradunik) falta izaten. Hitz-elkarte sintetikoen eta *eguzki-lore* modukoen sailean aztertuko da hori, behar den zehaztasunez.

7. Hitz-elkarte sintetikoak

Multzo zabala osatzen dute hitz-elkarte sintetikoek. Azpimultzoak ere ugariak dituzte. Horiek ikusiko ditugu ondoren.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

7.1. **Egile-elkarte sintetikoak:** zerbait egiten ari den *norbait* edo *zerbait* adierazten dute. Bigarren osagaia, horretarako, aditzezkoa dute (aditzoina, gutxienez, bertan izan ohi dute).

hargin moduko errokariak: bigarren osagaia *-gin, -gile, -zain, -dun* duten egile-elkarteak: *hargin, zurgin, uztargin, emagin, gaizkin, ikazkin, okin, harakin; bertsogile, eltzegile, industrigile, langile, legegile, nobelagile, liburugile, musikagile, santugile; mugazain, diruzain, bidezain, atezain, lemazain, arimazain, bizkarzain, erizain; dirudun, arduradun, baliodun, berbadun, bizardun, kakodun, haurdun, armadun, hiztun, margodun, mokodun, potrodun, txapeldun, zentzudun, fededun, zordun, tituludun, euskaldun.*

oilo-lapur moduko soilak: bigarren osagaia aditz-erroaren pareko izena dutenak: *oilo-lapur, lur-jabe, etxe-maite, etxe-kalte; hitz-jario, berri-jario, zarpa-jario, beldur-jario.*

kale-garbitzaile moduko osatuak: bigarren osagaia *x-(tzai)le, x-garri, x-gailu, x-ki(n), x-ari* modukoa dutenak: *kale-garbitzaile, bide-urratzaile, diru-jasotzaile, gai-jartzaile, harri-jasotzaile, harri-pikatzaile, liburu-saltzaile, jai-antolatzaile, zerga-biltzaile, giro-sortzaile, aterki-saltzaile, meza--laguntzaile, bertso-biltzaile, fede-ukatzaile, esne-saltzaile, telebista--konpontzaile; bide-erakusle, liburu-idazle, zaldi-erosle, musika-ikasle, matematika-irakasle, irrati-entzule, klase-emaile, lege-hausle; meza-emaile, frutu-emaile, botu-emaile, bozemaile, bizi-emaile, indar-emaile, mezu--igorle; aho-gozagarri, bihotz-hunkigarri, bihotz-erdiragarri, etxe-galgarri, begi-mingarri, txori-izugarri; euri-neurgailu, orri-zulagailu, zoru-garbigailu, su-itzalgailu, kilometro-kontailu, grapa-kengailu, uzta-bilgailu, plater--ikuzgailu, tanta-kontailu, bero-neurgailu, kolpe-leungailu, ardo-dastagailu,*

(baina *bozgorailu*); *aho-estalki, buru-estalki, euri-neurkin, argi-neurkin; behor-gidari, erbi-ehiztari, bulego-zaindari; intsektilkari, sagu-hilkari.*

7.2. **Ekintza-elkarte sintetikoak:** norbait edo zerbait egiten ari den *ekintza* adierazten dute. Hauek ere, egile-elkarteek bezala, aditzezkoa dute bigarren osagaia. Bestelako eratorpen-atzizkia eraman ohi du ordea, ekintza-elkarte gehienetan, aditzoin horrek.

bertsogintza moduko errokariak: bigarren osagaia *-gintza, -gite, -za(i)ntza* duten ekintza-elkarteak: *antzerkigintza, armagintza, barkugintza, bertsogintza, bidegintza, burdingintza, elizagintza, erlojugintza, gaztagintza, haurgintza, herrigintza, kulturgintza, liburugintza, nobelagintza, plangintza, poemagintza, politikagintza; egurgite, etxegite, talogite, txanpongite, ongigite; gaixozaintza, ertzaintza, liburuzaintza, Euskerazaintza, diruzaintza, artzantza*

artajorra moduko soilak: ekintza-elkarteok aditz-erroa edo horren parekoa dute bigarren osagai: *artajorra, lurrikara, behaztopa, eskuerakutsi, hitz-etorri, hitz-jario, txuleta-jan, gau-pasa, uso-pasa, muxar-ehize*

adar-jotze moduko osatuak: bigarren osagaia *x-t(z)e, x-keta, x-era, x-pen, x-kuntza* modukoa duten ekintza-elkarteak: *adar-jotze, auzi-garbitze, behi-umatze, bertso-paratze, botu-emate, denbora-galtze, giro-berotze, gogo-galtze, hazi-ereite, indar-neurtze, lan-uzte, odol-isurtze, oroimen-galtze, patata-zuritze, pauso-kontatze, prezio-altxatze, soineko-urratze, txerri-hiltze, zikiro-jate; bide-aldaketa, datu-bilketa, demografi aldaketa, diru-bilketa, emaitza-bilketa, olerki-sariketa, adimen-azterketa, gizarte-aldaketa, sari-banaketa, jantzi-garbiketa, maiztasun-azterketa, ardi-lapurreta; ikastaro-amaiera, mende-hasiera, hitz-joskera, jatordu-amaiera, txosten-prestaera, nobizio-sarrera; hats-beherapen, berri-laburpen, diru-ugalpen, fede-ukapen; pedagogi berrikuntza, erlijio-irakaskuntza, teknologi ikaskuntza, etxe-eraikuntza; industri iraultza, lan-eskaintza, odol-eskaintza; klase-emankizun; ur-kutsadura; azalpen-eskabide*

7.3. **Jardun-elkarte sintetikoak:** adberbio-lanean jardun ohi dute, aurrekoek ez bezala, elkarte sintetiko hauek.

diru eske moduko soilak: bigarren osagaia aditz-erroa edo horren parekoa dute jardun-elkarteok. Maizenik *bila, eske* eta *pasa* erabili ohi dira: *diru eske, barkamen eske, argibide eske, aholku eske, izen eske, kafesne eske, liburu eske; ur bila, bake bila, lagun bila, etsai bila, ardo bila, diru bila, ogi bila, zorion bila, mendeku bila; denbora-pasa (dabil).*

ate-joka moduko osatuak: bigarren osagaia *x-ka, x-ari* izan ohi da gehienetan. Horrela: *aho-zabalka, beso-gainka, gaizki-esaka, mutur-joka, ostatu-galdezka, errosario-esaka; kontu-kontari, kantu-kantari.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: gardenak dira, oso, hitz elkartuok. Elkarte osoaren esanahia berehala jaso ohi da osagai bien esanahi-baturatik: *butano-saltzaile* baten esangura esplikatu beharrik ez dago inongo euskalduni.

2. Morfologi osaera: izen + izen itxurakoak dira, lehen begiratu batean, sintetiko gehienak: *kale-garbitzaile* edo *diru-bilketa* modukoak ez dira, alde horretatik, *eguzki-lore* edo *liburu-azoka* modukoen hain apartekoak.

Lehen osagaia izena da ia beti: izen arrunta, ez propioa. Bigarren osagaia izena da gehienetan: *nor-nork* aditzetiko izena ordea (*emaile, bilketa,...*), ez *lore, etxe* moduko izen arrunta. Horretantxe bereizten dira, morfologiari dagokionez, *diru-emaile* moduko sintetikoak *eguzki-lore* moduko menpekotasunezkoetatik.

Elkarte osoaren kategoria gramatikala izena da lehen bi kasuetan (*nomina agentis* eta *nomina actionis* dira elkarteok, hurrenez hurren); jardun-elkarteak, aldiz, adberbio modukoak dira.

Azpimultzo batean baino gehiagotan ager daiteke hitz-elkarte bera: *hitz-jario,* horrela, egile- zein ekintza-elkarte izan daiteke; *diru-eske,* era berean, ekintza- zein jardun-elkarte.

3. Sintaxi-egitura: elkarte hauen bi osagaiak, hurrenez hurren, osagarri zuzena eta predikatua dira ia beti. Horrela, *kale-garbitzaile*: norbaitek kalea(k) garbitzen d(it)u; *diru-bilketa*: norbaitek dirua bildu/biltzen du; *ikazkin*: norbaitek ikatz(a) egiten du; *gerri-makurka*: norbait gerria makurtuz ari da. Inoiz edo behin, leku-denborazko osagarri gisa (*bide-ebasle, etxe-sartze*) edo subjektu moduan (*argi-urratze*) ageri da lehen osagaia.

4. Emankortasuna: arras emankorra da hitz-elkarketa sintetikoa. Bi erabilpen-esparru nagusi ditu:

a) Nazioarteko kultur hitzak: *herbívoro*-tarako sortu izan den *belar-jale*-ren ildotik, adibidez, ehundaka dira egungo testuetan irakur daitezkeen hitz-elkarte sintetiko berriak.

b) Frantses-gaztelanietako A de B, Ab* sintagmak (A hori aditzetiko izena denean) euskarara itzultzeko:

GAZTELANIAZ		EUSKARAZ	
A de B	receptor de mensajes	mezu-hartzaile	egile-elkarte
Ab*	analizador morfológico	morfologi analizatzaile	sintetikoak
A de B	cambio de horario	ordu-aldaketa	ekintza-elkarte
Ab*	análisis sanitario	osasun-azterketa	sintetikoak

5. Hots-aldaketak: gaur eguneko hitz-elkarte sintetiko gehienetan ez da hots-aldaketarik eragiten. Elkarketa "garbiak" dira gehienak: *safari--antolatzaile* (ez **safal-antolatzaile*), *gorputz-garbiketa* (ez *gorpuzkarbiketa*), *etxe-erakusle* (ez *etxaerakusle* edo *etxerakusle*).

Behinolako hitz elkartu sintetiko askok ongi agerian du, ordea, sortu zen garaian indarrean zegoen hots-lege baten edo besteren marka. Horrela:

a) *Etxagile* (forma berrietan *etxe-miaketa*, *etxe-eroste* ageri da, aldiz), *ilagin, gaiztagin, mandazain, artajorra,* (berriagoetan *arto-lantze, asto-lasterketa*,...)

b) *Ikazkin, hiztun, gaizkile* (baina berriagoetan adizgile modukoak).

Inoiz kontrakorik ere gertatzen da, ordea: behinolako forma zaharretan hain betibatekoa ez zen hots-aldaketa bat ia sistematikoki egiten da orain. *-zain/-za(i)ntza*-rekin batez ere: *euskaltzain, ertzaintza, haurtzaindegi.*

Azkenik, oraingo *literaturgile, geografi irakasle, ekonomi azterketa* modukoetarako ikus irizpide nagusien I.3. atalean esandakoa.

6. Berrelkarketa edo garapena: mugakizunak, bigarren osagaiak alegia, ez du ia inoiz berrelkarketarik izaten. Koordinaziozkoak dira horrelako gehienak: *barku-betetze* eta *-hustutze, begi itxi-ireki, abere-salerosle.*

Mugatzaileak ere ez du noiznahi berrelkarketarik onartzen. Mugakizuna baino eskuzabalagoa da, ordea, horretan. Koordinaziozko *ardo- eta kafe-saltzaile, txistu- eta danbolin-jotzaile, ile- eta bizar-moztaile, saski- eta otarregintza* modukoez gainera badaude hemen, izan ere, honako beste bi erabideok: batetik *paper-langile ugaltze, zurgin-lantegi garbiketa* modukoa, mugatzaileko bikotea iharturik edo ihartze-bidean ez badago ahal den gutxien erabiltzea komeni dena; eta bestetik, *estalki zuridun, bihotz gogordun, azal ederdun, ahalguztidun* modukoa. Azken hau ere ez da betidanikoa eta noranahikoa: *estalki zuriko, bihotz gogorreko, azal ederreko* izenlagunak normalagoak dira horrelakoetan.

IDAZKERA

1. Zenbait hitz-elkarte sintetiko loturik idatzi ohi da, zalantzarik gabe. Hala idaztea gomendatzen da hemendik aurrera ere. Loturik idazten dira, bereziki, honako elkarte-moduok:

a) Bigarren osagaia, *gin, gile, zain, dun* duten egile-elkarteak: *hargin, zurgin, uztargin; bertsogile, eltzegile, langile; mugazain, diruzain, bidezain, atezain; dirudun, arduradun, bizardun.*

b) Bigarren osagaia *gintza, gite, za(i)ntza* duten ekintza-elkarteak: *gaztagintza, barkugintza, burdingintza; egurgite, etxegite, talogite; gaixozaintza, ertzaintza, liburuzaintza.*

2. Zenbait jardun-elkarte sintetiko bereiz idatzi izan da nagusiki. Bigarren osagaia *eske* edo *bila* dutenak sartzen dira, bereziki, multzo honetan. Orain ere bereiz idaztea gomendatzen da elkarte-modu horiek. Horrela: *diru eske, barkamen eske, argibide eske; ur bila, bake bila, lagun bila.*

3. Gainerako hitz elkartu sintetikoetarako (eta hauek dira askogatik ugarienak) ezin da idazkera-arau zabal eta zorrotzik eman. Bi ohitura dira euskaldunon artean, gaur egun, aski zabalduak: marra bidezko idazkera batetik, eta bereiz idaztekoa bestetik. Galdeketa egin denean gehiengo zabal bat marraren alde agertu da, baina bereiz idaztearen aldekoak ere ugarisko dira. Idazmolde biak ontzat ematen dira, beraz. Horrela:

a) Egile-elkarte sintetikoak, soilak zein osatuak, marrarekin nahiz marrarik gabe (bereiz alegia) idatz daitezke oro har:

kale-garbitzaile, bide-urratzaile, gai-jartzaile, harri-jasotzaile, liburu-saltzaile, edota *kale garbitzaile, bide urratzaile.*

bide-erakusle, liburu-idazle, zaldi-erosle, musika-ikasle, matematika--irakasle edota *odol emaile, soinu jole, eguraldi iragarle.*

aho-gozagarri, bihotz-erdiragarri, etxe-galgarri, begi-mingarri, txori--beldurgarri edota *aho gozagarri, bihotz hunkigarri.*

euri-neurgailu, orri-zulagailu, zoru-garbigailu, su-itzalgailu, kilometro--kontailu edota *euri neurgailu, orri zulagailu.*

behor-gidari, erbi-ehiztari, bulego-zaindari; aho-estalki, buru-estalki edota *autobus gidari, aho estalki.*

b) Ekintza-elkarte sintetikoak ere marrarekin zein bereiz idatz daitezke oro har:

adar-jotze, auzi-garbitze, zikiro-jate, bertso-paratze, odol-isurtze, denbora--galtze edota *lan uzte, oroimen galtze, indar neurtze*

datu-bilketa, diru-bilketa, olerki-sariketa, adimen-azterketa, gizarte-aldaketa edota *sari banaketa, jantzi garbiketa, ardi lapurreta*

mende-hasiera, hitz-joskera, jatordu-amaiera, txosten-prestaera edota *ikastaro amaiera, hitz osaera*

hats-beherapen, berri-laburpen edo *diru ugalpen, fede ukapen; erlijio--irakaskuntza, idazketa-ikaskuntza* edo *etxe eraikuntza; lan-eskaintza* edota *odol eskaintza; klase-emankizuna* edo *teatro ikuskizuna.*

c) Jardun-elkarte sintetikook ere marraz zein bereiz idatz daitezke:

aho-zabalka, ate-joka, beso-gainka edota *mutur joka, ostatu galdezka, errosario esaka*

kontu-kontari edota *kantu kantari.*

Oro har bi idazkera-modu horiek ontzat emateak ez du esan nahi, jakina, aski iharturik edo finkaturik dauden hitz-elkarte sintetikoak ere ezinbestean horrela idaztekoak direnik. Forma ihartu horietan normala da bi hitzak loturik idaztea; idaztohitura hori bere horretan onartzekoa da orain ere: *urtebetetze, buruhauste, hutsegite, lekualdatze; gaizkiegile, gaizkiesale, bozgorailu.* Hiztegi bidez finkatzekoa da, nolanahi ere, forma ihartu edo sendo finkatu horien kopuru-hedadura zehatza.

Ohar garrantzitsu bat egin behar da, azkenik, marrarik gabe idaztearen aldeko direnentzat: hitz-osaeragatik beragatik adiera bikoak gerta daitezke, hainbat kasutan, elkarte sintetikoak (egile-elkarte sintetikoak, bereziki). Honela, marrarik erabiltzen ez bada *sorgin ehiztaria* 'ehiztaria den sorgina' edo 'sorginak ehizatzen dituena' izan daiteke; orobat, *emakume sendagilea* 'sendagilea den emakumea' edo 'emakumeak sendatzen dituen gizakia'. Era berean, *batzar agiria* delakoa 'agerian egiten den batzarra' izan daiteke, edota 'batzar baten akta'. Dudazko kasuotan, gogoan izan bedi Euskaltzaindiaren 1971ko gomendioa: elkarte horiek marraz idaztea hobesten da: beraz *sorgin-ehiztari, emakume-sendagile, batzar-agiri,...* marraz idatz bitez esamolde horien 2. adiera azaldu nahi denean.

8. Asmo-elkarteak

Era askotakoak dira elkarte-moduok. Ezagun-erabilienak baizik ez dira hemen agertuko. Gainerakoetarako, ikus *Hitz-elkarketa/3* liburua.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

izen edo aditzoin + gura modukoak, erdi-ihartuak gehienak: *barregura, txizagura, azkura, logura, handikigura, senargura, jolasgura; esangura, ikasgura, jakingura, bizigura, ezkongura, hilgura.*

Horien parekoak dira are ihartuago dauden *logale, botagale, tiragale* modukoak.

izen edo aditzoin + nahi moduko izen eta izenondoak: *batasun-nahi, zorion-nahi, burruka-nahi, bizi-nahi, jakin-nahi.* Besterik dira, noski, bereiz idazten diren aditz-moldaera libreak: *goiz itzuli nahi nuke, zerbait esan nahi genioke, bertan egon nahi badu...* (ikus, horretarako, 5.3. puntua).

izen edo aditzoin + gose/egarri modukoak: *aginte-gose, diru-gose, espantu-gose, Jainko-gose, zuzen-gose; jakin-gose, jan-gose...; diru-egarri, egi-egarri, fama-egarri.*

izen edo aditz-sintagma + zale modukoak: *aberezale, abertzale, ardozale, bakezale, berrizale, bertsozale, dantzazale, dotrinazale, edarizale, egizale, euskaltzale, gerrazale, gizonzale, haragizale, jainkozale, idolo-*

zale, industrizale, jakintzazale, jeltzale, literaturzale, pinuzale, neskazale, odolzale, ospezale, sagardozale, soinuzale, umezale; eginzale, aurrerazale, jakinzale, kiskalizale.

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: zerbaitetarako asmoa, gogoa, joera edo zaletasuna adierazten dute elkarteok.

2. Morfologi osaera: izena (edo izen-balioko izenondoa) da, gehienetan, lehen osagaia. Bestela, aditzoina. Bigarren osagaia *zale* dutenetan, gainera, konbinazio-aukerak are zabalagoak dira.

Elkarte-modu honek, bere osoan, ezin ukatuzko antza du egile-edota ekintza-elkarte sintetikoekin.

3. Emankortasuna: ezintasunik ez dago, berez, era honetako elkarte berriak sortzeko: edonork ulertuko lituzke, horrela, *informazio-gura, sendotasun-nahi, burokrazi egarri* edota *elektronikazale* modukoak.

4. Hots-aldaketak: izaera-elkarteetan esandakoak bete-betean balio du atal honetarako ere. Oro har ez da, elkarte-moduotan, hots-aldaketarik egiten. Zalantza bakarra *euskal(t)zale* modukoetan ageri da.

IDAZKERA

a) Forma ihartu eta erdi-ihartuak alde batera utzita (ikus, horietarako, hiztegiak), oraingo *gura, nahi, gose, egarri* bukaeradunak marraz loturik idaztekoak dira: *informazio-gura, batasun-nahi, petrolio-egarri.*

b) Bigarren osagaia *zale* dutenetan loturik, bat eginik idaztea da arau nagusia: *bertsozale, haragizale, sagardozale.*

Sabuespen gisa, txistukari-bikoteagatik edo bestegatik ilun gelditzen diren hitz-junturak marraz idatzi: *jolas-zale, arrotz-zale, konfort-zale, txurrut-zale, marketing-zale.*

9. *Egin berri* moduko elkarteak

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

amaitu berri modukoak (partizipioa + *berri*): *amaitu berri, atera berri, aurkitu berri, bazkaldu berri, bilatu berri, bota berri, bukatu berri, egin berri, ekarri berri, erre berri, esan berri, etorri berri, galdu berri, hasi berri, hil berri, iragan berri, irakin berri, irten berri, jaio berri, mintzatu berri, ordaindu berri, sartu berri, zozkatu berri, zulatu berri.*

ezkonberri modukoek (aditzoin soila + *berri* azpimultzo bakan-berezia osatzen dute: *ezkonberri, etorberri, hasberri, sorberri, aldaberri, janzberri.*

jan-zahar modukoak (partizipioa + *zahar*): *jan-zahar, ibili-zahar, hil-zahar.*

hil-hurren modukoak (partizipioa + *hurren*): *hil-hurren, hil-hurran.*

erre-arin modukoak (partizipioa + *arin*): *egin-arin, erre-arin, jan--arin(ean), landu-arin.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: partizipio-aditzaren ekintza noiz (azkenak, zein neurritan) gertatu den adierazten dute: lehenengoak *berrikitan* gertatu dela dio, bigarrenak *aspaldi.* Hirugarrenak *laster* gertatzekoa dela. Azkenak *gutxi(s-ko)* adierazten du: *erre-arina* = gutxisko errea.

2. Morfologi osaera: lehenengo osagaia aditz-partizipioa da ia-ia beti; aditzoin soilak salbuespenezkoak dira eta, oro har, gaitzesgarriak.

Elkarte osoak aditzondo edo atributu gisa egiten du askotan lan. *Amaitu berri* modukoei dagokienez, horrelakoak ditugu honako adibideok: *egin berri duten zubi hori sendoa da; ezagutzen al duzu sortu berri den argitaletxe hori?; gidabaimena atera berri zuelarik istripua izan zuen; atzeko gurpila zulatu berri du; mutil hori sartu berria da gure lantegian; datu-bilketa amaitu berria zen.*

Izen ondoko adjektibo gisa ere sarri agertzen dira: *gustora jango nuke txuleta egin berri bat!; zabiltza kontuz zakur jan-zaharrarekin!*

Besterik da *hil-berri* izen-elkartea: *gaur goizean jaso dugu Patxiren hil-berria.*

3. Emankortasuna: sorbide emankorra da "partizipio + *berri*" moduko elkarte-moldea: "Iturri garbitik adierazi berri zaigunez...". Ez, aldiz, "aditzoin + *berri*" modukoa. Bestalde, "partizipio + *zahar / arin / hurren*" moduko gehienak erdi-iharturik daude gaur egun.

4. Hots-aldaketa: hitz-juntura hauetan ez da ia inolako hots-aldaketarik ageri: *erre berri* (eta ez, kasu, *erra berri*), *jan-zahar* (eta ez *jantzahar*),...

IDAZKERA

Bereiz idaztekoak dira partizipio + *berri* modukoak: *amaitu berri, ikusi berri, iritsi berri, eraman berri.*

10. *Jarleku* moduko hitz elkartuak

Hitz elkartuon lehen osagaia aditzoina da normalean, eta bigarrena izena. Ondorioz, izen-kategoria hartzen dute, ez aditz-kategoria: argi bereizten dira horretan aditz-elkarteetatik.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

egongela moduko arruntak: *abesbatz, aldagela, abiaburu, antzezlan, azterpuntu, bizigiro, borragoma, egongela, endredamakila, ernamuin, errebelar, ezkonbidaia, ezkonsari, galzori, gertirudi, gidabaimen, gidaliburu, helburu, helmuga, idazkola, idazmakina, idaztarau, idazpuru, ikaslagun, irakasmaila, irakurliburu, mintzagaitasun, mintzapraktika, nahaspila, pasagiri, salmahai, salneurri, sendabelar, sorterri, ziurtagiri, zorroztarri.*

aurkibide modukoak: badira hitz jakin batzuk, era honetako elkarte--moduetan bigarren osagai gisa oso sarri agertzen direnak. Adibidez:

bide: *aberaspide, adibide, adierazpide, agerbide, aginpide, argibide, aterabide, aurrerabide, aurkibide, deklinabide, eginbide, erakuspide, esapide, eskabide, etorbide, galbide, helbide, ibilbide, idazpide, ikasbide, irabazpide, irtenbide, itzulbide, jakinbide, jardupide, jokabide, kezkabide, komunikabide, konponbide, mintzabide, orientabide, pasabide, salbabide, sarbide.*

aldi: *agerraldi, argitaraldi, ateraldi, edanaldi, egonaldi, ekinaldi, emanaldi, esaldi, etsialdi, etzanaldi, geldialdi, hasialdi, ihesaldi, ibilaldi, ilunaldi, kantaldi, mintzaldi, pasaldi, tentaldi, aparkaldi.*

gai: *adigai, aldagai, apaingai, aztergai, bizigai, elikagai, erregai, esangai, ezkongai, galdegai, ikasgai, irakurgai, hedagai, jardungai, kontagai, mintzagai, osagai, sendagai.*

leku: *abialeku, akanpaleku, aparkaleku, dantzaleku, eserleku, finkaleku, gordeleku, helduleku, igerileku, jarleku, pasealeku, pausaleku, sorleku.*

toki: *agertoki, biltoki, erakustoki, erortoki, esertoki, garbitoki, geltoki, jantoki, jolastoki, pasatoki.*

molde: *ikasmolde, jokamolde, esamolde, mintzamolde, pentsamolde, planteamolde; bizimodu; idaztankera.*

gune, kide, alde, lan: *aztergune, bilgune, bizigune, elikagune, jardungune, geldiune, pasagune; ikaskide, lehiakide, agerkide; etzinalde, sartalde, sortalde; antzezlan, azterlan, idazlan, ikerlan.*

ikasliburu modukoak: badira beste hitz batzuk, lehen osagai gisa sarri agertzen direnak. Adibidez

ikas: *ikasgela, ikasmaila, ikasliburu, ikasmaterial, ikastaro, ikasteknika, ikastola, ikastetxe, ikastordu, ikasturte, ikastaldi.*

irakas: *irakaspide, irakasmaila, irakasmundu, irakasteredu, irakastordu;*

ikus: *ikuspuntu, ikusmuga, ikuspegi.*

bizi: *bizimodu, bizimolde, bizileku, bizigune.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: ondoko ekuazio-modu honek adierazi ohi du, normalean, elkarte honen esanahia: *idazmakina* = idazteko makina; *borragoma* = borratzeko goma; *jolastokia* = jolasteko tokia; *bizimodua* = bizitzeko modua. Bestelako perpaus-eskemarik ere izan ohi du, ordea, oinarrian: *sorleku, idazlan, ikerlan.*

Egungo esanahia gauza bat da, dena den, eta behinolako sorbidea bestea: *esapide, jardupide* modukoetan, horrela, hurbilago antzematen da *esat(e)* + *bide, jardut(e)* + *bide* gisakorik.

2. Emankortasuna: bizi-indarrik ez zaie, halako neurri batean, elkarte-moduoi falta. Euskaldun landu-ikasiak, bereziki, hainbat adierazkizunetarako sarri baliatzen dira sorbide honetaz. Euskaldun gehienek erraz ulertzen dituzte horrelako elkarteak. Eta gisakoa da, ondorioz, ahal delarik horrelakoez baliatzea: *ordu lektibo* baino egokiago dugu, horrela, *irakastordu* erabiltzea.

Hitz-erabide emankorra eta erraz ulertzekoa izanik ere ez da komeni, ordea, neurriz gain hartara jotzea: inoiz edo behin agertu ohi diren *elikaiturri, ebaluatalde* edo *informabulego* gisakoak, esate baterako, ez dira gomendagarri. Hobe da, horrelakoetan, bestelako elkarte-moduez baliatzea edo are sintagma-eraikuntza libreagoetara jotzea: *elikadura-iturri* (edo *elikatzeko iturri), ebaluazio-talde, informazio-bulego.* Hiztunaren senak asko dezake, noiz bide batera jo edo noiz bestera erabakitzeko. Baita kasuan kasuko komenentziak ere: erdarazko *aparato excretor* esateko han-hemen erabiltzen den *iraitz-aparatua*, adibidez, ez da gomendagarri; hobe da, *Iraitz* izeneko hainbat haur eta gazte kontuan izanik, *iraizte(ko) aparatu* modukoetara jotzea.

3. Hots-aldaketa: hots-lege zahar batzuk bizirik daude, neurri batean behintzat, elkarteotan. Horrela:

- Behinolako hots-lege zaharra, a + a = a egin ohi zuena, bizirik dago oraindik elkarte-modu honetan. Bigarren osagaia *aldi* denean ageri da hori, bereziki: *argitaraldi, kantaldi, mintzaldi, pausaldi, tentaldi, aparkaldi.* Ez horietan bakarrik, ordea: *ziurtagiri.*

- Bizirik dago orobat, orainagoko hainbat sorkariren hitz-junturan, *-te* izengilearen arrasto modukoa dirudien *t* hotsa: goian aipaturiko *esapide, jardupide* modukoez gainera *idaztarau, ikasturte, ikastordu, irakasteredu.* Berdin *k*: *idazkola, irarkola.*

- Bodega/petaka hots-aldaerak ere badu, elkarteotan, bizi-indarrik: *idazpuru, aberaspide, irakaspide.* Hots afrikatuekin ongi betetzen den lege hau ez da komeni, ordea, noranahi zabaltzea. Gainerako kasuetan, horrela, hobe hots-aldaketarik gabe jokatzea: hobe da alegia *baliabide, ikasgai* formez baliatzea, eta ez *baliapide, ikaskai* gisakoez.

IDAZKERA

Loturik, bat eginik idatzi ohi dira *jarleku* moduko hitz elkartuak: *aldagela, helmuga, galbide, ibilaldi, ikasgai, sorleku, bilgune.*

Salbuespena: hitz-juntura ilun gera daitekeenean (juntura aurreko eta ondoko silabak berdinak direlako, txistukari + txistukari hotsak elkartzen direlako, etab.), marra bidez eman daitezke hitz elkartuok. Adibidez, *azter-eremu, eragin-indar, ikas-sail, irakas-sistema, ikas-helburu, ibil-leku, amil-leku, eho-makina, esna-ordu, irten-muga, idatz-hizkera, jardun-atal.*

11. *Eguzki-lore*: menpekotasunezko izen-elkarteak

Izen + *izen* segida dute elkarteok. Lehenengoa mugatzailea da, eta mugakizuna bigarrena. Bigarren osagaia da beti sintagma-burua: *eguzki--lorea* 'lorea' da, ez 'eguzkia'.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

11.1. *behi-esne* moduko izen-elkarte arruntak

Hauek dira ugarienak. Aspaldidaniko forma ihartuak alde batera utzirik ere, hitzetik hortzera darabiltzagu honelako hainbat elkarte: *ahari-apustu, aitzur-kirten, akordeoi-soinu, ardi-haragi, ardi-esne, arratoi-zakur, aza-hosto, baratxuri-zopa, baso-mutil, behi-esne, bide-bazter, bizar-labana, bizkar-hezur, domeka-arratsalde, eguzki-argi, eper-kabia, erreka-zubi, eskola-maisu, esne-behi, ezpata--dantza, gari-urte, gatz-ontzi, gona-zakur, haize-txistu, hanka-arrasto, haragi-salda, kale-kantoi, kandela-argi, kaputxino-komentu, leku--izen, limoi-ur, lizar-makila, oilo-izter, pago-hosto, pauso-hots, piper-hauts, sagar-tarta, sega-poto, soka-mutur, txerri-hanka, txori--kaiola, ur-putzu, zakar-ontzi, zerra-fabrika, zorion-agur.*

Berriagorik ere nahi adinbat adibide entzuten eta irakurtzen dugu egunero: *adimen-koefiziente, aditz-erro, aditz-forma, aditz--izen, ama-hizkuntza, azterketa-proba, bilera-egun, deklinabide--atzizki, diru-kopuru, ebaluazio-fitxa, egile-eskubide, ekintza-plan, erlijio-gurutzada, errolda-zenbaki, esku-baloi, gai-zerrenda, gaitasun--agiri, garraio-zerbitzu, gizarte-egoera, gramatika-arau, harpidetza--sari, hautagai-zerrenda, hauteskunde-batzorde, herri-kirol, ikasketa--programa, ikerketa-proiektu, informazio-zerbitzu, iragarki-taula, iritzi-artikulu, izen-sintagma, jaiotza-tasa, kale-bizitza, kirol-aldizkari, lan-kontratu, lan-prozedura, lege-eskakizun, lege-gordailu, maisu--itzal, perpaus-egitura, posta-barruti, programazio-ikastaro, puntuazio--markak, salmenta-prezio, telefono-zenbaki, trebetasun-maila, ulermen-maila, zati-potentzia.*

Elkarte-modu joria da hau, esan bezala: gaur egun sortzen ditugun hitz elkartu gehienak honelakoak dira. Hain eremu zabala estaltzen dutenez, posible da bere baitako azpimultzo eta sail bereziak egitea. Morfologiari begira egiten dira horrelako azpisailkapen batzuk, sintaxi-inguramenduaren arauz besteak; bada, azkenik, semantikaren ikuspegitik egindako atalik ere. Guzti horien berri ematen da ondoren.

11.2. Mugakizun bereziko izen-elkarteak

11.2.1. ***lore-sorta, ogi-puska:*** multzo- eta zati-elkarteak

lore-sorta moduko multzo-elkarteetan mugakizuna *aldra, andana, mordo, multzo, oste, pila, sail, sorta, talde, tropel,...* da. Adibidez *emakume-aldra, uso-aldra, jende-andana, zakur-andana, erle-mordo, liburu-mordo, ikasle-multzo, turista-multzo, arrain--oste, jende-oste, diru-pila, egur-pila, etxe-sail, gizon-sail, lore--sorta, galdera-sorta, etsai-talde, neska-talde, mutil-tropel, zaldi-tropel (odol-talde, futbol-talde* modukoak ez dira, aldiz, hemen sartzen).

ogi-puska moduko zati-elkarteetan mugakizuna *apur, atal, izpi, koskor, piska, pittin, poxi, pusk(et)a, tanta, zati,...* da. Adibidez *ogi-apur, esne-apur, gorputz-atal, hitz-atal, belar-izpi, lotsa--izpi, azukre-koskor, harri-koskor, egur-piska, gatz-piska, iraupen--poxi, jendetasun-poxi, amodio-pittin, haize-pittin, lan-puska, ogi-puska, esne-tanta, ezti-tanta, ur-xorta, izerdi-xorta, gibel--zati, lukainka-zati.* Bustirik ematen dira sarri mugakizun--hitzok: *koxkor, pixka, ttantta,...*

ordu-erdi moduko frakzio-elkarteak, azkenik, zati--elkarte berezitzat har daitezke: *kilo-erdi, metro-erdi, bertso--erdi, oilategi-erdi; baxoerdi, eguerdi, galtzerdi; ordu-laurden, mende-laurden, bizi-laurden.*

11.2.2. ***garo-usain, zikin-fama:*** konparazio- eta irizpen-elkarteak. Mugakizuna *antz, fama, itxura, kutsu, usain* modukoa dute.

garo-usain moduko konparazio-elkarteetan mugatzailea izena da: *aingeru-antz, baserri-antz, bertsolari-fama, jainko-itxura, garaje--itxura, gaztaina-kolore, lur-kolore, desafio-kutsu, itzulpen-kutsu, diru-usain, festa-usain.*

zikin-fama moduko irizpen-elkarteetan mugatzailea adjektiboa edo da: *integrista-aire, bihurri-antx, gordin-antx, kokolo-aurpegi, liberal-fama, harro-haize, aberats-itxura, haserre-itxura, inozo--plantak, tonto-plantak, artobero-usain, koxkero-usain.*

11.2.3. ***pinu-arbola, ikerketa-lan***: "sumpsumtive" elkarteak. Mugakizuna, bigarren osagaia alegia, mugatzailearen gainmultzoa da. Gainmultzo-izaera hori benetakoa izan daiteke, edo logiko-abstraktua.

lizar-arbola, porru-landare, arrosa-lore, elorri-ondo,... moduko botanika-izenak dira benetako gainmultzo-izaera horren adibide argienak.

aberaste-lan, bilketa-lan, ebaluazio-lan, gizarteratze-lan, afari-kontu, elebitasun-kontu, definizio-kontu, ulermen-kontu modukoek osatzen dute, bestalde, logiko-abstraktuen saila.

11.2.4. ***eskola-molde*** moduko mota-elkarteak. Mugakizuna *era, klase, manera, modu, molde, mota, suerte, tailu* gisakoa dute. Adibidez *zibilizazio-era, abisu-klase, arbola-klase, gerla-manera, bizitze-manera, banaketa-modu, hizkera-modu, gobernu-molde, politika-molde, arrain-mota, bertso-mota, abantail-suerte, fruitu-suerte, jende-tailu, joko-tailu.*

11.2.5. ***andregai*** modukoak. Mugakizun-hitz batzuk, aspaldidaniko erabiliaren erabiliaz, erdi-atzizki bihurturik daude: *aldi, bide, buru, gai, gizon, (g)une, jende, kide, (k)ume, lagun, orde* mugakizunak sartzen dira hemen, batez ere.

aldi: *agintealdi, arnasaldi, astialdi, bakealdi, belaunaldi, berbaldi, bozaldi, deialdi, geroaldi, jaialdi, zinemaldi.*

bide: *amets-bide, bake-bide, bekatu-bide, damubide, ekintza-bide, gizabide, gogoeta-bide, hizketa-bide, hizpide, hobekuntza-bide, irizpide, lanbide, solas-bide, soluziobide, transmisio-bide, zalantza-bide.*

buru: *atalburu, batzarburu, batzordeburu, epaimahaiburu, erredakzioburu, gobernuburu, mahaiburu, sailburu, sintagma-buru, zerbitzuburu.*

gai: *abadegai, andregai, auzigai, aztigai, burdingai, diputatu-gai, erregegai, gonagai, jakintza-gai, kontsumo-gai, otoitz-gai.*

gizon: *armagizon, elizgizon, gerragizon, itsasgizon, legegizon, olagizon, plazagizon; kultur gizon.*

(g)une: *aldiune, argiune, auzune, babesgune, ingurune, zokogune, ertzaingune, zerbitzugune; administrazio-gune.*

jende: *andre-jende, baserritar-jende, buruzagi-jende, erromes-jende, gazte-jende, irakasle-jende, langile-jende, ontzi-jende, plater-jende.*

kide: *aberkide, ardazkide, asmokide, baliokide, batzordekide, hoskide, irizkide, lehiakide, mahaikide, solaskide.*

(k)ume: *aingerukume, baserrikume, burgeskume, erregekume, eskolaume, kalekume, orkume, putakume, sasikume, zaldikume.*

lagun: *bizilagun, neskalagun, josulagun; bertso-lagun, biltzar--lagun, dantza-lagun, ehize-lagun, eskola-lagun, espos-lagun, irakasle-lagun.*

orde: *alabaorde, buruorde, dekano(o)orde, errektor(e)orde, izenorde, kantzelariorde, lehendakariorde, sailburuorde, zuzendariorde.*

Are ihartuagorik ere badago sail honetan: mugakizuna *ola, tegi,* etab. dutenak. Berriagoetan, gainera, badago joera zenbait mugakizun-hitz orobat loturik idazteko (*etxe, denda,* etab).

11.2.6. ***hitzaurre*** moduko deiktikoak. Mugakizuna leku-denborazko *aitzin, alde, arte, atze, aurre, azpi, barne, barru, be (pe), gain, gibel, inguru, ondo, oste,...* deiktikoa dute. Erdi-atzizki bihurturik daude hauetarik hainbat ere. Hitz-elkarteok leku-denborazko deklinabide-markarik gabe hartzen dira oraingoan: markagailu horiekin doazenean posposizio-lanean ari izaten dira mugakizunok (horretarako ikus 11.5. atala). *Hitzaurre* modukoak ditugu *etxe-aitzin, ezkerralde, begitarte, hutsarte, lagunarte, lanarte, solairuarte, etxe-atze, pago-atze, aldare-aurre, etxe-aurre, gerra--aurre, betaurre, dantzaurre, hitzaurre, beso-azpi, oin-azpi, xingar-azpiki, bihotz-barne, etxe-barne, arima-barru, tripa-barru, aterpe, barrunbe, ilunbe, zubipe, asto-gain, bular-gain, esne--gain, mendi-gain, lepagain, mingain, mendi-gibel, bazko-inguru, bular-inguru, etxe-ondo, gerra-ondo, mahai-ondo, afalondo, belarrondo, bihotzondo, aditzondo, izenondo, belarri-oste, guda-oste.*

11.3. Mugatzaile bereziko izen-elkarteak

11.3.1. ***aurreproiektu*** moduko deiktikoak. Mugatzailea leku-denborazko *aitzin, albo, aurre, azpi, barne, behe, gain, goi, kanpo,...* deiktikoa dute. Erdi-aurrizki moduan dihardute. Adibidez *aitzinasmo, aitzinsolas, albo-emaitza, albo-hizkuntza, aurrekontu, aurrikuspen, aurrelan, aurrebaldintza, azpiatal, azpiegitura, azpikontratu, azpimarra, azpimultzo, azpioihal, barne-araudi, barne-bizitza, barne-lotura, barne-migrazio, barne-muin, barne-oreka, behe-laino, behe-maiztasun, behe-nafarrera, gainazal, gainbalio, gainegitura, gainkarga, gainpresio, gainsoldata, goi-agintaritza, goi-kargu, goi-maila, goi-nafarrera, kanpo-ekintza, kanpo-irizpide, kanpo--mugarri.* Beste zenbait deixi-hitz ere honela erabili da: *artizki, atzerri, atzizki.*

11.3.2. ***elkarlan*** modukoak. Azpimultzo bi daude hemen, nagusiki:

elkar-A: *elkarbizitza, elkarbide, elkarrekintza, elkargiro, elkargune, elkarrikusketa, elkarrizketa, elkartruke.* Noizean behingoetan: *elkar-maitasun, elkar-konfidantza, elkar-jarrera, elkar--istimu.*

kontra-A: *kontra(a)gindu, kontrazal, kontradibide, kontraegitura, kontrakarga, kontramaisu, kontrapozoi(n), kontrapisu, kontrasu.*

11.4. Subordinaziozko leku-izenak:

Atharratze-Jauregia (= Atharratze herriko Jauregia etxea), *Lakarri--Buztanobi* (= Lakarri herriko Buztanobi etxea), *Ozaze-jaurgainia* (= Ozaze herriko Jaurgainia etxea), *Minotz-Agerrea* (Hazparneko Minotz auzategiko Agerrea-n den etxea), *Hazparne-Ehulatei*(ko seme gehiena) (= Hazparne herriko Ehulateia etxeko seme zaharrena), *Barkoxe-Etxahunia, Gaztelondo--Topetia.*

11.5. Izen-elkarketazko posposizioak:

Izen-konposizioaren sailkapen laukoitz honetatik kanpora, baina harekin (batez ere 11.2.6. eta 11.2.4. atalekin) lotu-loturik, dagoen sail garrantzitsua osatzen dute hauek.

komediante moduan, etxe aurrean. Bigarren osagaia moduzkoa edo leku-denborazkoa dute hauek, eta gainera leku-denboraz deklinaturik daude. Adibidez: *esku artean, gerra aurretik, aste barruan, hiri barnera, ikastetxe mailan, ate ondora, trenbide ondoan, mahai gainetik, Urola aldeko (herriak), eskualde mailako (zerbitzua), denda osteko (almazena)* idazkerak ditugu batetik. Bestetik, *eskolarteko, nazioarteko, mehatxupeko, gerraurreko, astebarruko, hiribarneko, jaiondoko.*

IDAZKERA

0. Elkarte-modu hauetan, beste gehienetan baino ondotxoz sarriago, forma ihartuak edo ihartze bidean doazenak agertu ohi dira. Halakoetan idazkera-arau betibatekorik ezin eman badaiteke ere egia da hitz-andana horiek loturik, hitz bakar bat eginik, eman ohi direla gehienetan: *akelarre, galeper, betile, otordu, ipurtzulo, iteuli, artizar, galsoro, iturburu, baserri, deiadar, errepide,...* Erdi-ihartuetan ere hartarako joera nabari da, nahiz eta halakoetan idazkera aldetiko zalantza gehiago sortu: *gurdibide, hutsarte, plazagizon, lankide, bihotzondo,...*

Hemen ez gara, ordea, osorik edo erdizka iharturik dauden izen--elkarte horiez ari, hiztunak unean-unean eratu behar izaten dituen menpekotasunezko izen-elkarte biziez baizik: *liburu-azoka, plastiko-fabrika,*

tabako-denda, alfabetatze-kanpaina, sagar-tarta, filosofo-taldea, iritzi--askatasuna, tren-geltokia, lege-proiektua, tradizio-alorra,....

1. Izen-elkarte berri, bizi, bat-bateko hauetarako ez da idazkera-arau zabal eta zorrotzik ematen. Bi idaztohitura ageri dira gaur egun, euskal idazleen artean, nagusi: marra bidezko idazkera alde batetik, eta bereiz idaztekoa bestetik. Egia da, bai, joera horiek ez direla erabatekoak: *liburu--azoka, iritzi-askatasuna* edo *lege-proiektua* marraz idazten duen askok, izan ere, marrarik gabe idazten du sarri *kultur astea, hizkuntz ariketa;* bestalde, *lege proiektua* bereiz idazten duen hainbatek *kandela-argia* edo antzekoak marrarekin idazten ditu, testuinguru-irizpidearen ildotik. Batak zein besteak joera nabaria izango dute gainera, seguru asko, mugatzaile laburreko *lantalde, lanordu, jaiegun, hautsontzi, lurbira, suziri* gisakoak loturik emateko. Xehetasun horiek hor daude noski, eta kontuan hartzekoak dira. Guztiarekin ere egia da marra bidezko idazkerak eta bereiz bidezkoak osatzen dituztela, xehetasunak xehetasun, bi multzo nagusiak.

Idazmolde nagusi biak ontzat ematen ditu Euskaltzaindiak. Beraz, ongi idatziak daude bai marraz: *akordeoi-soinua, lan-hitzarmena, batzorde--atala, arau-proposamena, merkatari-mundua, erlijio-hezkuntza, gizarte--aitzinamendua, dokumentu-oinarria, ezarpen-eremua, hiztun-taldea, aginte--indarra, garapen-maila, zigor-debekua, eskabide-orria, herri-mintzaira, ama-hizkuntza, euskalduntze-lana, lege-araudia, izen-zerrenda, ikastetxe-mota, neurketa-plana, gizarte-bizitza, arazo-iturria, sakontze-ikastaroa, osasun-egoera, elebitasun-formula, lore-sorta, ogi-puska, litro-erdi...* eta bai bereiz, marrarik gabe: *akordeoi soinua, arau proposamena, garapen maila, ikastetxe mota, eskabide orria, osasun egoera, lore sorta, ogi puska, litro erdi.*

2. Arau nagusia hori izanik ere badira hainbat puntu, arau zehatzagorik onar dezaketenak.

2.1. Bigarren osagaia *-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -kide, -(k)ume, -orde* duten izen-elkarteak loturik idazten dira, salbuespenak salbu: *agintealdi, belaunaldi; batzordeburu, sailburu; legegizon, elizgizon; argiune, zerbitzugune; baliokide, solaskide; kalekume, bulegokume; izenorde, sailburuorde. Abadegai, erregegai, aztigai* modukoetan, orobat, loturik ematen da *-gai* osagaia.

Lehen osagaia luzea edo hitz-juntura bihurria duten elkarte berrietan salbuespenak egin daitezke: *kapitalismo-aldi, erredakzio-buru, administrazio--gune, lehendakari-gai.*

2.2. Lehen osagaia *aurre-, azpi-* eta *gain-* duten izen-elkarteak loturik idaztekoak dira: *aurrekontu, aurrelan, aurreproiektu; azpiegitura, azpimarra, azpimultzo; gainazal, gainbalio, gainkarga.*

2.3. Lehen osagaia *erdal, euskal, giza, itsas* denean, bereiz idaztekoak dira elkarte berriak (forma zahar-ihartuetarako, ikus hiztegia): *erdal*

hizkuntzak, erdal itzulpena; *euskal aldizkariak, euskal artea, euskal olerkiak, euskal enpresariak, euskal kirolak, euskal idazleak; giza zientziak, giza aberea, giza adimena; itsas garraioa, itsas agintariak, itsas ekologia.*

2.4. Lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean, elkartea bereiz idaztea hobesten da: *biologi ikasketak, ortografi arauak, diplomazi harremanak, jakinduri maila, bidai agentzia; hizkuntz ariketak, kultur astea, literatur tradizioa, natur zientziak; eliz agintariak, burdin industria.* Amaierako >a< hori noiz galtzen den jakiteko, ikus irizpide nagusien I.3. atala.

2.5. Osagai biak letra larriz hasten direnean hobe da hitz elkartua marrarik gabe idaztea. Errotuluetan, zenbait titulutan eta izendapenetan agertzen da hori batez ere: *Eusko Jaurlaritza, (Nafarroako) Ostalaritza Elkartea, Foru Aldundiak, Kultura eta Turismo Saila, Garraio Zuzendaritza, Medikuntza Fakultatea, Bertsolari Txapelketa, Zinema Jaialdia, Aurrezki Kutxa, Ur Kirolak* eta abar.

3. Posposizioei dagokienez, ondoko bi idaztohitura hauek dira nagusi:

a) Bereiz: *Parlamentu aurrean, kable bidez, ikastetxe mailan, geltoki ondotik; gerra aurreko (literatura), bide ondoko (espaloia), hari gabeko (telefonoa), gazte mailako (txapelketa), komediante moduko (ibilera).* Hau da posposizioen idazkera-molde nagusia, eta molde honi eutsi behar litzaioke eginahalean.

b) Loturik: zubipean, gerraurrean, jendartera; mehatxupeko (harremanak); nazioarteko (lehiaketa), eskolaurreko (heziketa), hilondoko (berriak), gerr(a)osteko (gosetea), jendaurreko (azalpenak), prentsaurreko (luzea).

-pe(ko)-dunetan izan ezik forma markatuak dira, oro har, idazkera baterabildu horiek: auzo-erdara nagusien *international, interstate, preescolar* moduko "hitz bakarren" eredura sortuak agian. Kasu horietan ere posible da, ihartze-fenomenoa tartean ez dagoenean, markatu gabeko idazkera erabiltzea: *nazio arteko (lehiaketa), hil ondoko (berriak).*

12. Atributu- eta koordinazio-elkarteak

Osagai biak izenak dira elkarte-moduotan. B-A moduko izen-elkarteak dira hauek ere, beraz. Ez dira, ordea, *eguzki-lore, liburu-azoka* modukoak; ezta *diru-biltzaile, kale-garbiketa* gisakoak ere. Beren barruan badaude, gainera, multzo desberdinak. Ikus ditzagun banan-banan:

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

12.1. Atributu-elkarteak

harri zilindro modukoak: *egun seinale, emakume deabru, gizon asto, andre sendagile, hitz iratxo, harri zilindro, hiri buruzagi, makila borra, osaba bertsolari, ume aingeru, zakur galgo.*

baserri-etxe modukoak: *baserri-etxe, bonba-kotxe, dorre-etxe, Eguzki--errege, Ilargi-amandre, lege-dekretu, urre-diru.*

alkate jaun, jaun mediku modukoak: batetik *apaiz jaun, mediku jaun, alkate jaun, lehendakari jaun, sailburu andere, idazkari andere;* bestetik *jaun mera, jaun baru, andere espos.*

12.2. Koordinazio-elkarteak

makina-erreminta modukoak: *bidazti-olerkari, errege-profeta, erretor--bikario, konde-duke, hargin-meatzari.*

hego-ekialde moduko puntu kardinalak: *hego-ekialde, hego-mendebalde, ipar-ekialde, hego-hegomendebalde.*

Ezkio-Itsaso moduko leku-izen elkartuak: *Abanto-Zierbena, Ainhize--Monjolose, Amenduze-Unaso, Amorebieta-Etxano, Arberatze-Zilhekoa, Arboti-Zohota, Ürrüxtoi-Larrabile, Arratzu-Ubarrundia, Burgue-Erreiti, Berrogañe-Lahüntze, Biurrun-Olkotz, Duzunaritze-Sarrasketa, Buztintze--Iriberri, Gamue-Zohazti, Etxarri-Aranatz, (Markin-)Etxebarri, Ezkio--Itsaso, Gernika-Lumo, Uharte-Arakil, Idauze-Mendi, Iruraitz-Gauna, Labetze-Bizkai, Leaburu-Gaztelu, Markina-Xemein, Lasarte-Oria, Uharte--Garazi.*

Labur bilduz: atributu-elkarteetan, izen batek beste izena zer den edo nolakoa den esaten du. Koordinazio-elkarteetan, aldiz, elkar osatzen dute biek (bata ez da, alegia, bestearen laguntzaile huts). Hutsala eta lausoa da, hainbat puntutan, goian emandako zati-banaketa hori. Askotan berdin edo berdintsu du, izan ere, "A den B" edo "B den A" ereduaz baliatzea. Atributu- eta koordinazio-elkarteen arteko banaketa ere interpretazio-kontua da, halako neurri batean. Orientazio moduan lagungarri gertatzen da, ordea, eta horren izenean eskaintzen da.

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura eta morfologi osaera

1.1. Atributu-elkarteak: B-A moduko atributu-elkarteetan ondoko bi azpimultzook ageri dira maizenik:

a) "B izena A (edo A modukoa) da": *emakume deabrua, gizon astoa, hitz iratxoa, harri zilindroa, hiri buruzagia, makila borra, ume aingerua; festaburua, zerrama,...* Euskal hitz-elkarketaren mugatzaile / mugakizun segidaren aurka, lehen osagaia da hitz-elkarte hauetako sintagma-buru. Bigarren osagaiak, aldiz, adjektibo-lana egiten du.

b) "A izena B (edo B modukoa, edo Bduna) da": *baserri-etxea, ezpata-belarra, dorre-etxea, Eguzki-errege, Ilargi-amandre; giltzarri, mugarri.*

Euskal hitz-elkarketaren mugatzaile / mugakizun segida bere horretan errespetatzen du eramolde honek: bigarren izena da, kasu honetan, sintagma--buru. Pentsatu ere egin daiteke, menpekotasunezko izen elkartuen azpimultzo bat ez ote den (cf. *eguzki-lore*).

Atributu-elkarte berezitzat har daitezke, orobat, *alkate jaun, jaun mediku* modukoak. Tradizio bi ditugu, ezaguna denez, eramolde honen segidari dagozkionetan: batetik *apaiz jauna, mediku jauna, alkate jauna, lehendakari jauna, idazkari anderea, sailburu anderea;* bestetik *jaun mera, jaun barua, andere esposa.*

1.2. Koordinazio-elkarteak: B-A moduko koordinazio-elkarteotan, aldiz, honako eredu-molde hau ageri da: "norbait (zerbait) B da eta A da": *makina-erreminta, konde-duke, errege-profeta, erretor-bikario, bidazti-olerkari, Lasarte-Oria, Markina-Xemein.* Buru biko sintagma osatzen dute, beraz, koordinazio-elkarteek.

2. Emankortasuna: emankorrak dira elkarte-modu guztiok. Erdal eraikuntzen eraginez batzuk (*perro galgo, decreto ley*), administrazio-neurrien ondorioz besteak *(Ezkio-Itsaso, Lasarte-Oria*).

3. Hots-aldaketa: atributu- eta koordinazio-elkarte berriek ez dute beren hitz-junturan hots-aldaketarik izaten. Salbuespen huts dira *giza igel* modukoak.

IDAZKERA

Sailkapen horren arabera, elkarte-moduon idazkera egokienak honako hauek dira:

1. *Harri zilindro* gisakoak bereiz. Sintagma-burua lehen osagaia denean, eta bigarren izenak adjektibo-lana egiten duenean, hitzak bereiz idatzi: *hitz iratxo, bertsolari poeta, zakur galgo, neska katxarro, harri zilindro, paraje bazter, Jainko aita, Ama Birjina, giza igel, gizon arrano.* Salbuespen gisa, loturik eman ohi dira aspaldidaniko forma ihartuak: *etxebizitza, zerrama.*

2. *Baserri-etxe* modukoak, *behi-esne* taldekoak bezala idatzi. Hots, sintagma-burua bigarren osagaia denean, menpekotasunezkoak bezala, marrarekin edo bereiz idatzi: *afari-merienda, bonba-kotxe, lege-dekretu, inude-abioi, kafe-antzerki, errota-etxe, jauregi-etxe, kuartel-etxe* edo *zisterna kamioi, garabi kamioi, merkantzi tren, Eguzki errege.*

Forma ihartu zaharrak loturik, halere: *giltzarri, liztari, mugarri, katuarrain.*

3. *Alkate jaun, andere espos* modukoak bereiz idazten dira.

4. Koordinazio-elkarteetan, hitz biak marrarekin idatzi: *makina-erreminta, nafar-euskaldun, frantses-euskaldun, konde-duke, idazkari-sailburu, alkate--lehendakari, errege-profeta (David).*

5. Koordinaziozko leku-izen elkartuak ere marrarekin idazten dira: *Abanto-Zierbena, Ainhize-Monjolose, Etxarri-Aranatz, Lasarte-Oria.*

13. *atsegin-kontentu*: tautologiazko elkarteak

"Geminatu semantikoak", "sinonimiazko bikoiztapenak" edo " itzulpen--elkarteak" ere esan izan zaie hauei. Dvandva-elkarteen sailean sartu izan dira. Baita atributu-elkartetzat hartu ere. Badago arrazoirik, guztiarekin ere, berariazko lekua eskaintzeko.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

Ondoko multzo hauek sartzen dira, kategoria gramatikalaren arabera, sail honetan:

sasoi-edade moduko tautologi izenak: *atsegin-kontentu, ebaluazio--neurketa, sasoi-edade, sermoi-prediku, gorro-txapel, poema-olerki.*

busti-palatal moduko tautologi adjetiboak: *busti-palatal* (cf. behinolako *galbar-ihartu).*

onetsi-maitatu moduko tautologi adizkiak edota aditz-izenak: *onetsi--maitatu, ordain-kitatu, beldur-ikaratu.*

Lizarra/Estella moduko izen propio eta laburdurak: *Vitoria/Gasteiz, Lizarra/Estella, Arrasate/Mondragón, Donostia/San Sebastián, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, Osakidetza/Servicio Vasco de Salud; EHU-UPV, HAEE-IVAP, EAJ-PNV, STEE-EILAS, NUIF-IRPF, BEZ-IVA.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: gauza bera edo oso antzekoa dioten bi hitz desberdin (bietako bat maileguzkoa edo erdarazkoa sarri asko) elkartuz osatzen dira tautologiazko elkarteak. Euskalki arteko elkarte-bideak ere izaten dira tartean: *belerroi.* Osagai biek semantema bera izate honek bereizten ditu elkarteok dvandvetatik zein atributu-elkarteetatik.

2. Morfologi osaera: izen-elkarteak dira gehienak; ez dute pluralik eskatzen, koordinaziozko izen-dvandvek bezala.

3. Emankortasuna: lehen hiru ataletan ez da tautologi elkarte berri asko sortzen. *Busti-palatal* modukoek garbi adierazten dute sorbide emankorra dela, nolanahi ere.

Laugarren atalekoek, bestalde, administrazio-alorrean behintzat badute bizi-indarrik aski. Euskara gaztelaniaren ondoan hizkuntza ofizial izendatu izanak ekarri du, bereziki, era honetako elkarte berri askoren sorrera.

Zoritxarrez, ez da ofizial-bitasun hori bere aplikazio praktikoetan beti nahi bezain egokia gertatzen. Hori dela eta, behar ez den hainbat testuingurutan alferrikako eta are behaztopazko tautologiak ikusten dira gaur egun: *EHU-UPVko errektore jauna; Vitoria/Gasteizko aireportua; Donostia /San Sebastiángo zinegotziak; Arrasate/Mondragóngo kooperatibak; Osakidetza/Servicio Vasco de Salud-en osasun-plana; Soraluze/Placencia de las Armasko saihespidea.*

Tautologiazko izen propio eta laburdura horiei dagokienez, ondoko oharra kontuan izan bedi: hizkuntza batean, gure kasuan euskaraz, ari garelarik ez da gisakoa esplikazio-behar berezirik ez duen euskal hitz edo sigla bat erdal baliokidearekin uztarturik ematea. Beraz *EHUko errektore jauna, Soraluzeko saihespidea,...* da idazmolde zuzen arrunta.

4. Hots-aldaketak: hitz-junturan ez dute elkarteok, forma ihartu zaharretan izan ezik, inolako hots-aldaketarik izaten.

IDAZKERA

Marraz idaztekoak dira tautologiazko elkarteak: *atsegin-kontentu, sermoi--prediku, busti-palatal, HAEE-IVAP.*

Marra hori, etzana gabe, zeiharra izatea gomendatzen du Euskaltzaindiak itzulpenezko leku-izenen kasuan: Lizarra/Estella, Arrasate/Mondragón, Vitoria/Gasteiz,...

Loturik, bat eginik idazten dira halere behinolako forma ihartuak: *irribarre, ikusmira(tu)* (ikus + mira), *pegatsi* (pegatu + itsatsi), *salmenta* (saldu + venta), *izelonbre* (izen + nombre), *jaundone* (jaun + lat. beranteko domne), *andredena.*

14. Aposizioak

Era askotako definizioak eman izan dira aposizioez, eta alde handiak daude batetik bestera. Gure artean gehientsu korritu duten azalpideak aintzakotzat hartuz, aposizioak pertsona, leku, lantegi, salgai, gertaera... *bakar* bat *izendatzen* duten hitz-moldaketak direla esan daiteke.

Hitz-elkarketaz egin ohi da gehienetan, baina ez beti, moldatze-lan hori. Hiru bide (hiru sintagma-hedabide) desberdin ditugu, funtsean, euskal aposizioak sortzeko:

- Ezker-hedapen biluzia: *Ebro ibaia, Gerediaga elkartea, Herria astekaria*

• Ezker-hedapen jantzia: *Garaziko herria, San Bizenteko eliza, Jesusen Konpainia*

• Eskuin-hedapena: *osaba Martin, maisu Juan, andre Madalen.*

Horrezaz gainera, kontuan har bedi aposizioak norbanako bizidun bat izendatzen duen ala bizigabeko "zerbanako"ren bat: elkarte-arauak desberdinak dira batean eta bestean. Berariazko lekua aitortu behar zaie, bestalde, azken urteotan sortzen ari diren aposizio-molde berriei.

14.1. Ohizko aposizioak

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

Lau ataletan bana daitezke ohizko aposizio arruntak: bizigabeen bi aposizio-moldeak azalduko dira lehenik, eta bizidun norbanakoen beste biak ondoren.

Ebro ibaia moduko ezker-hedapen biluziak. Hedabide hau da gaur egun, askogatik, bizigabeko aposizioetan erabiliena. Horrela:

a) Leku-izenak (mendi, ibai, itsaso, etab.): *Aralar mendia, Aloña mendia, Olinpo mendia, Everest mendia; Bidasoa ibaia, Urola ibaia, Nilo ibaia; Jumay sumendia, Kanin penintsula, Baleare irlak, Salomon irlak, Magallaes itsasartea.*

b) Kale-izenak (kale, auzo, plaza, parke, pasealeku,...): *Dato kalea, San Martin auzoa, Jardines kalea,Garibai kalea, Larramendi kalea, Cordeliers karrika, Zumalakarregi parkea.*

c) Etxadi- eta eraikuntza-izenak (baserri, jauregi, teatro, hotel, eliza, dorre, zubi, itsasontzi,...): *Altzarrate baserria, Uriarte jauregia, Ajuria Enea jauregia, Arriaga antzokia, Maria Cristina hotela, Eiffel dorrea,...; Mari Galant karabela, Titanic bidaiontzia.*

d) Ikastegi, merkatari-etxe eta salgaiak: *Iraurgi ikastetxea, Udarregi ikastola, Usandizaga institutua, M. Ravel lizeoa, Xalbador ikastegia, Ulibarri euskaltegia; Urdangarin harategia, Anitz loradenda, Albisu kristaldegia, Saioa jatetxea, Olaeta kafetegia, Axular liburudenda, Auñamendi argi-taldaria; Etxegoitia garraioak, Lepasoro hegaztitegia; Izarra likorea, Elosua olioa, Elgorriaga txokolatea, Muga ardoa, Insalus ura, Michelin gurpilak.*

e) Komunikabideak: *Arrate irratia, Irulegi irratia, Argia astekaria, Euskalzale albistaria, Kili-Kili aldizkaria.*

f) Kultur ekoizpenak: *Peru Abarka liburua, Garoa eleberria, Euskaldunak poema, Urlo opera, Genio y lengua saiakera; "Patterns of Culture" liburua, "Que sais-je" bilduma, Auspoa liburutegia; Gernikako Arbola kantua, Ama Begira Zazu antzerkia; Nobel saria, Urruzuno lehiaketa, Rikardo Arregi saria.*

g) Elkarte- eta erakunde-izenak: *Gerediaga elkartea, Sü-Azia elkartea, Maiatz batasuna, Uhaitza kultur etxea, "Mariaren alabak" elkartea; Jakin taldea, Siadeco elkartea; Repsol konpainia, Air France konpainia; Unesco erakundea.*

h) Eguna, jaia: *San Inazio eguna, San Jose eguna, Omia saindu eguna, Gabon gaua, Ostegun santu arratsa, San Juan jaiak.*

i) Tekniko-esperimentalak: *Celsius eskala, Geiger kontagailua, Joule efektua, Kelvin tenperatura, Winkler metodoa, Golgi aparatua, Zener diodoa.*

j) Kontzeptu-adierazleak: *analfabeto hitza, aposizio kontzeptua, perestroika izena, egin aditza, nor-nori-nork aditza, -ari atzizkia, goreskarri forma.*

Garaziko herria moduko ezker-hedapen jantziak. Aurrekoa baino gutxiago erabili ohi bada ere, aski ezaguna da izenlagunezko aposizio--hedapen hau. Horrela,

a) Leku-izenak eta aginte-esparruak: *Garaziko herria, Pasaiako herria, Zeraingo herria, Bilboko hiria, Iratiko basoa, Oizko mendia, Ziateko gaina; Nafarroako erresuma, Gasteizko udala, Gipuzkoako probintzia, Bizkaiko jaurerria.*

b) Kale-izenak: *Zumalakarregiren etorbidea, Foruen plaza, Wellinton-(go) dukearen kalea, Askatasunaren etorbidea, Bustinzuriko errebala.*

c) Etxadi- eta eraikuntza-izenak: *San Bizenteko eliza, Santa Engraziko ermita, Kursaaleko zubia.*

d) Tekniko-esperimentalak: *Coulomb-en legea, Helmholtz-en energia, Joule-Thomson-en koefizientea, Poisson-en ekuazioa.*

Uztapide bertsolaria moduko ezker-hedapen biluziak.

a) Kargu-, lanbide- eta nortasun-adierazleak (errege, lehendakari, apezpiku, apaiz, idazle, pelotari, mediku,...): *Teodosio enperadorea, Antso Abarka erregea; Agirre lehendakaria, R.M. Azkue euskaltzainburua, Fabiano Aita Santua, Pildain gotzai(n)a, Santa Kruz apaiza, Elissalde apeza, Jesus haurra, Isaias profeta, Bonifazio martiria, San Lukas ebanjelista, Mikel goiaingerua, Job saindua, Agustin deuna; Soto doktorea; Manezaundi idazlea, Etxegarai idazlea, Oteitza eskultorea, Bordel bertsolaria, Uztapide bertsolaria, Retegi pelotaria, Perurena harri-jasotzailea, Ildefonso Agirre jostuna, Lopez Mendizabal liburugilea, Barrueta tabernaria; Simbad marinela, Mars gerlagizona, Jean Etxepare medikua, Barriola medikua; Heidegger filosofoa, J. Hutton geologoa, Laplace matematikaria.*

b) Begirunezko deiturak (jaun/andere eta beste): *Aingeru Irigarai jauna, Julian Elortza jauna, Sebero Altube jauna, Izagirre jauna, Daranatz*

jauna; Vinson jauna, Uhlenbeck jauna, Humboldt jauna, Fishman jauna; Urlia jauna, Sendia jauna; Maria Dolores Agirre anderea, Basilia Bustintza anderea, Sorne Unzueta anderea, Julene Azpeitia anderea, Katalina Eleizegi anderea, Madalen Jauregiberri anderea, Mayi Ariztia anderea; Bovary anderea, Tabouret-Keller anderea; Errenderi aba; F. Ugarte adiskidea.

maisu Juan moduko eskuin-hedapenak

a) Kargu-, lanbide- eta nortasun-adierazleak: *errege David, profeta Isaias, Birjina Maria; apaiz Lorenzo Izagirre.*

b) Ahaide-izenak: *anai(a) Xabier, anai(a) Joxantonio, anai(a) Abel, arreba Begoña, izeba Maria, izeba Joxepa, osaba Martin, osaba Inaxio Mari, amona Bixenta, aitona Domingo, iloba Endrike, emazte Klara, seme Jakob, lehengusu Antton.*

c) Begirunezko deiturak (jaun/andere eta beste):

jaun Bertran de Echaus; andre Madalen, Andra Mari; andre Kultura, andre Jakintza, andre Eguzki; Iondone Iakue, Iondone Petri, Iondone Paulo, Iondone Ioanes; On Lope, On Karmelo Etxegaraikoa, On Marzelino Soroa jauna, On Joxemiel Barandiaran; musde Tiraz, musde Zenmartzo, musde Irigarai; ama Euskera, ama Venus, ama Lur; ama Santa Teresa; aita San Antonio, aita Larramendi, aita Salbatore Mitxelena, aita Astibia, aita Erramun; Frai Bartolome, Frai Gil, Beobideko Aita Fr. Krispin; anai Frantzisko, arreba Klara, ahizpa Begoña; Sor Maria Joaristi, Sor Frantziska Zendoia, Sor Josefa Arozena; maisu Juan, adiskide Aitzol, lagun Borras.

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Banaketa-irizpidea. Uste baino ilunagoa da, hainbat kasutan, hedabide desberdinon arteko muga. Horrela:

• Noiz erabil *Ajuria Enea jauregia* moduko hedapen biluzia, eta noiz *San Kristobalgo baseliza* gisako hedapen jantzia?

• Noiz erabil *David erregea* ezker-hedapena, eta noiz *errege David* eskuin-hedapena?

Iluntasun horiek zeharo argitzeko arau esturik ezin eman daiteke: euskaldunon (eta, honenbestez, euskararen) kultur tradizioaren ondasun dira erabide horiek denak. Idazle gogo-landuaren trebetasunak asko dezake horrelakoetan, noiz zer egokiago den igartzeko. Batezbesteko gomendio edo argibide batzuk eman daitezke, halere. Horrela

a) *Ategorrietako hiribidea, Txagorritxuko ospital(e)a, Mendizorrotzako polikiroldegia, Galarretako frontoia, Aieteko jauregia,...* modukoei ez *-ko* morfemarik kendu: Txagorritxun dagoen ospital(e)a, Mendizorrotzan dagoen

polikiroldegia, Aieten dagoen jauregia, Ategorrietatik pasatzen den bidea,... adierazten dute horiek. Hots, "Aiete" ez da jauregiaren izena, jauregia *non* dagoen adierazten duen toponimoa baizik; era berean, Txagorritxu hori auzoaren (ospitalea dagoen auzoaren) izena da lehenik eta behin, ez ospitalearena. Aldiz, *Ajuria Enea jauregia* besterik da: jauregia ez dago Ajuria Enea izeneko leku batean, baizik eta jauregiaren izena da *Ajuria Enea.*

b) Goiko muga-arau horretatik kanpora gelditzen dira, bistan denez, *Gipuzkoako probintzia, Garaziko herria* moduko aposizioak. Horietan, *-ko* morfema erabiltzeaz gainera lehen osagaia bigarren osagaiaren deitura--izena da.

c) Eskuin-hedapen biluziak (hots, 14.1. ataleko azkenak) ahaide-izenetan (eta begirunezko deitura batzuetan) dira behar-beharrezkoak: *izeba Maria, aitona Domingo, andre Madalen, aita San Antonio,...*

Gainerakoetan ezker-hedapen biluzia nagusitzen ari da (*Lizardi olerkaria, Izagirre jauna,...*); horren ondorioz, eskuin-hedapena galtzen edo ari zaigu inguramendu horietan (gero eta gutxiago idazten da, alegia, *olerkari Lizardi* edo *jaun Izagirre* modukorik).

2. Esangura: aposizioak pertsona, leku, erakunde, gertaera *bakar* baten *izena* agertzen du normalean. Hots, bataio-lana egiten du gehienetan aposizio-elkarketak: euskaldunok gogoan dituzkegun elkarteen artean bat, eta bat bakarra, da *Gerediaga* izenekoa. Era berean, ibai guztien artean bat dugu *Urumea ibaia*, eta horixe du bere izena. Senide jakin--bakar batez ari dira orobat familia bateko anai-arrebak, *anai Joxantonio*--ren berriak aipatzerakoan.

3. Morfologi osaera: bi osagaietako bat izen propioa da (*Tiber ibaia, Thatcher anderea*); edota, testuinguru batzuetan, izen propio (nahiz izendapen berezi) gisa jokatzen duen izen arrunta (*Euskalzale albistaria, analfabeto hitza*). Gainerakoan, izen-elkarteen parez parekoa da aposizio--elkartea.

4. Emankortasuna: arras emankorra da, oro har, aposizio-elkarketa. Aposizio-molde guztiak ez dira, ordea, berdin emankor: ezker-hedapen biluzia, bai bizidunena eta bai bizigabeena, da askogatik emankorrena. Aitzitik, erabide-molde batzuk (*musde Tiraz* sailekoak, adibidez) zaharkitzen eta izkribuzkoetan desagertzen ari dira.

5. Berrelkarketa eta garapena: gainerako hitz-elkarteek ez bezalako erraztasuna du honetarako aposizio-elkarketak. Horrela, eta berez dituen ahalbideen erakuskari xoil gisa, kontuan har ditzagun

a) Mugatzailearen garapena: *"Peru Abarka" liburua, "Mariaren alabak" elkartea, "Ogi zerutik" kantua.*

b) Mugakizunaren garapena: *Unamuno batxilergo-institutua, Urruzuno literatur lehiaketa,*

c) Orotariko garapena: *Ur Kirolak arraun-elkartea, Ez Dok Amairu kantari-taldea, Nikanor Zabaleta harpa-jotzailea,*

6. Sintaxi-osaera: aposizio-elkarteak ez dira menpekotasunezkoak. Mugatzailea, mugakizunaren pare, sintagma-buru izan daiteke. Horrela, *Larrun mendira igo naiz* esan ordez *Larrunera igo naiz* esan daiteke, edota *Perurena harri-jasotzailea ikusi dut* ordez *Perurena ikusi dut.* Hori ez da gertatzen, gorago adierazi denez, *eguzki-lore* modukoekin: *eguzki-lore hau ihartu egin da* ordez ezin da *eguzki hau ihartu egin da* esan.

7. Hots-aldaketa: aposizioen hitz-junturan ez da hots-aldaketarik gertatzen.

IDAZKERA

Bereiz idazten dira aposizioak: *Amazonas ibaia, Larramendi kalea, Arriaga antzokia, Zuberoa jatetxea, Constantin mediku jauna, aita Donostia, izeba Maria, maisu Juan.* Mugatzailearen eta mugakizunaren arteko juntura da, noski, bereiz idazten dena. Mugatzaileak edo mugakizunak beste elkarte-moduren bat baldin badute beren baitan, barne-elkarte horien idazkera kasuan kasukoa izango da: *Bide Barrijak olerki-bilduma, Gizarte--auzia saiakera.*

14.2. Aposizio berri-bereziak

Ezker-hedapen biluziaz baliaturik, eta mintzabehar berriei erantzuteko, goiko lau erabide horiezaz gainera aposizio-molde berriak sortzen ari dira.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

Ondoko hiru hauek dira, batez ere, kontuan hartzekoak:

B eredua moduko ikur-hitzezko aposizioak. Lehen osagaia horrelakoetan ez da hitz osoa, letra, silaba, sigla edo are laburbiltze bihurriagoren bat baizik. Horrelakoak ditugu: *A multzoa, B eredua, C bitamina, D dokumentua,* (musikako) *re nota, e letra, x izpia; -a + e- = -e- hots-legea; SECAM sistema, RENFE konpainia, ELA sindikatua, LEF batzordea, ClNa gatza, CODATA txostena, NPN trantsistorea, RDN osagaia, TAO zonaldea.*

ETB1 kanala moduko izen-zenbakizko (alfa-zenbakizko) aposizio--elkarteak. Azpimultzo hauek sartzen dira hemen, bereziki: *ETB1 kanala, K2000 produkzio-etxea, N-1 errepidea, BI-155 hegaldia, BMW-364 autoa, NGC-5195 galaxia, Boeing 747 bidai hegazkina, B-52 bonba--hegazkina, BI-1416-F matrikula; Europa 93 proiektua, Loiola '91 pla-*

na, Gipuzkoa 2000 programa, Bartzelona 92 olinpialdia; Adriano VI kalea, Pio XII plaza, Juan XXIII auzoa; burdina (III) kloruroa, berun (II) hidroxinitratoa.

Bilb(a)o-Behobia autobidea gisakoak: elkarren arteko edo tandem--hitzezko aposizio-elkarteak. Mugatzailea da, horrelakoetan, tandem--hitza. Izen-dvandven ezaugarri den plural-markarik eta deklinabide--atzizkirik gabe ageri dira, ohizko bidetik aldenduz, tandem-elkarteok. Azpimultzo hauek dira maizenik ageri direnak:

a) Nondik norako aposizio-elkarteak. Aposizio hauetan mugatzaileak, tandem-hitzezko lehen osagaiak alegia, ibilbidearen nondik norakoa adierazten du. Trafiko-alorra du, horregatik, erabilgune nagusi. Adibideak: *Bilb(a)o-Behobia autobidea, Madril-Irun trenbidea, Paris-Bonn ardatza, ioi-ioi distantzia, Behobia-Donostia maratoi-erdia, Gros-Amara autobus--linea; ipar-iparrekialde / hego-hegomendebalde orientazioa.*

b) Aurrez aurreko aposizio-elkarteak. Aposizio hauetan dvandva modukoa da mugatzailea, eta bere tandem-hitzek 'bataren eta bestearen arteko lotura' adierazten dute maizenik: *Erasun-Elgorriaga aizkol apustua, Kohl--Mitterrand elkarrizketak, EAJ-PSE koalizioa, Gipuzkoa-Donostia Kutxa; kobre/eztainu aleazioa, elektroi/uhin teoria, bodega/petaka hots-aldaketa, izen arrunt/izen propio oposizioa, mugatzaile/mugakizun ordena, sinkronia--/diakronia bereizketa, bizidun/bizigabe bereizketa, karbono/karbono lotura, presio/bolumen diagrama, triangelu/izar konexioa, likido/solido nahastea, cis-trans isomeria.*

c) Neurri-mugako aposizio-elkarteak: *ikasle / gela ratioa, idazle / hiztun koefizientea.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: egungo bizimoldeak berekin dakartzan tresna, kontzeptu, harreman eta produktu berriak identifikatzeko erabiltzen dira, batez ere, aposizio berri-bereziok.

2. Morfologi osaera: zenbakiez aparte izenak dira, ia beti, aposizio berriotan elkartzen direnak. Lehen osagaia izen propioa da gehienetan, edota izen propio gisa jokatzen duen elementua.

3. Emankortasuna: oso emankorrak dira aposizio hauek. Kazetaritza--alorrean, publizitate-sailean, izkribu teknikoetan eta errotulazio-lanean gero eta sarriago agertzen dira honelako elkarte-moduak. Albo-erdara nagusiek eragindakoa da, neurri batean, emankortasun hau: horietan ere uholdeka ari dira, azken urteotan bereziki, labur-zurrezko azalpideok sortzen.

4. Hots-aldaketa: aposizio hauek ez dute, beren hitz-junturan, hots--aldaketarik ageri.

5. Berrelkarketa edota garapena: ikur-hitzezko aposizioetan ez da, mugatzaileari dagokionez, horrelakorik gertatzen. Bai, aldiz, izen-zenbakizko eta, bereziki, tandem-hitzezko mugatzaileetan.

IDAZKERA

Bereiz idazten dira aposizio berri-bereziok: alde batetik doa, alegia, mugatzailea, eta bestetik mugakizuna: *B eredua, D dokumentua, ELA sindikatua, ETB1 kanala.* Mugatzaileak bere baitako garapena izan duenean, ordea, era batera edo bestera eman ohi da garapen horren berri: goiko adibideetan eskainitako idazkerak ditugu, gaur-gaurkoz, egokienak.

14.3. Ele biko aposizioak: noiz eta nola

Cafetería* Irimo *kafetegia moduko erdal-euskal aposizioak.

Jatetxe, denda, erakunde nahiz beste edozein lekuren izena euskaraz eta erdaraz eman nahi denean, ondokoa da egitura zuzena: lehenik erdal *bar, librería/librairie; carnicería/boucherie* delakoa; izen propioa erdian; eta azkenik euskal *taberna, liburudenda* edo *harategia.*

Adibidez: Cafetería *Irimo* kafetegia, Librería *Oihenart* liburudenda, Carnicería *Etxeberria* harategia.

Ez da beharrezko, ordea, beti eta nonahi ele biko aposizio-elkarte horietara jotzea. Batez ere euskaldunok euskaldunokin jardun ohi dugun esparruetan hobe dugu euskara hutsezko azalpideaz baliatzea: *Landerretxe ikastegia.* Beti besteren besotik edota inoren itsu-mutil ibiltzea ez du ezein hizkuntzak, denik txikienak ere, gogoko.

Honegatik edo hargatik euskara hutsean eman ezin balitz, saia gaitezen bederen euskarazko azalpideari berariazko duintasun-lekua eskaintzen.

lácteos Esne: euskal-erdarazko aposizio elbarriak

Hainbat enpresa, denda eta salgairi izena ematerakoan badago Euskal herrian, bertako elebitasunaren nolakoak eraginik, euskal-erdarazko aposizio bitxi batzuk jartzeko ohitura: *grúas Jaso, Limpieza en seco Garbi, aceite Koipe, panadería Ogi, lácteos Beyena, aceite de maíz Artua, gimnasio Kirola, muebles Aulki-Mai, Distribuidor de neumáticos Gurpil, mobiliario Gelako, revestimientos Ezarri, baldosas Jarri, control numérico Zenbaki, constructora Etxegintza, pastelería Goxua, luminosos Argi, Clínica Sendategi,...*

Bistan da ele biko aposizio horiek, neurri on batean, euskal maitez asmatuak direla. Eta eskerroneko harrera egiten zaie, alde horretatik: erdara hutsezko enpresa-, denda- eta produktu-izenak entzun ordez gure izenik tartean antzemateak poz ematen die, ez min, euskal begi-belarriei.

Erdaraz esateko asmatu diren aposizio horiek ez dira ordea, zoritxarrez, euskaraz jarduteko erosoak. Kamuts eta enparazgarri gelditzen dira

sarri, euskaraz pentsatu eta euskaraz mintzatu nahi duenarentzat, *Artua arto-olioa, Gurpil gurpil-denda, Beyena esnekiak, Zenbaki zenbaki(zko) kontrola, Ogi okindegia* moduko aposizio-moldeak. Herren, elbarriturik uzten dute euskarazko azalpidea. Aposizioen zeregin nagusia identifikatze--lana izanik, identifikatzeko ia batere ahalmenik ez dute horiek.

Ele biko aposizio-elkarteak sortzerakoan, guzti horregatik, euskararen kaltean gertatuko ez diren izendapen-aukerak egitea komeni da: *(editorial) Auñamendi argitaletxea, (artes gráficas) Itxaropena irarkola, (automóviles) Izaro autoak, (poissonnerie) Joakin arrandegia, (meubles) Ihidoi altzariak, (restaurant) Etxola jatetxea, (residence) Hegoalde egoitza, (boulangerie) Zugasti okindegia.*

15. Izengoiti-elkarteak

Hizkuntza gehienek bere-berea dute, eta euskarak ere bai, hiztun bakoitzaren izen propioari izengoitia elkartzeko ohitura. Lagunarteko eta talde barneko hizkera-moldeetan, bereziki, usu erabili ohi da horrelako hitz-elkarterik. Ez horietan bakarrik, ordea: plaza-gizon eta handiki batek baino gehiagok ere bere izengoiti eta guzti izan du histori liburuetako sarbidea. Literaturan, letra ederrezko euskal sormen-alorrean, berariazko lekua dute orobat era honetako elkarteok. "Izengoiti" esatean, horregatik, ez da derrigorrean zentzu peioratibozko aipamenik egiten: garai batean, legezko deitura bezain identifikatzaile sendo eta neutrala izan ohi zen emendailuzko elementu hori.

Hitz-elkarketarekin lotuenik dauden formak eskainiko dira ondoren, bestelako baliabidez sorturiko hainbat (*Joanito Kojua* modukoak, adibidez) kanpoan utziz.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

Peru Abarka modukoak: *Anton Berakatz, Anton Deabru, Anton Kaiku, Anton Ostatu, Domingo Kanpaña, Indalezio Moko, Joane Talotxu, Kose Diru, Kosepa Koipe, Madalen Bonbila, Manu Fortuna, Manu Txurrut, Martin Txilibitu, Matea Saltsa, Mateo Txistu, Matxin Koipe, Matxin Sukalde, Mikaela Txintxarri, Mikela Begi, Mitxel Tolet, Patxi Ardatz, Patxi Guzur, Patxiko Txerren, Pello Errota, Pello Kirten, Pepa Negar, Peru Abarka, Peru Eltze, Peru Odolki, Petiri Danbolin, Petiri Karrika, Petra Ostatu, Praixka Mutur, Santi Anpolai, Timuti Belarri, Txanton Piperri, Txanton Txitxarro, Txomin Ipurdi.*

Etxahun Iruri modukoak: *Etxahun Barkoxe, Etxahun Iruri, Joxe Larraburu, Joxe Lezo, Patxi Lopeene, Pello Tolosa.* Gizaki hori zein herri edo baserritakoa den azaltzen du bigarren osagaiak.

Garazi Gerrieder modukoak: *Anton Betozko, Anton Guzurretxe, Garazi Gerrieder, Gaxuxa Mokobipil, Kosepantoni Koloregorri, Liño Ankabakar, Mainton Itzontzi, Mari Begiluze, Mariñe Besolodi, Mikel Eleder, Peru Ilegorri, Tomas Txorimalo, Tomax Aldaro, Teresa Kaskazuri;* bigarren elementua bahuvrîhi moduko izen elkartua dute hauek sarri.

mari-zikin modukoak: *mari-aker, mari-apain, mari-atso, mari-bandera, mari-bihurri, mari-gaizto, mari-gizon, mari-gorringo, mari-kontra, mari--kriseilu, mari-maisu, mari-maistra, mari-maite, mari-matraka, mari--moda, mari-mutiko, mari-mutil, mari-mutur, mari-puntta, mari-sorgin, mari-suge, mari-xukalde, mari-zikin.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Esangura: aipagai duen pertsonaren nortasun-ezaugarri nabarmenen bat eskaini ohi du gehienetan elkarte-modu honek. Nortasun-marka hori anatomikoa izan ohi da batzuetan, zaletasun edo izakerazkoa besteetan. Bada, azkenik, lanbide- edo jatorri-aipamena egiten duenik ere.

2. Morfologi osaera: lehenengo atalekoak "izen + izen" modukoak dira. Pertsona-izen propioa aurretik joaten da ia beti (salbuespen bakan dira *Arta Manuel* modukoak). Laugarren atalekoak "izen propio + adjektibo" modukoak dira batzuetan, eta "izen propio + izen" modukoak besteetan. Hirugarren atalekoak dira, azkenik, hiruretan korapilatuenak: elkartearen bigarren osagaia bera hitz elkartua izan ohi da, izan ere.

Izen propioak direnez, *Peru Abarka, Etxahun Iruri* eta *Garazi Gerrieder* modukoak mugagabean joan ohi dira normalean: "Martin Txilibituk esan du", "Garazi Gerriederren irribarrea".

3. Emankortasuna: bizi-indarrik ez zaie, gaur egun, izengoiti-elkarte hauei falta: *Matxin Burdin* (*Martin Fierro*-ren itzulpen ezaguna), *Antonino Apreta, Kandido Txapuza, Simon Besaluze, Santi Nonzebarri, Satan Bihotz-txiki.*

Emankorrak gertatzen ari dira, gainera, pareko erdal izengoiti ezagunak euskaraz emateko orduan: *Alberto Artz(a); Rikardo Lehoibihotz(a) (erregea), Federiko I Bizargorri(a) (enperadorea), Felipe Eskuzabal(a), Artaxerxes Eskuluze(a), Karlos II Burusoil(a).* Bestelakorik ere eratu ohi da: *Enrike Txori-ehiztari(a), Juan Lurgabe(a).*

IDAZKERA

Atal bakoitzak berariazko idazmoldea du. Horrela:

– *Peru Abarka, Martin Txilibitu* eta *Etxahun Iruri, Pello Tolosa* modukoak bereiz idaztekoak dira, hitz biak letra larriz hasten direlarik.

— *Garazi Gerrieder, Anton Guzurretxe* modukoak ere bereiz eta letra larriko hasieraz doaz. Bigarren osagaiko elkartea, kasuan kasuko elkarte-moduari dagokion idazkeraz eman.

— *mari-zikin, mari-xukalde* modukoak marrarekin idaztekoak dira, letra xehez.

16. Sinbolismo fonetiko eta hots-uztardurak

Hitza baino areago hotsa da, era honetako elkarte askotan, funtsezko osagai eta adiera-sortzaile. Zenbaitek "onomatopeiazko elkarketa" deitu izan dio euskal hitz-sorbide honi.

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

Ondoko hiru atal nagusiok bereizten dira hemen:

barra-barra moduko hots-errepikak: *(dirua) arra-arra, barra-barra, bor-bor, bris-bris, kask-kask, kili-kili, mara-mara, ñir-ñir, parra-parra, pil-pil, raka-raka, tapa-tapa, txin-txin, txio-txio(ka), txor-txor, xirri-xirri.*

plisti-plasta moduko ablaut-taldeak: *binbi-banba, binbili-bonbolo, bristi-brasta, dilin-dalan, dinbili-danbala, firi-fara, fristi-frasta, hinki-hanka, iji-aja, inji-anju, ipi-apa, kili-kolo, kinkiri-kunkuru, kriski-kraska, pinpi-panpa, piri-para, plisti-plasta, tiki-taka, tikili-takala, tirriki-tarraka, zingulu-zangulu, zipli-zapla, zirti-zarta, zirriki-zarraka.*

zehatz-mehatz moduko errima-bikoteak: *aitzaki-maitzaki, auzi-mauzi, duda-muda, elur-melur, erran-merran, handi-mandi, hasi-masi, hautsi-mautsi, hizka-mizka, ika-mika, ikusi-makusi, iritzi-miritzi, isil(ka)-misil(ka), jira-bira, nahas-mahas, nahaste-borraste, saski-naski, tarteka-marteka, totel-motel, txirula-mirula, txirri-mirri, zehatz-mehatz, zizka-mizka.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Morfologi osaera:

— Adberbio (sarrienik aditzondo) moduan agertu ohi dira normalean bai hots-errepikak eta bai ablaut-taldeak. Iharturik, izen gisa ere jokatzen du ordea horietariko batek baino gehiagok.

— Errima-bikoteetan, ezin ezar daiteke hain muga zehatzik. Gehienak izen-kategoriakoak gertatu arren, bestela ere (adberbio, adjektibo,... moduan) agertzen dira inoiz edo behin.

2. Emankortasuna: emankortasun ahulekoak dira, gaur egun, sinbolismo fonetiko eta hots-uztardurak. Izatekotan ere hirugarren atala, errima-

-bikoteena alegia, genuke oraindik hizperri-iturri. Sortu gutxi sortzen bada ere horrelakorik, entenditu gehienok entendituko genuke agian "*bulego-mulego* nabil egun osoan" moduko esamolderik.

IDAZKERA

Marrarekin idaztekoak dira: *duda-muda, kili-kili, mara-mara, plisti--plasta, tarteka-marteka, tirriki-tarraka.*

Salbuespen apurrak, zenbait forma ihartu dira: errima-bikoteetan esamesa, tirabira, tximist, zirriborro, zurrumurru; hots-errepiketan, izen gisa doazen *dardar(ra), dizdiz(a), kirkir(ra), kuku(a), marmar(ra), ttunttun(a).* Hiztegiek ematen dute horren berri.

17. Exoelkarteak

SAILKAPENA ETA ADIBIDEAK

17.1. Exohizkia mugatzaile

a) Hitz arruntak: *antioinak (antipodak), antisorgailu, antizatiki, autobehaketa, autoitsaskor, bideolan, bideo-saio, ekoetxe, elektroeragile, elektrotresn(eri)a, euroagintari, extrafin, (altzairu) extragozo, extraofizial(ki), fotoeroale, hiperbizkaiera, hipergizon, infragizatar, infragizon, infragorri, infrasoinu, metahizkuntza, mikrouhin, minietxe, minigona, morfojoskera, para(a)tzizki, para(a)urrizki, polikiroldegi, polinahaste, protoeuskara, protoirudi, supergizon, superni, superreroale, telebista, tele(e)gunkari, telegidatu, teleikusle, telekutxa, telemezu, telesaio, termoegonkor, ultrabatu, ultraeskuin(dar), ultraezker(tiar), ultragogor, ultramore, ultramundutar, ultrasoinu, ultrazuzenketa.*

b) Izen propioak: *Etniker, Expo Loiola, Fotokai, Hiper Eroski, Paleo--ikuska, Kredigak.*

17.2. Exohizkia mugakizun

Adinlekto, argiteknia, astokrazia, berrimetro, enbormobil, euskarologo, jainkofago, gurutzegrama.

17.3. Anglo-euskarazko elkarteak

17.3.1. *euskara light, copyright-agiria, gau klub, softwaregintza, ulermen--test.*

17.3.2. Komunikabide- eta merkatariza-izen propioak: *Aro leasing, Arrasate Press, Etxekit, Euskal air, Euskalsoft, Eusko-card visa, Euskophoto.*

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Osagaiak. Bai kultur erroak eta bai, azken ordukoetan, ingelesezko hitzak edo hizkiak izan ohi dira, sarrienik, elkarte-moduotan euskal hitz batekin uztartzen diren osagaiak.

2. Emankortasuna. Unean uneko sorkariak dira honelako asko; hizkuntzarekin egin daitezkeen hitz-jokoak baliatuz eratzen dira sarri. Hortik kanpora bizi hutsala du hainbatek: gutxi dira hiztun askoren ezpain--lumetan irauten duten exoelkarteak.

Exohizki batzuk, halere, aurrizki moduko izaera eskuratzen ari dira apurka-apurka: *extra-, hiper-, infra-, mini-, tele-* eta, batez ere, *ultra-* elementuak halako neurri batean bertakotzen ari dira.

IDAZKERA

Anglo-euskarazko elkarteak eta izen propioak alde batera uzten badira (horietan ez dago joera jakinik), bat eginik idaztea da exoelkarteetako arau nagusia: *euroagintari, minigona, polikiroldegi, supergizon, ultramore; argiteknia.*

III. ADIBIDETEGIA

Atalez ataleko azalpenetan aipatu diren adibideak jaso dira ondoko zerrendan, eta alfabeto-ordenan antolatu, forma gomendatuen bilaketa edo unean uneko kontsulta bizkorra errazteko xedearekin. Horretarako balio urrikoak direnez, bazter utzi dira aposizio arrunten adibideak.

Argibide zabalagoen bila abiatzen denak atalez ataleko azalpenetara jo nahiko du, eta horrentzat ipini da, adibidearen ondoan eta parentesi artean, zenbakizko erreferentzia bikoitz hau: lehenik, atala nahiz azpiatala adierazten du(t)en zenbakia(k), eta, barraren ondotik, txosteneko orrialdea(k). Bestalde, ≈ eta • zeinu bereziak ageri dira zerrendan, bi eratako idazkerak aukeran dituzten kasuak nabarmentzeko. Horrela:

11.2.5/79-80 (ik. *abadegai*): 11. ataleko (eta honen 2.5. azpiataleko) kasu bat da *abadegai* forma; eta 79-80 orrialdeetan aipatutako adibidea da.

≈ (ik. *aberaste≈*lan): marraz loturik nahiz bereiz idatz daiteke hitz-elkartea. Beraz: ontzat ematen dira bai *aberaste-lan* eta bai *aberaste lan* idazkerak.

• (ik. *adar•motz*): marraz nahiz erabat loturik idatz daiteke hitz--elkartea. Horrela, nahiz *adar-motz* nahiz *adarmotz* formak erabil ditzake idazleak.

A multzoa (14.2/93-95)
abadegai (11.2.5/79-80)
abantail≈suerte (11.2.4/79-80)
Abanto-Zierbena (12/78-80)
aberaspide (10/74-76)
aberaste≈lan (11.2.3/78-80)
aberats≈itxura (11.2.2/78-80)
aberezale (8/70-71)
aberkide (11.2.5/79-80)
abertzale (8/70-71)
abesbatz (10/74-76)
abiaburu (10/74-76)
abialeku (10/74-76)
abisu≈klase (11.2.4/79-80)
adar≈jotze (7.2/64-69)
adar•motz (3/56-57)
adarbakar (3/56-57)
adargabe (5/60-61)
adarrik adar (1.1/48-49)
adi-adi (egon) (1.3/50-52)
adibide (10/74-76)
adierazpide (10/74-76)
adierraz (4/58-59)
adigai (10/74-76)
adimen≈azterketa (7.2/64-69)
adimen≈koefiziente (11.1/77)
adinlekto (17/101-102)
aditz≈erro (11.1/77)
aditz≈forma (11.1/77)
aditz≈izen (11.1/77)
aditzondo (11.2.6/80)
administrazio≈gune (11.2.5/79-80)
Adriano VI kalea (14.2/93-95)
afalondo (11.2.6/80)
afari≈kontu (11.2.3/78-80)
afari≈merienda (12/78-80)
agerbide (10/74-76)
ageri-agerian (1.3/50-52)
agerkide (10/74-76)
agerraldi (10/74-76)
agertoki (10/74-76)
aginpide (10/74-76)
aginte-gose (8/70-71)
agintealdi (11.2.5/79-80)
-agiri (ipurtagiri: 3/56-57)
ahari≈apustu (11.1/77)
aho≈estalki (7.1/64-69)
aho≈gozagarri (7.1/64-69)
aho•zabal (3/56-57)
aho≈zabalka (7.3/65-69)
aholku eske (7.3/65-69)
aingeru≈antz (11.2.2/78-80)
aingerukume (11.2.5/79-80)
Ainhize-Monjolose (12/78-80)
-aire (integrista≈aire: 11.2.2/78-80)
aita-amak (2/53-55)
aitzaki-maitzaki (16/99-100)
-aitzin (etxe≈aitzin: 11.2.6/80)
aitzin-xuri (3/56-57)
aitzinasmo (11.3.1/80-81)
aitzinsolas (11.3.1/80-81)
aitzur≈kirten (11.1/77)
akanpaleku (10/74-76)
akasgabe, akaskabe (5/60-61)
akordeoi≈soinu (11.1/77)
alabaorde (11.2.5/79-80)
Alberto Artz(a) (15/97-98)
albo≈emaitza (11.3.1/80-81)
albo≈hizkuntza (11.3.1/80-81)
albo-alboan (1.3/50-52)
aldaberri (9/72-73)
aldagai (10/74-76)
aldagaitz (4/58-59)
aldagela (10/74-76)
aldare≈aurre (11.2.6/80)
-aldatu (antzaldatu: 6/62-63)
alde egin (6/62-63)
-alde (ezkerralde: 11.2.6/80)
-alde(ko: 11.5/81)
-alde (sortalde: 10/74-76)
alde-aldera (1.3/50-52)
aldeak alde (1.1/48-49)
alderen alde (1.1/48-49)
-aldi (agintealdi: 11.2.5/79-80)
-aldi (edanaldi: 10/74-76)
aldian-aldian (1.2/49-50)
aldiune (11.2.5/79-80)
-aldra (emakume≈aldra: 11.2.1/78-80)
alfabetatze-euskalduntze (2/53-55)

alfer-alferrik (1.3/50-52)
alkate jaun (12/78-80)
alkate-lehendakari (12/78-80)
Ama Birjina (12/78-80)
ama≈hizkuntza (11.1/77)
amagabe (5/60-61)
amaitu berri (9/72-73)
Amenduze-Unaso (12/78-80)
amets≈bide (11.2.5/79-80)
amets eragin (6/62-63)
amil-leku (10/74-76)
amodio≈pittin (11.2.1/78-80)
amor(e) eman (6/62-63)
Amorebieta-Etxano (12/78-80)
amorru-amorruz (1.3/50-52)
anai-arrebak (2/53-55)
-andana (jende≈andana: 11.2.1/78-80)
andere espos (12/78-80)
andre≈jende (11.2.5/79-80)
andre sendagile (12/78-80)
andredena (13/87-88)
andregai (11.2.5/79-80)
antioinak (antipodak) (17/101-102)
antisorgailu (17/101-102)
antizatiki (17/101-102)
Anton Berakatz (15/97-98)
Anton Betozko (15/97-98)
Anton Deabru (15/97-98)
Anton Guzurretxe (15/97-98)
Anton Kaiku (15/97-98)
Anton Ostatu (15/97-98)
ulerterraz (4/58-59)
ultrabatu (17/101-102)
ultrabizkaiera (17/101-102)
ultraeskuin(dar) (17/101-102)
ultraezker(tiar) (17/101-102)
ultragogor (17/101-102)
ultramore (17/101-102)
ultramundutar (17/101-102)
ultrasoinu (17/101-102)
ultrazuzenketa (17/101-102)
ume aingeru (12/78-80)
umezale (8/70-71)
Unamuno-Barojak (2/53-55)
-une (geldiune: 10/74-76)
unean-unean (1.2/49-50)
ur bila (7.3/65-69)
Ur Kirolak (11/82)
ur≈kutsadura (7.2/64-69)
ur≈putzu (11.1/77)
ur≈xorta (11.2.1/78-80)
uranditu (6/62-63)
Urola aldeko (herriak) (11.5/81)
urre≈diru (12/78-80)
Ürrüxtoi-Larrabile (12/78-80)
-usain (diru≈usain: 11.2.2/78-80)
usatortola (12/78-80)
uso≈aldra (11.2.1/78-80)
uso-pasa (7.2/64-69)
uste-sinesmenak (2/53-55)
ustekabe (5/60-61)
ustelduaren ustelduz (1.1/48-49)
uxagaitz (4/58-59)
uzta≈bilgailu (7.1/64-69)
uztail-abuztuak (2/53-55)
uztargin (7.1/64-69)
Vitoria/Gasteiz (13/87-88)
x izpia (14.2/93-95)
xingar≈azpiki (11.2.6/80)
xirri-xirri (16/99-100)
zabal-zabal (1.3/50-52)
zabal-zabalik (1.3/50-52)
-zahar (jan-zahar: 9/72-73)
zaharberritu (6/62-63)
zain•gorri (3/56-57)

-zain (lemazain: 7.1/64-69)
zain-hil (3/56-57)
zain-hori (3/56-57)
-za(i)ntza (liburuzaintza: 7.2/64-69)
zakar≈ontzi (11.1/77)
zakur≈andana (11.2.1/78-80)
zakur galgo (12/78-80)
zalantza≈bide (11.2.5/79-80)
zaldi≈erosle (7.1/64-69)
zaldi≈tropel (11.2.1/78-80)
zaldikume (11.2.5/79-80)
-zale (bakezale: 8/70-71)
zalu-zalua (1.3/50-52)
zalu-zalukara (1.3/50-52)
zango•makur (3/56-57)
zapal-zapal egin (1.3/50-52)
zapataundi (3/56-57)
zarpa≈jario (7.1/64-69)
-zati (lukainka≈zati: 11.2.1/78-80)
zati≈potentzia (11.1/77)
zehatz-mehatz (16/99-100)
zelulabakar (3/56-57)
Zenbaki zenbaki(zko) kontrola (14.3/95-96)
zentzudun (7.1/64-69)
zentzugabe (5/60-61)
zer-nola(ko) (2/53-55)
zer-nori-nork (2/53-55)
zerbitzuburu (11.2.5/79-80)
zerbitzugune (11.2.5/79-80)
zerga≈biltzaile (7.1/64-69)
zerra≈fabrika (11.1/77)
zerrama (12/78-80)
zeru-lur-itsasoak (2/53-55)
zeru-lurrak (2/53-55)
zibilizazio≈era (11.2.4/79-80)
zikin-estali (3/56-57)
zikiro≈jate (7.2/64-69)
zikloka-zikloka (1.2/49-50)
zin eragin (6/62-63)
zin-zinez (1.3/50-52)
Zinema Jaialdia (11/82)
zinemaldi (11.2.5/79-80)
zingulu-zangulu (16/99-100)
zintz egin (6/62-63)
zipli-zapla (16/99-100)
zirriborro (16/99-100)
zirriki-zarraka (16/99-100)
zirti-zarta (16/99-100)
zisterna≈kamioi (12/78-80)
ziur-ziur (jakin) (1.3/50-52)
ziurtagiri (10/74-76)
zizka-mizka (16/99-100)
zokogune (11.2.5/79-80)
zordun (7.1/64-69)
zorikabe (5/60-61)
zorion≈agur (11.1/77)
zorion bila (7.3/65-69)
zorion-nahi (8/70-71)
zoro-zoro (egon) (1.3/50-52)
zorroztarri (10/74-76)
zortzi-hamar (kilometro) (2/53-55)
zortzi-hamar-hamabi (urte) (2/53-55)
zoru≈garbigailu (7.1/64-69)
zozkatu berri (9/72-73)
zubipe (11.2.6/80)
zulatu berri (9/72-73)
zurgin (7.1/64-69)
zuri-beltz (2/53-55)
zuri-gorri (2/53-55)
zuri-gorri-berde (zinta) (2/53-55)
zuri-zuri egin (1.3/50-52)
zurrumurru (16/99-100)
zuzen-gose (8/70-71)
zuzen-zuzen (1.3/50-52)
zuzen-zuzenean (1.3/50-52)
zuzendariorde (11.2.5/79-80)
zuzengabe (5/60-61)

4.4. **Galdeketa igorri zaien/zitzaien idazleak**

ERASKINAK

I. ERASKINA: GALDEKETA IGORRI ZITZAIEN IDAZLEAK

II. ERASKINA: GALDEKETA EGITEKO BIDALI ZEN PROPOSAMENA

4.5. **Erantzun libreak**

I. ERASKINA: GALDEKETATIK JASO ZIREN ERANTZUN LIBREAK

II. EUSKALTZAINDIAK ERABAKIA HARTU AURRETIK PRESTATURIKO ZENBAIT TXOSTEN:

a) Xabier Kintanarena
b) Frantzisko Ondarrarena
c) Jose Luis Lizundiarena
d) X. Videgainena
e) LEF batzordearena

I. ERASKINA

GALDEKETA IGORRI ZITZAIEN IDAZLEAK

"TXILIKU" - Euskaldunon Egunkaria
"TXILIKU" - Elkar
ADURIZ, Itziar - Uzei
ADURIZ ZABALA, Jose Antonio - Euskaltzaindia. LEF batzordea
AGIRRE , Joxean - EGIN
AGIRRE, Jabier - UZEI
AGIRRE, Inaxio - Euskararen Udal Patronatoa
AGIRRE BEGIRISTAIN, Jose Antonio - Donostiako Udala
AGIRRE GARAI, Jon - HAEE-IVAP
AGIRREBALTZATEGI KORTABARRIA, Paulo - UZEI-EUSENOR
AGIRREGABIRIA AGIRRE, Juan María - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
AIZPURUA, Xabier - Eusko Jaurlaritza - HPIN
AIZPURUA, AGIRRE, Martxel
AKESOLO, Lino
ALBERDI, Mirari - Eusko Jaurlaritza - HPIN
ALBISU, Iñaki - Eusko Jaurlaritza
ALDAI, Nikolas - Euskadi Irratia
ALDAMIZ-ETXEBERRIA LEIZAOLA, Jone - Barakaldoko Udala
ALFARO "Lantziri", Gexan
ALKORTA, Kaxildo - HAEE-IVAP
ALTONAGA SUSTATXA, Kepa - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
ALTUNA, Patxi - Euskaltzaindia
ALVAREZ ENPARANTZA, Jose Luis - EHU/UPV - Filosofi Fakultatea
AMUNDARAIN, Dionisio-HAEE-IVAP
AMURIZA, Xabier
APELLANIZ INGUNZA, Estibalitz - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
ARANA MARTIJA, Jose Antonio - Euskaltzaindia
ARANBARRI "Amatiño", Luis Alberto - DEIA
ARANBURU, Antton - Euskadi Irratia
ARANBURU, Pedro Jose - Maizpide Euskaltegia
ARANZABAL, Jose - Arrasate Press
ARBELBIDE, Xipri - Gure Irratia
AREJITA, Adolfo - Labayru
ARRARTE, Iñaki - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
ARREGI, Joseba - Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila
ARREGI, Joxe - Elizarteko Biblia
ARREGI LIZARRAGA, Jesus Mari - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
ARRIETA UGARTETXEA, Joxe Agustin - KUTXA
ARRIOLABENGOA, Eduardo - Gasteizko Udala - Hezkuntzarako Udal Institutua
ARROJERIA, Eustakio - Elhuyar
ARTZE, Joxan
ATXAGA, Mikel - DEIA
ATXAGA, Bernardo
AURREKOETXEA, Gotzon - Euskaltzaindia/Atlas
AUZMENDI, Txema - Herri Irratia
AZKUNE MENDIA, Iñaki - ELHUYAR
AZPIRI EGUREN, Begoña - Eibarko Udala
AZURMENDI OTAEGI, Joxe
BADIOLA, Rikardo - Euskaltzaindia -Argitarapenak
BARAIAZARRA, Luis - *Bostak Bat* lantaldea
BARANDIARAN, Gaizka
BARRENETXEA, Tere - Elhuyar
BASTERRA, Jon - Ikastolen Federazioa - *Ikastola* aldizkaria
BELOKI, Julian - Euskadi Irratia

BELOKI, Jose Ramon - DEIA
BERASATEGI, Jose Ignazio - HAEE/ IVAP
BERASATEGI, Joxe Mari - Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila
BERGARETXE, Jon - *Jakin*
BERISTAIN, Iñaki
BERRIOZABAL, Roman - Eusko Jaurlaritza - HPIN
BILBAO, Jose Ramon - Bilbao-Bizkaia-Kutxa
BUTRON, Joseba - EGA
CAJARAVILLE BEREZIARTUA, Miren - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
CASENAVE-HARIGILE, Junes
CHARRITTON, Piarres - Euskaltzaindia
DAVANT-IRATZABAL, Jean Louis - Euskaltzaindia
DIAZ DE TUESTA MARTINEZ, Jose Felix - Arrasateko Udala
DIHARCE "Iratzeder", Xabier - Euskaltzaindia
EGAÑA, Andoni
EGAÑA, Miren - Nafar Gobernua - Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza
EGIA GOIENETXEA, Gotzon - Gipuzkoako Foru Diputazioa
EGIBAR, Eloi - Gipuzkoako Foru Diputazioa
EGUZKITZA, Andolin - EHU/UPV
EIZAGIRRE LANDA, Xabier - IRALE - Donostia
EIZMENDI, "Basarri", Iñaki - *El Diario Vasco*
ELOSEGI ALDASORO, Antton - EHU/UPV - Zuzenbide Fakultatea
ENSUNZA LEKUNBERRI, Martxel -EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
EPALZA RUIZ DE ALDA, Aingeru -Nafarroako Gobernua - Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza
ERKIAGA, Eusebio - Euskaltzaindia
ERKIZIA ITOIZ, Joseba - Gipuzkoako Foru Diputazioa
ESNAL, Pello - HABE
ESTONBA REKALDE, Andone - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
ETXAIDE, Jon
ETXANIZ, Maite - Zarauzko Udala
ETXEBARRIA, Jose M. - EUTG
ETXEBARRIA, Jon Gotzon - Batxiler Institutua
ETXEBARRIA, Jose Ramon - EHU/ UPV
ETXEBARRIA, Martin - HABE
ETXEBARRIA, Elixabete - Elhuyar
ETXEBARRIA, Pilartxo - EHU-UPV / Filosofi Fakultatea
ETXEHANDI, Marzel
ETXENAGUSIA, Karmelo - Elizbarrutiko itzulpenak
ETXEZAHARRETA, Luzien - Euskaldunon Egunkaria
ETXEZARRETA, Eustasio - Elizbarrutiko itzulpenak
ETXEZARRETA, Ramon - Gipuzkoako Foru Diputazioa
GALLASTEGI - Bilboko Udala - Euskara Zerbitzua
GAMINDE, Iñaki - AEK - ELE
GARATE, Gotzon - Deustuko Unibertsitatea
GARDNER, Nicholas - Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila
GARMENDIA, Xalbador - EGIN
GARMENDIA, M. Karmen - Eusko Jaurlaritza - HPIN
GARZIA, Joserra - Euskal Telebista
GAZTAÑAGA, Jesus
GEREÑO, Xabier
GOENAGA MENDIZABAL, Patxi - EHU-UPV / Filosofi Fakultatea
GOIRIENA CAMARA, Iñaki -IRALE
GONZALEZ TXABARRI, Joxe Juan - HABE
GURRUTXAGA, Antton - Elhuyar
HARANBURU ALTUNA, Luis - Kriselu argitaletxea
HARITSCHELHAR, Jean - Euskaltzaindia
HEGUY, Txomin - Euskal Kultur Erakundea - EKE
HERNANDEZ, Mikel - Irakasle Eskola
HERNANDEZ, Juankar - IRALE
HERNANDEZ ABAITUA, Mikel
IBARGUTXI, Felix - Diario Vasco
IÑIGO, Andres - Hizkuntz Eskola

INTXAUSTI REKONDO, Joseba
IÑURRIETA LABAIEN, Iñaki
IRAOLA, Rufino - El Diario Vasco
IRASTORTZA, Tere - UNED
IRASTORTZA, Xabier - Liturgia
IRAZABALBEITIA, Iñaki - Elhuyar - HET
IRAZOLA, Jose Mari - Hizkuntza Eskola
IRIARTE, Maddalen - Euskal Telebista
IRIGOIEN, Juan M.
IRIGOYEN, Alfonso - Euskaltzaindia
IRIONDO UNANUE, Joxe Mari - EITB
IRURETAGOIENA, Xanti - UZEI
ITURBE, Jazinto - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
ITURRIA, Karmelo - Frantziskotarrak (Arantzazu)
ITZAINA, Mikel - Euskaltzaindia / Literatura
IZAGIRRE, Koldo
IZTUETA ARMENDARIZ, Paulo - EHU-UPV - Filosofi Fakultatea
JAUREGI, Jose Bernardo - CIES
JAUREGI, Marije - Elhuyar
JUGO ORRANTIA, Begoña - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
KALTZADA, Julen - Kalegana
KANBLONG, Ramuntxo - Euskal Kultur Erakundea - EKE
KINTANA URKIAGA, Xabier - EHU-UPV - Euskararako Kabinetea
KNÖRR BORRAS, Endrike - Euskaltzaindia
KORTABITARTE, Koldo - Kutxa
KORTAZAR, Jon - EHU-UPV - Historia eta Geografia eta Filologia
KRUTWIG SAGREDO, Federiko - Euskaltzaindia
LAKARRA, Joseba Andoni - EHU-UPV - Historia eta Geografia eta Filologia
LARRAÑAGA, Gurutz - HABE
LARRARTE, Jose Mari - Euskaltzaindia-LEF
LARRE, Emile - Euskaltzaindia
LASA ALEGRIA, Mikel - Euskaltzaindia-EEBS
LEGARRETA, Josu - Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila
LEKUONA, Juan Mari - Euskaltzaindia
LERTXUNDI, Anjel
LETAMENDIA, Juan Antonio
LETE, Xabier
LIZARRALDE, Elene - Euskal Telebista
LIZARRALDE OLABARRIA, Marian - Oñatiko Udala
LIZUNDIA, Jose Luis - Euskaltzaindia
LOBERA REVILLA, Anjel
LOIDI BIZKARRONDO, Jose Antonio
LOINAZ, Miel - UZEI
MARIGOMEZ ALLENDE, Ionan - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
MARTINEZ, Alfontso - EHU/UPV - Filosofi Fakultatea
MENDIGUREN, Xabier - Itzultzaile Eskola
MENDIGUREN, Iñaki - Udala
MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier - Elkar
MENDIZABAL, Zuriñe - Ikastolen Federazioa - *Ikastola* aldizkaria
MENDIZABAL MUJIKA, Fernando - UZEI
MENDOZA, Jose Luis - Nafarroako Gobernua - Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza
MOYUA PINILLOS, Adela - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
MOZOS MUJIKA, Iñaki - IRALE
MUJIKA CASARES, José Antonio - Euskaltzaindia (Gramatika batzordea)
MUJIKA, Alfonso - ELHUYAR -HET
MUJIKA, Luis Mari - Euskaltzaindia/LEF
MUNIATEGI, Abel - Euskaltzaindia/Literatura
MURUA, Mitxel -EREIN
NAVARRO, Koro
NAZABAL JAKA, Gotzon - UZEI
ODRIOZOLA, Jose Manuel
ODRIOZOLA PEREIRA, Juan Karlos - Euskaltzaindia/LEF
OIHARZABAL, Beñat - Euskaltzaindia
OLARRA, Xabier - Nafarroako Gober-

nua - Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza
OLAZIREGI, Ibon - Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila
ONAINDIA, Xanti
OÑATIBIA, Iñaki - SASKI-NASKI
OÑATIBIA, Manu - SASKI-NASKI
ONDARRA, Francisco - Euskaltzaindia
OÑEDERRA OLAIZOLA, Lurdes - EHU/UPV - Historia eta Geografia eta Filologia
ORBE MONASTERIO, Martin
OREGI, Eneko - EHU/UPV
OREGI, Josu
ORMAZABAL, Joxantonio - ELKAR
OSA, Eusebio - EHU/UPV
OTAEGI, Karmelo - Herria Irratia
OTAEGI, Lurdes - Euskaltzaindia-LEF
OTERMIN, Jose Mari - Euskadi Irratia
PAGOLA, Rosa Miren - Deustuko Unibertsitatea
PAGOLA, Ines - EHU/UPV - Historia eta Geografia eta Filologia
PEILLEN, Txomin - Euskaltzaindia
PEÑAGARIKANO, Nekane - Euskadi Irratia
PEREZ GAZTELU, Elixabete - EUTG
PETRIZAN, Estebe - Nafarroako Gobernua - Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza
PIKABEA, Iñaki - EHU-UPV / Informatika Fakultatea
PITARKE DE LA TORRE, Jose M. - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
PLAZAOLA, Estepan - Bergarako Udala
PLAZAOLA MUGURUZA, Fernando - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
REY ESCALERA, Fernando - Nafarroako Gobernua - Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza
RUIZ DE MUNIAIN MARKAIDA, Koldo - IRALE
SAGARNA IZAGIRRE, Andoni - UZEI
SAIZARBITORIA, Ramon
SALABURU, Pello - Euskaltzaindia
SALCEDO LARRALDE, Isabel - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
SAN MARTIN, Juan - Euskaltzaindia
SARASOLA, Ibon - Euskaltzaindia
SARASOLA, Jose Antonio - K-2000
SARRIEGI ESKISABEL, Andoni - Beasaingo Udala
SATRUSTEGI, Jose Maria - Euskaltzaindia
SEGUROLA, Iñaki - Orotariko Euskal Hiztegia
SETIEN, Jazinto - Hernaniko Udala
TAPIA, Koldo - Santurtziko Udala.
TELLERIA, Pello - Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila
TOLEDO LEZETA, Ana Maria - EUTG
UGALDE, Iñaki - HABE
UGALDE, Mikel - Eusko Jaurlaritza -HPIN
UGALDE, Martin
UNANUE, Jon - Andoaingo Udala
URGELL, Blanka - Orotariko Euskal Hiztegia
URIA ZUBIARRAIN, Edorta
URIARTE ORMAETXE, Javier - Hizkuntza Eskola
URIBARREN, Patxi - Euskaltzaindia - LEF batzordea
URIBEETXEBARRIA, Tomas - Bizkaiko Foru Diputazioa
URKAREGI ETXEPARE, Arantza - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
URKIA, Mirian - UZEI
URKIZU, Boni - HABE
URKIZU, Patri - Euskaltzaindia/LEF
URRUJULEGI AGIRRE, Jon - Pasaiako Udala
URRUTIA BADIOLA, Andres - Euskaltzaindia - EEBS batzordea
VIDEGAIN, Charles - Euskaltzaindia - Hizkuntz Atlasa
VILLASANTE KORTABITARTE, Luis - Euskaltzaindia
YURRAMENDI, Felipe - EUTG
ZABALA UNZALU, Igone - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
ZABALA UNZALU, Nerea - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
ZABALETA, Pello - Euskadi Irratia
ZABALETA, Patxi - Euskaltzaindia

ZABALETA, Josu
ZALBIDE, Mikel - Euskaltzaindia - LEF batzordea
ZARATE AZKUNA, Maria Jose - EHU/UPV - Zientzi Fakultatea
ZARRAOA, Iñaki - Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila
ZATARAIN, Anbrosio
ZAVALA, Antonio - Euskaltzaindia
ZELAIETA, Anjel
ZUAZO, Koldo - EHU/UPV - Historia eta Geografia eta Filologia
ZUBELDIA, Iñaki - ELKAR
ZUBIAGA, Felix - Lauaxeta Ikastola
ZUBIKARAI, Augustin
ZUBIZARRETA MUJIKA, Iñaki - Eresoinka, S.A.
ZUPIRIA, Bingen - Lehendakaritza
ZURUTUZA, Jose Luis - Frantziskotarrak (Arantzazu)

II. ERASKINA

1. SARRERA-OHARRAK

Euskarak gaur egun duen hitz berrien premiari erantzuteko, hitz-elkarketa baliabide nagusienetakoa dugu. Izan ere euskarak askatasun osoz ez bada ere, libertate handiz elkar ditzake kategoria bereko nahiz desberdineko hitzak izen, izenondo edo aditz berriak eratzeko: bi izen nahiz aditzoina eta izena elkartuz, izen berria sort dezake; edo aditzoina eta izenondoa elkartuz, izenondo berria, etab.

Elkarte-mota guztiak ez dira haatik maila, emankortasun eta baliagarritasun berekoak: horregatik, mota, sail eta azpisail bakoitzaren nondik-norakoa aztertu eta horien deskribapena egitea izan da Lexikologi-Erizpideen Finkapenerako Batzordearen eginkizuna 1986tik 1988 arte.

Taxonomi lan zabal horren ondoren, oinarri sendoagoak ditu Euskaltzaindiak hitz-elkarketaren inguruan arau eta gomendioak eskaintzeko; ikerketa horrek erakutsi baitu, batetik, baliabide honen jarraipen historikoa eta gaurko bizitasuna, eta, bestetik, zein puntutan eta noraino ari diren urruntzen usadio zaharretik gaur sortzen diren hitz elkartuak. Era berean nabarmendu da baliabide aberats honen ondorioz sortzen diren hitzen gaineko idaztarauen beharra.

Ondorioz, bada, honako adierazpen-proposamena egiten dio Batzordeak Euskaltzaindiari, honek, ongi baderizkio, bere egin dezan eta euskal idazlegoari jakin eraz diezaion:

1. Baliabide indartsua izanik, hitz elkartura jo daiteke askotan euskaraz, erdal 'izena + adjektibo erreferentziala' egiturak ordezkatzeko: *esku-lan* (*trabajo manual/travail manuel*), *aho-literatura* (*literatura oral/littérature orale*), *ekonomi teoria* (*teoria económica/théorie économique*), etab.

2. Hitz-elkarketaren aberastasuna dela eta, hitz elkartuko bi osagaien arteko erlazio gramatikal eta semantikoak era askotakoak izan daitezkeenez, ezinezkoa da horiek arau labur eta urrietara biltzea. Horien berri jakin nahi duenak badu azalpen luze-zabalagorik *Hitz-elkarketa* izeneko hiru liburukietan.

Askotan eta egoki balia daitekeen hitz-elkarketaren bide honek baditu, nolanahi ere, mugak eta are debekuak, batez ere mezu-hartzailearen aldetik begiratuz: osagaien arteko erlazio ilunak direla medio, ulertezin gerta daiteke hainbat hitz elkartu; irakurleak erdarara itzuliz dekodetzen ditu horrelakoak, edo testuinguru zabalaren laguntzaz, edo, okerrago dena, idazleak justu zer adierazi nahi duen jakin ezinik geratuko da. Forma elkartuen sortzaile-idazleak hobeko du kasu hauetan eraikuntza sintaktiko libreetara jo, argitasunaren mesedetan.

3. Badira, halere, hitz elkartuen egiturari dagokionez, zuzendu beharreko erabilera gaiztoak:

a) Bikotea izendatzeko, Dvandva elkarteak ditu bere-bereak euskarak. Horrenbestez, erdarazko *los hijos/les enfants, los reyes/les rois* edo *los padres/les parents*-en, hau da bikotea izendatzen duten sintagmen, ordain jatorrak euskaraz *seme-alabak, errege-erreginak* eta *aita-amak* (edo *gurasoak*) dira; besterik dira inoiz horien lekuan agertzen diren *erregeak, aitak* bezalakoak.

b) Jatetxe, denda, erakunde nahiz beste edozein lekuren izena adierazteko egitura jatorra, izen propioa lehen eta ondoren *jatetxea, gozotegia, kafetegia, harategia*... (artikulua erantsiz) ipintzea da: *Urkiola taberna, Etxeberri harategia* edo *Oihenart liburudenda,* beraz, eta ez **Kafetegi Mikel* edo **Gozotegi Edurne.* Izena erdaraz eta euskaraz aldi berean eman nahi denean, berriz, ondokoa da egitura zuzena: lehenik erdal *bar, librería/librairie* edo *carnicería/boucherie,* izen propioa erdian eta azkenik euskal *taberna, liburudenda edo harategia:*

— *Cafetería Irimo* kafetegia, *Librería Oihenart* liburudenda, Carnicería *Etxeberria* harategia.

c) Beste batzutan, erabilera gaiztoen aurrean gaudenik ezin esan daitekeen arren, erdal egituretara gehiegi makurtzeko arriskua dago, euskal tradiziozko formak ahaztuz. 'Aditzoina + izena' (*jarleku, ehortz egun, jaiotetxe, sorterri, irarkola, gazi kutxa*...) betidaniko elkarteak baztertuz, eta aditzoina ekintza-izen eratorriaz ordezkatuz, *jaiotze-eguna, jaiotze-leku* eta *kokatze-leku* sortzen ditugu, erdarazko *fecha de nacimiento* edo *punto de asentamiento* eraikuntzen ordaintzat. Hala ere, *euskalduntze-erakunde* bezalakoetan, aditza izen edo izenondo batetik eratorria denean, *-tze*-dun izena nahitaezkoa da, *euskaldun-erakunde* bestela ulertuko genuke eta. Bada bestelako debeku eta zailtasunik, batez ere hots-topaketa bihurriek eragindakorik: idazkeraz aritzean aipatuko ditugu. Baina halako kasuak salbu, *ikasprozesu* bezalako elkarketen egokitasuna gogoratu nahi da hemen, *ikaste-prozesu* posiblearen (eta gaur nagusi edo ia bakarraren) ondoan.

2. Hitz elkartuen inguruan sortu izan den beste auzietako bat, bi osagaien artean gerta daitezkeen aldaketa fonetikoei buruzkoa da. Arazo

honi dagokionez, aldaketok, hitz elkartuak idazterakoan zein puntutaraino agertzen diren azter dezakegu; forma idatziak baitira, hain zuzen, Euskaltzaindiak arautu nahi dituenak. Corpus zabala ikertu ondoren argi ikusten da lehen osagaiaren azken bokala erori eta ondorioz gertatzen diren kontsonante-aldaketak edo azken bokalaren aldaketak, zenbait izenetara mugaturik egon direla. *Begi, ardi, argi, beso, etxe, arto, idi...* > *bet-, art-, art-, besa, etxa, arta, it-...* forman aurkitzen dira euskal lexikoan aspaldidanik txertatuak ditugun izenetan: *betile, artizar, iteuli, artaburu, besamotz, etxalde...* Baina hauen ondoan hor ditugu era berean *begi--keinu, begi-kolpe, begi-azal, argi-txinta, argi-izpi, ardi-txabola, ardi-haragi, ardi-sail, arto-erregutada, arto-jale, arto-alor, beso-lan, beso-giharre, etxe--erretze, etxe-gain, etxe-bizitza...* Emaitza desberdin hauen aurrean, ondoko puntuok zehaztu beharra ikusi du Euskaltzaindiak:

a) Osagaien arteko erlazio-moduak baldintzatzen ditu hots-aldaketak: menpekotasunezko lotura dutenetan gertatu izan dira bokal- eta kontsonante--aldaketok; ez, ordea, Dvandva (*seme-alabak*), Koordinaziozko (*errege profeta*), Atribuziozko (*osaba bertsolari*) eta Aposiziozko (*Txirrita bertsolaria*) elkarteetan. Halaber, sintaxitik oso gertu dauden elkarteetan, hala nola 'izena + *egin/eman/hartu*' edo 'izena/aditzoina + *behar/nahi*' egituretan, ez da bi osagaien artean aldaketarik aurkitzen.

b) Menpekotasunezko elkarteetan, lehen osagaiaren amaierako segmentuaren morfologi izaerak ere badu zerikusia; lehen osagai hori eratorria bada, atzizkiak nekez izango du aldaketarik: *-ari, -te,* etab.ek bere horretan iraungo dute, azken bokala galdu gabe. *Bertsolari* ez dugu **bertsolal-* bihurtzen, ez eta *txistulari, botikari* nahiz *bulegari, *txistulal-, *botikal-* edo **bulegal-*. Alde honetatik, aipamen berezia zor zaie azken urteetako *unibertsital, monetal, nekazal* eta antzekoei; ia guztiak dira *-ario* atzizkiaz sortutako erdal adjektiboa ordezkatzeko erabili direnak: *profesores universitarios = unibertsital irakasleak, política monetaria = monetal politika, ayuda financiera = finantzal laguntza...* ikusi eta irakurtzen ditugu gero eta maizago.

c) Aldaketa guztiek ez dute hedadura bera izan: *-i* askoz maizago erori izan da, *-u* baino, esaterako. Badira Mitxelenak «zaharkitu itxurako, zaharkitutzat har daitezkeen» hitzetan baino gertatzen ez direla dioenak ere.

d) Hedadura handiagoa izan duten aldaketak ere zenbait hitzetan gertatu dira, ez guztietan eta automatikoki: *Euri, eman dezagun, ez da inoiz *eul-* bihurtu, *mendi* ere ez **ment-*. Erraz uler daiteke hori, nekez asmatuko baikenuke *eul-* forma *euri-tik* datorrela; gehienez ere, *euli* hartuko genuke horren atzean dagoen izen osotzat. Hots-aldaketek, gainera, hitz elkartua ilundu egiten dute, eta, horregatik, ez da harrigarria bikoteak aurkitzea osagai berak dituzten elkarteetan: *galburu* eta *gari-buru; galsoro* eta *gari-soro...*

e) Era berean, aparteko aipamena merezi du *-a* itsatsiaren galerak: ik. Eranskina.

f) Badira halere zenbait ezaugarri fonetiko-grafiko hitz-elkarketarekin lotzen ditugunak, hala nola *n, t* eta *k* kontsonanteak agertzea osagaien artean: *eritetxe, ulerterraz, agortezin...*

2. GRAFIARI BURUZKO ARAUEN BEHARRA ETA HAUEN OINARRIA

Hitz-elkarketaz honelako azterlan bat eginez gero, edozein euskalduni —ez hizkuntzalariei bakarrik— baliagarriak izango litzaizkiokeen argibide batzuk ematera iritsi behar zuela pentsatu izan du Euskaltzaindiak. Hitz berrien eraketarako ateratzen diren ondorioak bezain sakonak ez izan arren, hitz elkartuen grafiaz sortzen diren zalantzen ebazpiderako ondorio batzuk atera daitezkeela ikusi da. Hauek, axalekoago eta konbentzionalagoak izanik ere, euskaraz idazten duen edonori hitz elkartuen idazkeraz agertzen zaizkion zalantzatxo gogaikarri gehienak astintzen lagunduko balute, mesede handia egingo bailukete.

Zalantza ugari dagoena nornahi konturatzen da idazten edo irakurtzen haste hutsarekin, eta are gehiago hainbat idazleren lanak aztertzerakoan. Egin den azterketan nabarmen ikusi da, batasunik eza dela nagusi hitz elkartuen idazkeran eta gehienetan irizpide garbien falta dela desberdintasunen iturburua.

Batasun-faltak sortzen duen ezinegona ez da berria, ezta gutxiagorik ere. Duela hogei urte Euskaltzaindiak eman zituen arau batzuk (ik. «Idatz arauak», in: *Euskera,* XVI, 1971, 143-159: bereziki 153 eta 157. or.): eragin mesedegarria izan zuten, marratxoaren erabileran egiten ziren gehiegikeriak gutxitzeko, besteak beste. Baina denbora iragan da eta beste argibide osagarri batzuk eskaintzeko egokiera badagoela ematen du. Zorionez, denbora ez da alferrik joan. Hainbat lankideren ekarpenari esker, gaur egun hitz-elkarketaz askoz ikuspegi aberatsagoa lortu da, eta irizpide sendoen laguntza ere bai, idazkera-arazoak era sistematikoan planteatzeko.

Sailkapen-azterketa berria dugu, zalantzarik gabe, sistematizatzen laguntzeko tresnarik egokiena, hura gabe sasiarte nahasia gertatzen baita hitz-elkarketaren mundua. Bide hau hartu ezean, norberaren apeta eta aldian aldiko moda bihurtzen dira erabakitzeko oinarri eta, jakina denez, haize-orratza bezala ibiltzen dira horiek, behin alde batera, hurrengoan bestera, desberdintasunak areagotuz.

Idazkera-arauak beti dira arbitrarioak, idazketa bera ere hizkuntz mezuak kodetzeko sistema konbentzionala izaki. Alabaina, ez da gauza bera irizpide linguistiko ulergarri eta koherentetan oinarritzea eta nork

bere erara interpreta ditzakeen irizpide «estetikoak» besterik ez direnak erabiltzea. Lehen bideari heldu nahi zaio hemen ahalik eta araurik argiena eta betetzen errazena eman ahal izateko. Edozein arau formulatzen denean gertatzen den bezala, salbuespenak ez dira faltako, baina ez litzateke nahi hauek ugariegiak izatea ere.

Erraztasunaren kontuari dagokionez, ohar bat egitea komeni da: testuaren kodeketa eta dekodeketa, idazketa eta irakurketa alegia, biak izan behar direla gogoan. Idazlearentzat erosoena, arau gutxirekin jokatzea da; erosoa ezezik, bidezkoa ere bai, baldin irakurlearen kaltetan ez bada. Idazlea eta irakurlegoa ezin ditugu, ordea, maila berean jarri erraztasuna eskaintzerakoan. Idazlea bakarra da eta haren irakurleak, berriz, asko; gainera, idazleak badaki idatziz aditzera eman nahi duena zer den, baina irakurleak interpretatu egin behar du mezua. Edukinak berak askotan ezartzen dizkion zailtasunei ez litzaizkieke gehitu behar idazkeraren zailtasun gehiegiak. Ongi ulertu ahal izateko, bigarren irakurketa eskatzen duen testua ez da egokia.

Irakurketa ahalik eta gehien erraztu behar dela esatean, ez da adierazi nahi idazleari bere lana ahal den guztia bihurritu behar zaionik ere, jakina; baina bai aukeran arrazoizkoagoa dela irakurlearen erosotasuna primatzea inorena primatzekotan.

Gogoan izan behar da, bestalde, kasu askotan irakurketa jendaurrean egiten dela, eta, idazkera anarkikoak irakurlearen ulermena erasotzearekin, honen prosodia desegokitzen duela eta, aldi berean, entzulegoa nahasten eta gogaitzen. Puntu honek garranzi berezia du gaur egun komunikabide mintzatuetan.

Hauetxek izan dira ondoko idazkera-proposamenok formulatzerakoan zaindu nahi izan diren printzipioak.

3. IDAZKERA-PROPOSAMENAK

Hitz elkartuen sailkapenaren arabera daude emanak proposamen hauek, baina sailkapenaren eta sail bakoitzaren xehetasun guztiak ezin dira hemen azaldu. Horrelakorik nahi duenak LEF batzordearen lanak aurkezten dituzten argitalpenetara jo dezake. Azalpen honen bukaeran dena laburbiltzen duen taula bat aurki daiteke.

Hona hemen, tipoz tipo, hobesten den idazkera:

1. Menpekotasunezko hitz elkartuak

Sail honetako elkarteetan, bi osagaietatik eskuinekoa mugakizuna da eta ezkerrekoa mugatzailea. Adibidez, *behi-esne* hitz elkartuan mugakizu-

na *esne* da eta mugatzailea, berriz, *behi*. *Behi-esne* eta *ardi-esne* biak *esneak* dira beren mugakizuna *esne* delako, baina desberdinak dira mugatzaile diferenteak dituztelako. Sail honen barnean zenbait azpisail bereiziko ditugu, bi mailatan: hitz elkartuaren kategoria gramatikalaren arabera lehen mailan eta osagaien ezaugarrien arabera bigarrenean.

1.1. **Izenak**

1.1.1. *izen* + *izen* modukoak. *Eguzki-lore* motako hitz elkartuak deitzen ditugun hauen osagaiak marratxoz loturik idaztea proposatzen da, horrela:

paper-fabrika, langile-mugimendu, kalkulu-metodo, adierazpen-askatasun, zakur-isats

Sail honetakoak ditugu mugakizuntzat *multzo, talde, sail, aldra,...* multzo-adierazleak, *klase, mota, suerte, tailu,...* klase-adierazleak, *zati, puska,...* zati-adierazleak edo *ondo, aurre, oste, aitzin, inguru,...* leku-denborazkoak dituztenak. Horrela, bada,

soldadu-multzo, denda-sail, haragi-puska, etxe-inguru idatziko ditugu.

Leku-denborazkoez denaz bezainbatean, argitasun bat eman beharra dago: gauza bat direla *etxe-inguru, mendi-gain, erretaula-atze* izenak, "etxe-ingurua miatu zuten", "mendi-gaina txikituta geratu da bonbardaketaren eraginez", "erretaula-atzea txukundu behar dugu orain" bezalako perpausetan agertzen zaizgunak, eta beste bat *-n, -ra, -tik, -ko* atzizkiak hartzen dituzten leku-denborazko posposizioak izenen ondoren, hauei erlazio-atzizkirik ezarri gabe, ipiniz eratzen diren multzoak. Posposizioen kasuan ez da marratxorik jarriko bi hitzen artean: "*erreka ingurutik datoz*", "*mendi gainean ikusten den hodeia*", "*erretaula atzeko zokoan azaldu ziren txanponak*".

Idazleak bakarrik jakin dezake *hitz elkartua* + {*-n, -ra, -tik , -ko*} den adierazi nahi duena, ala *izena* + *posposizioa* den. Lehen kasuan marratxoa erabili beharko luke eta bigarrenean, aldiz, ez. Ñabardura hau argi ikusten ez duenak edo bereizketa egiteko premiarik sentitzen ez duenak baluke arau errazago bat, aurrekoaren azpimultzo bat besterik ez dena: multzoa osatzen duten bi hitzen atzetik *-n, -ra, -tik , -ko* kasu-markak ez doazenean hitz-elkarketa baten aurrean dagoenez, marratxoa ipini eta kasu-marka horiek doazenean *izena* + *posposizioa* dela pentsatu eta marratxorik ez ipini.

izen + *izen* modukoen artekoak ditugu orobat *leku-denborazkoak* + *izena* ereduaren araberako hitz elkartuak. Hauek lotuta idatziko ditugu:

aitzinsolas, aurrekontu, gainazal, azpimarra.

Marchand-en terminologiari jarraiki *subsumptive compounds* deritzenak, hau da mugakizuntzat hiperonimoa eta mugatzailetzat hiponimoa dutenak edo, bestela esateko, biak izaera berekoak izanik mugatzaileak eta mugakizunak beren artean duten adiera-desberdintasun bakarra zehaztasunari dagokiona besterik ez dutenak, marratxoz loturik idatziko ditugu:

pinu-arbola, arrosa-lore, berbena-belar.

Mugatzailetzat *sasi-, basa-, asta-* eta mugakizuntzat izen bat, edo izen + *-kume, -aldi, -bide* mugakizunak dituzten menpekotasunezko hitz elkartuak lotuta idatziko ditugu:

sasimaisu, basapiztia, astalarrosa, txorikume, bakealdi, osasunbide

1.1.2. Hitz-elkarketarako forma berezia duten mugatzailez osaturiko hitz elkartuen idazkera.

Euskal hitz batzuek forma berezia har dezakete hitz-elkarketan. Adibidez: *gizon, euskara, itsaso* hitzen forma bereziak *giza , euskal* eta *itsas* dira. Irakurleak honelako forma bat aurkitzen duenean, badaki hurrengo hitza mugakizuna izango dela; beraz, ez du hori adieraziko dion beste ezein zeinuren beharrik. Horregatik, hitz-elkarketarako forma berezia duten mugatzailez osaturiko hitz elkartuon osagaiak bereiz idatziko ditugu:

giza eskubideak, euskal literatura, itsas hegazti

Kontutan izan behar da, alabaina, forma berezi guztiek ez dutela bizitasun bera. Hitz batzuek forma berezia duten hainbat hitz elkartu sortu izan duten arren, gaur egun hitz elkartu berriak sortzerakoan ez gara forma berezi horretaz baliatzen. Esate baterako, *idi* hitzaren konposatu zaharrek *it-* forma dute zeharo iharturiko hitzetan: *iteuli, itzain, itaurreko;* baina hitz elkartu berriagotan *idi* forma ageri da oso-osorik: *idi-apustu, idi-proba, idi-dema, idi-pare.* Forma berezia ez baina arrunta erabiltzen denean, menpekotasunezko hitz elkartuez 1. puntuan esan dena izan behar da gogoan.

1.1.3. Hitz-elkarketan *-a* organikoa galtzen duen mugatzailea duten hitz elkartuen idazkera.

-a organikoa duten euskal hitz zahar batzuek galdu egiten dute fonema hau hitz-elkarketan mugatzaile direnean: *anaia bat,* baina *anai arrebak; eliza bat* baina *eliz kantak, elizgizon.* Mota honetakoak dira, halaber, *-eria, -keria, -zia, -tzia, -kuntza* bukaera duten hitz eratorriak. Galera hau gertatzen denean, hitz elkartuaren osagaiak bereiz idatziko dira, marka gehiagoren beharrik ez dagoenez:

argiteri proiektu, zitalkeri bolada, dotorezi kutsu, zuhurtzi premia, hizkuntz politika.

-ia bukaera duten maileguzko hitzetan ere gertatzen da galera hori:

filosofi liburu, inpedantzi faktore, gastronomi elkarte, zientzi fakultate.

Literatura eta *kultura* hitzak mugatzaile direnean *-a* galtzea oso hedatua dagoenez, ontzat ematen da ohitura hau: *literatur lehiaketa, kultur astea.*

1.1.4. *aditzoin + izen* modukoak. Gehienetan 'x-t(z)eko A' perifrasia dagokien *jarleku* motako hauek lotuta idatziko ditugu:

idazmakina, borragoma, irakinontzi, salbabide, irakasmaterial.

Mugatzailea txistukariz bukatzen denean eta mugakizuna ere txistukariz hasten, lotuta idatzi ordez marratxoa erabiliko dugu: *ikas-zaletasun, erakus-txanda.*

Mugatzailearen bukaerako hotsak eta mugakizunaren hasierakoak berdinak direnean ere marratxoa erabiliko dugu: *irakas-asmo, iragan-angelu.*

1.1.5. *partizipio + izen* modukoak marratxoz lotuta idatziko ditugu:

aspertu-itxura, egosi-puntua, aztertu-beharra, sendatu-nahia

1.2. **Aditzak**

Mugakizuntzat aditza duten aditz elkartuak sail hauetan banatuko ditugu grafiaren ikuspegitik:

1.2.1. Mugakizuntzat *egin, eragin, eman* edo *hartu* duten aditz-elkarteak bereiz idatziko ditugu:

zin egin, hitz eman, aurre hartu, gogait eragin.

Hauetatiko eratorriak, ordea, marratxoz loturik erabiliko dira, 1.4 saileko sintetiko bezala: *hitz-emate, gogait-eragile.*

1.2.2. Mugakizuntzat beste aditzen bat dutenak lotuta idatziko ditugu:

itxuraldatu, gogobete, odolustu, onetsi, azpimarratu

1.2.3. *-erazi* duten aditz faktitiboei dagokienez, ikus Euskaltzaindiak lehendik puntu horretaz emana duen araua (*Euskera,* XVI, 1971, 143-159).

1.3. **Izenondoak**

1.3.1. Mugakizuntzat *-zale* duten izenondoak eta *aditzoin + izenondo* modukoak lotuta idatziko ditugu:

haragizale, dotorezale, irakurrizale, asegaitz, kontentaerraz

1.3.2. *partizipio* + *berri* edo *zahar* forma duten izenondo gisako hitz-elkarteak bereiz idatziko ditugu:

erre berri, jan zahar, ikasi berri, etorri zahar

1.4. Hitz elkartu sintetikoak, hau da: *izen* + *aditzoin* + {*-tzaile/-le/ -ari /-ki /-garri /-t(z)e/- keta/-pen/-kuntza*} moduko izenak, *izen* + *aditzoin* + *-garri* erako izenondoak eta *izen* + *aditzoin* + *-ka* tankerako adberbioak marratxoz idatziko ditugu:

telebista-konpontzaile, oneritzi-emaile, kamioi-gidari, zama-aringarri, buru-estalki, perretxiko-bilketa, teilatu-berritze, laguntza-emate, inbertsio--gehikuntza, eguraldi-igarpen, kolore begi-mingarri, harri-botaka.

2. Bahuvrîhiak

izen + *izenondo* motako izenondoak diren hitz-elkarte exozentrikoak, *bahuvrîhi* izenaz ere ezagutzen direnak, marratxoz idatziko ditugu:

mutil aurpegi-zabal, fruitu azal-gogor, arbola hosto-luze, pertsona izter-lodi.

3. Dvandvak

Dvandvak, h.d. hitz-elkarte kopulatiboak, marratxoz idatziko dira:

izeba-osabak, zeru-lurrak, zuri-beltzak, sei-zazpi, esan-eginak.

4. Aposizioak

izen propio + *izen arrunt* edo *izendapen espezifiko* + *izendapen generiko* itxura dutenak bereiz idatziko ditugu:

Oria ibaia, Udarregi ikastola, Xabier taberna, egin aditza, do nota, e zenbakia.

5. Koordinaziozko eta atribuziozko hitz elkartuak

A den B, B den A, A B modukoa dena, A da eta B da ereduen tankerako perifrasiei dagozkien hitz elkartuok bereiz idatziko ditugu:

Jainko Aita, zisterna kamioi, abioi inude, etxe orratz

6. Amredita errepikatuak

Bikoiztapenen azpimultzo honetakoak marratxoz lotuko dira:

poliki-poliki, txiki-txiki, astin-astin egin.

Baina ez dute marratxorik behar lehen osagaia deklinabide-atzizkiz hornitua dutenek: *etxez etxe, tabernarik taberna.*

7. Hitz-andana ihartuak

Hizkuntzaz kanpoko errealitatearen berri emateko, lexema solteez gain, sintagma-eraikuntzak ere, hitz-andana edo -segidak alegia, erabiltzen ditugu euskaraz, dela izen bati izenondo bat atzetik erantsiz, dela hitz-elkarketaren bidez, dela *-ren* edo *-ko* atzizkien laguntzaz izenei izenlagunak gehituz.

Sintaxi librearen jokoaz baliatuz eta osagaien esanahiak multzoaren esanahian gardenki isladatzen direlarik eratzen diren eraikuntza hauek, kasu batzutan, erabileraren poderioz ihartu egiten dira, semantika aldetik osagaien esanahien batura ez den beste adiera bat hartuz eta sintaxi aldetik askatasuna galduz.

Ihartze-prozesu hori ez da bat-batean gauzatzen eta, horregatik, ihartze--gradu diferentetako hitz-andanak aurki ditzakegu. Ihartuenak lexema bakartzat hartzen ditu hizkuntzalaria ez den hiztunak. Azentu- eta idazkera--batasunak izaten dira ihartze-gradu honen seinalerik nabarienak. Hauek normalean ez diote idazleari buruhausterik sortuko eta jakinaren gainean ala oharkabean loturik idatziko ditu. Horixe egitea baizik ezin da proposatu.

Ihartze-bidean dauden hitz-andanak izaten dira zalantza sortzen dutenak. Idazkera-proposamen hau egiteko, zenbait multzotan banatuko ditugu hauek, irizpide semantiko, fonetiko eta morfologikoak kontuan izanez. Zehatz esateko, hona hemen irizpideok:

— Sintagma-buru den osagaiaren esanahia aldatua dagoen

— Multzoa lexema bakartzat hartzen den

— Multzoak azentu-batasuna eskuratua duen

— Osagaiak forma aldetik aldaketarik izan duten

Tipoaren osakera	Idazkera		Adibideak
	bereiz	lotuta	
izen + izenondo		+	gosaritxiki, mutilzahar, udaberri, galtzamotzak
erdaratik kakaturiko izen + izenondo multzoak	+		Aita Santua, Aste Santua, Espiritu Santua gerra hotza, Pantera Beltzak, Gurutze Gorria Etxe Zuria, Errege Katolikoak
izenlagun + izen edo izen + izenlagun	+		Gernikako Arbola, Erromako zubia, haur besoetakoa, Ama Doloretakoa, Eustakioren tronpa, eguneko esnea
		+	**Salbuespenak** aitaponteko, etxekoandre, etxekojaun, zezensuzko

4. LOTUTA IDAZTEKO PROPOSA LITEZKEEN HITZ ELKARTU OSO LEXIKALIZATUEN ZERRENDA

Hauxe izan daiteke lehen proposamen gisa eskaintzeko moduko zerrenda:

abarkaol
abaroleku
abarotoki
abartoki
abatetxe
abatorraze
abelburu
abeletxe
abenda
abenderri
abizen
adabegi
adabeso
adaburu
afaldomeka
afalordu
afaltoki
afariusi
agapuru
agintaulki
aginterri
ahaidebatza
ahaikobatza
ahalegar
ahalehor
ahalkebelar
ahalurrin
aharkela
aheri
aiore
aitasaba
aiterri
aizkorol
aiztaga
aiztamakil(a)
aiztxori
akeitetxe
akelarre
al(h)orlan
alesagar
allizar
almandrorratz
amasaba
amazulo
amuarrain
antzoki
apobelatz
arabazozo
arditxakur
argimutil
argindar
argiontzi
argizaiol
argizulo
armarri
arranuntzi
arraununtzi
arrautzopil
arropadenda
artaburu
artatxori
artelan
artile
artizar
artzanor
asteazken
asteburu
astelehen
astojoko
astopotro
astotzara
astrountzi
ataburu
ataga
atalburu
atauztarri
aterpetxe
atsotitz
atzazal
auzalan
auzapez
auzerri
auzetxe
auzimahai
azaburu
azalili
azalmintz
azalore
azalprintz
azaro
azeribuztan
azolio
azorri
azosto
azukrontzi
bainuetxe
bainugela
bakalderri
baldernapez
balotzara
banketxe
bankuburu
bankujabe
baresare
baserri
batzargela
batzarleku
batzarretxe
bazkalordu
begikeinu
beginini
begitxindor
behaztopo
bekatxo
bekorotz
bekosko
belaunburu

belaunezur
bepazter (begi-lazter)
bepelar
bepuru
bernazaki
bernezur
bestaegun
bertsopaper
besaburu
besare
besaulki
besuztai
betabere
betagin
betazal
beteri
betile
betortz
betsein
betxindor
betzinta
betzulo
bidagiro
bidagurutze
bidaro
bidelapar
bidesari
bideseinale
bidezulo
bihozmin
birikeri
bitxilore
bizarmakina
bizarrontzi
bizkarfesta
bizkarrezur
bolajoko
bolaluma
bolatoki
botontzulo
burdinaga
burdinbide
burdinola
burdinsare
burduntzali (burruntzali)
burezur
burmuin
buruil
burulan
burumuin
buruorratz
buruzapi
dailarri (dailu-harri)
deiadar
demaleku
dirukutxa
dirulaguntza
diruzorro
dolumin(ak)
dorretxe
dukerri
eguargi
egunsari
egurrikatz
elizate
elizbarruti
elizgizon
emasabel
epaimahai
epemuga
eraztun
erbinude (?)
erlaburdina
erlamando
eroetxe
erpuru
errepide (erregebide)
errotarri
errukietxe
eskorta
eskuare
eskuargi
eskubahe
eskubaloi
eskubide
eskuburdinak
eskudiru
eskuizkribu
eskularru
eskuleku
eskuliburu
eskuoihal
eskupilota
eskusoinu
eskuzatar
eskuziri
eskuzorro
esnarri
esnebehi
esparru
espetxe
etxebizitza
etxegizon
etxeparte
etxezulo
eurijasa
eurikapusai
eurizaparrada
eurizirin
ezpatabelar
ezpatadantza
ezpatarrain
ferratoki
frogarri
fruitadenda
fruitontzi
gakorratz
galbihi
galburu
galeper
garagardo
garagarril
garezur
garropil
gatzarri
gatzobi
gatzontzi
gauaro
gaubeila
gaueskola
gautxori
gaztangazur
gazur
giltzarrapo
giltzarri

gizalaba
gizalege
gizaseme
gorputzadar
gorputzenbor
gutunazal
gutunontzi
habailarri
hagintopo
haitzulo
haizebelats
haizegeriza
haizeleku
haizerrota
hankezur
harlauza
harlosa
harmaila
harmailu
harmarri
harmora
harraska
harrerauntsi
harresi
harriabar
harrikatz
harrikoskor
harrimuga
harrobi
harrolio
hartxintxor
hartzulo
hatzazal
haurmin
haurseme
haurtzaro
haurzapi
hautsontzi
hazil
hegoburu
herribaso
herrigizon
herrimin
hezueri
hezurmin
hilarri
hilerri
hilkutxa
hilobi
hilzori
hiriburu
hodeiertz
hormairudi
hormegal
hormoin
hortzeskubila
huntzorri
ibaiadar
ibairro
ibaiertz
ibarjaun
ikaztobi
ilargi
ilemotots
ingurugiro
intsentsontzi
intxaursaltsa
iparburu
iparrizar
iparrorratz
ipurmami
ipurmasail
ipurtoihal
ipurtxuntxur
ipurtzapi
ipurtzulo
irail
irasagar
irratsaio
iteuli
itsasadar
itsasapo
itsasaingira
itsasantzara
itsasbarraskilo
itsasbazter
itsasbelar
itsasegi
itsasertz
itsasgizon
itsasgolko
itsasizar
itsaslapur
itsasneska
itsasontzi
itsastxakur
itsastxori
itsasuntzi
iturbegi
iturburu
izenburu
iztermami
izterrezur
izurde
jaiegun
jantzidenda
jaurerri
jauretxe
kafeontzi
kakapirri
kaleargi
kalejira
kanpandorre
karaitz
kareharri
karobi
kartajoko
kartazal
kaskezur
katemaila
katenbegi
kisuharri
kontsuletxe
kortaits
kukusagar
kutxontzi
landetxe
lanegun
laneremu
langela
lanordu
lanpostu
lansari
lantoki
larruazal

larrudenda
latorri
leihosare
lepamin
lepauztai
lepaxerlo
liburudenda
lokuluxka
loradenda
lorail
lorejoko
lorontzi
lurburu
lurjabe
lurmutur
lurrazal
lurzati
mahaiburu
mahainguru
mahaizapi
mahuburu
mandeuli
masailezur
matelezur
matrailagin
matrailezur
meazulo
mendate
mendemuga
mendiarro
mendilerro
menditontor
metalur
mihiarrain
moldelan
mugaegun
mugarri
mukizapi
musikatresna
musugitarra
musuzapi
mutildantza
negarrezti
neskadantza
odoloste
ogibide
oholesi
oihaldenda
oilarbuztan
oinarri
oinatz
oinetxe
oinzola
oliobolio
oliontzi
orburu
orratzontzi
ortzadar
ostadar
ostargi
otabar
otarrain
otordu
otsail
otsalar
otserri
ozpinontzi
pagauso
paperontzi
pasmobelar
patsardo
petroliountzi
pilotajoko
pilotaleku
pinaburu
piperrauts
pixoihal
pixontzi
postetxe
postontzi
potrazal
printzerri
probarri
putaseme
putetxe
sabelmin
sabelzorri
sagardo
sagutxori
sailburu
sarebegi
saskibaloi
sastabar
satandere
sator
saturde
segarri
sehaska
sekulabelar
sendabelar
seniparte
soinadar
soinburu
sokamutur
sorginorratz
suargi
sudurmintz
sudurzapi
sudurzulo
sugarri
suharri
sukalde
sukarri
sumendi
sumin
supazter
sutargi
sutopil
suziri
tabakontzi
takorri
testuinguru
tintontzi
titiburu
trasteleku
tuparri
txakurramets
txakurreztul
txalburu
txerrikorta
txibierro
txilinlore
tximistarri
tximistorratz
txirikorda

txitxiburduntzi
txizatoki
txizoihal
txizontzi
txorigorotz
txoripitto
txuringodol
ubide
udalbarruti
udalbatza
udaleku
udalerri
udaletxe
udazken
ugabere
ugazaba
ugazaita
ugazalaba
ugazama
uhaga
uhandre
uhasari
uhaska
uhaza
uhobi
uholde
umetoki
umezaro
umontzi
urahi
urbegi
urdaileri
urezpata
urkamendi
urmin
uroilo
urrebotoi
urretxori
urteburu
urtegi
urtemuga
urtoki
urtxakur
uztail
uztamakina
uztaro
zaharretxe
zahartzaro
zainbelar
zakarrontzi
zakurreztul
zaldiarrain
zaldibuztan
zamabere
zamauntzi
zangabizkar
zangosagar
zangotraba
zangozola
zangozorro
zapaerdera
zapatadenda
zaramontzi
zerrauts
zerritoki
zezenplaza
zinetoki
zintarri
zintzurmin
zintzurreste
zokozorri
zopontzi
zoroetxe
zotzontzi
zurzizel

HITZ ELKARTUEN IDAZKERA

Saila	Azpisaila	Osakera	Lotuta	Marratxoz	Bereiz	Adibideak	Oharrak
Menpekotasunezkoak	Izenak	izen + izen		•		paper-fabrika	-a galtzen dutenak, forma bereziko mugatzailedunak: bereiz. Ik. 1.1.1, 1.1.2 eta 1.1.3
		leku-denborazkoak + izen	•			aitzinsolas	Ik. 1.1.1
		hiponimo + hiperonimo "subsumptive compounds" sasi- / basa- / asta- + izen	 •	•		pinu-arbola sasimaisu	Ik. 1.1.1 Ik. 1.1.1
		izen + -kume / -aldi / -bide	•			txorikume	Ik. 1.1.1
		aditzoin + izen	•			jarleku	Ik. 1.1.4
		partizipio + izen		•		aspertu-itxura	Ik. 1.1.5
	Aditzak	izen + egin / eragin / eman / hartu			•	zin egin min hartu	Ik. 1.2.1 aditzoin + erazi, ik. *Euskera*, XVI, 1971, 143-159
		izen + aditzoin	•			itxuraldatu	Ik. 1.2.2
	Izenondoak	izen / izenondo / aditzoin + zale	•			gozozale mendizale janzale	Ik. 1.3.1
		aditzoin + izenondo	•			edanerraz	Ik. 1.3.1
		partizipio + berri / zahar			•	bilatu berri	Ik. 1.3.2
	Sintetikoak	izen + izenendo + + -tzaile / -le / -ari / -ki / -garri / -t(z)e / -keta / -pen / -kuntza		•		urre-bilatzaile irrati-entzule zerga-bilketa poz-agerpen	Ik. 1.4
Bahuvrîhiak		izen + izenondo		•		zango-luze	Ik. 2
Dvandvak				•		senar-emazteak joan-etorri	Ik. 3
Aposizioak					•	Oiz mendia X izpiak	Ik. 4
Koordinaziozko eta atribuziozkoak					•	Jainko Aita garabi kamioi etxe orratz	Ik. 5
Amredita errepikatuak				•		poliki-poliki busti-busti	Lehen osagaiak deklinabide-atzizkia duenean, bereiz: etxez etxe. Ik. 6
Hitz-andana ihartuak		izen + izenondo	•			udaberri	Guztiz ihartuak lotuta; ikus berariazko zerrenda. Ik. 7
		erdaratik kalkaturiko izen + izenondo multzoak			•	Aita Santu Gurutze Gorria gerra hotza	
		izenlagun + izen edo izen + izenlagun			•	Gernik. arbola Eustak. tronpa Ama Doloretak.	

EUSKALTZAINDIAREN
LEF BATZORDEA

HITZ ELKARTUEN
IDAZKERARI BURUZKO
GALDEKETA

ERANTZULEAREN DATUAK _____

ERAKUNDEA: _____
DEITURAK: _____ IZENA: _____
HELBIDEA: _____
POSTA-KODEA: _____ HERRIA: _____
HERRIALDEA: _____
TELEFONOA: _____ TELEFAXA: _____

GALDEKETA

Euskaltzaindiak 1971n hitz elkartuen idazkeraz eskainitako arauez

1. Ezagutzen al dituzu Euskaltzaindiak 1971n hitz elkartuen idazkeraz eskainitako "Idatz Arauak"?

   ONGI ☐
   HANDIKA ☐
   EZ ☐

   BESTERIK: .....
   .....

2. Zer moduzkoak iruditzen zaizkizu arauok formulazioaren aldetik?

   GUZTIZ ARGIAK DIRA ☐
   ZENBAIT GAUZA EZ DA ZEHARO ULERTZEN ☐
   GUZTIZ ILUNAK DIRA ☐

   BESTERIK: .....
   .....

3. Betetzen al dituzu zeure izkribuetan?

   BAI, BETI: ☐
   BETI EZ: ☐
   EZ DITUT KONTUTAN HARTZEN: ☐

   Zergatik? .....
   .....

EUSKALTZAINDIAREN LEF BATZORDEA

HITZ ELKARTUEN IDAZKERARI BURUZKO GALDEKETA

Erantzulearen ohiturak _____

4. Nola idazten dituzu zeuk hitz elkartuen osagaiak? Esaiguzu adibide hauetan zein idazkera erabiliko zenukeen. Lerro bakoitzean aukera bakarra egin ezazu mesedez. Aukeratu beharrak gustora uzten ez bazaitu, behealdean dituzun lerroetan idatz ditzakezu nahi dituzun oharrak.

ogi puska ☐	ogi-puska ☐	ogipuska ☐
programazio ikastaro ☐	programazio-ikastaro ☐	programazioikastaro ☐
arkume izter ☐	arkume-izter ☐	arkumeizter ☐
paper fabrika ☐	paper-fabrika ☐	paperfabrika ☐
idaz makina ☐	idaz-makina ☐	idazmakina ☐
irakur zaletasun ☐	irakur-zaletasun ☐	irakur(t)zaletasun ☐
eguraldi aldaketa ☐	eguraldi-aldaketa ☐	eguraldialdaketa ☐
su itzalgailu ☐	su-itzalgailu ☐	suitzalgailu ☐
(gizon) sudur okerra ☐	(gizon) sudur-okerra ☐	(gizon) sudurrokerra ☐
seme alabak ☐	seme-alabak ☐	semealabak ☐
baldar baldarra ☐	baldar-baldarra ☐	baldarbaldarra ☐

OHARRAK: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

EUSKALTZAINDIAREN
LEF BATZORDEA

HITZ ELKARTUEN
IDAZKERARI BURUZKO
GALDEKETA

Erantzulearen erizpideak

5. Hitz elkartuak idazteko duzun jokabidea zein motatako erizpidetan oinarritzen da?

Hitz elkartuaren eraketa, h.d. osagaien eta hitz elkartuaren kategoria gramatikalak, osagaien arteko erlazioa, junturan gertatzen diren soinu-topaketak, etab. izaten ditut gogoan ☐

Testuinguruak eskatzen duenaren arabera jokatzen dut. Ulergarritasuna bilatzen dut batez ere. ☐

Batez ere erizpide estetikoak ditut gogoan ☐

Ez dut erizpiderik ☐

BESTERIK .....

Irakurlearen ikuspegia

6. Irakurtzean, zein idazkera duzu atseginago edo/eta ulergarriago?

Osagaien arteko batasuna agerian jartzen dizuna (erabat loturik edo marratxoz) ☐

Iharketa-seinalerik gabea (bereiz) ☐

ZERGATIK? .....

.....

Arau berri baten beharraz

7. Euskaltzaindiak hitz elkartuen idazkeraz arau bat kaleratzea zer izango litzateke zure ustez?

OSO BEHARREZKOA ☐
KOMENIGARRIA ☐
ALFERRIKAKOA ☐
KALTEGARRIA ☐

ZERGATIK?
.....
.....
.....

EUSKALTZAINDIAREN LEF BATZORDEA

HITZ ELKARTUEN IDAZKERARI BURUZKO GALDEKETA

Arau-proposamen berria oro har

8. LEF batzordeak prestatu duen arau-proposamenari zer derizkiozu oro har?

TEORIA ALDETIK	ERABILERA ALDETIK
SERIOSKI EGINA ☐	IKASI ETA BETE DAITEKEENA ☐
GEHIAGO LANDU BEHARREKOA ☐	KONPLIKATU ETA/EDO ILUNEGIA ☐
EZ DA EGOKIA ☐	ZEHAZTASUN GUTXIKOA ☐

ZERGATIK? .....

.....

Arau-proposamen berria puntuz puntu

9. Arau-proposamen berrian hitz elkartuen tipologia baten araberako idazkera planteatzen da. Kasu bakoitzean zuk hobetsiko zenukeen idazkera proposamenekoarekin bat ez baletor, adieraz ezazu zein den zure aukera. Arau-proposamenarekin ados zauden kasuetan ez duzu ezer adierazi beharrik

Hitz elkartuaren tipoa	Adibideak, arau-proposamenaren arabera idatziak	Zure proposamena
1. Menpekotasunezkoak 1.1. izenak		
1.1.1 izen + izen modukoak	hiri-gas, lur-pila, ogi-puska, izen-zerrenda, liburu-azoka, txirrindularitza-federazio	**bereiz** ☐ **lotuta** ☐
1.1.2 forma bereziko mugatzailea dutenak	giza odol, euskal hitz, itsas lege, erret dekretu	**marraz** ☐ **lotuta** ☐
1.1.3 -a organikodun mugatzailea dutenak	eliz dorre, anai maitasun, filosofi liburu, hizkuntz politika	**marraz** ☐ **lotuta** ☐
1.1.4 aditzoin + ezin modukoak	aldagela, ikasmaterial, erabileremu, irakasmetodo	**bereiz** ☐ **marraz** ☐
1.1.5 partizipio + izen modukoak	nekatu itxura, jorratu premia, gaztetu gogo, harrapatu arrisku	**marraz** ☐ **lotuta** ☐

Hitz elkartuaren tipoa	Adibideak, arau-proposamenaren arabera idatziak	Zure proposamena
1.2 aditzak 1.2.1 izen + (egin, eman, eragin, hartu) 1.2.2 izen + beste aditzak	 hitz egin, min eman, barre eragin, lur hartu itxuraldatu, hostoberritu, odolustu	 marraz ☐ lotuta ☐ bereiz ☐ marraz ☐
1.3 izenondoak 1.3.1 aditzoina + izenondoa modukoak 1.3.2 partizipioa + berri, zahar	 ikaserraz, samurbera, transformagaitz etorri berri, jan zahar	 bereiz ☐ marraz ☐ marraz ☐ lotuta ☐
1.4. sintetikoak	telebista-konpontzaile, kamioi-gidari, (istorio) irri-eragingarri, odol-isurtze,	bereiz ☐ lotuta ☐
2. Bahuvrîhi edo exozentrikoak	(arkatz) punta-zorrotz, (txakur) isats-luze, (erreminta) kirten-zuzen	bereiz ☐ lotuta ☐
3. Dvandva edo kopulatiboak	izeba-osabak, joan-etorria, gazi-geza	bereiz ☐ lotuta ☐
4. Aposizioak	D eredua SECAM sistema Beotibar frontoia	marraz ☐ lotuta ☐
5. Koordinaziozko edo atribuziozkoak	abioi inude Ama Birjina Jainko Haurra	marraz ☐ lotuta ☐
6. Amredita errepikatuak	geldi-geldi gorri-gorri pixkanan-pixkanan	bereiz ☐ lotuta ☐

OHARRAK: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

4.5. **Erantzun libreak**

I. ERASKINA

I. ERANSKINA: ERANTZUN LIBREAK

1. Euskaltzaindiak 1971n emandako arauen ezagutza

Euskaltzaindiak ez du inoiz jakin bere erabakiak egoki hedatzen: erabaki berri bat hartzekotan alderdi hau (baita lehengo erabaki guztiei begira) orain arte baino hobeto zaindu beharra dago.

Une honetako hizkuntz mailaren beharrizanek, zeharo gainditzen dituzte Arau horiek eta ez dut gogoan zehatz-mehatz zeintzuk diren Euskaltzaindiak soilki onartuak. Nik zabalago erabiltzen dut gaia. 1980tik aurrera argitaratutako lanak jarraituz, baina Euskaltzaindiarenak bete eta gaindituz.

EBEDEn azaldutakoez aparte ez dut gogoan besterik.

1971n Euskaltzaindiak eskainiak ez; zenbait gramatiketan kontsultatu dut.

Behin eta berriro irakurri izan ditut neure lanerako behar-beharrezkoak direlako.

Ez dakit originala nolakoa den. Nik Hezkuntza Sailak Euskaltzaindiaren erabakiekin emandako liburuaren bidez bakarrik ezagutzen ditut.

Urte haietan aski urrun nindagoen Euskaltzaindiaren lanetatik.

Ez dut zuzenean *Euskera* aldizkaritik ezagutzen, bestelako zabalpideetatik baizik, hala nola Jaurlaritzaren Glotodidaktika lanak eta.

Testu originala ez. Villasantek, Hezkuntza Sailak eta Salaburuk egindako berridazketak ezagutzen ditut.

UZEIn erabiltzen ditugunak.

Garai batean ongi ezagutzen nituen.

1971ko Arauak batez ere Aita Berriatuaren lankidetzaz egin ziren.

Zerbait han-hemen entzunda eta ikasita, ez 1971ko "Idatz Arauak" aztertuta.

Ez dira nahikoak gaur eguneko premiei erantzuteko.

Batzuk, hala ere, behin eta berriz begiratu behar izaten ditut. ERAZInena, esate baterako.

Ez dira gaurko beharrek daramaten kasuistikari erantzuteko nahiko.

Era zeiharkan bai.

UZEIn haiek kontutan hartuta hartu zirenak jarraitzen ditut.

Ezagutzen ditut, baiña irakurleek erraz ulertzeko, ez da biderik egokiena.

Ezagutu nituen, praktikatu, ahantzi, praktikatu eta segi.

Aazturik neuzkan.

Ez ditut ezagutzen Euskaltzaindiaren idatz-araurik, mementu hauietan exilion bait nengoen. Hala ere nik ez dut onhartzen nehork ere jakintzazko questioneetan emanikako "ordeno-y-mando" araurik. Aitzitik pozik entzuten ditut aholkuak eta irakurtzen.

2. 1971n Euskaltzaindiak emandako arauen argitasuna.

"Bestela elkartea denentz garbi ez denean" marratxoa erabiltzeko gomendatzen du Euskaltzaindiak. Kasu horiek oso gutxitan gertatzen dira eta testuinguruak argitzen du esanahia. Euskaltzaindiak "bilera-agiria/bilera agiria", "haur-saltzailea" bezalako adibideak esaldietatik kanpo, testuingururik gabe ematen ditu eta nahasgarri izan daitezkeela dirudi baina praktikan ez dut uste hala gertatzen denik.

(Guztiz argiak dira) Baina ez dira kasu guztiak aipatzen.

"Pertsona edo toki izen propioetan" (marratxoaz). "Arrotzak, ezezagunak edo guti ezagunak" zehaztu behar da/ d) puntuko "tu-" eta "-ber", "-tu" eta "ber-" jarri behar dira / V.1.d)-n adibide batzuk gaizki daude.

Kasu beharrezkoenetan bakarrik erabili behar dela marratxoa dio. Baina zehazterakoan ez da erraza mugatzea.

Orokorregiak eta eskasegiak dira. Hasierako lerro nagusiak baino ez dira nahiz eta nire ustez esana ongi esana egon. Hau dela eta berrirakurri ditut eta gaurko beharrizanei ez diete erantzuten.

Ez ditut ezagutzen.

Argiak bai, 3.1.1. atalean ñabardura askotxo.

(Guztiz argiak dira) Hori uste dut, behintzat, nahiz eta praktikan multzo batzuk idaztean dudak sortu.

Zenbait puntu ez da zehazten, behintzat, praktikak erakutsi digunez.

Normatiba konplikatu samarra da.

ERAZI eta ARAZI noiz idatzi behar diren bereiz edo loturik entenditzeko modurik ez dago.

Ez naiz ongi gogoratzen. Praktikan nahiko txukun erabiltzen ditudala uste dut, hala ere.

Arau hauez gain gehiagoren premia dago.

Handi-handikako arauak dira; lan zehatz eta sakonagoa behar da; erizpide orokorra ona da.

Argiak bai, baina ez dute kasuistika osoa jasotzen.

"Anbiguotasuna garbitzeko" aukera, zabalegia da.

Menturaz beste arau batzu ez bezala aski ilunak zirelakotz.

Arauak osatu beharko lirateke.

Arau gehiagoren premia dago.

'Aski argiak' litzateke nire erantzun zehatza.

Oso konplikatuak iruditzen zaizkit ERAZI/ARAZIri buruzkoak.

Ez dute erabaki garbirik ematen; ilun gelditzen bada orduan marra, bestela utzi daiteke gabe. Hori ez da ezer. Arrazoiak hizkuntzaz kanpokoak dira.

Aplikatzerakoan ordea, arazoak agertzen dira. Orokorregiak dira.

Marra noiz den beharrezko erabakitzea idazlearen esku geratzen da.

Marratxoa, "kasurik beharrezkoenetarako utz bedi": hor erlatibotasuna, jakina. Norentzat beharrezko?.

Bide orokorrak markatzen ditu, baina orohar galdu egiten dela uste dut.

"Luze", "labur"... oso kontzeptu anbiguoak dira.

Are gehiago, nahikoa kontraesanak daudela uste dut.

Nere ustez ez dira arau formalak.

Zehatzago izan zitekeen batzutan.

Argiak deritzaizkit.

Elkarren kontrako irizpideak erabiltzen dira: adib. sozializarazi eta sozializa erazi proposatzen dira (158. or.).

Zabalegiak dira eta hutsune nabarmenak dituzte.

Nahikoa argiak dira (izan ditudan zailtasunak nire ezjakintasunaren ondorio dira gehien bat).

Argiak dira.

Argiak badira ere, murriztuegiak dira eta ez diete konponbiderik ematen kasu guztiei.

Argiak direla iruditu arren, goi mailako idazleen jarrera desberdinek despistatzen naute.

Ulertzen badira ere korapilotsu xamarrak dira.

Gaurkotu behar dira.

Formulazioa ulertu egiten da: bakarrik, formulazioa bera da txarra.

Irakurleentzat zaildu egiten du ulertzea, argitzeko eta errazteko ordez.

Dena den, ezingo duzue hau askoz gehiago hobetu. Utz dena horrelaxe, eta irtenbide sozial praktikoak eskaini.

Oso argiak dira ba-, baldin-, omen, ote, ez eta antzekoei dagozkienak. Hitz elkartuenak ez.

Arau batzu ongi daude, beste batzu ez. Gaiñera irartze-makur batzuk badira; e.b.: 153 ayekan: "tu- atzizkia" eta "-ber aurrizkia".

3. **Betetzen al dituzu 1971n Euskaltzaindiak emandako arauak. Zergatik?.**

Bai, beti. Arauak, definizioz, betetzeko direlako.

Bai, beti. Ulertzen eta gogoratzen errazak direlako.

Ez ditut aintzakotzat hartzen. Arauak argia behar du izan bete ahal izateko, eta arau horiek guztiz ilunak dira.

Beti ez ditut betetzen. Batzutan, beste modu batez idaztea egokiagoa deritzaidalako (ikusi du eta, – ikusi du-ta).

Beti ez ditut betetzen. Nire eguneroko lanean han esandakoak jarraituz gero zenbait gauzatsuk ulertezailak izango liratekelako, edo gutxienez irakurtezinak.

Beti ez ditut betetzen. Behar bezain garaiz ezagutu ez ditudalako eta marratxozaleen eragin indarragatik.

Beti ez ditut betetzen. Kasu beharrezkoenetan bakarrik erabili behar dela marratxoa dio. Baina zehazterakoan ez da erraza mugatzea. Aurreko puntuarekin lotuz: batera ala bereizita idazteko lexikalizazio maila, edo hitz elkartea dela noiz ez den garbi agertzen zehaztea, ez da gauza erraza.

Beti ez ditut betetzen. Zehaztasunaren arabera: zenbat eta zehatzago orduan eta betetzearen aldekoago.

Beti ez ditut betetzen. Beste arau-multzo zorrotzagoarekin jokatu dudalako.

Beti ez ditut betetzen. Saiatzen naiz. Hala ere marra erabiltzen dut zenbait lotura argiago utzi nahi dudanean.

Bai, beti. Nik printzipioz Euskaltzaindiaren erabakiak bete behar direlako betetzen ditut. Erabaki gehienak oso ondo hartuak ikusten ditut. Noizpehinka bakarren bat oso ona edo erraza ez dena eta tartean arraro samar batzuk (agian bitxiak). Inoiz edo behin bete ez bad(it)ut hanka sartu dudalako izan da. Ezagutzen ditudan heinean zeharo betetzen ditut eta oso desatsegina eta mingarria gertatzen zait beste batzuk (Euskaltzain batzuk barne) ez dituztela betetzen egiaztatzea.

Beti ez. Gehienetan utzikeriaz. Bestetik, orohar idazkietan arau horiek sarri ez betetzeak ere ez dit mesederik egiten.

Ahal dudan neurrian bai.

Beti ez. Gehienetan beste norbaitek irakurri beharko dituen gauzak idazten ditut (jende aurrean irakurtzekoak alegia) eta sarritan zenbat eta marratxo gehiago, orduan eta errezagoa irakurtzeko.

Beti ez. Saiatu bai, zalantzak ordea arau finkoengatik.

Beti ez. Inoiz edo behin, kontsulta ez egitearren, errezera. Beste batzutan berriz neure erara eginda gustorago geratzen naizelako. Testuinguruan adierazpidez garbiago nabilelako edo.

Bai, beti. Egokiak direlakoan.

Bai, beti. Euskaltzaindiaren araua delako.

Beti ez. Ez naizelako beti ondo oroitzen.

Beti ez. Zenbait alditan Euskaltzaindiaren Idazkera-proposamenen berri izan ez dudalako ez eta non kontsultatu ere jakin izan ez dudalako, baina hori nire errua da.

Beti ez. Ez daudelako beti garbi.

Bai, beti. Argiak direnean beti. Erazi/arazi arazo horretan logika bati segitzen saiatzen gara. Euskaltzaindiak emandako arauak oinarri-oinarrizkoak dira, eta denok bete beharrekoak.

Beti ez. Beti ez baitira argiak.

Bai, beti. Batasunaren izenean edo.

Beti ez. Ulertzen ez ditudalako batzuk, oso ados ez naguelako besteak.

Beti ez. UZEIk harturiko erizpideak daude tartean.

Beti ez. Arauak argiak izanagatik eta oro har betearren, zenbaitetan zalantzak sortzen dira, aplikazio-mailan. Beste erakundeen joerak kontutan hartuz, geureak ere finkatuak ditu bere arauak, eta hauek betetzen ditut. Puntu asko ez daude argi, hala ere.

Bai, beti. Hala uste dut behinik-behin, zalantza-salbuespenak salbuespen.

Beti ez. "Izena-izena" motako elkarketan, adibidez, ipini egiten dugu marratxoa, nahiz eta marratxorik jarri gabe ere hitz-elkarketa dela garbi egon.

Beti ez. UZEIk emandako arauak betetzen ditudalako eta ez datoz guztiz bat.

Beti ez. Zalantzazkorik dezente da.

Beti ez. Argiagoak eta garbiagoak iruditzen zaizkidalako UZEI, Elhuyar etabarren arauak.

Ez ditut kontutan hartzen. Beste norma gehienak bai, hauek ez dakit ez dut uste kontutan hartzen ditudala, zehazki bederen.

"Izena-izena" direnak marraz idazten ditut.

Beti ez. Izena + Izena erako elkarketa menpekotasunezkoa denean, marraz idazten dut, nahiz anbiguitaterik egon ez. Osagaien arteko batasuna agerian jartzea da arrazoia.

Beti ez. Izena-izena modukoetan marratxoa ipintzen dut beti.

Ez ditut kontutan hartzen. Garai baten modagatik neurri baten betetzen nituen, baina orain uste dut gidoia ipintzea beharrezkoa dela orokorki.

Beti ez. "Izena + izena" motatako elkarketetan ere marratxoa erabiltzen dugu.

Beti ez. Irakurriak ditut, behin baino gehiagotan, baina ez dakit kasu guztietan ongi betetzen ditudan.

Bai, beti. Hain zuzen ere, arau direlako.

Bai, beti. Euskaltzaindiari zor zaion begiruneagatik.

Beti ez. Ez didate balio. Ez zaio hizkuntzaren joerari segitzen. Hitzen mugak garbi definitu behar dira. Hitz egitekoan garbi dago hitza noraino ailegatzen den, idaztekoan zergatik ez.

Beti ez. Izen + izen motakoak marratxoz idazten ditut, UZEI, ELHUYAR, UEU eta beste hainbat tokitan egiten den bezala.

Beti ez. Alor hau nahiko nahasia gertatzen zaigulako eta bakoitzak geure gustoen arabera jokatzen dugulako askotan.

Beti ez:

– Etnografian nekez erabil ditezkelako.

– Irakurle bakunak gogoan edukiz.

– Batzutan nere zabarkeriaz edota lana lasterregi eginaz ohitura txarrak azalgaintzen baitzazkit.

Beti ez. Marra ez dut erabiltzen "ahalik eta gutxien", erizpide jakin batzuen arabera baizik.

Beti ez. "Doi-doi" eta horrelakoetan askotan ahaztu egiten dudalako (gorri-gorri, xuri-xuri, e.a.).

Bai, beti. Diziplinaz.

Beti ez. Atzeratuta geratu dira, batez ere administrazio mailan eman diren aurrerapenak kontutan hartuz.

Ez ditut kontutan hartzen. Neure erizpideen arabera jokatzen dudalako, ez bait naute betetzen ez horiek ez beste askoren erabilerak ere.

Orain ez ditut berariaz kontutan hartzen, baina bide horretatik segitzen dudala uste dut.

Ikasitakoak betetzen saiatzen naiz, baina batzuetan intuizioari ere bidea libre uzten diot.

Beti ez. Gutxi gora behera ezagutzen ditudalako.

Beti ez. Formari buruzko arazoetan zabar samarrak izateko ohitura eduki ian dugu euskaraz.

Beti ez. Erizpide zehatzik eta garbirik ikusten ez dudalako.

Ez ditut kontutan hartzen. UZEIko erizpideak hartzen ditut kontutan.

Beti ez. Idazlearen apreziazio subjektiboan oinarritzen direlako.

Beti ez. Ez ditudalako zehatz ezagutzen. Bestela ere, inoiz bete ezinak gertatzen dira.

Ez ditut kontutan hartzen. Ez dudalako ikusten jendeak aplikatzen dituela eta batzutan nola aplikatu ere ez nuke jakingo.

Beti ez. Absurduak direlako askotan. Hala ere, saiatzen naiz.

Ez ditut kontutan hartzen. Aspalditik ezagutu eta jarraitzen ditudalako UZEIren aholkuak, haiek baino zehatzagoak, eta hemengo proposamen antzekoak nere ustez.

Bai, beti. Erabakita dagoena edo behintzat gomendaturikoa betetzekoa dela uste dudalako.

Beti ez. Sorkuntza literario motako lan gutxi idazten dut. Ulergarritasuna erreztutzeko, nere iritziz.

Beti ez. Auskalo.

Beti ez. Ez nuke jakingo "Bai, beti" edo "Beti ez" erantzuten, araua bera ez delako oso araugilea: "euskera idatzia gehiegi zama ez dezagun. Kasu beharrezkoenetan bakarrik jarri behar da" zion.

Beti ez. Zeharo ulertzen ez dudana, beti ezin bete.

Beti ez. Logikoak iuditzen ez zizkidalako: ba- (=bai) /ba- (baldintzazkoa); lehengoa ez-en parekoa baita, eta berau bereiz doa.

Bai, beti. Saiatzen naiz, behintzat. Beti asmatzen ote dudan ez dakit.

Ia beti bainan ez X fonema kasuan (explikapen, textu, etabar). Bainan araura makurtzekotan naiz.

Bestelako kontsiderazio guztien gainetik, guztiak berdin idatzi beharra.

Beti ez. Esate baterako, hitzegin eta elkarrizketa idazteko joera dut.

Beti ez:

1) Beti gogoan ez ditudalako.

2) Lotuta ematearen alde Euskaltzaindia baino areago naizelako.

Beti ez. Ez ditudalako zehatz ezagutzen.

Beti ez. Gogor samarra bait da zenbaitetan, lehendik zabaldurik dauden bestelako erizpide batzuren aurka aritzea.

Beti ez. Sarasolak, LEF-ek, e.a. urraturiko bidetik joatea, oro har, egokiago iruditzen zaidalako.

Beti ez. Kasu berezi batzutan iñork betetzen ez dituela ematen delako.

Bai, beti. Ezagutzen eta gogoratzen ditudanak.

Beti ez. Handika ezagutzen ditudalako.

Ahal dudan neurrian bai.

Beti ez. Egokiak iruditzen ez zaizkidalako.

Beti ez. Batzutan zalantzak agertzen zaizkit eta ez ditut arauak begiratzen.

Bai, beti. Normaltasunaren bidean erabakiak errespetatzea egokiena dela uste dudalako. Areago, erabaki gehiago existitzea nahi nuke.

Bai, beti. Egunkariaren erizpidea eta Euskaltzaindi(a)koa bat datozelako.

Beti ez. Zenbait ahaztu egiten zaizkidalako.

Ez ditut kontutan hartzen. Ahaztuxeak ditut.

Beti ez. Goian aipatu dudaganatik: gaur modu batean ikusten dudana, bihar bestean. Azkenean ez dakit nondik jo.

Ez ditut kontutan hartzen. Ez ditudalakotz ezagutzen.

Ez ditut kontutan hartzen. Zeudenik ere ez nekielako.

Beti ez. Beti ez dudalako nola erabili seguru izaten eta begiratzeko alperkeriagatik gehienetan.

Beti ez. Presaka aritzen geralako askotan. Hitzegiterakoan ditugun ohiturei jarraitzen diegulako.

Beti ez. Egia esan, sarri askotan intuizioaz baliatzen naiz.

Bai, beti. Normalizazioa norma da, batetik, disziplina bestetik.

Ez ditut kontutan hartzen. Irakurleei ulertzea zaildu egiten dielako.

Beti ez. Osotu erabiltzen dut, eta ez osatu (hau bizkaieraz "curar" delako) BA bereizi egiten dut baiezkoa denean; eta lotu, dudazkoetan.

Bai, beti. Galduta nabilen batean ez bada.

Ezagutu nituen, bai, Euskaltzaindiaren arauok, bere garaian, eta betetzen ere ahalegindu nintzen, ustez, baina oroimenak bere hutsak ditu eta oroipenak ere oroipen gaineko oroipenak izan dira sarritan, eta horregatik, hogei urteren buruan, ezin diot zehatz-mehatz erantzun galdeketaren lehen zati honi. Dena dela, urte hauetan hartutako ohituren arabera idazten dudala esan dezaket, eta zalantzaren bat dudanean, beste norbaiti galdetuta edo senak bultzata: programazio-ikastaro?; eguraldi aldaketa?

Bai, beti. Batipat UZEIn eskolatu naizelako.

Beti ez. Beti gertatzen da despisteren bat. Bestalde, ez naiz marratxo gehiegiren zale.

Bai, beti. Okerrean erortzen ez banaiz.

Beti ez. Mugak zehaztea zaila delako eta inguruko jokaeraren presioarengatik.

Beti ez. Beti goian aipatutakoak, nere ustez, erabat normaldua dago horien erabilera. Lan honetan, hain zuzen, hitz elkartuen arauak geratzen dira nahikoa airean.

Ez ditut kontutan hartzen. Gogoan eztitudalako, eta batzuekin konprome enagoelako. Esate baterako: Orion (izar-mordoa?); obe Orio'n, Aya'n, Donosti'ko, Donosti'ra, Donostia'n, Donostizaarr (io Donosti'ko zezen suzkoa!);.

<eta ohar luzea alboan, eztator, baiukek, eta gisakoez>.

4. **Erantzulearen ohiturei buruzko oharrak.**

a) Nire joerak:.

— Hitzak bat eginerazteko joera dut, oso luzeak ez baldin badira behintzat.

— Elkartzeak oso hitz luzea ematen baldin badu, banandu egiten ditut, bestela hitz alemanen antza hartzen bait dute.

— Gidoiak, ahal den gutxien erabili ohi ditut. Behar-beharrezkoak direnean bakarrik, superlatiboetan beti; hitz elkarketa titulu batetan denean ez dut gidoirik jartzen eta kasu berean testu barruan bai.

— Badakit joera honek subjektibotasun handiegia duela.

Goiko adibideetan neure praktika adierazi dut; halere, zenbait kasutan (hain luzeak ez direnetan) marratxoa ebitatzeko, hitz bakarra egitera joko nuke (1, 3, 4, 5, 8, 9 koadroen kasuetan, adibidez); 10 eta 11 kasuak, dudarik gabe, marratxoaz emango nituzke; beste kasuetan, marratxoa erabiltzearen aldekoa naiz; halere, zenbait kasutan, estetikarengatik, gabe ere ez legoke gaizki: tituluetan, kazetaritzan (lerro laburrak izanik asko ugalduko lirateke marratxoak).

<1, 3, 4, 5, 8, 9, eta 10, 11 eta ditu berak horrela markatu. Erantzunean parentesi artean (1) eta (2) jarria du. Ik. erantzuna>.

Behar bada, "irakur zaletasun" egokiagoa da, bi osagaiak luzeak direlako (bi silaba baino gehiago dituztelako).

1.— "ogipuska" eta "sudurrokerra" modukoak sustrai handiegikoak iruditzen zaizkit habeak jartzeko.

2.— Azken urteotako lexia berezitu zein teknikoan dakusat arazorik handiena.

3.— Oraingoz beharbada ez, baina gerora, lexikalizazio osoa da ene ustez bidea, horregatik fletxatxoak.

<letra oso arraroa da eta badaezpada ikus txostena>.

2. Puntuan: ihartuz gero, programazio-ikastaro (Baina zer da "ihartzea"? Idazlearen esku dago hori erabakitzea; normalean, gauza, ekintza,

idea, aldi... jakin eta konkretu bat "bakar edo bat" gisa sentitzea, bere idatzizko jardunean behin eta berriro azaltzearen poderioz. Hitz asko "ihartuta" jaio da eta irakurleak bere horretan ikasi eta idazteari ekin diezaioke, batzutan hitz elkartua dela ohartu ere egin gabe: su-itzalgailu "extintor" hitzaren ordain gisa).

Egia esan, ez dut erizpide garbirik. Ahal dudan guztian, kontestuz esanahia nahiko ulergarri gertatzen bada behintzat, nahiago dut marratxorik gabe idatzi. Areago oraindik hitz arrunt luze samarrak tartean suertatzen badira. Askoz zalantza gehiago sortzen zaizkit hala ere, idaztean standard-jasoan ari naizenean, esaldi luze korapilotsuetan eta hitz ez oso arruntak erabiliz jardundakoan (goikoetan programazio ikastaro bezalakoak biltzen dituzten testuetan. Hauetan maizago jotzen dut marratxora).

Lerro bakoitzean aukera bakarra egiteko erreguari jaramon egin diot, baina honako hau esan beharrean nago: bateko zein besteko arrazoiak direla eta (gehienetan hizkuntzaz kanpokoak), ezkerreko zein erdiko erabilera moduari ekin diodala.

ogipuska = hostozabalak bezala; bestela "ogi puska".

Batean edo bestean (sudur-okerra, irakurtzaletasun) uste dut nere jokabidea ez dela erabat koherentea izan eta bestelakoak ere idatzi izan ditudala.

Sudur-okerra bezalako kasuetan ez dut hain garbi ikusten marraren beharra beti.

Araudia ezagutzen ez dudanez ez nituzke beti berdin idatziko. Dena den, tradizioa ere kontutan edukitzekoa dela uste dut.

Marra jartzeari askatasun marjen bat utziko nioke, batez ere menpetasunezko elkarteetan. Osagaiak luzeak edo lotura iluna denean ongi ikusten [dut] marra erabiltzea.

Idazmakina lotuta idatzi ohi dut. Ogi-puska horrela idatzi ohi dut, baina onartuko nuke bietako edozein eratara, zalantzazkoa da niretzat. 3 silabaz behetikoa izanik agian lotuta baina beti zalantza sortzen zait. Su-itzalgailu ere bietara onartuko nuke. Nik berezita gehiago idazten dut su hitza bereizteko baina lot liteke. Sudurrokerra ere zalantzazkoa dut baina beharbada lotuta gehiago. Azken finean, LOTURA MODUREN bat behar dute nire ustez. Arazoak mugetan daude: silaba-kopuruetan eta loturako bokal-kontsonanteen legeetan. (1) Irakurzaletasun beharbada errazago sortzen zait baina zalantzazkoa dut hau ere.

Erabilera hau justifikatzeko ez dut gogoeta gramatikal edo morfosintaktikorik egin nere buruarekiko. Nolabaiteko banaketa egin dut.

"izen-izen" elkartetan ez, normalean (Euskaltzaindiak gehiegi ez erabiltzearen aholkua eman zuen...).

Belarrira oso eginak diren elkarketa-kasuetan (ogi puska, kasurako) ez zait iruditzen ez elkartu beharrik ez marraren premiarik dagoenik. Lege orokorrak halere onargarriak iruditzen zaizkit. Ez dakit horrelako salbuespenik egin behar den.

IRAKUR ZALETASUN multzoak deklinatzean marra eskatuko luke kasu batzuetan: "IRAKUR-ZALETASUNAZ hitzegingo dugu"...

Adibideak hola ematea ez da beti fidagarria, testuingurua kontutan hartzen ez baita, hala nola, "paper fabrika" honela idazten badut ere, zenbait kasutan nahasgarri gertatzen bada, marra ipintzen dut.

Hemen, joera gisa, eta begibistako kasuez gain (seme-alabak), gidoirik ez dugu erabiltzen argitasunaren mesedetan izan ezik (su-itzalgailu). Hainbertze hitz elkarketa behar duten testu teknikoak irakurgaitzak gertatzen dira bertzela.

Bi izen elkartzen direnean, gehienetan bereiz idazten ditugu, eta marrarik gabe. Dena den, anbiguedaderik baldin badago marra jartzen dugu: Adibidez:.

– Lan Kontrolatua, baina lan-kontrolatua (pertsona).

– Gizarte Laguntzailea baina gizarte-laguntzailea (pertsona).

– Denda nagusia baina denda-nagusia (pertsona).

Nahiz eta jakin araua lotuta egitekoa dela (Idazmakina), nik askotan ez dut betetzen arau hori. Gero ikusi dut, proposamenean ere badituela salbuespenak lege honek.

Argi ikusten dut hitzok ez direla bereiz eta elkarketa-seinalerik gabe idatzi behar. Guztiz elkarturik ala marratxoz loturik idatzi behar diren ez dut garbi ikusten honako kasu hauetan: ogipuska, suitzalgailu.

"Su-itzalgailu" edo "suitzalgailu"ren kasuan garbi dago "su" hitz laburra dela eta elkartuta (lotuta alegia) hobeto dago gure eritziz. Finkatu egin beharko litzateke, ordea, lotuta emateko lehen elementua (ala bigarrena) laburra noiz den. Bisilaboa denean?.

1) Bereizirik idaztekorik ez dut markatu, baina perpausean argi dagoela eta oker ulertzeko biderik ematen ez duenean, bereizirik idazten ditut. Hitz elkartuak soil-soilik edo perpausaren testuinguruan aurkezteak badu alderik. Inkesta honetan horren hutsunea nabari izan dut.

2) "Sudurroker" loturik markatu dut, zuen proposamenaren kontra. Ez nago ziur, hala ere.

"Sudurluze"ren analogiaz jarri dut, hau horrelaxe somatzen bait dut.

"Irakur zaletasun" eta horrelakoak ebitatzen saiatzen naiz "irakurtzeko zaletasun" etab. eginez. Ezin ebitatu ditudanean zalantzatan ibiltzen naiz. Adibidez, "mintzapraktika" bai, baina gero ezin "irakurrariketa" egin, atrebitzen ez naizelako. Hor ere "irakurtze-ariketak" etab. erabili izan dut Glotodidaktika Hiztegian azaltzen denari jarraituz.

"Su-itzalgailu" ez dudalako inon aurkitu, baina nonbaiten topatuz gero lotuta gustora "su" oso laburra delako.

– Idazmakinaren kasuan, marraz ere idatziko nuke behin baino gehiagotan.

– Irakur-zaletasunaren kasuan ere izan dut zalantzarik.

"Ogipuska" zergatik: laburrak direlako bi osagaiak eta ulergarri geratzen delako.

<*idaz-makina*-ri galde-marka ezarri dio>.

Iduripena daukadalako Euskaltzaindiak gomendatzen digula ahal bezain guti erabiltzea tileta, ikusten dut horrela.

Nere ustez, ahal bezenbat lotura guti eman behar da hitzen artean; bainan bai, erran nahi denaren adierazteko beharrezkoa denean:

– Iduzki argi: soleil lumineux, sol esplendido.

– Iduzki-argi: lumière du soleil, esplendor del sol.

Bestalde, irakurlearen laguntzeko on da, beharrezkoa izanik ere, hitzen arteko lotura ezartzea batzuetan.

<*(gizon) sudurrokerra* adibidean *edo emakume* erantsi du>.

Lehen aldiko gure argitalpenetan (1974-1980), ulergarritasuna erraztu nahirik, asko erabili genuen marratxoa, aukeran gehitxo. Geroztik, 1980tik aurrera, ondo ulertzeko beharrezkoa dela ikusten ez bada, ez dugu erabiltzen, eta gehienbat bereizirik idazten ditugu hitz elkartuak. Baina LEF batzordearen proposamen hau guztiz beharrezkoa eta ondo landua ikusten dut. Prest gaude gu erabaki daitekeena betetzeko.

"Irakur-zaletasun": aditza + izena erako elkarketak lotuta idazten baditut ere, badira soinu-topaketa bereziak direla medio marraz bereizita (nire ustez) egokiago gertatzen direnak.

– Osakaien arteko erlazioagatik: -REN, -ZKO, etabar kasoak daude bananduen artean, banaka forma moztu gelditzen direla.

– Ahal balitz, marrak (-) beti hitz bien dependentzia onartzea.

Argi daude erantzunak.

"Suitzalgailu"ren kasuan lehen hitza laburra delako idazten dugu lotuta.

"Irakur-zaletasun" berriz, "aditz-erro + izen" motakoa izan arren, lotuta idatziz gero oso hitz luzea gertatuko litzatekeenez marraz lotzen dugu.

Azkeneko bi kasuak (seme-alabak eta baldar-baldarrak) erabat diferenteak dira, bai beraien artean eta bai gainontzeko guztiekin konparatuta, nahiz eta idazkeran "-" erabili.

Duda izango nuke: "irakurzale" idatziko nuke, baina gero "irakurzaletasuna" luzeegia iruditzen zait agian.

"Idaz-makina, idazmakina" tipoko hitz konposatuetan bietara idazten dut; aditz-oina laburra eta ezaguna bada marra gabe; eta ezezaguna edo luzea bada marraz banatuta. "Andera-prozesu, ingura-teknikak, ihardun--eremu, inprima-metodo".

"Ogi-puska, ogipuska" egiteko ere ez da erreparo handirik behar. Joera naturala euskaraz dena bat egitea da. Tartean pedagogia dago.

Irakur(t)zaletasun: horrelako elkarketak saihestu egiten ditut gehienetan. "Idazmakina" adibidez lasai-lasai idazten dut, baina 5 silaba baino gehiagoko hitz elkartuak sortu baino ihespideren bat bilatu nahiago izaten dut. Eskuarki aditzoin + izen egitura aditzizen + izen egiturak ordezkatzen du.

Ad.: "elikatze-iturri" "elikaiturri"ren ordez.

Hitza luzeegi bihurtzen ez denean lotuta emateko ohitura; bestelan bereizirik. Marratxoa berriz adierazian lotura handia denean, senar-emazte eta tramankulu, makina, tresnetan.

Testua argitzeko bakarrik erabiltzen dut marratxoa (normalean ez da behar izaten).

Idazmakina / irakur zaletasuna: elkarketaren maiztasunaren arabera egiten dut, eta zalantza handiak ditut hainbat kasutan.

Honelako erabakiak administrazio eta irakaskuntza mailetarako bakarrik hartuko nituzke. Literatura alorrak alkandora zabalagoa beharko luke hitzen jokoak berak ere garrantzia izan dezake eta.

Bereiz idatzita ere erraz uler daitekeenean, zalea naiz horrela idazten, badirudi estetikoki ere testua arindu egiten duela, eta irakurtzeko ere tranbia luzeen itxura hori kendu egiten diozu (suban-empujen-estrujen-bajen = deutschen imitazioa).

Erizpide batzuk:.

a) Marratxoz ez luzeegitu hitza.

b) Bistarako itxura ona eduki dezala (sudurrokerra).

Gure taldean erabili izan ditugun arauak:

1) Hitz bikoa laburra bada, lotuta (itxura atsegina badu).

2) Laburra ez bada, bereizita.

3) Salbu idazki horren irakurlearentzat gehienetan ilun gerta badaiteke; orduan, marratxoz. Lehengo ohitura-moduari jarraitu izan dio batek.

Ogi puska / irakar-zaletasun / su-itzalgailu. Hitz hauek ez ditugu oso garbi.

Orain arte pentsatu izan dut bi izen bata bestearen ondoren azaltzeak berak nahikoa argi erakusten zuela hitz elkartua zela. Irizpide morfologikoa zen. Halere, ohartu naiz irakurketa erraztea ere garrantzitsua dela.

1) Lehenengoa da kezka gehien sortzen didana, hau da, kopuruak hartu behar diren ala ez. Ez daukat erantzun argirik.

2) Bestela, lotu ez ditudan bakarrak ondoko arrazoiengatik izan da: baldar baldarra, osagai berri bat sortzen ez delako; eguraldi-aldaketa: sortzen den izen berriaren bigarren elementua izen askori erants dakiokeen elementua delako.

Zalantza pixkat daukat "su-itzalgailu" hitzaren kasuan, "ui" multzoagatik. "sudurrokerra" hitzarena ez dut oso argi, nahiz eta hitz egiterako azentuazioari begira lotuta hobetsiko nukeen.

<*(gizon) sudurrokerra* – *gizon* azpimarratu du>.

BEREIZ idazten ditudan horietako batzuk inoiz marratxoz ere idazten ditut, testuinguruaren arabera, gauzak argiagotzeko-edo.

BAHUVRIHIAK ere bereiz idatzi izan ditudala uste dut, baina lotuta idaztea ondo ikusten dut, batez ere izena eliptiko gerta daitekeelako: sudur-oker hori – sudur oker hori.

Nik lehen osagaia monosilabikoa denean, maiz, guztizko loturara joko nuke, kasuan kasu (idazmakina, adibidez).

Hauetako batzuek "testuinguraturik" eta deklinaturik egonez gero, marratxoa maizago jarriko nukeela uste dut.

"Sudur-okerra" ere erabiliko nuke.

<idaz makina –> idatz makina>.

Ogipuska: hitz zehatzak hartuta lotuta idaztea aukeratu dut.

Mikel ogipuska bat da; emaidazu ogi puska bat — arkume izter, paper fabrika (?): Maiztasunak eta erabilerak aginduko luke elkartuta idatzi edo ez.

<ogi puska>: Hau bezain ondo ikusiko nuke "ogi-puska" idazkera.

Hitz bakar bat idazten dut luzeegi ez delarik: "suhiltzaile". Sekulan ez dut (-) erabiltzen.

Ez dut, beti, irizpide bera erabiltzen. Asko eta asko, irakurtzeko idazten dut nik, mikrofono aurrerako. Irakurtzerakoan lagungarrien izango zaidan hura aukeratzen saiatzen naiz.

Argi dago ez ditudala marratxoak gogoko. Baina, tira! erabili behar badira erabiliko ditut. Zuek arauak argi jarri, eta kitto!.

Hala ere marratxoak erabiltzeak arazoak ekarriko ditu kazetarientzat: adib: hitz luzeegiak titularretan, hitzen mozketak lerroen amaieran (bi marratxo) eta abar.

Ogi-puska: zalantzak nituzke antzeko beste zenbait kasutan, agian hitz bakarra bihurtzeko...

Itz luzeak eta luzeegiak areago aukeraezak dira. Zubitoak edo marra txiki oyek obe ez erabiltzea: ariñago diralako zubito gabe; zubitoa bearrezkoa ez da; euskal itzak aal ba'da laburragoak obe, irakurtzeko errezago ta baita estetika aldetik ere.

Inoiz erdikoa! ez marratxorik!.

Gutxiegiz baiño geixeagoz utsegin naiago izaten dut. Nere irizpidearen oiñarriak: 1.— Irakurleei ulerketa erraztea, ortarako laguntza ona da, itzak aalik osoen ematea. 2.— Argitasuna, baita begietarako ere: itz bakoitza garbi emanez, eta aldi berean biren elkartasuna - marra-bidez adierazten dala. Geienetan, beraz, elkartuta egokiago, bat-egiñik lotuta baiño.

Ogipuska = bondadoso, ogi-puska = pedazo de pan.

Ezagutu nituen, bai, Euskaltzaindiaren arauok, bere garaian, eta betetzen ere ahalegindu nintzen, ustez, baina oroimenak bere hutsak ditu eta oroipenak ere oroipen gaineko oroipenak izan dira sarritan, eta horregatik, hogei urteren buruan, ezin diot zehatz-mehatz erantzun galdeketaren lehen zati honi. Dena dela, urte hauetan hartutako ohituren arabera idazten dudala esan dezaket, eta zalantzaren bat dudanean, beste norbaiti galdetuta edo senak bultzata.

Programazio-ikastaro?

Eguraldi aldaketa?

Hauetan ere salbuespenak ez dira faltako. Argitasunari begiratu beharko zaio.

Joera aditzera eman dudana izan arren, baliteke noizean behin beste bideren batetik jotzea. Haurrentzat idazten dudanean, oro har, marratxoa gehiago erabiltzen dudalakoan nago.

Kasu batzuetan (irakur zaletasun, eguraldi aldaketa), irakurtzeko zaletasuna, eguraldiaren aldaketa, erabiliko nituzke, askotan behintzat. Bestalde, testuinguruz kanpo daudelarik, erabakia desberdina da. Halakoak sarriegi erabiltzen direlakoan nago; erredakzio arazoa da. Su itzalgailu: ?

Idazkera ahalik eta gehien erraztea izan da, orain arte, erabilitako erizpide bakarra. Aitortzen dut jokabide hori ERRAZKERIA hutsa izan daitekela.

– Idazmakina: marratxoa lokarriaren ordezkoa da, bi izenekin beste izen bat egiteko: lenengoz izen eztanean izendu (izen biurtu) egin bear da. E.b.: idatzi + makina: idazte-makina.

– Irakur(t)zaletasun: "zale"ri buruz: pelotazalea = el aficionado a la pelota; pelota-zalea = la afición a la pelota; pelota-zaletasuna, pelotazaletasuna = pelotazale izatea. Ikus Lhande-Lafite iztegian: -zale eta zale.

– (gizon) sudurrokerra: Gure auzoko goyerriar batek esaten zuana: Gurean bezelakook' banaan-banakook; ankokerrak auzoon. Beraz "banaka--banaka" bezela "banaan-banakoak" eta "ankokerr" loturik: begibakarr, zankoluze, muturrokerr, ezpaiñestu (au Ganutza Lardizal'dar Madalen'i ikasia det: itz gutxiko norbait adirazteko; [poco comunicativo?].

5. **Erantzulearen erizpideei buruzko oharrak.**

<2. lerroa ezabatu du eta horren ordez>. Anbiguotasunak ekiditen saiatzen naiz.

Anbiguotasuna aurrikustean marratxoa edo bestelako ihesbideak erabiltzen ditut.

<1. aukera>. Baina ez naiz inoiz erabat zorrotz izan.

Marratxoz lotutako hitz-elkartua lotu gabekoa baino argiagoa da. Erabat lotzen denean ilun daiteke apur bat. Zalantzakorrena bereiz idatzitakoa da eta irakurtzeko oztopo gertatzen da.

Irakurtzerakoan sumatzen dudan hurbiltasuna. Lehendabizi idatzi, ondoren irakurri, eta gero erabakitzen dut.

Lehenengoa baina eman diren arau edo aurrearauak segitu nahirik.

<Lehenengo>. Biak bateratzen ahalegintzen naiz.

Irakatsi zaizkidan arauetan.

<1. eta 2. puntuetan galde-zeinua jarri du>.

Oro har, lehen erizpidea erabiltzen dut, baina bigarrenaren –ulergarritasunaren– arabera aplikatua askotan.

<*osagaien arteko erlazioa* azpimarratu du>.

<*ulergarritasuna bilatzen dut batez ere* azpimarratu du>.

<Lehenengoa> Ahalegintzen naiz, nahiz eta beti bete ez.

<*ulergarritasuna* markatu du>.

<Lehenengoa> Hain zuzen ere ulergarritasunarentzat beharrezko delako.

<Hirugarrena> Aukeren formulazioak berak bultzatzen du lehenengo bietako batera. Orekaren bila nik kontra, nahiz eta guztiz egia ez izan.

Euskaltzaindiaren + UZEIren erizpideak jarraitzen ditut.

<Lehenengo> Ohar biak izaten ditut kontutan.

Esanahi bakarraren arauera.

Lehenengo arrazoiarekin idazteko Filologo aritua behar duzu izan, eta idazle arrunt eta on ugari izatera jo behar dugu. <2. puntua markatu du>: hemendik ere bai pixka bat.

Lehen eta hirugarren erizpideak ere bai.

1) Ulergarritasuna, irakurle normalarentzat. 2) Estetika.

Gehienbat hortik jotzen dut ulergarritasunari ere garrantzi handia ematen diot. Ulergarri ez denak ez dit balio izaten.

Esan bezala, UZEIkoek egindako proposamenetan.

Elkartzen diren hitzak "objetu" bat, edo osotasunean identifika daitekeen zerbait osatzen duenean begiratzen dut. Zuek "sintetiko" deitu duzuena. Akaso, zabalago hartzen dut.

EUSKALTZAINDIArenak betetzen saiatuta beti ere.

<bigarren adibidean "(?) Batzutan" markatu du>.

Osagaien luze laburtasuna eta elkarketaren marka morfonologikoak. Zer da hemen "estetiko"?.

Irakurketa egokia erraztea dut erizpide nagusi.

Hala ere, ulergarritasunari edo idazkera jakin baten hedapenari ematen diot lehentasuna zenbaitetan.

Nere ustez gehienek duten jokabidea betetzen saiatzen naiz.

<Lehenengoa: "ahal dudan neurrian" gehitu du>.

Ahalik eta marra gutxiena erabiliz.

<ulergarritasuna azpimarratu du>.

Kasuaren arauera.

Prentsa idatzian, txosten honetakoei, izen propioenak gehitu behar zaizkiolako eta marratxoz betetzen direlako artikuluak.

Euskaltzaindiak gomendutako arau garbiak: bigarrena lehenaren oihartzuna, bikotea osatzen dutenean...

<1. eta 3. puntuak ezabatu ditu; 2.ean "ulergarritasuna bilatzen dut batez ere" azpimarratu du>.

Ez daukat inolako erizpide argirik.

Belarriak agintzen dit, batez ere.

<"Ulergarritasun bilatzen..." azpimarratu du>. Arauak bilatzen ditut batez ere: Jakin-en erabili ohi ditugunak (=UZEI) egoki samarrak iruditzen zaizkit. "Erizpide estetikoak" ez dira erizpideak araurik sortzeko: gehienez ere noizpait salbuespena justifikatzeko balio lezake "kontsidero estetikoak". Jeneralean kapritxoen arrazoi disimulatu hutsa izaten da.

Estetika da Izkuntza. Logika ere Izkuntzak berea du, ez Filosofiarena. Izkuntzak giza sikologia ere miazkatzen du.

Ortografia ahal eta errezena bilatzen dut. Ez, otoi, konplikatu herriak ezagutzen ez dituen kontzeptu gramatikal konplikatuekin.

<*junturan gertatzen diren soinu-topaketak izaten ditut gogoan* azpimarratu du>.

Batez ere erizpide... – <honela utzi du:> erizpide estetikoak ere ditut gogoan.

Ulergarritasuna lenengo, baiña euskal-sena jarraituz.

< *Ulergarritasuna...* azpimarratu du>.

Lehenengo eta bigarren laukitxoen artean ez dut nahitaezko hauta-beharrik ikusten: ulergarritasuna + arrazoi gramatikalak.

Lehen aukera horrek ez ditu besteak askotan baztertzen.

Hitzen luzera: Aldagela, bai. Irakasmetodo: ???.

Denak, eta erredakzioa kontutan hartuta.

Aipatutako ERRAZTASUNA ala ERRAZKERIA.

Marratxoa lokarriaren ordez jarri bear dala; lokarririk eztanean' marratxorik ere ez. la casa mayor = etxe nagusia; principal (=amo) de la casa

= etxe-nagusia; Casamayor=Etxenagusia etxeko nagusia; etxearen jabea = etxe-jabea.

Ez dut uste hemen ezein lege fixu dagoenik. Gauza hauk' bethi ere praktikêtik atheratzen diren ohiturak dira.

6. Irakurlearen ikuspegiari buruzko oharrak

Marratxoak esangurak eta hitzen loturak argitzen ditu; baina ugariegi badira nazkatu ere egiten du.

Marra erabiltzeak ez dit irakurketa errazten eta begietarako nekagarria iruditzen zait.

Marratxoak astun samarrak gertatzen zaizkit.

Batzutan, marratxorik gabe ere ulergarri dira; baina beste batzutan ez; beraz, arau objektiboa hobe; orokorra alegia.

<Lehenengoa> Ulergarriagoa egiten duelako.

Literatura mailan elkarketa-seinaleak gutxitan ikusi ditudalako.

Lerroa marratxoz gehiegi kargatzea ez dut atsegin. Hitza bi lerrotan banatzeko erabiltzen dela ere ezin da ahaztu.

Testu-motak zerikusi handia du. Ulergarritasuna errazten du marratxoak baina, ez al du irakurketa-prozesua zailtzen askotan?

<Lehenengoa> Ulertze kontuetan guztiz mesedegarria suertatzen delako inoiz baino gehiagotan.

Anbiguotasunetik ihes egiteko hobe da marratxoa erabiltzea. Erabat loturik: tradizio eta erabileraren arabera.

Ahal dela, nahiago izaten dut marra gehiegi ez agertzea, baina beti ere testuinguruak hitz elkartuen arteko lotura argi uzten badu.

Elkarketarako euskarak duen joerarekin ez zait beharrezko iruditzen elkarketa agerian jartzen duen zeinu grafikoa ugariegi erabiltzea. Ohiturak eta testuinguruak argitzen dutelako.

<Lehenengoa> Asko errazten duelako irakurtzea.

Ulergarriago marrak; atseginago askotan (testu ez teknikoetan behintzat) bereiz.

<Lehenengoa> Testua ulergarriagoa da, nire eritzirako.

<Lehenengoa> Hain juxtu, ulergarriago eta atseginago gertatzen zaidalako, eta oso kontutan hartzekoa da neure ustez, irakurlea.

Biak onargarriak direlakoan nago.

Jeneralean, ez diot problema handirik ikusten ez batari ez besteari. Marrak batzutan laguntzen du, baina marraz (eta hitz elkartuz) betetako testuak ere astunak izan daitezke.

<Lehenengoa> Irakurtzean hitz bat bezala esan beharra dagoelako eta esaldiaren doinua osoro baldintza lezakeelako edo agian baldintzatzen duelako.

Nire ustetan alferreko den zeinurik erabiltzea atsegin ez zaidalako.

<Lehenengoa> Esaldia hobeto ulertzen –azkar, abiadura normalez– laguntzen duelako.

Beharbada idatzi ahala, irakurtzeko dudan ohituragatik. Ez dut arrazoi finkorik.

Joera bigarrenera, Jakin 60, 65-75 orr. gehiegikeria iruditzen zait, batzutan hala ere, beharrezkoa agerian jartzea.

<Lehenengoa> Ulergarritasuna errazten duelakoan.

Segun eta, izan ere, sarritan oso nabarmen baitago bi osagaiak elkarrekin doazela, nahiz eta bereizirik eta marratxorik gabe idatzi. Hdb: "Ogi puska batekin nahikoa dut" (bereizirik nik normalean).

Baina ez inolako seinalerik gabea. Beharrezko dela erabaki den kasuetan marra espero dut.

<Bigarrena> Hizkuntzaren alde estetikoa, lehen aipatu ez badut ere, oso garrantzitsua delako hizkuntza idatzian.

<Bigarrena> Ulergarria baldin bada bederen arrazago iruditzen zaidalako.

<Lehenengoa> Elkarketa-seinalerik gabekoek, maiz izan ez arren, esanahi bat baino gehiago izan dezaketelako.

Testua marraz edo hitz luzez betetzen denean, astunagoa delako, eta marrarik jarri gabe ere gehienetan testu-inguruak dena argitzen duelako.

Testu hipermarraztatu batek itxura kaxkarra izaten duelako.

Zalantzazko kasuak gutxi izango direlako beti ere eta kontestuak berak argituko dituelako.

Ohitu egin naizelako eta argiagoa eta irakurterrazagoa egiten zaidalako gaur egun.

Ulergarritasunagatik batipat. Bereiz idaztea oztopo gertatzen da zerrendako kasuetan.

<Lehenengoa> Halaxe ohitu naizelako, batez ere. Gainera, uste dut berau dela anbiguitaterako arriskurik txikiena dakarren sistema.

<Lehenengoa> Elkarketa dagoela garbiago adierazten delako.

<Lehenengoa> Hitz bat dela garbiki adierazteko gogoz batikbat.

<Lehenengoa> Irakurleari elkarketa dagoela garbiago adierazten zaiolako.

Ulergarritasuna.

Marratxoa ahal denik eta gutxien erabiltzea dut gogokoen. Behar--beharrezko denean soilik. Gainerakoetan loturik nahiz bereiz.

Hitz elkartuaren batasuna guztiz finkatua egon ez arren, hitz berriak sortzeko, loturik idazteko joera dut egokientzat.

<Lehenengoa> Horixe erabiltzen ohitu naizelako.

<Lehenengoa> Garbiago eta ulergarriago zaidalako.

<Lehenengoa> Nik erabiltzen ditudan testuak ez direlako oso erraz ulertzekoak. Egia esan, literatura arloan, irakurlea neu naizenean, marratxoak enbarazua egiten didate.

Irakurlearentzat ulergarriago da maiz hitz-elkarketa dagoela bistan izatea, hala ere ahal denetan erabat loturik idaztera joko nuke.

<Bigarrena> Begien lana arindu eta goxatzeko.

Dena dela, onartu beharra dago marra asko erabiltzeak testua astun bihur dezakeela; irakurle eta ikasle batzuei entzundako eritzia da hori.

<Lehenengoa> Batabesteen lotura adieraztearren.

Dena den, alderdi estetikotik ahalik eta marratxo gutxien idaztea txukunagoa da; ikuspegi horretatik hitzak bat eginik (h.d. esnebotila) idaztera joko nuke.

Zenbait kontestutan desberdin irakur daitezkeelako: Haren politika arazoak sortzen dituenetarikoa da. Haren politika-arazoak ez zaizkit axola.

<Lehenengoa> Irakurleari elkarketa dagoela garbiago adierazten zaiolako.

Atseginago, seinalerik gabea. Ulergarritasunaren amoreagatik, beti ere izango da argiago seinaleduna.

Halere, jabetzen naiz marratxoaren erabilerak arazo estetikoak sortzen dituela batzuetan.

Euskaraz hitz bakarra delako eta euskararen joera horrelakoa delako.

<edo/eta – eta/edo jarri du; marratxoz ordez marratxoarekin>.

<Lehenengoa> Lehen-lehenik, ohitu egin naizelako horrela irakurtzen eta idazten. Gainera, argigarria da, batez ere testu teknikoetan eta testu bat aldez aurretik ezagutu ez eta ozen irakurri behar denerako.

<Lehenengoa> Kontzeptu posible desberdinak, testuingurutik kanpora ere, hobeto ulertzen laguntzen duelako.

Testua irakurri hala ulertzea gustatzen zaidalako. Hala ere ez naiz marratxo gehiegiren zalea.

<Lehenengoa> Ahoskatzean bat eginak direlakoan ere.

<Lehenengoa> Irakurketa errazten duelako.

Askoz ere airosoago gertatzen zait. Bestela, despistatu egiten naiz: zer dela eta, jarri ote du hemen marratxoa?

<Lehenengoa> Ulerterrazagoa delako.

<Bigarrena> 1) Azken aldi honetan marra gehiegi erabili dugulako. 2) Erabat loturik direnek aldaketa fonetikoak eskatzen dituztelako.

Osagaiek bat egiten badute, zuzenena dirudi "batasun" hori agertzea.

Gauzak ulertzeak ustezko estetikak (agian erdal estetika) baino garrantzi handiagoa duelako.

<Lehenengoa> Baina ez beti.

Berez seinalerik gabe edo seinale gutxirekin egiten zait errazago, baina batzuetan intuizioak edo ohiturak marratxoa eskatzen dizu: seme-alabak, handi-handia...

<Erantzunik ez> Ez da erraza bereizten; testuinguruaren arabera dago hori, eta zertara ohitu garen.

Ulerterrazagoa da; baina ohizko hainbat asoziaziotan, marratxoa kenduta ere ez litzateke ezer gertatuko. Marratxokeriak prusianismo-itxura du.

<Bigarrena> Zihurtasuna eskeintzen dit.

Argiagoa delako hitzen arteko harremana eta horrek ulermena errezten du.

Behin irakurrita ulertzen delako. Seinalerik ez dagoenean batzuetan oso zaila (zenbaitetan ezinezkoa) da zehatz-mehatz ulertzea.

Sarritan esaldia bukatu arte ez da ikusten osagaien arteko lotura, bi aldiz irakurri beharra ere gertatzen da.

<Lehenengoa> Ohituraz. Dena dela galdera hau oso dirjitua da.

<Erantzunik ez> Aukeraketa egitea oso subjetiboa da.

<Lehenengoa> Gaur egun lexikologiaren ikuspegia gainditu irakurle soilarena hartzera iritsi naizelako.

<Lehenengoa> Elkarketari psikologigoki guztiz erreal egiten zaidan hiztasuna ematen diolako.

<Lehenengoa> Oraingoz argitasuna eta ulergarritasuna oso beharrezkoak dituelako euskal idazkerak.

<Lehenengoa> Idazlearen mezua dekodifikatzeko orduan errazagoa eta ulergarriagoa delako.

<Lehenengoa> Zehaztasunagatik eta zalantzak ekiditearren.

Ulergarritasuna erreztutzen duena, batzuetan bereziz eta beste batzuetan lotuta.

<Bigarrena> Gehienetan marratxoak erredundantziak iruditu ohi zaizkidalako.

<Bigarrena> Ez dakit.

<Lehenengoa> "Kontzeptu bat, hitz-multzo bat" kriterioaren arauera.

<Lehenengoa> Argitasunagatik.

Ez erabat "seinalerik gabea", baina ez beteegia ere.

Neri loturik garatzea atsegin zait hizkuntza bere erabileraz pedagogia horretan sartzen joanen delako.

<Lehenengoa> Irakurketa bakarraz ondo deskodifikatzeko erraztasun handiagoak eskaintzen dituelako.

Errazago irakurtzen dudalako. Dena den, marratxo gehiegi erabiltzeak edo hitz luzeegiak osatzeak ere zail lezake irakurketa, ez?

Batipat loturik, tonu-multzo bakarra hobeki segurtatzeko.

Ingurunearen arauera: ulergarritasunak eskatzen duenean marratxoa beharrezkoa jotzen dut.

Bereiz idazteak tarteka zehaztasun eza eragiten duelako.

Esan nahi dena errazago asmatzen delako.

<Lehenengoa> Ulergarriagoa izaten zaidalako.

<Lehenengoa> Ulergarriagoa iruditzen zaidalako.

<Lehenengoa> Adierazi nahi dena ulergarriagoa gerta dadin batez ere.

Ulergarritasunagatik.

Ulergarriago bihurtzen bait dira hitzen loturak, dena den antiestetika bihur daiteke dena marratxoz beteta egongo balitz.

<Lehenengoa> Argiago geratzen delako esannahia.

Osagarrien arteko batasuna agerian uzten duen idazkerak dekodifikazioa erraxtu eta gaizkiulertuak murriztu egiten dituelako.

<Bigarrena> (a) Denda eginda ematen zaidalako (Alferrarena). (b) Tontoa ez naizelako eta garaia delako halakotzat har ez nazaten.

<Lehenengoa> Ahozkotasunak eskatzen duen ulergarritasunaren mesedetan.

Bata zein bestea hobesteko arrazoiak egon daitezke (ikus zuen proposamenak edo Joxe Lizarralderenak HABE aldizkarian). Erabaki garbiak egotea nahiko nuke eta denok hortik jo, oraingo nahasia gaindituz.

<Bigarrena> Ohidura. Bestalde, hitzak aski luzeak dira euskaraz berenaz deklinabidearekin. Testo batek ? behar du. Beste mintzairetan ere, haizea, laburrari buruz doa. A.B.: txirrindula-federazioarekilako har emanak !!!lerro erdi bat bada.

<Lehenengoa> Agian euskara berandu ikastearen ondorio izango da. Alemanierazko hitz elkartu luzeek ez didate inolako arazo edo kezkarik sortzen; euskarazkoek, ordea, bai.

<Lehenengoa> Osagaien arteko batasuna agertzeko modurik egokiena delako. Irakurtzeko erarik argiena delako.

Agian, hala ohitu naizelako, baina inongo seinalerik ezean irakurleak haria gal dezke (Ikus "EGUNKARIA").

Ulergarritasunagatik.

<*marratxoz* azpimarratu du>.

Bakoitzarekiko aztertu bear da. Adibidez, "betazal, betile, aratuste, tabar" ondo daude. Baiñan "paper fabrika, ogi puska tabar" ez loturaren bea–rik, gogaya (concepto) naiko argi dago-eta. Adibidez, "ogi ila", baiñan "otila" tabar.

<marratxoz ezabatu du>.

<Lehenengoa> Ulergarritasuna bilatzen dut batez ere.

<Bigarrena> <atseginago azpimarratu du>.

<Lehenengoa> Ulergarritasuna ta argitasuna dauzkadalako oiñarritzat.

Osagaien arteko erlazioa argi utzita (gehienetan nik marratxoz, baina ingurukoen ohiturok [M. Zalbide eta Adurizenak, adibidez] badu eraginik) ulergarritasuna bilatzen dut.

<Lehenengoa> Begietatik hobeto sartzen zaidalako.,

<Lehenengoa> Uniformetasunaren izenean.

<Lehenengoa> Nonbait entzun edo irakurri izan dut, ahaleginean, marratxoak baztertu egin behar genituzkeela hala ere...

Berriz ere,erredakzio kontua dela esango nuke. Ondo erredaktatzen bada, ez da marra askorik behar. Marra asko: makuluak irakurlearentzat edo sentitzen dut.

<Bigarrena> Neuk horrela idazten dudalako.

Bereizirik: "Neska gona motza" neska-gona motza (marratxoz loturik), neska gona motza. "Praile bizar luzea" (bereizirik), praile-bizar luzea (marratxoarekiñ), praile bizarluzea (loturik). "Agure begi bakarra" agure--begi bakarra (loturik) (txertatzeko!), agure begibakarra. Txakur buztan luzea: txakur-buztan luzea —au buztana da. txakur buztanluzea— au txakurra da.

7. Arau berri baten beharrari buruzko oharrak

Bakoitza bere bidetik gabiltzalako; era norbere aukera ere sasoi batetik bestera aldatu egiten delako.

Jendea euskaraz idazterakoan noraezean ibiltzen delako. idaztarauak erreferentzia bat dira eta bete nahi dituenari buruhauste asko kentzen dizkio. Gainera, ortografia, aditza, deklinabidea eta abarrekin bezalaxe, erabilera bateratua lortzen saiatzea komeni dela uste dut.

Askotan gaztelania edo bestelako hizkuntzen eraginez egitura jatorrak ahaztu egiten ditugulako. Kontzeptuak, modu standarrean identifikatzen joateko.

Bateratasun batera iristeko.

Batasuna behar-beharrezkoa delako.

Egunero baunbadaka ibiltzea ez delako oso erosoa...

71koa ez delako gehiegi bete, batzuren ezagutza faltagatik eta besteen marrazaletasunagatik.

1) Garaia delako.

2) Argi-iturri izango delako.

3) Batasunari zor zaiolako.

Behin-betikoz bide bati lotu beharra dugu.

Nork bere kasa jokatzen luzaroan segitzerik ez dagoelako.

Hemen ere batasuna behar dugulako.

Batasunaren premia dugulako.

Dagoen nahaspila txukuntzen lagunduko lukeelako.

Material inprimatuetarako gutxienez jokabidea finkatzea komeni da. Esku izkribuetan ez naiz hain seguru: araua onargarria izango ote publiko orokorraren artean?

Besteak beste argitu edo gomendatzea ere bere eginkizuna delako; bestalde, denok ez, baina askok Euskaltzaindiaren esana oinarri sendotzat dugu. Batasun-beharra handia da.

Eztabaida antzuak, hainbat, ekonomizatzeko.

1. Orain arteko arauak aldatu behar lirateke. 2. Jende gehienarentzat arau ulergaitzak izan litezke.

Ordena jartzeko eta ikasten ari direnei EREDUA azaltzeko.

Edozein delarik ere argibide gertatzen zaigulako.

1) Ulergarritasuna hobetzeko.

2) Gaur egun idazten den liburu-kopuruak ezinbesteko bihurtzen du.

Funtzio berriak lantzen diren neurrian premia nabaria delako.

Aurrekoak ahaztu-samarrak eta utziak daudelako.

Hainbeste denbora ez galtzearren eztabaida antzuetan eta normalizazioa bultzatzeko.

Batera jokatzea itxurosoa da beti ere eta zeri heldua izatea erosoa.

Norberarentzat argigarri izan ohi da. Eta gure kasuan berriz, irakasle lanetan, ikasleen aurrean beharrezko.

Agian, elkarketa batzuetan argitasun handiagoa emango luke, arauarekin batera adibide ugari jarriz gero.

Anarkia hau amaitu beharra dagoelako.

Arau argiak eta errazak eskuratzeko batasunaren bidean.

Dagoen hutsune nabaria eta garrantzi handikoa konpontzeko.

Onartu zein gaitzesteko erreferentzi puntu bat izan dezagun.

Gauzak ahalik eta argien uzteko.

Badelako ordua jadanik.

Idazkera-batasun handiagoa lortzeko eta idazleak izan ohi dituen hainbat zalantza argitzeko.

Guztiok ez bada ere, gehienok batera idatz dezagun.

Erizpideak ezezik pratika bera ere bateratuz joatea komeni zaigu.

Horrelakoak egin behar dituelako Euskaltzaindiak, ezta?

<biak markatu ditu eta galde-zeinua jarri du>.

Batasuneranzko urrats bat gehiago izango litzatekeelako.

Egungo nahasmendutik irten gaitezen eta eredu bat izan dezagun, erizpideak.

Oraingo idazleen lanetan dagoen nahaste-borrastea baztertu eta batasuneranzko urrats bat gehiago litzatekeelako.

Zenbait gidari ukaiteko. Elkarren berri izateko. Batasuna izateko.

Ortografi arauek, zehatzak, eta finkatuak izan behar dutelako.

Saltsa handia dagoelako. Gure lanetan beharrezkoa dugu eta bereziki guk erabiltzen dugun erizpidea oso idazle gutxik erabiltzen dutelako eta horrela behingoz aldatu beharra daukagun ala ez jakingo genukeelako.

Bestela beti zalantzan gabiltza eta erabilera oso ezberdinak daude. Batasuna beti da mesedeko.

Orain artekoa zabalegia delako.

Arau ulergaitzik ez ateratzekotan.

Buruhauste eta denbora-galtze dexente ebitatuko liratekeelako.

On da ulergarritasuna lexikologi irizpideetan oinarritzea. Euskararen onerako izango da.

Hitz elkartuen idazkeran oso joera desberdinak daudelako. Dena dela, arauak emanak ditu, arazoa da ez dituela, ez ditugula, denok errespetatzen. Nire ustez, Euskaltzaindia atzean gelditu zen gai honetan eta eguneratu egin behar lituzke bere erabakiak.

Batasunaren lortzeko.

Formen batasunerako.

Anarkian bizi garelako.

Bide zuzenez eginez gero mesede egin dezakeelako. Baina kaltegarria bide okerrez eginez gero.

Oraingo idazlanetan dagoen nahastea argitzen lagunduko duelako.

Idatzitakoaren irakurketa errazteaz gainera, batasun ortografikoak hala lokatzen duelako.

Batasunari eta pedagogiari begira.

Ez dut komenigarritasuna ukatuko. Hala ere, arau errazagoak ere betetzen ez direla ikusita, ni beldur sikulu-saltsa gehiago nahastuko ote den.

<galde-zeinua jarri du>.

Egungo zalantza eta anarkia-egoera gainditzeko.

Jendeak nola idatzi ez dakielako eta gaur dabilen moduan kalterako besterik ez delako.

Egungo egoera penagarria da. Hitz elkartuak era guztietara idatzita ikusten dira nonahi. Idazle berriek, alfabetatuberriek (eta zaharrok) arau zehatzak behar dituzte (ditugu).

Korronte desberdinak daudenez, norabideak markatzea komeniko litzatekeelako.

Oinarri-oinarrizko kasuetan behintzat hitz elkartuak nola idatzi erabakitzea komeni delako.

Holako hitzak ugaritu egiten direlako.

Gaur egun somatzen den anarkia gutxitzeko.

Puntutxoren bat edo beste (oso gutxi) zehazteko.

Batasunak hori eskatzen duelako.

Batez ere administrazio eta irakaskuntzarako. Nahaspila handia dugu gaur egun.

Jokabide gehiegi ageri direlako.

Batasunik txarrena dispertsiorik onena baino hobea delako eta hori delako, besteak beste, Euskaltzaindiaren egitekoa.

Nahasmendua argitzeko.

Egoera eztabaidagarri edo konfusoetan komenigarria: pentsu-zakua (?); zaku-patata (?); ardo-botila (?); botila-ardoa osorik edan genuen (?)... (botila bat ardo).

<Zergatik? ezabatu du>.

Benetan arau argiak emateko gai izanez gero, komenigarria litzateke bateratasuna lortzeko.

Ezberdintasun handia dagoelako. Lehengoak gogoratzeko, zerbait gehiago zehaztuz, beharbada.

Hizkuntza normaltzeko.

Bakoitzak bere erara egiten duelako eta bateratu beharra dagoelako.

Erizpide fidagarri bat izango nukeelako eta lasai idatzi, beti dudatan ala galdezka ibiltzeko beharrik izan gabe.

Komeni delako oinarrizko puntu hauetan denek berdin jokatzea.

Hor zehar dabiltza ohitura desberdinak bateratzeko.

Izugarrizko nahasketa dagoelako, eta erizpide finkorik ez dagoenez, bakoitzak bere aldetik jotzen du.

Euskalgintzan ari den jendearen kezka handie(ne)tako bat delako.

Hizkuntzaren independentzia eta geroagoko aitzineramendua eta garapena jokuan dagoelako.

Jokamoldeak barreiatuegiak daudelako.

Euskara normalizatu behar delako eta nik neuk behintzat, arau batzuren beharra sentitzen dudalako. Gaur egun euskara idatzian dagoen anarkia ezabatu beharra dago.

Normalizazio-bidean aurreratzeko. Hala ere, gomendio modura egitea eskatuko nioke.

Oinarri teorikoak aztertu dira. Idatzi dutenen joera aztertu da. Gaurko idazleak oroimen historiko baten barruan daude.

Anabasa handi samarra somatzen dudalako idazleen artean.

Lehengoak zenbait kasutan (izen + izen, nagusiki) ez duelako auzia ondo erabakita uzten.

Orain arteko anarkia buka dadin.

Orain arteko arauak zertxobait zehatzago izan daitezen.

Zuek emandako arrazoiekin bat nator, oro har.

Honetan ere batera(tsu) ibiltzea komeni delako.

Batasuna bilatzeko eta normalkuntzaren bidea bilatzeko.

Alferrikako nahaste-borrasteak baztertzearren. Hizkuntzaren irakaskuntzan ikasleak kontzeptuak guztiz argi izan ditzan.

Egun bizi dugun egoera nahasian Euskaltzaindiaren izenak bakarrik lor dezakeelako irizpideak batzea.

Hizkuntzalaritzarako bokaziorik ez dugunontzat oso baliagarri gertatuko litzatekeelako.

Nere ustez, 20 urte iragan eta gero 1971.eko "Idatz arauak" gaurkotasun eta argitasunaren beharrean zeudelako.

Hitz elkartuen erabilera eta idazkera finkatu behar dela nabari da: hizkuntza normalizatua lortzeko, testu-liburu berriak prestatzeko, erizpide zehatzak behar dira.

Arau zehatzen falta nabaria delako komenigarria litzateke hitzarmenez onartutako arauak plazaratzea.

Askotan zalantzak azaltzen zaizkigulako laguntza handia izango litzateke.

Erreferentzia edukiko genuelako.

Idazkera arrunta bateratu dadin.

Abiapuntutzat hartuko banu.

Erizpide baterakoiak izateko.

Hizkuntzaren normalizaziorako oso garrantzitsua jotzen bait dut.

Erizpide normalizatuak egoteak dekodifikazioaren unibokotasuna indartuko lukeelako.

Garaia delako erabakia hartzeko ahalmena duen erakunde bakarrak egin beharrekoak egin eta jakin eraztekoa, normalizatuko bagara!.

<1. eta 2.> Oso beharrezkoa zaigulako.

Oraingo egoera erdi kaotikoa konpon lezakeelako.

Ez dut ikusten zer ekartzen duen ogi-puska idazteak edo ogipuska, ogi puskaren partez.

Idaztean euskaldun guztiok gero eta era bateratuagoan egin dezagun.

Bakoitzak nahi duena eginez ez dugulako aurreratuko. Kaleratu eta betetzea komeni da.

Irratian, denok bide beretik ibiliko bagina, errezago eta txukunago irakurriko genituzke elkarrenak.

Bestela, bakoitza bere aldetik ibiliko litzateke. Eta nahasketa sor daiteke.

Erizpideak batzeko eta eredu bakar bat izateko behin betirako.

Bada garaia! Kaleratu eta "ZABALDU", horretarako komunikabideak erabiliz. Zabalkunde hori luzea eta jarraitua beharko luke izan.

Orokorki komenigarria, oraingo analfabetasuna gainditzeko. Neuretzat pertsonalki oso beharrezkoa, ez dudalako neure bizi guztia euskara idazten ikasten pasa nahi, eta gutxiago idazten asmatzen.

Erakasteko eta ikasteko arauak beharrezkoak dira.

Bidea argituko duena izan daitekelako.

1. Gure arteko eztapada bat gutiago izan dadin!!! Badakit hori ez dela aski.

2. Arau batzu –SINPLEAK– beharrezkoak baitira. Euskara, berez, aski zaila da ikasteko. Ez dezagun ezin idatzizkoa bihur gure arau bihurriekin.

Argibiderik aski eskeiñi lezaketelako arauek, baiña bortxaz ezartzeko indarrik gabe.

Hizkuntza idatzia "eginez" joan dadin. Baina denbora beharko da, askotan.

Egun gertatzen den sakabanatzeari mugak jartzeko.

Hizkuntza normaltzeko.

Gero eta anarkia gehiago ikusten delako erabilkera moeta hauetan.

Batasunaren eta erreztasunaren alde izango delako.

Alor guztietan ERABAT NORMALIZATUA izan dadin gure hizkuntza JITE eta BÇLIABIDE PROPIOAK errespetatuz.

Leengoak gaÇa ongi sakondu gabe egiñak diralako.

Ez dut maite "arau" hitza, persona civilizatuen artean "aholkuak" (consejos) pratikatu behar genituzke.

8. Arau-proposamen berriari buruzko oharrak

<Gehiago landu beharrekoa> Kasu batzuk ikutu gabe geratu direlako (eraskinean ikusi zeintzuk).

<Ez da egokia. Konplikatu eta/edo ilunegia> Idaztarauak edozein euskaldunek ulertu, ikasi eta erabiltzeko modukoak behar lukete izan-.Proposamen berria oso landua eta zehatza da baina euskaldun askok (edo gehienek, hizkuntzari lotutako ikasketak egin ditugunetako asko barne) bete ahal izateko konplikatuegiak iruditzen zaizkit. Ez dut uste batasunerako bide egokiena denik.

Zenbait kasu halere ukitu beharra.

<Gehiago landu beharrekoa> Nahiz eta konplikatu-xamarra izan. Erabilera aldetik "itxiegia" edo "2+2=4" dela esango nuke, eta egon badaude hor esandakoak aparteko nabardurak eta duda-muda linguistikoak...

<Konplikatu eta/edo ilunegia> Ikasi ikas liteke, baina oso zaila da idazterakoan xehetasun guztiak gogoan eduki eta kontuan hartzea (idazle arruntarentzat eta agian euskaltzainentzat).

Marrazaleegia iruditzen zaigu.

Nere ustez marrazaleegia da, eta idazketa nahiz irakurketa astunegia izatea ekar dezake beharrik gabe, euskarazko idazketa eta testugintzan ugaritu eta normalizatu ahala anekdotikoak irudituko bait zaizkigu gaurregun ditugun iluntasun beldurrak eta.

<Konplikatu eta/edo ilunegia> Gramatika asko jakin behar da.

Erizpide garbiduna delako. Halere jenderik gehiena izaeraz alferra da eta edozein aldaketa ere zail zaio. Komunikabideak honetan gogor astindu beharra dago, irudi-sortzaile dira eta.

Nahiz eta berez argudio berberetaz oinarrituz erabaki desberdinak har daitezkeen, hemen aurkezten den arrazonamenduak orohar pisu sendoa du. Nahiz eta kostako den arau hauek betetzea, merezi du gaiak. Batasuna dela gauza zailagoak ikasi ditugu, nahiz eta urteak behar izan.

Ez dut lan hau baloratzeko gaitasunik. Nerea baino erantzun hoberik jasoko al duzue!.

Joera lehenengorako baina formulazioaren didaktikotasuna gehiago zaindu behar litzateke.

Ikaserrazak dirudite.

Orain arte ez bezala, kasorik gehientxuenak (sic) bertan azaltzen bait dira ohar interesgarriak eta arauak emanez.

Ikasi eta bete daiteke baina konplikatua ere bada. Edonola ere, lan txalogarria da, goi mailakoa.

Serioski egina arrazonatuta dagoelako eta ikasi eta bete beharko da ezin baita onartu bakoitzak bere kasa edo intuizioz egitea.

<Gehiago landu beharrekoa> Bakarrik kategoria gramatikalak hartzen dira kontutan, eta ez semantika.

<Konplikatu eta/edo ilunegia> Ilunegitxoa, asko (agian gehiegi) zehazten duelako (nire ustez asko konplikatzeraino, erabilearentzat).

Ongi esplikatua dagoelako.

<konplikatua> <ilunegia ezabatu du>.

Mekanikoki jakiteko gauza asko edo hainbat izan behar delako kontutan.

Ongi esplikatua dagoelako. Agian "1. Sarrera-oharrak" eta "2. Grafiari buruzko arauen..." puntuak luzeegi emanak daude.

Nahiko serioski egina, baina gehiago ere lan daitekeena.

Hasiera batean kosta egingo da, baina hain da beharrezkoa...

Arindu beharrezkoa.

Kasu guztiak kontenplatzen dituelako eta ulergarria delako nire ustez.

Bi akats ikusi ditut: "anai arrebak" adibidea 1.1.3 puntua sartu da, eta Dvanda moduko elkarketa da. Bestetik, "nekatu itxura" ageri da orrialde honetako taulan (1.1.5) eta txostenean "nekatu-itxura" proposatzen da.

Biak erantzun ditut, zeren serioski egina egonik ere puntu bat edo beste eztabaidatzeak ez bailuke kalterik eginen.

1) Azterketa serioaren ondoren egina delako.

2) Ondo zehaztua eta marratxoaren erabilera nahikoa mugatua dagoelako.

Erabilera mailan bereizi behar. Hizkuntz kontuetan jantziak erraz ikas lezake noski, baina euskaldun "arruntarentzat" ilunsko. <Erabilera aldetik: galde-zeinua>.

Niretzat eta ni bezalako askorentzat oso konplikatua. Zaila da alfabetatu arrunt batek hori dena jarraitzea.

<Konplikatu eta/edo ilunegia> Azpimultzo sobera. Marratxoa behar denean bakarrik erabili behar da, testua argitzeko.

Hala ere 1.1.4/1.2.2/1.3.1 multzo bakar batetan aurkez daitezke, edo azalpen argiagoz jaso. Oso ongi oso lexikalizatuen zerrenda.

2. Bete daiteke, baina badu oraindik nahasmendurako arriskurik, "forma bereziko", "izen moduko" ez bait dira arau zehatzak. "Izen modu" bera zergatik da bereiz idatzia?

<Bigarren puntua aldatu du: konplikatu eta zailegia>.

Lan serio eta zehatza da, baina ez praktikoa, idazterakoan ezin zarelako aldiro koadroari begira egon, eta batez ere bere interpretaziorako filologo sakon eta jakintsua izan behar duzulako, eta denok ez gara horraino iristen.

Beste arau batzuk? —esango luke norbaitek. Izatekotan ere, orientabide batzuk hobe, arau zehatzak baiño.

<Konplikatu eta /edo ilunegia —konplikatu samarra eta /edo ilunegia>.

(Ikasi eta bete daiteke, baina aitortu behar dut, hasieran dexente kostatu zitzaidala).

Ez dut esan nahi teoria aldetik hankasartzerik dagoenik, baina azpian dauden hitzen kategoriak bakarrik aztertzeak puntu batzuk airean uzten ditu, beste faktore batzuk ere garrantzia izaten dute ulergarritasunaren aldetik: hitzen luzera, ezaguna den ala ez, anbiguo gertatzen den ala ez...

<Konplikatu... edo ezabatu du>.

Zenbait kasu ilun samarrak iruditzen zaizkigu. Adibidez (Posposizioak, hitz-andana ihartuak, partizipio izen modukoak.

Zenbait puntu agian gehiago landu beharko ditugu.

<Konplikatu eta/edo ilunegia> Bat etorri ez arren serioski egin duzuelako lan.

Edozein euskaldun alfabetatuk ikasi eta erabil dezakeelako.

Zorionak ematea besterik ez dut, eginiko lanagatik. Ondo ikasiko dut.

Oinarri teorikoak aztertu dira. Euskeraz idatzi dutenen joera aztertu da. Euskera mintzatuaren joera ere mesedegarri litzateke.

Arau gehienak aski motibatuak daudelako. Dena dela, batzutan irizpideak ez daude argiegi.

ILUNEGIA ez nuke esango. Akaso KONPLIKATU xamarra, bete behar duena edozein pertsona izando gelako, eta ez ziurrenera hizkuntzalaritzan asko ihardundakoa.

Ikuspuntu teorikoak (gramatikalak) eta praktikoak (erabilmenduaren aldetikoak) ongi betetzen eta batzen dituelako. Ikus OHAR OROKORRAK.

Adibide ugari jartzen dituelako. Hala ere usadiozko salbuespenak jarri beharko lirateke.

Bete daiteke. Aldaketa frango dakar, hala ere.

Edozein hiztun alfabetatuk beregana dezakeelako.

<Konplikatu eta/edo ilunegia> Esango nuke sarrera-oharretan analisia morfologiazkoagoa (gramatikalagoa?) dela eta gero, arauetan, irizpide lexikoak nagusitzen direla...

Halere, ez dut ikusten 1.1.1ekoak lotuta idazteko arrazoirik.

<Gehiago landu beharrekoa> <Konplikatu eta/edo ilunegia> Ez ditut hagitz ongi ezagutzen. Halere, ikusi ditudan neurrian landu beharra eta argitu beharrean aurkitzen ditut.

<Konplikatu eta/edo ilunegia> Egoera desberdin ugari (ugariegi?) hartzen direlako kontutan.

<Konplikatu eta/edo ilunegia> Hizkuntza tresnatzat (eta ez aztergaitzat) dugunontzat konplikatuegiak gerta daitezkeelako.

Sinple, erabilgarria eta aldi berean, osoa delako.

Adibide moduan erabilitako kasuak ongi'lotuak iruditzen zaizkidalako.

Adibide ugari landu dituztelako beste gauzen artean!.

Praktikan azaltzen diren zalantza gehienak argitzen dituelako.

Kasu guztiak kontutan hartzen dituelako eta niri baliogarri gertatu zaizkidan erizpideetatik hurbil dagoelako.

<Konplikatu eta/edo ilunegia> Hizkuntzaren normalizazio prozesuan, arauak erraztera jo behar delako eta praktikotasunari begiratu.

Euskal zentzu eta sena dario, eta egin dutenek eginda, ezin bestela izan, gainera!.

Azalpenetan gramatika ahaztu xamarra dugunoi zaila gertatzen zaigu baina laburpen taulan argi jasotzen da adibideak ere badituelako.

Nahiko landua dagoela iruditzen zait. Lehen arauak argiak dira bainan salbuespenak azaltzerakoan ez.

Ez zaizkit arrotzak gertatu eta funtzionatzen dutenak dira.

Orokorki bederen. Iluntasunak? Arazo iluna ez da argi gelditzen, argi esplikatu arren, eta oharra bera iruditzen zait nahikoa iluna.

Illuna baiño areago, naasgarri gerta daiteke. Bide lagungarritzat, pozik onartzen dut. Itz-elkartze guztiak ez dago, ordea, aurrez erabakita ematerik.

Lan oso ona egin duzuela uste dut. Aurrera! Baina arauok sozializatzea ez da erraza izango; horregatik, bide lagungarriren bat bilatu behar da: "h"-aren zerrenda egin zen bezala, hitz elkartuen kasuan zerbait egin-beharra egongo litzateke... zer, ordea?

<Ikasi eta bete... baina... erantsi du>.

Halaxe iruditu zaidalako, besterik gabe. Dena dela ez fidatu gehiegi nitaz, ez naiz-eta gramatikalaria.

Betikoa: uniformatzeko.

Argia izateaz gain, erraza ere badelako.

Nahiko argi dagoelako eta bete daitekeelako.

Gauza hauk irakur-praktikaren bidez ikasten dira.

9. Puntuz puntuko arau-proposamen berriari oharrak

1.1.3. -a organikoa ez nioke kenduko, gutxienez, "-kuntza" atzizkiari. Beste kasuetan, amore emango nuke beharbada (ikusi eraskin ean azalpen luzeagoa).

1.1.5. "gaztetu gogoa" eta "gaztetu-gogoa" edo "desegin itxura" eta "desegin-itxura" ez dira gauza bera. Gerta liteke, gainera, testuinguruak lehen irakurketan ez argitzea lotura nolakoa den.

<Ikus eranskina>.

Txostenari buruzko erizpideak:

a) Behar-beharrezkoak dira arau hauek.

b) Ongi aztertuta dago gaia.

c) Argiak dira.

d) Behar bada, konplexuegia da, kasuistika ugariegia izateak bazter uztea ekarri lezake.

e) Luzera bete egingo dira eta onuragarri izango direlakoan nago.

Ez det oso argi ikusten menpekotasunezkoak loturik joan beharra. Hala ere, onargarria dala uste det. Ongi ulertzen ez detana zera da: abioi inude zergatik ez dan menpetasunezkoekin batera sartzen.

Beste ohar batzuk "Hitz elkartuen idazkera-proposamena"z:

1) 2. orrian: "Cafetería Irimo kafetegia". Agian, hizkuntzari bakarrik begiraturik ondo; baina, euskararekiko :estimua: sartu nahi bada, gutxienez erdarazkoari adinako kategoria eman beharko., euskarazkoari minuskulaz idatziz: "Cafetería Irimo Kafetegia". Are, nik neuk hau hobetsiko: "Cafetería IRIMO KAFETEGIA".

2) 2. orrian: "ehortz egin". Zergatik bereizirik?

– Hor bertan: "jarleku", "jaiotetxe"...

– Azkuek: "ehorztoki".

Kasu hau ez dator 1.1.4eko salbuespenen kasuan.

3) 3. orrian: (2 ataltxoan).

– "ezinegona".

– "argibide".

– "sasiarte".

a) "ezinegona" ala "ezin egona"? "Ezin", izena? Kasu honetan, "hitz egin" bezala.

b) "sasiarte"? (ik. 1.1.1.) "etxe-inguru" bezala ez?

4) 6. orrian: (1.1.3).

– "eliz kantak" baina "elizgizon". Zergatik? Badirudi, biek batera beharko luketela.

5) 6. orrian: -"erre berri", "jan zahar", "ikasi berri" a) ongi derizkiot aparte idazteari; baina gauza bera aplikatu beharko litzaieke 1.1.5ekoei ere: "aspertu itxura", e.a.

b) dena den, arau honen aurka, aski sartu: "hasiberri; beraz nire "ongi derizkiot" hori erlatibizatu egin beharko litzateke; ez ote aplikagarri "galdeketari" emandako erantzuna: 5. orrian 1.1.1. oharra.

<Oharren zenbakiak egokitu egin ditut.>.

1.2.1 puntuko guztiak ez, baina hitzegin, hitzartu, hitzeman etabarretan loturik idatziko nituzke.

Hitz andana ihartuei buruz esaten dena hitz elkartu orori ere hor nonbait gertatzen zaio denboraren poderioz. Marratxoa iraganbide bat besterik ez da, gehienetan. Nik kasu hauetan erabiliko nuke:

1) Bahuvrîhi, Dvanda eta Amreditetan (2 osagaiek atzizki bera hartzen dutenean marratxorik ez? arian-arian?).

2) Idazleak anbiguotasuna aurrikusten duenean.

3) Hitz elkartu ihartu luzeetan (5 silaba edo gehiago).

4) Berrelkarketetan beharko da (horiek behar dute, ezerk behar izatekotan, arautzea eta marratxoa, nere ustez).

* Azken ohar gisa eta kuriositate bezala badarik ere balioko duelakoan, hona oso lexikalizatuen zerrendako hitzen silaba-kopuru azterketa:

2 silabakoak % 2.

3 silabakoak % 37.

4 silabakoak % 52.

5 silabakoak % 7.

6 silabakoak % 0'7.

<1.1.1> bereiz baina -a organikoa eta guzti (Hau ez dator bat nere gaur eguneko ohiturekin, baina horixe litzateke argi eta praktikoena, nere ustez).

<1.1.4> bereiz baina ihartu ahala lotuta edo luzeak marratxoz (5 silaba edo gehiagokoak).

<1.2.2> adibide denak ihartuak dira.

<8. puntuan, eta/edo ilunegia ezabatu du>: erabilera aldetik konplikatu.

Proposamena ona iruditzen zait, baina betetzeko oso zaila. Gauden egoeran egonda, eskolaumeek edo alfabetatzen direnek zehastasun eta bereizketa guzti horiek ikasi beharra gehiegizkoa iruditzen zait. Hortan gabiltzanok ikasi behar ditugu eta ikasiko ditugu baina, noraino heda daiteke?

Teoria aldetik hau bezain serioa ez bada ere, ondo ikusiko nuke arau sinpleagoak ematea.

1.1.5.-eko adibideak ez datoz bat 'partizipio + izen' modukoentzat prestaturiko idazkera-proposamenarekin.

1.1.3: "a" organikoa duten hitz zahar batzuek fonema hori galdu egiten dutela diozue. Hori egia bada ere, ezin esan egia osoa denik. Bateko zein besteko joerak direla eta, ez dago kontu hau ere arautzerik? Guztiz komenigarria litzateke guztiontzat.

1.1.5 partizipio + izen modukoak, adibidez nekatu itxura jorratu premia taulan horrela agertzen dira, baina teorian marratxoaz dituzue. Uste dut okerren bat izango zenutela.

<1.1.5> kontuz honekin.

<1.1.5> erne! adibideak ez daude arauen gisa idatzita. <marratxoak berak gehitu ditu> nekatu-itxura, jorratu-premia, gaztetu-gogo, harrapatu--arrisku.

<ikus eskutitza>.

<1.1.5> *Horrela daude ongi eta ez txostenean (7. or.).

<ikus eskutitza>.

1) 1.1.3: hizkuntza-politika ere onartuta geratuko litzateke? Komeni, nere ustez: esplizituki esan behar nonbait.

2) 'Marranoa' izan naiz aspaldidanik: baina bildur naiz arau horiek ezartzeak a) onarpen-arazoa eta b) ikasarazoa ekar ditzakeela.

3) Araua ematekotan mesedez zerrendatu ere argi batean zeintzu diren baztertzen diren formak (Euskara Zerbitzuak EBEDE liburuak egin duen bezala).

4) Bide batez, argitu mesedez honako hauek: a) orain arte honela idatzi dut: -Euskara Zerbitzua; EUSKARA-ZERBITZU; Euskara-zerbitzu. b) Nola jokatu honelako kasuetan: izen-izen eta -izen / izen- eta izen--izen ALA izen-izen eta izen/izen eta izen-izen.

<Konplikatu eta/edo ilunegia ezabatu du, eta horren ordez> Konplikatu egia.

<Ikus ohartxoak>.

Teoria aldetik guztiz koherentea dena IKUSPEGI PEDAGOGIKOZ jantzi beharko litzateke: arauak ikasterrazak izan daitezen eta, batez ere, ulergarritasuna izan dadin arau-emailearen helburua.

Proposamen hauek zuzen eta egokiak iruditzen zaizkit. Baina lehen kasuan, bederen, eta agian beste batzutan, tradizioa kontutan hartzea komeni dela uste dut. Azken batean, hizkuntz arauak ematerakoan malgutasuna beharrezkoa dela esango nuke, arrazoi anitz dela medio.

Hori da neure uste apala. Mila esker eritzia eskatzeagatik. Metodo hau bestelako Euskaltzaindiaren erabakimenetarako arras egokia eta kontutan hartzekoa duzue.

Puntu zailena marrarena dela esango nuke, bereziki 1.1.1, 1.1.3 eta 1.4 motetan. Joera desberdinak izan dira orain artean, baina nik ez dut hori problema handitzat hartu. Problema agian, arau hauek emandakoan sortuko da: hain da kasuistika irristakorra jende arruntarentzat!

<1.1.5> txostenean marratxoz esan da!!!

* Partizipioa + zahar berri (1.3.2) doinuz eta esamoldez lotuta behar luke niretzat. Arazoa ordea irudiarena da eta batzutan lotura fonetikoena (zahar). Orduan, agian tarteko bideak (marrak) lagun lezake, 2. kasua ere lotzekoa izan liteke baina kasu batzutako fonema-nahasmenduak direla bide, agian marra hobe, 5. abioi-inude nik neuk marrarekin jarriko nuke ez hala izen nagusidunak (Ama Birjina, etab.).

* Proposamena zehatza da eta zehatza den heinean argia. Zailtasuna, sailkapena ondo egiten edo hobeki, zein kasu non sartu jakiten izaten du jendeak eta hor bi arazorekin topo egiten da: gramatika gutxi jakitearekin edo ez jakitearekin (karreradun asko barne) eta gramatika matematika ez izatearekin eta zenbait kasu gramatikoen artean ere eztabaidan egotearekin.

<beste oharrak. Ikus erantzuna>.

Oro har nire jokabidea gidatu duten irizpideak Euskaltzaindia eta praktika izan dira. Bigarren honetan, ohitura, bista, ulergarritasuna... bezalako faktoreak sartzen direla ere kontutan hartzekoak direla esan nahi dut.

<1.4 zure proposamena: lotuta baina ? jarri du>.

1.– Erabat onartzen dut Batzorde honen proposamena, ondo arrazoituta dagoelako.

2.– Neuk ez dut inoiz antzeko alternatibarik prestatu. Eta uste dut badaudela gai honetan askoz ere jaituagoak.

3.– Nahiz eta orain bildur izan proposamen hau benetan erabat beteko den, beharrezkoa da eta merezi du oraingo anarkiari ordena piska bat jartzea. Dena betetzen ez bada ere, merezi izango du ahaleginak.

<1.1.3: marraz markatu du, eta ondoan ez jarri du>.

Ados. Egoki litzateke hala ere arauen formulazioa erraztea.

<1. puntuan ez markatu du, baina galde-zeinuarekin>.

1.1.1. "hiri-gas" holaxe, marratxoarekin erabiliko nuke. "ogi-puxka" berriz, ez dakit, ohiturarik ezagatik edo, xelebra bilatzen dut marratxo batez. Bestalde, "hiri-gas" eta "ogi-puxka" ez ditut saku berean ikusten. Bata kasu erabilia eta bestea nahiko berria eta ez hain egunerokoa.

1.2.1. "hitz-egin" ere, multzo horretan gramatikalki ondo legoke baina berezi egingo nuke nik idazteko orduan. Arrazoia hauxe da: "hitzegin" idatzi behar litzatekeela iruditzen zait normalean; izan ere, gehienean behintzat hitz bat balitz bezala erabili ohi dugu; honela: "hitzegin genuen", "hitzegin zazu ba orain!" edo "hitzegiteagatik ez zaik ezer pasako".

Hala ere, inoiz hala nahi izanda, hitz hori azpimarratu behar banu, orduan agian bai.

Adb. "hitz egin behar da hemen ikasiko bada" ("Hitz egin" eta ez "ixilik egon", esan nahien).

Bestalde, ez dut uste "min hartu", "barre eragin", "lur-hartu" eta gisakoekin parekatzerik dagoenik, hitzezko katean beinepein, ez baita esaten "minhartu du" baizik eta "min hartu" "barre eragin zizun" eta "abioiak lur hartu zuen" eta "hildakoari atzo eman zioten lur", "lur eman zioten".

Gainera, ikasgelara begira, irakurketan eta, ikasleek etena egiteko ohitura dute, idatzi erara, nere iritzirako honek moteltasuna damakolarik espresioari; honela: "hitz egin zuten elkarrekin".

Multzo honetan "elkar hizketa" bereizirik idaztzi beharra gomendatzeak ere dezente harritzen nau beste hainbeste gertatzen baita. Beraz, nik neuk, biak ere elkartuta idatziko nituzke.

1.3.1. Lokeren "ikasterraz"ez al da aproposago?

Hau dela eta ERAZI/ARAZI EGArako ortografia liburuetan ere ez du esaten zer egin aditz erroa "s"z azaltzen denean. Nere ustez "r" batez amaitzen denean bezala jokatu behar du baina hau falta da; oilegla, "jos erazi" edo "josterazi", araurik ezta ordea agertzen.

* Azken oharra zera dela eta hor azalpenetan 3garren orrialdean "d" zailan esaten du nola "*eul-" ez duela inoiz emango "euri"tik, edo hori da behintzat nik ulertu dudana. Benetan harritu nau horrek! Geuk gutxi esan ohi badugu ere guraso eta auzoko zaharrek behin baino gehiagotan aditu baitiet "euleune". Urrutira joan gabe joan den Aste Santu aurreko bi-hiru egun horrek ziren "euleunek" "euri-egunek" eta eulirik gutxiena orduantxe ibiltzen da, euria ordea, gutxi-asko geratzeke ez du santu guztia.

HITZEGIN lotuta idatz daitekeela uste dut, ALDEGIN bezala eta horrela bizkaitarrok, batez ere, asmatzen ditugun bitxikeriak desagertuko lirateke: "Horrek berba asko egiten du" = *"Horrek hitz asko egiten du" edo honen antzekoak. Bereiz idazteko markatu ditudanetan ez dut marraren beharrik ikusten, ez dut uste marra gabe ilun geratzen direnik.

<7. puntuan berri gehitu du>.

1.1.1 moduko elkarketak, % 90etan ederki ulertzen dira marrarik gabe. Maizen suertatzen den hitz elkarketa denez, eta batez ere testu teknikoetan, zinez irakurgaitz gelditukо lirateke marra paratu behar izanez gero. Nik duda gertatzen ahal den kasu urrietan baizik ez nuke erabiliko.

<1.1.4 galde-zeinua markatu du>.

1. Argitu beharko litzateke zer egin behar den edo zer komeni den elkarketaren lehenbiziko hitzak -a organikoa duenean.

Noiz ken daitekeen -a itsatsia.

Noiz ez.

Noiz jarri behar den marra / noiz bereiz.

—Hizkuntza Eskola, Kultur Etxea, baina Informatika Zentrua, Zein da erizpidea? Estetikoa, fonetikoa...?

2. Lehenago esan bezala, marra kentzearen aldeko joera nagusitzen ari da gure artean, jakina, Euskaltzaindiak ezarritako kasuetan salbu.

<1.1.4 eta 1.4 galde-zeinua>.

1.1. mota honetako elkarketetan marra alferrikakoa iruditzen zait. A organikoa dutenetan anbiguitatea apurtzeko komenigarria iruditzen zait marra erabiltzea. Gainerakoetan kentzea hobe.

1.1.5.– ERNE! Txostenean marratxoarekin proposatzen dira eta hemen berriz gabe. Nik neuk nahiago nituzke gabe.

1.2.1.– Dena dela, salbuespen batzuk egingo nituzke fosilizaturik dauden zenbait hitzetan: HITZEGIN, HOTSEGIN, HUTSEGIN, HITZEMAN?

1.1.4 puntuan araua oso gogorra egiten zait: iraitz, dasta, edo beste aditz-erro batzuekin.

* 1.3.2.an marraz lotuta propoatzen dut, ohituraz horrela egin dudala uste bait dut (jaioberri, hasiberri).

* 5. puntuan zalantza eduki izan dut beti, abioi inude modukoekin. Ez dut jakiten zer egin.

<1.1.4> bereiz marraz kasuak eta kasuak daude.

1.1.5. Hemen eta erizpideetako 7. orrialdean ezberdin; nik hangoa aukeratuko.

1.3.2. Haur jaio berri? Nik "haur jaioberri" nahiago.

2. Eta "izen + izenondo motako izenak" badira? "Ankabakar" (belarklasea) eta horrelakoak? Nik lotuta nahiago.

– "Hitz-andana ihartuetan" bigarren multzokoetatik datozen eratorriak: "Aitasantutza", "aitasantualdia" idatzi ditugu Erlijio-Hiztegian.

Galdekizuna dagoen bezala dagoela, erraz da 4. nola idazten dituzu... sailean modu batera erantzuten eta 9.ean bestera. Izan ere, tipologia bereko izana ez da nahitaez aski arrazoi bi hitz-elkartu modu berean idazteko. Nik, esate baterako, ez dut arkumeizter hola onartzen, ikusi batera/direnez beste bi osagai ikusi uste duelako batek; aldiz elizdorre ez nuke erabat muzinduko. Berebat, idazmakina bai, onartzen nuke, baina erabileremu ez, bi bider irakurri behar duzulako bi osagaien zatilekua non dagoen asmatzeko. Azkenik 1.1.5 nekatu itxura eta antzeko elkartuak oso berriak, gutxi hedatuak, ez iparraldekoak direla esango nuke. Azken oharra: inkesta izenik gabea izan balitz, hobe ene ustez.

Azpimarratu ditudan adibideetan (ogi-puska, eliz dorre, hitz egin) zalantzak ditut, erizpidearekin ados egon arren.

– "Ogipuska": hitz elkartua izan arren, hitz bakar bezala ere badu bere entitatea...

– "Hitz egin": normalki aparte, bai, baina galdegaiak ez al du zerikusirik? "Nork hitzegin du?" normalago iruditzen zait...

– "Elizdorre": elkarturik idatziko nuke, hitza egina dagoelako edo...

1.1.2 erret dekretu – errege-dekretu nahiago.

1.2.1 hitz egin – 'hitzegin' nahiago, erabat lexikalizatua bait dago, nire ustez.

1.3.1. "ezkonberri" eta "zaharberritu" modukoak ere tipo honetan sartuko al lirateke?

<2. galde-zeinua jarri du>.

Ados nago orohar, bahuvrihietarako zalantza gorabehera.

1.1.1. puntuan (txosteneko 5. orrialdean) "etxe-ingurua miatu zuten" eta "erreka ingurutik" (marrarik gabe posposizioa delako) proposatzen da; batean marraz eta bestean gabe. Ezin al da arau bakarra eman? Nik denetan marra ipiniko nuke posposizio direla kontutan hartu gabe eta guztiok buruhauste gutxiago genuke.

1.1.1. Ez nago ziur. Osagaiak laburrak direnean, loturik ere daitezke, behr bada; baina orduan, idazle bakoitzak erabakiko luke eta arau zehatz objektiboak behar ditugu.

1.1.4. Aurreko puntuan adierazitako arrazoi bera, baina alderantziz: osagaiak luzeeegiak, agian, loturk idazteko...

1.3.2. Ongi deritzoz, baina jaioberri, etorberri entzun nahiz irakurtzen ditut maiz. Salbuespenaz ote dira?

2. Baina asko dira tradizioz loturik erabiltzen direnak: zangoker, sangoluze, zangomotz, buruhandi, sudurluze, ahazabal (hiru hauek Euskaltzaindiaren txostenean ere ageri dira; azkenengoak -o/-a aldakuntza duenez gero, normaltzat hartu behar.

<Ikus erantsitako orriak>.

1.1.4:Lehen adierazi dudan bezala 1.1.4 tipokoek arazoak sortu dizkidate. Lehen ere arau hori erabiltzen nuen, baina gero praktikan ihesi ibiltzen naiz.

6. orriko "anai arrebak" adibidea. Orain arte ez dut kopulatiboetan a organikoa kenduz gidoia eliminatu. Menpekotasunezkoetan bakarrik.

Exozentrikoei buruzko erabakiak harritu egin nau. Ez al da oso arau bitxia? Inork erabiltzen al du horrela?

1.1.4. kasuan, inoiz hitz oso luze eta aldrebesak sor daitezke.Horretatik, bada, nire zalantza.

Hiri-gas, lur-pila, ogi-puska: lotuta.

1.1.1: Lehen esan dudan moduan, bi osagaiak laburrak direnean nahiago izaten dut lotuta idaztea, nahiz eta beti ez dudan betetzen.

1.1.3: Kasu honetan zalantzak izaten ditut "-kuntza"rekin (a.b. trebakuntz eskola / trebakuntza-eskola) eta batez ere "-ola"rekin (a.b. eskola liburua / eskola-liburua; ikastol mundua / ikastola-mundua).

Ez da hor aipatzen proposatzen zaigun hitz lexikalizatuen zerrenda.

Hitz zerrenda hori nehondik ere ez zait beharrezko. Hiztegilarien kondu utz nezake. Ez luke Euskaltzaindiak horraino sartzerik.

1.3.2. baina udaberri, ezkonberri.

<1.2.1 hitz egin markatu du>.

2. ataleko elkarketak lotuta idazteko ohitura nahikoa zabaldun dagoela uste dut. Soinu-topaketa bereziak gertatzen direnean bakarrik idatziko nituzke marraz, 1.1.4. atalean proposatu den bezalaxe.

1.1.1. atalean, goi-, behe-, kanpo- eta barne- marraz idazteko ohitura dagoela uste dut. Horiek ere "azpimarra" bezala lotuta idaztea proposatzen bada, hobe adibideren bat sartzea: "Kanpoarazoetarako ministroa" adibidez.

<Ikus txostena>.

1.1.2: bereiz.

1.1.3: bereiz.

1.1.5: bereiz.

1.2.1: bereiz.

1.3.2: bereiz.

4.: bereiz.

5.: bereiz.

4. berezi.

5. berezi.

6. marraz.

1.2.1. berezi.

1.2.2. lotu.

1.3.1. lotu.

1.1.5. sintagma endozentrikoa egiten dauelako.

1.1.3. a- itsatsi gabekoak direlakotzat hartzeko arriskua dago.

1.1.2. forma ezinat dira giza-, erret-, alkartetik at, beraz elkartea seinalatzen dauenak ez banandu.

1.1.5 puntuan, galdeketa honetan esaten dena eta txostenean esaten dena kontraesanean daude.

"Ama Birjina" eta "Jainko Haurra" moduko elkarketa zaharrak zuek proposatu bezala uztiko nituzke. Alabaina, "abioinude" idatziko nuke; elkarketa berrietan lotzeko joera bultzatuko nuke alegia.

1.1.1: gidoiarekin.

1.1.3: eta ez da beharrezko -a kentzea.

1.2.1: bereizirik marrarik gabe.

1.3.2: etorri-berri.

1.4.: gidoiarekin.

2.: gidoiarekin.

3.: gidoiarekin.

4.: marrarik gabe.

5.: abioi-inude baina Ama Birjina.

6.: marraz.

a) 1.3.2. sailari ohartxo bat egingo nioke. Orohar bereiz idaztearen alde nagoen arren, inoiz ilun geldi daiteke adierazi nahi dena. Hori partizipazioa '-n' kontsonantez bukatzen denean gerta daiteke, 'jan' partizipioa eta 'jan' izena nahas daitezkenean: "haiek ez dira jan zaharrak" jan berriak dira, oraindik orain jan dute versus "jan" = "janari", h.d., ez dira janari zaharrak. Gauza bera 'jan berri'-rekin. Testuinguruak argitu beharko luke, noski.

b) 1.1.5.eko adibideen idazkera eta 'Hitz elkartuen idazkera-proposamena'-k 7. orrialdean dioena ez datoz bat, lehenengoan bereiz bait datoz eta bigarrenean, aldiz, marratxoz lotuta. Eta honela ageri "Hitz elkartuen idazkera"-ren taulan ere, azken taulan, alegia.

c) 1.3.1.-ek aditzoina + izenondo modukoak dio eta 'Hitz elkartuen... proposamena'-k adibideen artean 'irakurrizala' dakar.

<1.3.1. izenondoa – a ezabatu du>.

a) Zuen proposamena arau bihurtzen bada, bete egingo dut, inongo zalantza eta tripakominik gabe.

b) 1.1.1. sailekoak marraz eginez gero –hor dago koxka noski–, berdin egin liteke 1.1.5, argiago izan dadin; eta 5 ere bai, kasu asko eta

askotan ('bonba-kotxe', 'kuartel-etxe') 1.4. tipoaren izaerari ere ez dakit jendeak antzemango dion.

c) 6 tipoaren barruan sar itzazue Euskaltzaindiak "oihartzunezko" deritzenak (zehatz-mehatz) etab.

d) Hitz-andana ihartuen zerrenda agian luzeegi egin ote duzuen.

e) Aipatu beharra duzue zer gertatzen den hiru izenen elkarketekin. Ad: lan-bilera-mahaia?

f) Gure arloan eskertuko genuke arau tipografiko bat, hots: marratxoa lerro bukaeran egokituz gero, hurrengo lerroa ere marratxoz hastea, bestela lotua dela pentsa bai liteke.

g) Teknikan eta beharrezko diren "lan- eta segurtasun-sistimak" bezalakoak ez itzazue arau orokor bihurtu, arren.

1) Ni ia guztiz bat nator zuen proposamenarekin, eta horrela jokatu izan dut gainera. Salbuespen modura-edo, hiruzpalau hitzekin ikusten dut arazoa: hitzegin, aldegin, elkarrizketa, etab. lotuta idazteko joera oso orokorra bait da.

2) Jende askorentzat, marratxoa erabiltzeak irakurketa erraztu egiten duela uste dut, baina neurri handi batean ohitura-kontua da: jendea zenbat eta alfabetatuago, orduan eta behar gutxiago dagoela iruditzen zait. Pixka bat, ingelesez gertatzen den bezala. Sarritan galdetzen diot neure buruari "biharko egunean" hain beharrezkoa izango ote den marratxoa. Bestalde, ukaezina da arazo estetiko dexenteak sortzen dituela zenbait testu-motatan, eta hau ere kontutan izatekoa da. Edonola ere, eta oraingoz, erabiltzearen aldekoa naiz (Euskaltzaindiaren + UZEIren irizpideak jarraitu izan ditut).

3) Zer gertatzen da beste zenbait hitzekin:

* metrobete ala metro bete? ordubete ala ordu bete?

* oinots ala oin-hots.

* urbazter ala ur-bazter.

* mendigain, mendigailur, mendilepo.

Ez ote batzuk hitz elkartu lexikalizatuen zerrendan sartzeko modukoak?

4) Jarrera orokor bezala, niri berdintsu zait Euskaltzaindiak erabaki bat edo bestea hartzea. Alegia, "adituek" erabakitzen dutena nik onartu egingo dut, ez dut eztabaidatzen hasteko joerarik eta zintzo betetzen saiatuko naiz. Beraz, betor lehenbailehen zuen erabakia, zeri jarraitu jakiteko.

<2.an galde-zeinua>.

Posibilidadeak hiru dira ez bi; nahaspila bat egin duzue hortan. Marra nik elementu pedagogiko bezala erabiltzen dut. Neretzat marrak esan nahi du, hitza bakarra dela eta elementuak bistan utzi nahi dituela. Hortik aurrera berdin zait elementuak aditz ala izen diren. Marra ere horren arabera egiten dut jarri ala kendu. Itsas, giza eta holakoak absurdua iruditzen zait banatuta jartzea ez bait dira aurrizki baino gehiago euskaraz.

* Euskaltzaindiako jendeak gutxienez jakin behar luke marraz ez dela ezer idazten, txapelaz inor ibiltzen ez den bezala. Idatzi tintaz edo boligrafoz egiten dela eta gero marrarekin edo gabe idazten direla hitzak, ibili ere txapelarekin ala gabe egiten garenez.

1.1.2: banatuta.

1.1.3.: banatua.

1.1.4.: batzutan lotuta, bestetan marrarekin.

1.1.5.: gaztetu gogo: banatuta.

1.2.1.: batzuk lotuta, besteak banatuta.

1.2.2.: batuta.

1.3.1.: lotuta.

2.: marrarekin eta lotuta.

4.: banatuta eta marrarekin.

5. Ama Birjina batuta, besteak aparte.

6. marrarekin.

<Ikus txostena>.

"Eguzki-lore" motakoen barnean egiten den "leku-denborazko"en bereizketa hori, -n, -ra, -tik eta -ko kasuentzakoa alegia, leku-denborazko posposizioak direla esanez, inola ere irentsezina dela iruditzen zait. Nik ez dut ikusten bereizketarik egin daitekeenik "erretaula-atzetik atera" eta "txaketa-patrikatik atera"ren artean; konposizio soil eta sinple bat besterik ez dago niretzat bi-bietan.

Lur-pila, ogi-puska: lotuta.

Hitz egin: lotuta.

Dena dela, korapilatsua gerta daiteke hau guztia ikasteko, batetik, eta gramatika-kategoria buruzko zalantzak ez dira falta, bestetik. Nola idatz, laburpen honen arabera, "alfer-lan", "euri lanbro", "larru gorritasun",

"goi irakaskuntza", "lo zorro", "baimen eske" etab.? Beharbada, marra 2. eta 3. kasuetarako soilik gomendatzea erosoagoa litzateke...

1.1.4: marraz batzuk.

Arau-proposamenari dagokiola, oro har egokia izanik ere, ez dut uste kasu guztietan berdin joka daitekeenik, nahiz zuek markatutako tipoen artean sail berekoak izan. Adibidez, 1.1.5-n aspertu-itxura eta egosi-puntua nik ere marratxoarekin idatzko nituzke; ez ordea aztertu-beharra eta sendatu-nahia, hemen ez baitut marratxoaren beharrik sumatzen: ohar, bestalde, hitz egin-nahi, min eman-behar eta horrelakoen desegokitasunari (nik uste). Gainera, orain konturatzen naiz 1.1.5-koak hemen (Galdeketan) marratxorik gabe ematen dituzuela, eta idazkera-proposamenean (7 or.) marratxoarekin.

1.1.4: marraz batzuk.

Arazo korapilotsua da hau dena, baina nola edo hala konpondu beharrekoa. Ea modu erraz, praktiko eta sinple batez konpontzea lortzen duzuen (dugun), batez ere eskolumeei eta idazle berriei begira, eta biharko egunez beren komunikazio idatzia euskaraz egingo duten hainbat eta hainbat jende xumeri begira. Ekin gogotik eta eutsi goiari!

1.1.1: hiri-gas–lotuta; lur-pila, ogi-puska, izen-zerrenda, liburu-azoka–bereiz; txirrindularitza-federazio –(?).

1.1.2: giza odol, euskal hitz, itsas lege – marraz; errege dekretu –lotuta.

1.1.3: bereiz.

1.2.1: hitz egin –lotuta.

1.3.1. ikaserraz – ikasterraz.

1.3.2.: ondo, baina haur jaioberria.

1.4.: bereiz –kezka.

1.1.1: txirrindularitza-federazio marraz beste guztiak bereiz.

1.1.2: erret dekretu – errege-dekretu.

1.2.1: hitz egin, min eman, lur hartu – lotuta.

1.1.1: lotuta zergatik ez laburrak? Eta bereiz, luzeegiak? (-a dutenak salbu: orduan -) (eta kasu ulergaitzak: -). Eta hau? Politika-, Botanika-, ekonomi liburuak.

1.1.4: Tren moduko hitz luzeak, zatarrak.

1.1.5: "goian aipatu-liburuak oso onak dira".

1.4: laburrak izanez gero, zergatik ez loturik?

Hitz-elkarketa bat, zenbat eta maizago azaldu, errazago ken liteke marratxoa (begiak iraindu gabe betiere).

Mila esker darabiltzuen lanarengatik.

Kontuz 1.1.5. puntuarekin, adibideak gaizki jarriak daude, hor marra tokatzen zaio.

1) 1.1.2 eta 1.1.3 ilun samar gelditzen direla iruditzen zait, lotuta idazten diren forma dexente daude eta. Zergatik "itsas hegazti", baina "itsastxori" (eta beste 17 forma lotuta)?

2) 1.2.3, "erazi"ri dagokiona, lehendik landuta dagoela eta horrela utzi duzue. Hori argitzea posible izango litzateke? Nire ustez ez da batere argia.

3) 1.1.4: lotuta idaztea ondo, baina luzeegia denean marratxoa jartzea tentazio handia izango dela iruditzen zait.

Txostenaren 3. orrian 2. puntuan 1. parrafoan 'edozein euskalduni' baliagarri izateko moduko arauak eman nahi direla jartzen du. 'Edozein euskaldun'ek izerdi ugari bota beharko du: 1. ulertzen, 2. aplikatzen.

Ulertzea zaila bada, horiek denak gogoan hartzeko K dezente behar dira memoria nagusian. Bestalde, ulertu eta ikasita ere, askotan ez dira egoki gertatzen:

– Hitz laburrak eta oso ezagunak direlako eta elkarketa ere primeran gelditzen direlako.

– Luzeagoak direlako lotuta idazteko.

– Ezezaguna delako osagaietakoren bat, etab.

1.1.1 puntuari dagokionez: Gure ustez, nahasgarria izan daiteke posposizioetan marratxoa, hau da, gehiegizko iruditzen zaigu bereizketa hori egitea "etxe-ingurua / etxe ingurutik".

1.1.5 puntuari dagokionez: Gure ustez, hobe litzateke marratxorik gabe jartzea. Nahasgarria gerta bait daiteke "aztertu-beharra", "sendatu-nahia" eta antzekoekin. Adibidez: aztertu beharra dago. Hor, noski ez da marratxorik behar eta izen soila denean bai, zuen erizpideen arabera. Merezi ote du? Bestalde, galdeketan, gure ustez, akats bat dago puntu honi dagokionez, ala? Hitz-andana ihartuei dagokienez, berriz, non dago muga?

1.1.5: ?

1.3.2: baina "jaioberri"?

"Ikasmaterial" etab., aditzoina + izena elkarturik alegia, ondo legoke. Baina aditzoinaren bukaera agian kontutan hartu beharko genuke: "ikas

saio"-rekin edo "erator atzizki" bezalakoekin zer egin? Bi gauza egin daitezke:

1. Jokabide berezia proposatu txistukari edo dardarkarien auzia konpontzeko.

2. Proposamena aldatu eta hauek ere marraz idaztea proposatu.

1.: Elkartzean talde fonetiko pitxiak sortzen direnean, zalantzarik ez, marra ipini behar da.

1.1.2. euskal hitz: tradizioagatik aparte utziko nuke.

1.1.1. txirrindularitza-federazio: inoiz edo behin federakunde hitzarekin bezala marra ere jar liteke.

OHAR OROKOR PARE BAT:

Hona hemen nik neuk proposatuko nukeen SISTIMA BAKUNA:

1) Sortzen den elkarketak mugakizunaren kategoria bera badauka orduan lotuta eta besterik ezean marra (arazoa paretikoa denean).

2) Beste kasu guztiak banaturik.

3) Salbuespenak: zuok proposatu bezala: bahubrîhiak, dvanduak.

4) Edozein arrazoirengatik ihartuak batera.

Orohar oso ondo deritzot proposamenari, zalantza txiki batzu ditudalarik.

<1.1.5., 1.3.2., 2. 5.> Zalantzaz.

Hau mesedegarria da euskerarentzat. Baina arazo larriagoa beste hau da: 'Sestaok gaurkoan asko bota da faltan N. jokalaria: Bizkarzaina = guardaespaldas.

Lumbreras erdiratu du: A.k egindako papera ahaztu gabe! (ETB).

(Literatura sari baten). '... baina ez zela hartara abenituko!

... hauen artean gorputz hartu zuen isiluneak areagotu egiten zuen etsipenaren hedadura.' ... hotzikara batek korritu zion bizkarrezurra.' '...lau emakumezkoak atenditzen zuten mostradorera inguratu zen.'.

Neure zalantzak ditut 1.1.1. sailekoekin. Nolanahi ere, marratxoak anbiguitatea desegin badezake, jartzearen aldeko nintzateke. Gainerakoetan, agian ez.

LUR-PILA, OGI-PUSKA: Gramatikari begiratu ezkero IZEN + IZEN dira, baina determinatzaile-kutsu haundia dute. Ez dut horrela idazteko joera, nahiz eta behar bada araua haustea gazuak gehitxo nahastea izango litzatekeen.

<1.1.1—ogi-puska bereiz; 1.1.4 —ikasmaterial, erabileremu, irakasmetodo, marraz; 1.1.5 – nekatu itxura, marraz; 1.3.1 ikaserraz – ikasterraz jarri du.> <Jorratu premia>: Nik ez nuke gisa horretako adibiderik, asko baikara, horien lekuan jorratzeko premia, gaztetzeko gogoa, harrapatzeko arriskua etab. diogun euskaldunok. Ikasi nahia, etorri beharra adibidez, hobe lirateke. <1.3.2 elaberri eta elazahar gehitu ditu.> <2 arkatz – lapitz jarri du>. <5 inude – unide hobe, unit-era baitu. (unitama)>.

Ez dut garbi ikusten mendi-gaina eta mendi gainean artean egiten den bereizketa, hitz egin eta hitz-egitea bezalakoa litzateke eta. 1.1.4eko adibideak, ene ustez, ez daude zuzen erakuts-txanda (edo erakusteko txanda, hobe) eta irakats-asmo (irakasteko asmo, normalagoa) jarri beharko lirateke eta. Puska, zati edo pare, bestalde ia beti bereiz idatzi izan dira orain arte. Esangura aldetik inoiz nahasterik sortzen ez badute, zergatik marraz idatzi? Adibide zerrendan ohar batzu bidaltzen dizkizuet.

<Ikus adibide-zerrenda>.

1.1.1 eta 1.4 BEREIZ, baina marratxoa aukeran utziz, idazleari testuinguruaren arabera hala deritzonean.

1.1.2: Derrigor aldatu behar? Errege dekretu ezin?

1.1.3: Berezko -a honi derrigor kendu behar?

<Ikus oharrak>.

1.1.2 Ala, marrarik gabe, berezita.

1.1.4 Lotuta.

1.2.2 Lotuta.

1.3.1 Lotuta!

1.4. marraz.

2. ?

3. marraz.

4. aske.

5. aske.

6. marraz.

Ez dut ulertzen "Zure proposamena" sail hori, marraz eta bereiz kontzeptuak erabiliz (izen "berezita" egon daiteke marraz edo marrarik gabe!!

<Ikus txostena>.

1.1.4. ikasmaterial vs. ikas-zaletasun: erabiltzaile arruntarentzat gauzak gehiegi korapilatzea dela iduritzen zait (cf. alem. Ausstellung).

1.2., 1.3.: ez al da errazagoa guztiak berdin idaztea, azken buruan, buruz ikasi beharko diren multzo lexikoak bereiztea baino? Nik lotuta idatziko nituzke fonikoki batzuetan gertatu denarekiko begirunez (itxuraldatu, adib.).

Azkenik, eskatu / proposatuko nizuele zenbaitetan "fonetiko"-ren ordez beste zerbait erabiltzea. Esate baterako, txostenaren 2. orrialdeko, 2. puntuaren bigarren lerroan "aldaketa fonetiko-"ez a hitz egitea baino egokiago litzateke, nere ustez, "hots-aldaketez" hitz egitea besterik gabe. Bestela, zehazkiago, "aldaketa morfo(fo)nologikoez" ari zarete, besteak beste, zuek ondoren ematen dituzuen arrazoiak direla-eta. Alegia, aldaketok ez dira "fonologikoak" ere! Halaber, 8. orrialdeko 31. lerroan, "fonetiko"-ren ordez, nik "foniko" jarriko nuke (edo "fonetiko-fonologiko").

Baldintzak:

1. Osagai bietarik batek behintzat bi silabatik gora ez ditzala izan.

2. Lehen osagaiaren bukaera eta bigarrenan hasiera bokale nahiz kontsonante berberekoak ez daitezela izan.

Guztiz mesedegarria da "LEF" batzordearen lana. Hitz elkartuei buruzko arauak direla eta, ahal den neurrian, sinpletasuna izan dadila nagusi.

OHAR OROKORRAK:

— Hemen aipatzen ez den (txostenean bai, ordea) posposizioen erabileraren ingurukoa jendearenganaino iristeraztea ez dut arras erraz ikusten.

— Beldur naiz jende arruntarentzat hizkuntz ezagupide gehiegisko ez ote den eskatzen edo eragozpenak ez ote diren hortik etorriko.

— Txosteneko 6.ri heltzea ezinbesteko derizkiot. BAZTERREKO OHARRA.

— Lerro bukaera denean, marratxoa errpikatzeko ohitura dagoela dakidan arren, oztopoak sortzen dira zenbait testu-tratamendutan hurrengo lerroko marratxoa aurrera bidaliz. Nerean honela gertatzen da behintzat frankotan. Horretaz?

Horrelako arauak betetzen ditut orain, nire inguruan daudenek horrela egiten baitute. Hala ere, ez naiz hizkuntzaria eta ez dut eritzi pertsonalik. Bakarrik ausartuko naiz hauxe esatera: zenbat eta arau gutxiago, hainbat eta hobeto, hizkuntzariak ez garenontzat behintzat.

2. lotuta? Behintzat Natur Zientzien eremuan, honelako exozentrikoak lotuta idatzi ditugu: zuhaitz hostozabala, izaki zelulabakarra...

5. "Abioi inude" erakoak neuk alderantziz egingo nituzke, eta izan ere, alderantziz egiten ditut. Kasuistika zabala aurkitzen da Natur Zientzietan: ave lira, pajaro mosca, pez martillo, insecto hoja, etab. luzea. Eztabaida luzea merezi du, nire ustez, puntu honek.

Bahuvrihi edo exozentrikoak direlako hitz elkarteen kasuan nahikoa arraro iruditzen zait marraz idaztea. Hala ere, aukeratutako proposamena egokiena dela uste dut.

Ezer baino lehenago, nire eritzia proposamenetatik urrutiagoxe badago ere, erabaki finko bat egongo den momentutik bertatik erabaki horren arauera jokatuko dudala aitortu nahi dut.

Nire ezadostasun-puntu txikiak azaltzearren, hona hemen bi ohar:

Exozentrikoen kasuan, marra erabiltzeak gaur egun gure ikasle askok azaltzen duten joera oker bat indartuko luke; alegia, I + izenondo sekuentzia arrunta dagoenean I + I motako hitz elkartuen idazkera kopiatuz honi ere marraz banatuta idaztea.

Bestalde, LEF batzordearen ereduei jarraituz, marra ugari agertzen zaigu testuetan zehar. Honela ba, seigarren taldearen kasuan, errepikapena intentsifikazioa lortzeko baliabide sintaktiko bat baizik ez denez, eta errepikaturiko hitzen sekuentziaren interpretaziorako marra jartzeak (kasu honetan) inolako errazketarik ekartzen ez duenez, hobe deritzot marrarik gabe idazteari.

Hainbesteko bereizketa egiteak nahastu besterik ez du egiten eta ez dagoen tokian arazoa sortu. Gainera, izen propioen aipamenik ez da egiten eta horiek ere ulerkaitzak direnez marratxoa eskatzen dute.

Ezin da arau erraza behar duena hainbeste konplikatu. Nola adierazi guzti hori eskolumeei? Ohitura kontua da guzti honen atzean dagoena eta irakurtzen nola ohitu, hortxe dago guztia. Herri honetan, zoritxarrez, idazteko gramatikoa izan behar da. (Eritzi pertsonala da oso baina garaia da horrekin amaitzeko.).

Hitzegin, hotsegin.

1.2.1 adibideetan "hitzegin" idatziko nuke baina "min egin" "barre eragin" "lur-hartu".

<1.1.2> bereizia.

Hizkuntzalari ez naizenez gero, ez dagokit proposamenik egitea. Euskaltzaindiak baditu bere espezialistak eta horrela erabakitzen badu, gustoz onartuko ditut han erabakitakoak.

Berriz erraiteko, ez dut ikusten zer ekartzen duen hitz bakar bat egiteak edo 2 hitzen lotzeak. Aldiz argi ikusten dut, irakurtze aldetik, zailtasunak ekartzen dituela.

Transformagaitz – transformagaitzarekilakoa: UF!!!

1.1.4 Aditzoin + izen modukoak nahiko ulergaitzak iruditzen zaizkit batzuk behintzat: IKAS-MATERIAL eta IRAKAS-METODO irakurtzerakoan argiago direla deritzat, lotuta baino.

Hala ere buruan denak ongi gogoratzeko arau desberdin gehiegi iruditzen zaizkit. Zerbait xamurrago eta sinpleagorik asma baledi!

Egokiak iruditzen zaizkit ematen diren arau-proposamenak. Besterik da, betetzen ditudan ala ez! Ez daukat, gainera, irizpide ikasi eta landurik, inolako proposamenik egiten hasteko!

Proposamen batzuekin dudan adostasun eza lehendik ditudan ohiturekin zerikusia dute noski, bestelako arrazoirik gabe.

Adostasuna ez da garrantzitsuena. Euskaltzaindiak badu autoritate eta prestijiorik eredu bat finkatzeko. Idazten dugunok eredu hori hartu beharko genuke eta zehatz-mehatz errespetatu. Batasuna eta normalkuntza ditugu beharrezko. Ez, ordea, nork bere kapritxoa. Aurrera!

Erantzun hauek IKASTOLA ALDIZKARIA-ri dagozkio. Bertan parte hartzen dugunon erantzun bezala har ezazue inkesta hau, Jon Basterra eta Zuriñe Mendizabal, hain zuzen.

1.1.5 puntuan marra proposatu da!! Hitz egin: kasu hau ezin dut irentsi! Hitzegin.

1.2.2: Planteamendu teorikoa ondo al dago txostenean?

1.3.2: Lotuta darabilgu: "Erlazain hasiberria".

2. lotuta sarritan ez beti. Argitasunaren arabera (*).

(*) Gogorra litzateke: "abioi fuselajetetraedrikoa" baina "furgoneta muturmotza" edo "gizon mokofina" edo "sudurluzea" ez dira hain arrotz egiten. Dena dela, lotuta edo marraz, hori argi dago. Marrak ez dit neri enbarazork egiten.

1.1.4: marraz + ?

1.1.5: marraz + ?

1.2.1: hitz egin. Batzutan "egin" hori "-tu" bezalakoa bihurtzeko joera nuke: ame(t)segin / amesgin / amesgile...

1.3.2: marraz + ?

Beti ikus zer den erresena jente xeheer erakasteko, zer ere haurrek erreskiago ikas dezakeen.

Barka zirriborro hau. Ageri da nere erizpideak ez direla hain zehatzak eta argiak.

Halere, beldur bat bezala badut euskal ortografia gero-ta konplikatuagotuz doala urtetik urtera. Ez dut uste euskararen onetan den. Ortografia baino aise beharragoa litzateke euskal hitz berriak sortzea; eta hortarako batzordeak xutik ezartzea. Bainan hori ez da zuek egin beharra. Barka beraz, eta goresmenak zuen lan sakonaz.

1.1.4: denak marraz, aldagela ezik.

1.2.2: bereiz eta lotuta.

(Esan dizuet ez naizela gramatikaria, eta beraz, badakit nire eginbeharra ez dela zuei aholkuak ematea, zuek erabakitako arauak betetzea baizik... eta animoak ematea ere bai: aurrera, bada, Miren eta Mikel, eta eutsi goiari!

1.1.2: marraz ?

1.1.3: marraz ?

1.3.2: marraz ?

Batean ez beste ados nator zuekin, ikus zuen proposamenetan (5. orrialdean) diozutena: "1.1.5 partizipio + izen modukoak, marratxoz lotuta idatziko ditugu". Hobeto iruditzen zait han diozutena.

Arauak argi samarrak dira eta ez dut uste neke handirik eskatzen diotenik erabiltzaileari; hala ere, egokia litzateke sail bakoitzean maiztasun handienekoak diren hitzen zerrendak argitaratzea, "begietatik" arauak sartzeko, lotuta idazteko proposatu diren hitzen zerrendaren gisara. Bejondeizuela! Lan bikaina!

Nire ikuspegitik —prosa literario-arrunta lantzen dut batez ere—, ez dut marren behar handiegirik ikusten. Sakonean, arazo pragmatiko eta estilistikoak daude guzti honetan nire ustez. Dena den, bai marrak bai hitz elkartuak (izan + izen erakoak, soldadu-multzo eta langile-mugimendu, eguzki-lore baino sarriago) gehiegi erabiltzen dira; eta "inflazio" hori erdaratik datorkigula esango nuke; urrundu nahia batetik (erdal hitzak badira ere, euskal joskera erabili behintzat) eta oharkabea eta etengabe kalkoak eta, areago, gaztelaniazko klixeak erabiliz bestetik behin eta berriz.

Badakit askotan beste erremediorik ez dela; beste askotan ordea erdara (gaztelania) euskarazko hitzetan jarri baino ez dugu egiten.

3. eta 6. puntuetan ez dut ikusten "marra (-)" beharrik, txostenean esaten denez, hitz elkarketa mota hauek euskarak bere bereak izanik, ez baitago zalantzarik, osagaien arteko erlazioari dagokionez. Horregatik, eta gauzak ahalik gehien erraztekotan, nik neuk marrarik gabe idaztea hobetsiko nuke.

1.1.4 [aditzoina] izendu egin behar da: aldatze-gela, ikaste-tresnaak, erabiltze-eremu, irakaskera.

1.1.5 <ikus oharra>.

1.3.2: ¿nola idatzi? Ez dut garbi ikusten.

II. ERASKINA

Euskara Batuko Batzordeko Idazkaria
EUSKALTZAINDIA
Plaza Barria, 15
BILBO

1992-4-15

Xabier Kintana

Jaunak:

Jaso dut *Hitz elkartuen osaera eta idazkera* deritzon txostena. Lan egiaz bikaina iruditu zait bere zehaztasun, ordena eta kasuistika xeheagatik, eta dudarik ez, oso mesedegarria izango da era honetako hitzen grafia behin betiko finkatzeko orduan.

Ba dira, txostenean zehar, puntu batzu, halere, azpimarratu nahi nituzkeenak.

1. *-a* bukaera duten hitzen artean, nik uste, nahasi egiten dira elkarketan hitz batzuk izan dezaketen azken *-a* horren galera *(hizkuntz, hezkuntz, literatur...)* eta beste batzuk elkarketan izaten duten asimilazio edo monoptongazioa. *Hormirudi* hitzean, adibidez, elkarketa ez dator *horm-* + *irudi* -tik, **horm-* zatikia euskaraz gertaezina baita. Errealitatea beste hau da, *horma-irudi* hitza, *hormirudi* izatera pasatzen dela, *hormira (< horma-ira)* "Polypodium vulgare eta P. cambricum" hitz zahar jatorrean bezalaxe, hor, gainera, Mitxelenak aurki-azalduriko *—air—* taldearen bideragarritasunik eza ere kontutan hartzekoa delarik. Beste adibide batzu, *a-i > i* bilakatzearenak hauek dira: *basiko (< basa-iko), basilun (< basa--ilun), basidi (< basa-idi), basilarra (< basa-ilarra), basihiztari (< basa--ihiztari).* Antzeko fenomenoa gertatzen da, *-ae-, -au-* eta *-ao-* taldeekin, guztiotan bigarren osagarriaren hasierako bokala aurreko-*a*-ren gainean ezartzen delarik, ohizko deklinabidean bezalaxe: *neskena (< neska-ena), alabok (< alaba-ok), baseliza, baserri*, basetxe, baserle (baina *basamortu* eta ez **basmortu*, azken *-a* hori kontsonanteen aurrean galtzen ez delako), *basurde, basura (< basa-ura), basoilarra, aitona, aitorde, amona, amorde...*

Hortaz, ez da zertan gaitzetsi behar hizkuntzaren ohizko bokal elkarketaren legea betetzen duen *hormirudi* hitza, are gutxiago *hankutsik* edo *makutsik* modukoak onartzen eta gomendatzen direnean.

Horrelaxe ulertu behar da, nik uste, *eskolume* modukoak. Ongi da, kasu *eskol liburu* bezalakoak ez onartzea, baina *eskolume* edo *eskolaurre* zeharo ezberdinak dira.

2. Hitz elkarteetan azken *-a* galtzeari buruz, ez dirudi zuzena hitz konkretu baten zerrenda ematea, bukaera bereko beste hitz batzu gaitzetsiz. Horrela, *hizkuntza*-tik *hizkuntz arazoak* idatz daitekeela esatea eta *hezkuntza, bereizkuntza* edo *medikuntza*-tik, ordea, *hezkuntza-arloa, bereizkuntza-atalak* edo *medikuntza-arduradunak* egin behar dela ez da inondik ere logikoa. Hobe litzateke, nik uste, *-ia* bukaerako hitzekin egin den bezala, zeintzu atzizkik onartzen duten murrizketa hori eta zeintzuk ez esatea.

Bestalde, *-tura, -dura* atzizkien azken galtzeari muga ezarri nahi bazaie, eta orain artekoak onartu arren *(literatur, kultur, natur)*, hortik aurrerakoak galerazi. Hori, batetik, ez zait erabat gaizki iruditzen, baina usarioan oinarritzen baldin bagara, arrazoi berberagatik onartu beharko lirateke orain arte asko korritu diren *iraultz, hezkuntz, medikuntz* (*hezkuntz arloa* eta *Medikuntz Fakultatea*, gutxienez, urte askotako tradizioa dute).

3. Hiru berbatako hitz elkartuetan *(kale-garbiketa zerbitzua, foru informatika-elkartea...)* mezu-igorleari egiten zaion gomendioa ez zait oso argia iruditzen, ez baita beti erraz jakiten multzoaren muina zein den dena den, ez zait irtenbide errazik bururatzen, eta, inork ezer hoberik proposatu ezean, bego dagoen bezala.

4. **Bahuvrîhiak:**

Ene ustez aski akordio zabala dago hitz-junturan oztoporik ez duten hitzak elkarrekin idazteko orduan, eta, agian, hobe litzateke horiek beti elkarrekin idazteko gomendatzea: *gonamotz, musuzikin, txapeloker.*

5. **Hitz elkarte sintetikoak** (3):

Izen + adjektibo ez direla nabarerazteko, Euskaltzaindiak aurreko gomendioetan esan bezala, ene ustez, gisa honetako tatpurusa hauetan marra gomendatu beharko luke: *kale-garbitzailea, andre-medikua*, etab.

6. **Jarleku modukoak** (10)

Aditzoin + izen hitz elkartuak beti loturik idaztea gomendatzen da. Nik neuk egoki deritzot, baina salbuespen bat egin beharko litzatekeela uste dut. Beti baturik agertzen den hitzak halako osotasuna erakusten du, eta, beraz, hiztegian halaxe agertu beharra dauka.

Ez dirudi, ordea, *jarleku, ibilaldi, sorleku, borragoma, jatetxe* edo *jaioterri* moduko hitz zahar eta aski konkretuak, jadanik *hizkuntzaren ondareko hitz finkatuak* direnak, hiztunak askatasunez edozein unetan

asma ditzakeen *hizketazko hitz* aski arbitrarioekin pareka daitezkeenik: *irakasliburu, irakastasmo, irakastikuspegi, irakasmundu, irakasteredu, irakurliburu, ikasteknika, ikasantolaketa, ikasmaterial, ikaserregela, pintalapitzak, salmerkantziak, mintzapraktika, erosmaterialak...*

Tradizio gabeko hitz hauetan, berezko kontzeptu-batasunik ez dutenez gero, nik uste, hobe litzateke, loturik gabe, marraz uztea: *irakas--liburu, irakaste-ikuspegi, ikas-materialak, ikas-arauak, pinta-lapitzak, eros--materialak...*, hitz-junturan eragozpenik agertzen duten hitzen kasuarekin bat eginez *(eragin-indar, azter-eremu, ibil-leku...)*. Antzeko askatasuna utzi beharko litzateke era berriko eta bat-bateko gabe-dunekin ere *(lotsagabe, arduragabe, burugabe, mugagabe* baina *hipoteka-gabe, proiektu-gabe, titulu--gabe, eskumen-gabe...)*.

Gauza bera gertatzen da *tankera* hitzarekin ere, beti aurreko aditz--erroari loturik idazteko gomendatua: *idaztankera* era jadanik finkatua bat da, baina egiaz uste al dugu *ibiltankera, jantankera, edantankera, egintankera* edo *hegaztankera* moduko hitzek grafia hori behar dutela? Nik neuk behintzat, beren badaezpadakotasunean, *edan-tankera, jan-tankera, ibil--tankera, egin-tankera, hegaz-tankera* proposatuko nituzke, edo are hobeki, *jateko, edateko, ibiltzeko, egiteko, hegaz egiteko... tankera.*

7. **Atributu eta koordinazio-elkarteak** (12):

Koordinazio-elkarteetan aipatzen diren bi adibide *frantses* eta *nafar*, oker ez banago, izenaren aurrean zein atzean jar daitezkeen izenlagun gentilizioak dira, eta beraz atal horretatik ateratzekoak. Bestela, erregela horri kasu eginez gero, era berean idatzi beharko genituzke, esaterako, *amerikar-soldaduak, arabiar-herriak, euskaldun-gizonak, espainol-andreak, baiones-gazteak, frantses-produktuak, aleman-liburuak*, etab.

8. **Tautologi elkarteak** (13):

Ez dut arrazoirik ikusten *jaundone* edo *andredena* (bide batez, *andre dona* jatorragoa eta zaharragoa ez ote?) baturik jartzeko. Alde batetik, ez dago bat ere aldakuntza fonetikorik lotura hori justifikatzeko, eta bestalde, liburu zaharretan eta toponimian *Done* eta *Dona, jaun* eta *andre* gabe agertzen dira *(Donea, Done Meteri, Donemiliaga, Doneztebe, Donostia, Donibane, Donamaria...)*, eta dirudienez hitz biek ez dute zertan elkarrekin nahitaez egon behar; zuzenagoa lirudike, hortaz, *Jaun Done* eta *Andre Dona* idazteak.

9. **Sinbolismo fonetiko eta hots-uztardurak** (16):

Hitz biak elkarrekin idazteko adibide ihartuen artean, nik uste, komeniko litzateke *zirimiri* hitza ere aipatzea, askok, Euskal Telebista barne, maizegi *sirimiri* gisa idazten baitute.

10. **Emendiozko oharrak:**

Ez dakusat *Foru Aldundia* edo *Eusko Jaurlaritza* modukoak marrarik gabe idazteko arrazoia, euskarari dagokionean, ia beti anarkikoki, nahi dutena egiten duten erakunde batzuri nola edo hala aurpegia zuritzeko ez bada. Horrela balitz, horiek egiazko Hizkuntz Akademia batetatik kanpoko arrazoiak lirateke.

11. Hitz elkartuen grafia gomendatzean (11.2.3) *euskal, erdal, giza* eta *itsas* erroez landa, ez da inon aipatzen beste zenbait hitzek elkartze--eratortzeetan izaten duten aldakia: *harri/har-, herr/her-, sagu/sat-, begi/bet-, -argi/art-, ardi/art-, idi/it-, ardo/ardan-, merkatari/merkatal, aizkora/aizkol, balea/balen-, eri/el-, bide/bida-, erle/erla-, lore/lora-, andre/andra-, eme/ema-, -ume/uma-, oso/osa-, asto/asta-, lur/lu-, ur/u(h)-...* horiek kasu batzutan oraindik emankorrak izan arren.

12. **Adibideei buruzko oharrak:**

Bere buruarekin bat etorriz, Euskaltzaindiak ez luke bere adibideen artean jarri behar, berak aurretik emandako arauen aurkako hitzik. Alde horretatik, 1959.eko adierazpenak zioenez, euskal ondareak hitz jatorrak zirenean, ez zen zilegitzat jotzen hitz asmatuetara jotzea. Hortaz, *izen--abizenak* adibidearen lekuan aski litzateke, soil-soilki, *izen-deiturak* uztea.

* * *

Bariante dialektalak ez dira, ene ustez, adibideetan ezarri behar, hitz zabalduenak baizik. Horrelako bat *makutsik* dugu. Aski da hiztegietara jotzea era hedatuena *maukutsik (< mauka-hutsik)* dela ohartzeko, horrela oinarrizko hitza *(mauka)* hobeki errespetatuz. Beste horrenbeste esan daiteke *aitzaki-maitzaki borobiltsun falta, domeka-arratsalde, -ehize, ehize = lagun, eper = kabia, gona = zakur, gain(t)xuritu, gordin = antx, kaltzontzilo hutsik, gerla-manera, etzinaldi* adibideekin, horien literatur forma batuak, oker ez banago, *atxakia, biribiltasun, igande, ehiza, habia, gaintxuritu* (edo *gaintzuritu*), *txakur, antz, galtzontzilo, gerra* eta *etzanaldi* baitira. Horrelako adibideak jartzeak irudi luke Euskaltzaindiak era horiek eredutzat ematen dituela.

* * *

Ez da zuzena, bestalde, oraindik euskaltzain gehienen ametoa ez duten forma bidegabeki gomendatuak edo bitara onartuak hemen era bakarrean sartzea *(iritzi, jardun)*, kalean bestelakoak ere oso bizirik daudenean *(erizkide, erizpide, oneritzi, eritzi-artikulu, iharduera, ihardupide).*

* * *

Bere **Merkatalgo izendegian** *euritako-sailtzaile* eta *euritako-konpontzaile* dakartza Euskaltzaindiak eta ez *aterki-saltzaile*. Era berean, *moldiztegia* da hor gomendatzen den hitza, eta ez *irarkola*.

* * *

Zuzen idatzirik al dago *anai-arrebak*? Bizkaierak euskara batuari ematen dion bistako osotasun eta aberastasuna oraingoan ere bazterturik utzi dela alde batera utzirik ere *(neba-arrebak)*, gomendioak ez du inon esaten kasu hauetan *-a* organikoa kendu beharra dagoenik *(aita-amak, neba-arrebak)*, eta hortaz *anaia-arrebak* idatzi beharko litzateke. Edonola ere, salbuetsi beharko lirateke zenbait elkarketa tradizional eta zahara *(aitamak, aitonamonak, nebarrebak, izebosabak...)*, loturan bokalen bat galtzen denean, baturik idaztea ere onartuz.

* * *

Euskaltzaindian inoiz eztabaidatu ez diren beste forma batzu ere *batipat, behinipehin, mota, isil(ka)-misil(ka), isil-isilik* era bakarrean eskaintzen dira, hor zehar *batik-bat, behinik behin, moeta, ixilik* ere erabiltzen direla kontutan hartu gabe. Gauza bera gertatzen da *Karlos II Burusoil(a)*, zergatik ez *Xarles* edo eta *Karol*?

* * *

Hitz zaharrak eta aspaldian finkatu batzu ez al lirateke hor aparte utzi behar?: *bizimodu, dorretxe, gizotso, etxaurre, etxatze, ezpatadantza, frantsesporruak, herribasoak, heribidea, lanuzte, lurjabe, burujabe, postakutxa(tila)...* adibidez.

* * *

Unibertsitatean behintzat, orain arte erabili den forma bakarra *errektorordea* izan da, eta ez *errektoreorde*, hor *aitorde, amorde, batzorde* (eta ez **batzeorde*) ereduari jarraituz. Gogoan izan Euskaltzaindiak *erreforma-/kontrarreforma* moduko hitzez esandakoa.

* * *

Ene ustez *kotxe (bonba-kotxe)* hitza Euskaltzaindia euskal hitzei buruz azkenik esandakoan sartzen da bete-betean. Espainol hitz hori ez da bat ere internazionala, eta bera onartzekotan, arrazoi berberagatik iparraldeko *buaturra* ere ontzat eman beharko genuke. Hortaz, hobe

auto, automobila hobetsi, *bonba-auto* gomendatuz. Era berean, *austro-hungaro* forma hori euskarazkotzat eskain al daiteke? Askok *austro-hungariar* edo *austro-hungriano* nahiago genuke behintzat.

* * *

Esaera zaharretan *kirola a* organikoduna dela esango nuke *(Gorua garrian eta gogoa kirolan, Astoagaz adi kirolan, ta deik buztanaz bizarrean, RS, 1596)*, nahiz eta gaur askok *kirol* esan. Ez ote litzateke puntu hau behingoz erabaki behar, gomendioak egin baino lehenago? Izan ere, horren arauera grafia bera aldatuko litzateke: *herri = kirol/herri = kirola, kirol = aldizkari/kirol aldizkari.*

* * *

Bi aldiz errepikatzen diren adberbioetan, Bizkaialdeko ohituran behintzat, ez zaie elementu biei atzizkia ezartzen, azkenengoari baizik: *txar-txarto, eder-ederto, polit-polito*, ez al da hori beste euskalkietako era zabalduena ere?

* * *

Hitz egin eta *huts egin* moduko aditzetan duda-marka jarri da. Egia da, aditzen batetan *(aldegin)* osagarri biak beti loturik agertzen direla, baina gainerako aditzetan, Bizkaian behintzat, lotura hori hautsi egiten da ezezko eta galdera-formetan: *ez du hutsik egin, ezin dugu lorik egin, hitzik egin du ala?* Horregatik hobe litzateke, orain arteko usuario nagusiari jarraituz *(lo egin, kaka egin, pixa egin, barre egin...)* hitz biak solte uztea.

* * *

Beharrezkoak al dira ohizko erregelak hausten dituzten *Euskerazaintza, jainkofago* edo *josulagun* modukoak ere adibidetegian gisa jartzea?

* * *

Ba da, noski, *ultrabizkaiera* edo *hiperbizkaiera* deritzona, baina ez letorke gaizki, *maxigipuzkera* gisakorik ere jartzea, aspaldion horixe baita komunikabide batzutatik egunero pairatu behar izaten dugun izurrite nagusia, etengabeko *bailara, pake, borobil, degu, gera, hontan, nere* eta abarrekin.

* * *

Adibideen artean ez letorkiguke gaizki, hor maiztasun gutxiko hitz asko agertzen direnez gero, askotan agertzen diren beste batzu ere, eredu gisa, azaltzea: *Euskal Herria, Agirre lehendakaria kalea, Sabino Arana ibilbidea.*

* * *

Lapsusak: Adibideen artean okertxo batzu ere itzuri dira hor-han--hemenka: *lengile = jende (langile), mendiriz mendi (mendirik), plistsi--plasta (plisti), tabernariz taberna (tabernarik), bizkarzain (bizkartzain), kiskalizale* (?) ongi al dago?

Azken oharra: Hasieran esan bezala, proposamen-lan hau oso ona iruditzen zait, kasuz kasu ongi xeheturik baitago. Hala ere, ez dut kezkarik falta: ez al da korapilatsuegia? Egiaz uste al dugu erraz ulertuko dutela erabiltzaileek? Ez legoke beste modurik, errazago eta sinpletuagorik aurkezteko?

HITZ ELKARTUEN IDAZKERA

1992-IV-14

F. Ondarra

Arazo honetan, kasuistika izugarrian sartzen ari ote garen beldur naiz. Bizialdi osoa irakaskuntzan ibiliak areagotu egiten du ene ikara hori. Ahalik eta gutxiena proposatuko nuke marratxoa. Beraz, bi osagaiak arras bat eginik edo banaturik.

Besterik gabe, ikusi arte.

EUSKARA BATUKO BATZORDEKIDEEI

1992-IV-9

Jose Luis Lizundia

Agur t'erdi!

"Hitz elkartuen osaera eta idazkera" txostena dela eta, hara hor urgazle ohargile gisa aurkezten dizuedan nire zuzenketa.

11. orrian 12.5. eta 13.1.ean biak marrarekin idaztea nahasbide bat deritzot, alegia, ez da gauza bera Abanto-Zierbena eta Vitoria/Gasteiz, batean bi kontzejuk udal bat osotzen dutela adierazten baitu eta bestean, hiri berbera baita, euskal eta erdal izenarekin. Holako kasuetan Onomastika batzordeak gomendatu du, bere garaian kontsultatu ondoren, hots, Donostia/San Sebastián edo Arrasate/Mondragón eta horrelakoetan barra (/) jartzea. Marra (-), beste kasu hauetan: Arratzu-Ubarrundia, Gamiz--Fika, Ezkio-Itsaso eta abar.

Beraz, bereziketa hau aztertu edo berrikusi beharra dagoela uste dut Onomastika batzordearekin hitz eginez, beharrezkoa ikusten baduzue.

Besterik ez, izan ongi.

HITZ ELKARTUEN OSAERA ETA IDAZKERA deitu txostenari egin oharrak

1992-05-22

X. Videgain

Txostenak badituen araudi guziei oharrik egiteko astirik ez gaitasunik ez dudalarik, horra ohar berankorrak pundu bakar batzuren inguruan. Oro har, araudien multzoa sobera konplikatua iduritzen zait bere hartan publikoari aurkeztekotan.

1. Kantifikatzaileak beti marrarik gabe idaztea proposatzen dut eta ez fakultatiboa ere: beraz

amodio pittin
iraupen poxi
jendetasun poxi
ogi apur

eta baita ere

turista multzo
jende andana
zakur andana
(duda badut *mota* kasuan)

Era berdinean idatz nezake:

erbi bihirik ez
eskuara mikorik ez

batere marrarik gabe

2. *Ondo* kasua

gehienetan lexikalizatua delarik, lotuta idaztea hobe dela iduritzen zait:

sagarrondo, sagartze bezala
pikondo, pikotze bezala
etxondo

bizkarrezur ere lotuta

3. Oso zaila egiten du *sendabelar* loturik idazteak eta *ezpata*belar* ez.

Zaila ere profanoarentzat *aste barruan* eta *astebarruko* bereiztea.

4. hitz eman...

bereizten dut: *"ez diot hitzik emaiten"* (samurtu garelakotz), alde batetik eta bestetik *"ez diot hitzeman"*. Azken hau loturik idaztea proposatzen dut. *Hatzeman* beti loturik etabar...

5. *"inozo-plantak"* eta holako ateraldiak ez ditut ulertzen, *sasoi--edade* ere nekez. Eta *salto egin* agertzen bada zergatik ez *jauzi* edo *dauzi egin*?

6. *Lepagorri* gomendatzen bada, *papagorri* ere?

7. *poissonnerie*: bi *n*.

8. *Ehulategi h* batekin.

9. 11. orrialdean, 12.1. punduan dudazkoa da *zerramaz* erraiten dena eta adibide hori zerrendatik ken nezake. Alabainan, zerrama ez da *zerri den ama* baizik eta *zerrien ama* (*zerria* umea delakoan *urde* ez deno).

10. *Kuku* sartzea adibideen artean gehiegikeria da. Bestenez *Kukurruku* eta beste frango sar daitezke.

11. *ardi*haragi* ondoan *ardiki* ager daiteke.

12. *den dena, eder ederra* kasuetan marra ez nezake beharrezkotzat jo.

13. Irtenbiderik baden ez dakit bainan semantikaren aldetik *Labetze--Bizkai* eta *Lakarri-Buztanobi* ez dira gauza bera. Lehena da bi entitatez egin herria, bigarrena Lakarri herrian dagoen edo Lakarri herriak daukan etxea.

LEF BATZORDEAREN IRITZI-AZALPENA

biologi azterketa, pedagogi berrikuntza, ortografi araua, fonologi legea, poesi hizkera, grazi emailea, jakinduri maila, famili harremanak... behar duen, ala *biologia(-)azterketa, pedagogia(-)berrikuntza, ortografia(-)araua, fonologia(-)legea, poesia(-)hizkera, grazia(-)emailea, jakinduria(-)maila, familia(-)harremanak,...;*

SARRERA

Hitz elkartuen osaera eta idazkera berariaz lantzen ari da Euskaltzaindia. LEF batzordearen baitan egin du, lehenik, beharrezko argitze-lana. Eta gero, Euskara Batuko batzordearen bitartez, bere hileroko bilkuretan aztertzen ibili da. Aurreratu samarrik dauka dagoeneko aztertze-lan hori: maiatzeko bilaldian, horrela, puntu bakar bat izan ezik gainerako guztiak onartu eta erabakirik utzi ditu. Ekaineko bileran erabakitzeko gelditu den puntu bakar hori badakizue zein den: hitz batek >ia< amaiera duenean *(teknologia, ortografia, ekonomia, filologia, teoria, poesia, bidaia, familia,...)* zer egin hitz honi beste hitz bat elkartzen zaionean (beste hori atzetik, ez aurretik, eransten zaiolarik noski). Hots, *teknologi berrikuntza, ortografi araua, ekonomi egitura, filologi saila, teori kutsua, poesi mintzaira, bidai agentzia, famili giroa,...* moduan eman, lehen osagaiaren azken >a< hori kendurik, ala *teknologia(-)berrikuntza, ortografia(-)araua, ekonomia(-)egitura, filologia(-)saila, teoria(-)kutsua, poesia(-)mintzaira, bidaia(-)agentzia, familia(-)giroa...* gisa idatzi, hitza oso-osorik mantenduz.

Hiru aukera daude teorian, bistan denez, korapilo hori askatzeko:

a) *Teknologi berrikuntza, ortografi araua, teori kutsua...,* idaztea hautatu, lehen osagaiaren amaierako >a< galduz;

b) *Teknologia(-)berrikuntza, ortografia(-)araua, teoria(-)kutsua...* hobetsi, amaierako >a< galdu gabe;

c) Idazmolde biak ontzat eman: >a<-rekin zein >a< gabe, nahi duenak nahi duen eran idatz dezala.

Alfonso Irigoien euskaltzaina izan da, amaierako >a< hori mantentzearen mesedeak azpimarratuz, b) edo, gutxienez, c) hautabidearen alde lehenik eta izkribuz agertu dena. Ikus, hain zuzen, apirileko bilera ondoko bere *Post scriptum* azalpena. Beste euskaltzainik ere izan da, ipar-ekialdeko euskalki-ohituren aipamena eginaz, iritzi horren alde agertu denik.

Maiatzeko bileran, hiru aukera posible horietatik bira mugatu du Euskaltzaindiak auzia; hots, a) eta c) aukeren artean erabakitzeko utzi du gaia, ekaineko bilaldirako.

LEF batzordea, ezaguna denez, a) hautabidearen alde agertu da hasieratik: *fonologi lege, ortografi arau, ekonomi krisi, famili giro...* idazmolde bakarraren aldea, alegia. Hitzez eta bat-batean eman izan ditu, azken bilera horietan, aukera horren aldeko bere arrazoibideak. Badirudi ahoz esandakoa izkribuz jarri eta Euskaltzaindiari, erabakia hartzerakoan lagungarri gerta dakion, aurkeztea zor diola. Horixe da, hain zuzen, idazki honen xedea.

I. AZTERGAI DUGUN HITZ-ESPARRUA

Hasieratik esana dugu hemen ez garela bukaeran >a< duten hitz guztiez ari, amaieran >ia< dutenez baizik. Bukaera >ia< duten hitzak, berriz, honako bost multzootan sailka daitezke:

a) Euskal hitz "jator"-ak, aspaldidaniko hitz-altxorrekoak: *anaia, egia, aisia, garaitia,...; harrokeria, erokeria, alferkeria,...; zuhurtzia, ausartzia, ahulezia,...; jakinduria, apainduria,...*

b) Mailegu zahar arruntak: *feria, (g)loria, atxakia, komeria, konpainia, kutizia, erromeria, familia, animalia...*

c) Mailegu zahar jasoak: *biblia, liturgia, miserikordia, penitentzia, zeremonia,...; justizia, audientzia, akademia, inteligenzia,...* Elizak (eta, neurri apalagoan, administrazioak) eragin handia izan du, Trentotik honakoan bederen, hitz "jasoago" horiek plazaratzen.

d) Azken aldiko kultur hitzak: *teknologia, mitologia, biologia, filologia,...; ekonomia, astronomia, ergonomia, autonomia,...; biografia, topografia, ortografia, litografia,...; termometria, telemetria, simetria,...; zientzia, zirkunferentzia,...*

e) Leku- eta emakume-izenak: *Espainia, Frantzia, Grezia, India, Mazedonia,...; Maria, Luzia, Klaudia, Zezilia.*

Multzo hauek ez dira, zeharo eta erabat, elkarrengandik bereziak: *pikardia* ("malizia" alegia) b) multzoan sar daiteke adibidez, baina e)

multzoko *Pikardia* hitzaren senide da; bestalde, b) eta c) multzoen arteko muga lausoa da askotan. Eragozpen horiek ohargarriak izanik ere, arazoa zehazteko lagungarri gerta dakiguke sailkapen hori. Kontuan hartzekoak dira, horrela, honako gertakariok:

– Lehen multzoko hitzak izan ezik, gainerako guztiak maileguzkoak dira: zahar edo berri, baina maileguzkoak.

– Bost multzo horietatik azkena, e) delakoa alegia, inoiz gutxitan agertzen da hitz elkarteko lehen osagai gisa. (*India*-tiko *indioiloa* adibidez). Arazoa lehenengo lau multzoetan dago beraz, nagusiki. Laurotan ere ez neurri berean, gainera.

– Ugarienak, gaur egun, c) eta batez ere d) multzokoak dira izan ere. 1950 ingurutik hona, bereziki, *ekologia, elektroteknia, artroskopia, serigrafia, morfonologia, psikoterapia, diglosia*, moduko kultur hitzak ari zaizkigu gero eta sarriago ezpain-lumetaratzen. Eta hitzen ondoan, jakina, hitz-elkarteak: *industri iraultza, demokrazi giroa, teori kutsua, poesi lehiaketa, dialektologi lanak, zirkunferentzi uztaia, simetri ardatza, astronomi bilera, filosofi joera, ekonomi arazoak, autonomi estatutua,...* Euskarazko eskolaketak, unibertsitate mailako akademi jarduna euskaraz bideratzen hasi izanak edota administrazio-atal batzuk eta zenbait komunikabide euskaraz eratu izanak eragin zuzena izan du elkarte-modu horien zabalkunde azkarrean.

Irtenbideak aurkitzerakoan, bidezkoa dirudi ugarienak diren multzo horiek bereziki kontuan hartzea.

II. ZENBAIT ARRAZOIBIDE

LEF batzordea hitz elkartu horiek >a< gabe idaztearen alde agertu izan da. Orain ere, batzuen eta besteen arrazoiak entzun ondoren, iritzi berekoa da funtsean. Lauzpabost arrazoi-ustezko hauek ikusten ditu horretarako.

II.1. Tradizioaren ahula

Esan berri dugunez, d) multzoko hitzak eta hitz-elkarteak 1950etik honakoak ditugu gehienak. Horietan ezin da, beraz, aspaldiko tradizioaz hitz egin: gure artera agertu direnetik nola erabiltzen diren azter dezakegu gehienena ere; ez, ordea, euskal literaturaren bost mendeotan zehar ageri duten betibateko idazmolde finkorik aurkitu.

Tradizioak, inon pisurik izatekotan, a), b) eta c) multzoetako hitz-elkarteetan agertu beharko du bere nagusigoa. Nola jokatu izan dute

gure autore klasikoek era honetako hitz-elkarteak sortzerakoan? Autore zaharrenetan, gipuzkoarrak ez direnetan bereziki, >a<-dun idazkerak pisu nabaria du. Axular batek, esate baterako, *zirimonia suerte, gaixtakeria suerte, animalia suerte, esperientzia falta, iustizia falta* idazten du *Gero*-n (adibide horiek bakarrik aurkitu zaizkio, halere). Gerora ere *paztizeria--usaina, justizia-iduria, espizeria-puxka* moduko idazkera dateke, iparraldean, ohizkoena. Beste hainbeste esan daiteke, bizkaierari gagozkiola, Juan Jose Mogel batek bere *Baserritaar jaquitunaren echeco escolia*-n ageri dituen *carobija ingurubac, modestija pusca bat (seme) jaquiturija baguia...* formez (hor ere, liburua bera >ia< amaierako hitzez josia egon arren, honelako hamar bat hitz-elkarte baizik ez dira ageri).

Arrazoizkoa eta ondo kontuan hartzekoa dirudi beraz, bere batezbestekoan, A. Irigoienen eta beste zenbait euskaltzainen azalpenak. "Bere batezbestekoan" diogu ordea, eta ez osotoro: euskalki horietan bertan ez dira falta, izan ere, kontra-adibideak. Ikus, esate baterako Lhanderen hiztegiko *Indi* sarrera: "var. de *India* en composition *(indiantzara, indioilar, indioilo)*". Edota, hegoaldeari dagokionez, Pedro Antonio Añibarroren "Voces Bascongadas Diferenciales"-ko *gaistaqueri-aguertaria (delator)* modukoak.

Badirudi, ordea, amaierako >ia< horri bere osoan eusteko joera nagusi hura ahulduz joan dela nonnahi. Gipuzkoatik kanpora ere, alegia, amaierako >a< hori galtzeko joera indartu egin bide da: hitz elkartuetan ezezik banan-banakoetan ere bada horren testigantzarik. Bizkaian eta mende honen hasiera aldean hain eragin nabarmena izandako Ebaristo Bustintza "Kirikiño" batek, adibidez, badu horrelako zerbaiten arrastorik: ohizko *-keria (-kerija)* formetatik *kirtenkeri, koipekeri, zorakeri, deungakeri...* modukoetara iragaiten da maiz, eta *Almeria, Andaluzia, Galizia, Serbia, Turkia...* grafien ondoan *Bulgari, Errusi, Errumani...* ageri ditu sarri. Ustez uste gabean gertatu bide da, beregan, bokal-galtze hori: batean *Italia* idazten du, izan ere, eta bestean *Itali*. J. Hiriart-Urrutyk berak, ohitura zaharrari eutsiz gehienetan *alferkeria pixka bat, errabia-hazia* moduan idazten badu ere, tartean-tartean *salbai josteta* (cf. Lhanderen *salbaia*) idazmoldera jotzen du. Bateko eta besteko bide-berritze horrek aurrera jo izan du XX. mende honetan zehar.

Noraino da >ia< amaierako hitzek azkeneko >a< galtzeko joera hori (ez banan-banako hitzetan, hitz-elkarteetan baizik) zabala eta hedatua? LEF batzordearen adibidetegiak, euskalki eta aldi gehienetako hitz elkartuak dakartzalarik, honako proportzio honetan ageri ditu idazkera >a<-dunak eta >a< gabeak:

konpaini burua, bijili eguna, liturgi batzordea modukoak: % 78.

justizia(-)egarria, kontzientzia(-)sortzailea, espizeria(-)puxka modukoak: % 22.

Zenbakiok ezin daitezke, bistan da, epaile nagusitzat hartu. Ez dute, urrundik ere, hartarainoko indarrik. Arras baliogabeak ere ez dira ordea: idazkera-kontu honetan "espaldidaniko tradizioa"ren ahuldadea begien bistaratzeko bederen balio dute, eta ez da gutxi.

II.2. **Gaurko erabilera**

Betitabeko tradizio argi eta garbirik ez baldin badugu ere, gaur eguneko joera behintzat aski bateratua al dugu? Bistan dago ezetz: EEBS-ren emaitzak eskuartean izan arte zenbaki zehatzik ezin eman badaiteke ere, guztiok konturatzen gara batasunik ez dela, gaur-gaurkoz, puntu horretan lortu. *Famili giroa, Autonomi Elkartea* idazten du batek, eta *familia(-)giroa, Autonomia(-)Elkartea* besteak. Kultur hitz berriez osaturiko hitz-elkarteei dagokienez, halere, badirudi joera nagusia >a< gabe idaztekoa dela: *biologi azterketa, ekonomi batzordea, topografi lana, zientzi maila...* Iritziak iritzi badago, nolanahi ere, nekez gezurta daitekeen besterik: azken 25 urteotako ia hiztegi guztiek (eta lehenagokoek ere bai, Plazido Mujikarena lekuko) amaierako >a< gabe ematen dituzte hitz horiek, elkarketako lehen osagai gisa dihardutenean.

II.3. **Euskaltzaindiaren 1968tik honako ibilbidea**

Euskaltzaindiak berak hainbat lexiko-erabaki hartua du azken hogeitaka urte honetan: *Zortzi Urte arteko Ikastola Hiztegia* dela, *Merkatalgo Izendegia* dela, *Filateli Hitzak* direla... Banan-banan aztertu dira Euskaltzaindiak 1968tik egungo egunerarte ofizialki erabaki dituen hitz guztiak. Emaitza, argigarria izan da arras: posposizioak, eratorpen-modukoak eta abar alde batera uzten badira %95 pasatuxean >a< gabe erabaki ditu Euskaltzaindiak hitz-elkarte horiek: *bidai agentzia, diplomazi harremanak, gastronomi elkartea, industri hornikuntza, litografi papera, merkantzi trena, simetri ardatza, zientzi akademia, zirkunferentzi uztaia...*

II.4. **Inkesta-erantzuleen gogoa**

LEF batzordea ez da, >a< gabeko idazkera horren alde agertzerakoan, bere nahikunde hutsean oinarritu izan. Gaur egun halako pisu edo itzala duten idazle, irakasle, administrazioko teknikari eta abarren batezbesteko iritzia jakin ondoren egin du, aitzitik, bere hobespena.

Euskaltzaindiari ezer proposatu aurretik, izan ere, inkesta zabal bat pasa zien euskalgintzan diharduten 263 norbanako edo lantalderi. Galdeketa horrek, beste gauza askoren artean, *filosofi liburu* moduko idazkera

proposatzen zuen lehen osagaia >ia< amaierako hitza den kasuetarako. Eratzule guztien %90,54 ados agertu da proposamen horrekin.

III. LABUR BILDUZ

LEF batzordeak ez lieke goian aipaturiko datu horiei berez duten baino balio-indar handiagorik eman nahi. Erantzun horietatik ezin atera daiteke nahitanahiezko ondoriorik. Duten baino garrantzi txikiagorik ere ez lieke, ordea, aitortu nahi: beren xoil-mugatuan ere aski kontuan hartzekoak direla deritzo.

LEF batzordea ez litzateke, bestalde, puntu hau libre, bakoitzaren aukeran, uztearen aldeko. Joera nagusi bi elkarren lehian daudenean zentzuzkoa iruditzen zaio, eta hala erakutsia du, aukera bata zein bestea libre uztea. Hemen ez dirudi, ordea, halako oreka-egoera batean gaudenik. Eta batasuna, ez bitasuna, bultzatu nahi luke ahaleginean.

Guzti honegatik, Euskaltzaindiak hitz elkartuei buruz jakinaraztekoak dituen gomendio-arauak direla eta, zera proposatzen du LEF batzordeak: bertako I.3. atalaren 1) pasartea oraingo eran mantentzea. Edota, horri gehiegizkoa iritziko balitzaio, orain sortzen diren kultur hitzezko elkarteetan behintza jokabide hori gomendatzea.

Horra, beraz, batzordearen iritzia ahal den argien eta laburrenik azaldu. Euskaltzaindiak du hitza, noski, eta haren zain gelditzen gara: erabakitzen duena erabakitzen duela, badaki jarraikile zintzo izango gaituela.

Donostia, 1992, ekainak 18

LEF batzordea